

Ramón Artola

Sagardoaren
graziya II





Ramon Artola Larrañaga
(Tolosa, 1831; Donostia, 1906)

Nere adiskide maite
On Ramon Artola,
paperetan letu det
illa dagola;
sinisten det zerubak
deituko ziyola,
jakiniik aingeru bat
falta zitzaiola.
Agur, maisu ona,
gure letren onra,
igo zera gora
lagunen ondora;
zutzaz Euskalerriya
oroituko da.

Bederatzi puntuko bertso au Pedro Maria Otañok Ameriketan moldatu zuan, bere lagun miña illa zala jakin zuanean.

«Zutzaz Euskalerriya oroituko da». Orain artean alaxe izan da; eta aurrerantzean ere berdin gerta dedin, bertso-jartzaille jator eta ugari ura iñoiz aaztu ez dezagun, bilduma au eskeintzen diogu irakurleri, atsegingarria izango zaion uste osoan.

Sagardoaren graziya

II

Auspoa Liburutegia

284

Ramon Artola

Sagardoaren graziya
II

Bilketa, argitaralpena, itzaurrea:
Antonio Zavala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Diputatu Nagusiaren Kabinetea. Kultura Zuzendaritza Nagusia
Gabinete del Diputado General. Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2003

ARTOLA LARRAÑAGA, Ramón

Sagardoaren graziya II / Ramon Artola ; bilketa, argitaralpena, itzaurrea, Antonio Zavala. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2003

376 or. : argk., mus. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 284)

Aurkibidea

LG SS 1357-2003 – ISBN 84-7907-292-X

I. Zavala, Antonio II. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed. III. Título. IV. Serie

821.361-1"18"

© Ramon Artola

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

1000 aleko tirada

ISBN: 84-7907-292-X

Legezko Gordailua: SS 1357/03

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Ramon Artola Larrañaga (1831-1906)

Ramon Artola Larrañaga Tolosan jaio zan, 1831-ko abuztuaren 31-n.

Aita, Jose Antonio, Astigarragakoa zuan; ama, Maria Antonia, Tolosakoa.

Aitaren aldeko aiton-amonak, Bernardo Artola eta Maria Migel Etxeandia, biak Astigarragakoak ziran; amaren aldeko aitona, Santos Larrañaga, Tolosakoa; amona, Maria Gamuza, Soraluekoa.

Ez dakigu noiz eta nola aldatu zan Ramon Artola Tolosatik Donostiara bizi izatera. Baiña gazterik, ziur asko.

Ogei ta zazpi urterekin ezkondu zan, 1858-ko azaroan 23-an, Donostiako San Bizenteko elizan. Andregai, Manuela Elizetxea zuan, Lezon jaioa eta Donostian aberats batzuen etxean serbitzen zegoana.

Orduko berri ez dakigu, baiña gero beintzat oso emakume lodia omen zan, eta pixua ainbat grazi eta gatza zuana. Arengandik ekarri omen zuan bere umorea beraren semeak, bataioz Jose zanak eta jendeak Pepe esaten zionak.

Bost seme-alaba ekarri zituzten mundura: Ramon, Franzisko (Pako), Jose (Pepe), Manuel, umetan zortzi urterekin illa, eta Rosario.

Pepe ere, aita bezela, oso bertso-jartzaille oparoa izan zan; eta antzerki eta ipui batzuk ere moldatu zituan. Baiña agertokian, areto batean jende aurrean alegia, antzezleri edo aktore bezela omen zan ura ortik onerakoa.

Rosario ere bein baiño geiagotan saiatu zan bertso gintzan, aldizkarietan-eta bere lanak argitaratuz.

Karlisten bigarren gerratean (1872-1876), aita, Ramon, liberalekin ibili zan, *voluntarios de la libertad* izeneko taldeetan, bere lagun Bilintx bezela.

Ofizioz *linternero* eta *pintorea* zan. Taillerria eta denda *Puyuelo* kalean zeuzkan; gaur *Fermín Calbetón* dan ortan, alegia. Semeak aitaren ogibidea segitu zuten.

Azken egunetaraiño jardun zan lanean. Biotzetik gaixotu eta elizakoak artuta, silloi batean il omen zan, arnasa ezin arturik, bere seme-alaba eta billoba guziak inguruan zirala, 1906-ko abuztuaren 20-an, irurogei ta amabost urte betetzeko amaika egun falta zituala.

A. Z.

Zenbait argibide

Gaurko liburu edo kutxa ontan zer sartu degun adierazi nai nuke oraingo lerro auetan.

Auspoa Liburutegia *Sagardoaren graziya* izeneko liburu batekin asi zan, orain urte-mordoa, 1961-an, Ramon Artolaren bertso-mordoska edo antolojia bat eskeñiz. Ez, iñola ere, aren bertso guziak. Beste asko eta asko kanpoan gelditu ziran leku faltaz.

Urrena, 1995-ean Ramon Artolaren *Ipuiak edo kontutxoak* argitaratu genituan. Ipuiak bertsoan, erderaz *fábulas* edo *apólogos* esaten zaion jeneroa alegia, garai artan indar-indarrean zegoana.

Orain, berriz, egille beraren irugarren liburua plazaratzen degu. Baiña gaurko ontan aren bertso guzien bilduma osatu nai izan degu.

Bertsoak, baiña itz orri euskeraz ematen zaion esanaiarekin. Orregatik, alde batera uzten ditugu bai *ipuiak*, eta bai *izkiriak* eta *ziri-bertsoak* ere.

Auetan zelebrequeri edo txisteren bat kontatzen da, *epigramas* esan oi zaie erderaz, eta egilleen eta irakurleen gustokoak izan ziran garai batean.

Ramon Artolaren bertsoak danak batera eskeintzea onena litzakela aspalditik ikusten genduan. Ori egin aal izateko aukera, *Auspoa* sortaren liburuen neurriak aldatzearekin etorri zitzaigun. Luze-zabalera berriak bertsoak bi illaratan edo zutabetan jartzeko bidea ematen digute. Egin ere alaxe egin degu zenbait liburutan, era ortan millatik gora bertso zenbait aldiz argitaratuz; eta bein bi millatik gora ere bai.

Oraingo ontan Ramon Artolaren bertso guziak biltzen ditugu, beraz, esan bezela, ipuiak (*fábulas*) eta ziri-bertsoak (*epígramas*) alde bat utzita.

Bertso guziak edo, obeto esateko, eskuratu aal izan ditugunak. Bertso geiago izango ditu arek jarriak, gure eskueta-raiño iritxi ez badira ere. Oietako batzuk azalduko dira oraindik ere. Guk, beintzat, alaxe nai genduke.

Bildutako sail guziak ez-ezik, Artolaren bertsoak kantatzeko erabili izan diran zenbait doiñu ere emen ditu irakurleak. Bertsoengatik esan bezela, ez doiñu guziak, noski, gure eskuetara etorri diranak baizik. Banaka batzuk entzuten dira gaur egunean ere tabernetan-eta, naiz eta bildur naizen euskaldunak bazkal-apalondoetan taldean kantatzeko oitura eder ori galtzen ari geran.

Ramon Artola gazterik asi zan bertso jartzen; 1860 urtea baiño leen, gure iritzirako, artean ogei ta amar urteak bete gabe zeuzkala. 1860 urte ortakoa da *Bedeinkatua izan dedilla sagardoaren graziya* asten dan bertso-sailla. Ortaz baliatu giñan *Auspoa*-ren aurreneko aleari izenburua jartzeko. Ura, leen esan degunez, antolojia bat zan; onako au, berriz, bilduma osoa edo aal izan degun osoena. Ala, antolojia orren bertso guziak ere emen sartu ditugu. Orregatik, gaurko liburuarentzat zertarako izenburu berri baten billa burua nekatu? *Sagardoaren grazia (II)* izan dedilla onen izena ere, leenengo aren segida eta osagarria dan ezkeru.

Bertso-paperetan agertzen zituan Ramon Artolak bere gazte denborako lanak, ortarako garai artan beste biderik etzegoanez.

Bertso-jartzaille zaarren eskolari segitzen zion, beraz; eta, gure iritzirako beintzat, aren bertsorik onenak eta bikaiñenak garai artakoak dira. Oraindik ere erriak kantatzen dituanak ordukoak dira, beintzat; eta orrek zerbait esan naiko du.

Kantua aitatu degun ezker, ez da gaizki etorriko *Sagar-doaren graziya* leenengo liburu aren itzaurrean kontatzen genduan gertaera onera ekartzea:

«1959-garrengo Dagonillaren (Agoztuaren) 9-an giro epel goxoa zegon gabeko amabiak aldian. Tolosa zarra ixilik eta lo zegon. Alako batean, gau-pasazale batzuk kantari asi ziran *Zeru-txiki* deritzaion tabernan. Ara zer ari ziran:

Goizean sartu tabernan eta
ateratzen naiz azkena...

Bertso auk eun urte dituzte, eta, guk dakigunez, iñoiz inprentatu gabeak dira. Eun urteko muga bizi-bizirik igarotzeko, zenbat aldiz kantatu izan ote dira Tolosako –eta Euskalerrri guztiko– taberna-zulo ta sagardotegietan?

Artola pozik egon liteke bere erriko gau-pasazaleen “debozioarekin”. Bañan eun urte osatzean (1860-1960), besterik ez egitea lotsagarria litzake. Ala pentsatu genduan eta ona emen liburu au».

Karlisten azken gerratea (1872-1876) bukatu ondoren, euskeraren aldeko mogimentu bat piztu zan Donostian, Jose Manterolak-eta bultzatuta. Ainbat idazlan eder argitaratu zuan *Euskal-Erria* aldizkaria ere orduan sortu zuten. Literatur-sariketak asi ere bai. Bertso-jartzaille mordoa antxe bildu zan: Ramon Artola, Biktoriano Iraola, Antonio Arzak, Martzelino Soroa, Frantzisko Lopez-Alen, Pedro Maria Otaño, Pepe Artola, Kaietano S. Irure, Felipe Casal Otegi, Ramon Gelbenzu, Alejandro Berroa, Jose Marino Arrieta eta abar eta abar.

Baiña Ramon Artola eta oiek, bertsogintzan bertso-paper jatorren eskolan ikasiak ziranak, gizon eskolatuen iritziak eta aolkuak entzuten asi ziran orduan. Eskolatu oiek, kanpoko *poética* ezagutzen zuten; bertako erri-bertsogintza ez, ordea. Au zanik ere ez dakit zenbateraiño jakingo zuten, baiña ala ere maixu jarri ziran. Besteak, berriz, aien esanak ikasle txintxo

batzuen gisa jaso. Ala, gaiak aldatzen asi ziran, esaldiak dotoretzen, naturalidadea galtzen, Larramendiren garbizalekeriaren itzak erabiltzen eta, itz batean esateko, jatortasuna baztertzen. Bertso zaar batek esaten duana, alegia: «irabazi ustian baleike galtzia».

Bertso-jartzaille bikaiñak ziranak, *olerkari* biurtu ez, itz ori artean asmatu gabe egongo zalako; baiña bai *biursari*, garai artako euskalzaleak esaten zutenez.

Orixe gertatu zitzaion Ramon Artolari. Beti ere bertso onak moldatu zituan; baiña gazte denborakoak obeak zituan azken urteetakoak baiño. Orixe bera gertatu zitzaion Pedro Maria Otañori ere; eta Bilintxek ere okerbide ortan leen pausok emanak zituala esango genduke.

Au dana gure iritzi bat besterik ez da. Bestela pentsatzen duanik ere izango da, noski, «zenbat buru ainbat aburu» esatera zaarrak bere indarra galdu ez badu beintzat.

Ala ere, esku ona langintza guzietan ezagutzen da. Ala, Artola, Otaño eta olakoak, beti ere bertso dotore eta onak boroiltzen zituzten. Gure euskerak bertso-jartzaille oparo eta bikain oiei zenbat zor dien, ez det uste bear bezela konturatzeko geranik.

Ramon Artolak bertsogintza erreza eta gozoa du beti. Indarririk egin gabe sortzen dana, ura iturritik bezela. Euskera ere jator, garbi, dotore eta aberatsa. Poeta ere bada, bai bertso-paper zaarrak eskatzen zuten senarekin, eta bai gizon eskolatu oiek nai zutenarekin. Ala erakusten dute egunsentia, illunabarra, negua, udaberria eta abar kantatzearen arek jarritako saillak.

Danok dakigunez, karlisten bigarren gerrateko denboran (1872-1876) Donostiako liberalak bertso asko jarri eta zabaldu zituzten, euskal jendearen gogoia irabaztearren noski. Olako sail batzuk badira emen ere, Ramon Artolak moldatuak: erituen alde jarritako iru bertso eta *Pakea bear degu* izenda-

tzen diranak. Besteren batzuk ere izango zituan arek, eta guk argitara eman ere bai gerra artako bertsoen bilduman; baiña orduko bertsorik geienak egillearen izenik gabe agertzen ziran, eta guk ezin orain ume oiek beren aitarengana bildu.

Liburu onen azken orrialdeetan, Frantzisko Artola Larrañagaren sail bat aurkituko du irakurleak, *Fueroak* izenekoa. Abizenak salatzen dutenez, Ramon eta biak anaiak ziran. Familiaren belaunaldi artan bi bertso-jartzaille, beraz: Ramon eta Frantzisko; eta urrengoan beste bi; Pepe eta Rosario, Ramonen seme-alabak. Bertsoetarako griña odoletik ekarriko zuan famili arek.

Bein baiño geiagotan esan izan det bertso-jartzailleak beren garaiko eta gizaldiko kronika egiten dutela. Alaxe da Ramon Artolarekin ere. Onek bere bertsoetan denbora aietako Donostia erakusten digu; eta bai ere bertako euskalzaleen belaunaldia. Leen adierazi detanez, euskeraren aldeko leen mugimentua berak piztu zuten gerra ondo artan. Sabino Aranarena gero etorriko zan.

Baiña gizon aiei etzaie merezi dutena aitortu. Bazterturik dauzkagu. Bidegabekeri ori zuzentzeko aien lanak bildu eta argitaratzea izango litzake onena, noski. *Auspoa* ortan ari da aspalditik, aien idazlanak bildu eta noizbeinka plazaratuz. Ramon Artolaren bertso-liburu onekin bide ortan beste pauso bat ematen degu. Eta «aurrera jarraitzeko asmoetan goaz», Tolosako Gabon-kanta zaar batek dionez.

A. Z.



Ramon Artola Larrañaga.
(Tolosa, 1831; Donostia 1906).



Iglesia de Santa María, en San Sebastián,
sacado de una fotografía de J. Laurent.
(Juan Mañé y Flaquer: *El Oasis, viaje al País de los Fueros*, 1878).

1

Bedeinkatuba izan dedilla
sagardoaren graziya,
bai eta ere kupira gabe
eraten duben guziya;
erari onek gizon askori
ematen dio biziya,
au eran gabe egotia da
neretzat penitentziya.

2

Lenengo sartu tabernan eta
ateratzen naiz azkena,
egun guzian zurrutian da
etzait betetzen barrena;
au da erari maitagarri bat
arras piztutzen naubena,
Joxepa Karmen biotzekoa,
bete amabigarrena.

3

Gosea ez det aundiya bañon
egarriya bai ugari,
nere barrenak naitasunikan
ez diyo berriz urari;
sortzen ditudan koarto pitxarrak
ematen dizkat tripari,
nere denboran biziya kentzen
diot zenbait sagardori.

4

Gaitzik ez duben erari oni
gogoz oi diot nik ekin,
satisfazioz ez naiz arkitzen
pitxar bat eta birekin;
iru edo lau izaten ditut
arratserako nerekin,
tristura eta penak sendatzen
ditut sagardoarekin.

5

Astelena det jai bat artuba
pekatu mortalekotzat,
aste artean bearrerako
gogorik egiten etzat;
asteazkena, ai nere pena,
oso pereza sartzen zat,
modu onetan aste guziya
alperkerian joaten zat.

6

Bartarratsean egin det amets
len egin izan dedana:
tabernatikan irten naizela
txispatu edo edana;
pausorik xuxen egin ezin da
esaten nuben: «Au lana!
Golpatu gabe ez nindeke juan
gaur ni andriarengana».

7

Kupelan dagan sagarduak dit
ematen tentazioa,
prezisamente eran bearra
daukat persekuzioa;
milla deabruz josirikako
orain duben prezioa,
zaleak asko geran medioz
dauka estimazioa.

8

Eranago ta berriz naiago
beti nago egarriyak,
begi bitarte txarrikan ez dit
egiten tabernariyak;
emeretzi len, au ogeigarren,
amar atzo zor utziyak,
markak kupelan egin jaiean
pagatutzeko guziyak.

Jose Manterolaren bildumatik, eskuz idatzitako orri batetik. Beraren alboan onela esaten da: «Ramon Artola-k ipiñiak Donostian, 1860-garren urtean».

Bertso auen aztarrenak toki askotan arkitu ditugu: Tolosa, Ernani, Donosti, Orio, Ondarrabi, Ataun... Baiña bertso guziak iñun ere ez. Eta bigarrena onela kantatzen dute:

Goizian sartu tabernan eta
ateratzen naiz azkena,
egun guzia zurrutian da
etzait betetzen barrena
(*edo ezin zait bete...*);
ai au erari maitagarria
arras poztutzen nabena
(*edo gustatzen...*),
Maria Jesus biotzekua,
bete amaseigarrena.

Gaiñerako aldaketak txikiak dira, eta ez dute aitatzerik merezi.

Auxe izan zan *Auspoa*-ren leendabiziko zenbakian, leendabiziko bertso-sailla, eta liburuari izena eman ziona: *Sagardoaren graziya*, 1/2 lerroan ala esaten danez.

Bertso auen doiñua Erreteriko Makazaga moldiztegiak argitaratu zuan liburuska ontan: *Euskal Erriko Kanta Zarrak, Apéndice musical a los Tomos I y II. 43 Composiciones de Cantos Populares Vascos*. Bertsoen aurretik eskeiñi degu.

(1860)

**Joxeren eta Pantxikaren
erromeriya**



1
Egun eder bat daukat goguan
erromeriyan izana,
maitexoa maitagarriyarekin
festan ibilli nintzana;
lore eder bat ziruriyala
bakarrik nuben arkitu,
eztakit nondik ziran zerubak
aingeru ura argitu.

2
Bidian biyok ginjuazela
galdetzen niyon berari:
maite ninduben biyotzetikan
edo nai ziyon iñori;
erantzun ziran: «Nere biyotza
gordia daukat batentzat;
bat ura nor dan ondo dakizu:
guzti-guztiya zuretzat».

3
Erantzuera pozgarri ura
eman ote ziran ziñez,
istante batez gelditu nintzan
oso sinistu eziñez;
berriturik nik esan zubena
ia egiya ote zan,
juramentuba eskeñi ziran
sinistapena ar nezan.

4
Andik aurrera arkiturikan
satisfaziyo osuan,
ase eziñik jardun genduben
geren izketa gozuan;
festa lekuban ibilli giñan
aingeru biren moduban,
egun oberik ez tet pasatu
jaio ezkeroz munduban.

5
Etxera asi giñan denboran
pozez beterik barrena,
galdetu niyon ia nai zuben
ni izatia arrena;
ark berriz neri: «Baldin zuk ala
nai baldin badezu izan,
nai dezunian alkar artuko
degu betiko elizan».

6
Ura neretzat fiñezan zeguen,
baita ni ere arrentzat,
biyok konforme arkitzen giñan
izateko alkarrentzat;
bañan zeruba erabakiya
nonbait ala etzekarren,
eta ez giñan maitia eta
ni jabe egin alkarren.

Bertso auek Jose Manterolaren bildumatik ditugu, ezkuz idatzitako orri
batetik. Doiñua ere orri beretik artua da.

Auspoa-ren leen zenbakian argitaratu genituan. Doiñurik ez, ordea.

(1862)

Pillotariyak

Donostiako muralla kontra

luzean jokaturako partiduba



1
Partidu bat pillotan
geren kaltian
jokatu degu aurten
jai-goiz batian;
lau lautara giñan asi,
maisubenak irabazi,
galtzalleak obe degu
geiago ikasi.

2
Ai zer pillotariyak
nere lagunak!
Gu gera partiduba
galdu degunak;
batek jotzen ezpazuben,
besteak ikutzen etzuben,
aisa pillotak gugandik
eskapatzen zuben.

3
Gure kontrariyua,
sakalariya,
askok beldurra diyon
jokalariya;
ez gera gauza arentzat,
bera sobra da denentzat,
ezagutuba daukagu
pillotari ontzat.

Euskal Erria, 1888.

Izenburuak dionez, «Donostiako muralla kontra luzean jokaturako partiduba» izan zan ura. Arresi oiek 1863-an bota ziran. Leenagoko bertsoak, beraz. Urte ortan ogei ta amabi urte zituan Ramon Artolak. Pelotarako adin ona artean. Bertso-mota au Xenpelarren *Frantzesaren idea* saillarena da; eta kantatu ere doiñu berarekin egin bear dira. Orregatik, bertsoen aurretik ipiñi degu doiñu ori.

4
Bederatzi jokura
iru ta *treinta*
ginduzen guk atera
oso ler einta;
lau falta ta sei utsegin,
ondo jota ezin kintzegin,
tranpiyan ari al giñan
ziguten otsegin.

5
Esanagati alkarri:
«Or bertan eon ai!»,
pillota ikusi orduko
guziok jo nai.
«Utzi, utzi au neretzat!»,
al zubenak norberetzat,
gutxi jotako penarik
oraindik joan etzat.

Ramon Artola eta Xenpelar, izan ere, garai batekoak dira. Ala, bertso-mota eta doinu oiek ezagunak izango ziran orduan, nork asmatuak diran ez badakigu ere.

La Baskonia, 1913, 702 zenb.

Auspoa 1, 1961.

* * *

Partidu orren beste kronika bat ere badegu, jokatu zanetik ia berrogei ta amar urtera *Euskal-Erria* aldizkarian agertua. Oso bertso-jartzaille saiatua izan zan Jose Zapirain Irastorzak idatzi zuan; eta urtea ere esaten digu: 1862. Bertsoak ere eskeintzen ditu. Onela dio:

Luzian... motx

Orain baño sasoi obia nekarren, 1862-ko igande goiz batian, nere laguna-kiñ portale zarretik murru ondo pelota jokura ginjuazenian. Jokatu biar genduben partiduba ustez patrikeran genekan, baño... patrikeratik itzul egin zigun.

Ez zan orain bezela urdiñik eta gorririk, ez eta *tongorik* eta beste gaurko eguneko saltsik, eta... ez ta nai ere.

Kontrariyuak genituben, Ambrosio Istillarte sakatzalle zala, Juan Maria Grox, Jose Ramon Sagardia eta Bautista Gorostiaga.

Eta guriak, berriz; Bautista Soro (maisuba), Santiago Zabaleta, Ramon Artola eta ni sakatzalle.

Batzubetatik eta bestietatik bizi geranak, illian erretena errex ateratzeko tankeran arkitzen gera.

Panparroi juañ giñan pelota jokura. Onuntzian baño aruntzian panparroia-go.

Luzian genduben partiduba; bai, luzian zan, baño gu motx gelditu giñan, oso motx.

Ain motx! Zanza-zanpa egin ginduzten! Ez ziguten bururik altxatzen ere utzi!

Azkenian, Ramon Artola gizarajuak besua autsi ta Petrikillorengana juañ biar izan zuben antolatzera.

Alaz guztiz, besua iya galduban ibilliyagatik, umore ona ez zuben batere galdu, eta jarri zituben neurtitz batzuben, atzo artsaldekuak balira bezela go-guan dakazkitenak. Ala nola ziran:

Partidu bat pelotan
(geren kaltian)
jokatu degu aurten
jai goiz batian.

Lau lautara giñan asi,
maisubenak irabazi,
galtzalliak obe degu
geiago ikasi.

Bederatzi jokuban
iru ta treinta,
ginduzten gu atera
oso ler egin ta;
lau falta sei utsegiñ
ondo jo ta ezin kintze egiñ,
tranpiyan ari al giñan
ziguten otsegiñ.

Esanagati alkarri
«Or bertan egon ari»,
pelota ikusi orduko
guztiyok jo nai.
«Utzi! Utzi!». «Au neretzat!».
Al zubenak norberetzat.
Gutxi jo nituben pena
oraindik juan etzat.

Gure kontrariyua
sakalariya,
askok bildurra diyon
jokalaria.

Ez gera gauza arrentzat,
bera sobra danentzat,
ezagutuba daukagu
pelotari ontzat.

A zer pelotariyak
nere lagunak!
Gu gera partiduba
galdu degunak.
Batek jotzen ez bazuben,
bestiak ikutzen etzuben...
Aixa pelotak gugandik
eskatzen zuben!

Jose Zapiain
Euskal-Erria, 1911

(1863)

Pepita

1
Dama bat biotzean
sartu zait betiko,
zeñen ikusi gabe
ez nuken utziko;
berarekin gustora
nitzake biziko,
nere besuetatik
ez nuke utziko.

2
Bere izenez deitzen
diyote Pepita,
dalako mirabe txit
lirain da polita;
iñoiz egiten diyot
etxera bisita,
biyotza mugitzen zait
bera ikusita.

3
Zerbait paga liteke
bera ikustia,
dalako polit igual
gabeko gaztia;
gustora pasatzeko
jaia ta astia,
naiago nuke balitz
nere emaztia.

4
Arpegi ederra du
paregabekoa,
gorputza igualian
ez dan modukoa;
aingeru bat diruri
dala zerukoa,
au logratzen dubena
zori onekoa,

Bertso auk Jose Manterolaren bildumatik ditugu, eskuz idatzitako orri batetik, ondotik oar au egiten dala: «Ramon Artola-k ipiñiak Donostiyan 1863-garren urtean»..

Auspoa 1, 1961.

(1864)

Erariyaren bertuteak



1
Erari maitagarriya,
zugatik daukat jarriya
argumentu bat larriya;
indarra zera gorputzarentzat
kentzen dezu egarriya;
gauza estimagarriya,
bañan zauzkat igarriya:
zera engañagarriya.

2
Nik zu nor ziñan ez nekin
eta gogoz nizun ekin,
fiyaturikan zurekin;
istante batez egin zenduben
nai zenubena nerekin;
biyok giñan alkarrekin,
kontubak ziran gurekin,
ondo det nor zeran jakin.

3
Batek lezake espero
ondotxo edan ezkerro
jarriko dubela ero;
lotsagarri ta lotsarik gabe
ibilliko dala gero,
korajetsu eta bero,
nonai egiñaz aldero,
modu txarrean entero.

4
Indarra erariyak du,
ezin litekena neurtu,
gizona lezake aurtu;
ustez tamañan bein eran eta
ninduben oso mozkortu,
itzegin ezin ta gortu,
bista zitzaidan laburtu,
gañera nuben min artu.

5
Gustora eran banuben,
ondoren pagatu nuben,
deskalabratu ninduben;
nere ondolik pasa zan batek
galdetu ziran zer nuben:
ia miñen bat al nuben,
nondikan sentitzen nuben,
planta onen bat jo nuben.

6
Nere moduban beste bi,
eranik sobra erari,
buelbaka ziran erori;
altxa nai eta ezin altxarik
loitane zebiltzan igari;
jarri ziran guri-guri,
kuasik etziran ageri,
bildu baitzuten ugari.

7
Nai ez dubenak orditu
eta ondoren eritu,
kontuz eraten aritu;
erari klase guziyak bere
espiritubak baditu;
gure txintxurak nai ditu,
gustoz eraten baititu,
naiz gero berak zatitu.

8
Mudatzen gaitu eranak
mundu onetan geranak,
pruebak daduzka emanak;
jeniyo txarrak ondutzen ditu,
bai ere gaiztotu onak;
aztu orduban esanak
eta egindako lanak,
naiz gero damutu danak.

Bertso-papera, *Donostiyan*: - *Juan Osesen moldizteguiyan* argitarata eman, Jose Manterolaren bilduman azaldua.

Izenburuaren gaiñetik onela irakurtzen da: *12 Setiembre 1874, 500* ejs. Zer esan nai ote dute itz oiek? Gure iritzirako, Jose Manterolak berak idatziak dira, bertso-papera noiz argitaratu zan eta zenbat ale egin ziran adieraztearren.

Bolara artan, 1874-an alegia, karlisten azken gerratea beroenean zan, eta Donostiatik oso gertu. Bertsotarako gogoaz bazuten ala ere...

Bertsoen ondotik onela erantsita dago, ziur aski Manterolaren eskuz: «Ramon Artola-k ipiñiak, Donostian 1864-garren urtean».

Urte ontan jarri, beraz; eta andik amar urtera, 1874-an, paperetan argitarata eman. Bitartean beste argitalpenik izango zuten agian.

4/8 lerroa tatxatuta dago, eta azpian onela idatzita: tratu on bat nuben artu.

* * *

Bertso aukerak kantatzeko iru doiñu erabil ditezke: Xenpelarren *Ezkondak eta ezkongai* saillarena; karlisten leen gerrateko *Orra nun dan Urnieta*-rena, gero Elizanburuk bere *Ikusten duzu goizean* saillarentzat artu zuana; eta bai *Ai ori begi ederra*-rena ere.

Geienik *Ezkondak eta ezkongai* bertsoen doiñuarekin kantatzen danez, bera eskeiñi diogu irakurleari liburuska ontatik artuta: *Euskal Erriko kanta zarrak, Apéndice musical a los tomos I y II, Imp. Macazaga, Rentería*.

* * *

Bertso aukerak sarritan argitaratu dira. Adibidez:

Jose Manterola. *Cancionero Vasco, Primera Serie*, Baiña seigarren bertsoa baztarrera utzi zuan. Orregatik, beraren faltan gelditu ziran ondorengo argitalpen asko.

La Vasconia, 1894.

Baserritarra aldizkaria, 1909-XII-4.

Bertsolaria, 1931-X-4.

La Constancia egunkaria. (Daukadan periodiko-puskak ez du egunik esaten).

Euskalerriko kanta zarrak, Imp. Macazaga, Rentería.

Bertso-papera: *Imp. Macazaga, Rentería.*

Gure kanta zar jatorrenak liburuska.

Euskal kantak, Donostia, 1959.

Gure kantak, Bilbo, 1960.

Erriaren eskuz idatzita ere maiz samar eskuratu ditugu.

Auspoa 1, 1961.

* * *

Jose Manterolak, bertso auek eskeiñi aurretik, onela esaten du:

«El asunto de esta composición es el mismo que el de los versos Al vino del P. Meagher, incluidos ya en este tomo. Solamente que así como allí se cantan las virtudes del zumo debido a Noé, aquí el poeta se propone principalmente poner en relieve los peligros a que suele exponer el uso immoderado de la bebida y las consecuencias del repugnante vicio de la embriaguez, que se pinta en ella con vivos colores.

Aunque el asunto es, pues, el mismo en ambas composiciones, éstas difieren esencialmente por su tendencia y su fin. Los versos del P. Meagher son de un carácter exclusivamente festivo; en Erariyaren bertuteac predomina ya el fin moral; el poeta se propone más bien corregir que deleitar.

El autor de esta composición es uno de tantos poetas populares, un modesto artesano, natural de Amézqueta' (Guipúzcoa), y avecindado hace años en esta Ciudad, que dando pruebas de su amor a la literatura y de una gran laboriosidad, ha ido formando en sus ratos de ocio un Album de poesías en lengua euskara, del que he tomado los versos que ofrezco a continuación.

Ramón Artola, que tal es el nombre de este poeta popular, tiene la virtud del trabajo unida a una gran afición a su lengua natal, que cultiva con verdadero cariño y asiduidad, y además de buen número de poesías de diversos géneros, ha escrito en vascuence durante los ratos que sus habituales ocupaciones le han dejado vacante, y robando quizás no pocas horas al sueño, un curioso y extenso Compendio geográfico-histórico-descriptivo de la Provincia de Guipúzcoa, trabajo hasta hoy inédito, que revela una laboriosidad sin límites por parte de su autor, y que constituye un esfuerzo muy laudable y meritorio, dada su posición social y sus dotes de instrucción.

Sus versos Erariyaren bertuteac, de un asunto bien elegido y propio para un poeta popular, que debe proponerse ante todo corregir los vicios más comunes en el vulgo si ha de llenar noblemente su misión, sin ser notables, son bastante fáciles y correctos, y merecen la pena de ser leídos.

Al reproducirlos, únicamente me he permitido suprimir una estrofa, la sexta de la composición, que en nada la trunca por eso, y que juzgo algo inferior al resto de la obra, y bastante más vulgar también.

En cuanto a su traducción, harto difícil dada la índole de la lengua en que se hallan escritos y el carácter de la composición, he procurado seguir paso a paso el pensamiento del autor, variando ligeramente aquellos giros que así lo exigían, y conservando aun en estos hasta donde es posible el tono y lenguaje del original».

¹Tolosako semea zan, dakigunez; baiña aren jatorria Amezketatik zetorrela uste degu.

(1865)

Maitagarriyari

The image displays a musical score for the piece "Maitagarriyari" (1865). The score is written on five staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a time signature of 6/8. The music consists of a single melodic line. The first staff starts with a quarter rest followed by a dotted quarter note, then continues with eighth and quarter notes. The second staff begins with a quarter note, followed by eighth and quarter notes, and includes a fermata over a quarter note. The third staff continues with quarter and eighth notes. The fourth staff features a quarter note, eighth notes, and a quarter note with a fermata. The fifth and final staff concludes the piece with a series of quarter and eighth notes, ending with a double bar line.

1
Ditut itz bakar batzuben neurtu
txit maite dedan batentzat,
nua kantatzen abiyatzera
salatu gabe norentzat;
ezin entendi liteke bestek
naiakgatikan beretzat,
zergatik aren igualik iñon
danik iruritzen etzat.

2
Ditu oin txiki pollitak eta
gutziz ariña pausua,
lurrian eztu utzitzen bere
oñaren marka osua;
meriñakia eramaten du
biatz birekin jasua,
bide batian dijuanian
diruri dala usua.

3
Gerriya mia, gorputz liraña,
alturan ona tamaña,
jantzitzen berriz beste zenbaitek
bañan obia du maña;
danik arropik merkienakin
ibillitzen da apaña,
eztute sedaz jazten diranak
ere luzitzen ark aña.

4
Arpegiya du zoragarriya
Jaunak milagroez egiña,
gorriz arrosa dirudiyena
ta zuriz berriz iriña;
buruban ille trentzatu beltza
ugariya ta txit fiña,
itzikan arki ezin liteke
fama emateko diña.

5
Aren onduan ederrak oso
ematen dute itxusi,
nere aurrian alakorikan
eztet oraindik ikusi;
eman al fama bañon geiago
luke askozaz merezi,
saltzeko gauza balitz ez luke
faltako zeñek erosi.

6
Ezertan ezta fantesirikan
eta txit da kariñosa,
arren itz batek sartutzen diyo
triste dagonari poza;
kantuban berriz gustagarriyak
ditu graziya ta boza,
iñoiz aitzen det eta orduban
pil-pil jartzen zait biotza.

7
Ezin kontatu liteken ainbat
neri gustatzen zait ura,
naiago nuke arrekin bizi,
ez joan bakarrik zerura;
bera andikan egan jetxiya
dala diruri mundura,
nigandik arren pentsamenturik
sekulan ezin kendu da.

8
Kuidadoaren faltan liteke
alako gauza bat aja,
diamantiak bañon geiago
baliyo duben alaja;
ark bear luke, gordeta egon
dedin, kristalezko kaja,
iñor ibilli eta ez dezan
itxura galduta laja.

Bertso-papera, *Donostiyan*: - *Juan Oses-en moldizteguiyan*, Jose Manterolaren bilduman azaldua.

Bertsoen ondoren, itz auek erantsita daude, ziur aski Manterolaren eskuz: «Ramon Artola-k ipiñiak Donostiyan 1865-garren urtean».

Eta orren azpian doiñua, or goien, bertsoen aurretik eskeiñi deguna.

Auspoa 1, 1961

Ecos de Vasconia por Echeverría y Guimón kanta-bilduman ere agertu ziran bertso auek, 2-garren zenbakian, doiñu eta guzi, onela adierazi: *Música de M. Letemendia. Poesía de R. Artola.*

Doiñu ori urrengo orrialdeetan eskeintzen degu.

Maitagarriari.

Nº 2.

Aire vascongado.

Música de M. Letemendia.

Poesía de R. Artola.



p

First system of piano accompaniment, starting with a piano (*p*) dynamic marking.



p *amoroso*
Di-tut itz ba-car ba - tzu-

un poco rall. *p*

Second system, featuring the vocal melody and piano accompaniment. The vocal line begins with a piano (*p*) and *amoroso* marking. The piano accompaniment includes a *un poco rall.* marking.



ec neur-tu chit mai - te - de - dan ba - ten - zat no - a can-tu - tzen a - bi -

Third system, continuing the vocal melody and piano accompaniment.



a - tze - ra sa - la - tu - ga - be no - ren - tzat. Di - tut tzat. E - cin

1. 2.

Fourth system, concluding the piece with first and second endings. The piano accompaniment continues throughout.

A. Díaz y C^{la} editores San Sebastián.

con espressione

en - ten - di - li - tza - que bes - tec na - yac - ga - ti - can be - re - tzat cer - ga -

tic n - ren i - gua - he i - ñun da - nie i - ru - ri - tzen e - tzat. E - ein - tzat.

2.
Ditu oin chiqui pollitac eta
Gutziz ariña pausua,
Lurrian eztu utzitzen bere
Oñaren marca osua;
Merriñaquia eramaten du
Biatz birequin jasua,
Bide batian dijuanian
Diruri dala usua.

3.
Guerrriya mia gorpua lirña
Alturan ona tamaña,
Jantzitzen berriz beste senbaitec
Cañan obia du maña;
Danic arropa merquiñaquin
Ibillitzenda apaña,
Eztute sedas justen diranac
Ere lusitzen are aña.

4.
Arpeguiya du soragarriya
Jauñac milagros eguiña,
Gorris arrosa dirudiya
Ta suriz berriz iriña;
Buruban ille trensatu beltza
Ugarriya ta chit fiña,
Izican arqui ecin liteque
Pama emateco diña.

5.
Arren onduan ederrac oso
Ematen dute itzusi
Nere aurrian alacoricari
Ez det oraindie icusi;
Eman al fama buñan gueyago
Luque ascosaz meresi
Saltzeco gauza balitz ez luque
Faltaco ceñie erosi.

6.
Ecertan ezta fantesirican
Eta chit da cariñosa,
Arren itz batec sartutzen diyo
Triste dagonari posa;
Cantuban berriz gustagarriyac
Ditu gracia ya ta bosa,
Iñoz aitzen det eta orduan
Pili pil jartzen sait blotza.

7.
Ecin contatu litequen ainbat
Neri gustatzen sait ura,
Nayago nuque arrequin bici
Ez joan baerrie corura;
Bera andican egan jachiya
Dala diruri mundura,
Nigandic arren pentsamenturic
Seculan ecin quenduda.

8.
Cuidadoaren faltan liteque
Alaco gauza bat aja,
Diamantiac bañan gueyago
Baliyo duben alhaja;
Arc bearique gordeta egon
Dedin cristalesco enja,
Iñor ibilli eta ez dezan
Ichura galduta laja.

(1865)

Maitagarriari

1
Itz eskojitu bakar batzuek
txit maite dedan batentzat,
nua kantatzen abiatzera
salatu gabe norentzat;
eziñ konprendi litzake bestek
naiakgatikan beretzat,
zergatik arren igualik iñun
danik iruritzen etzat.

2
Ematen diot aingeru eder
zeruko baten itxura,
argizaiz ere ez liteke egiñ
politagoko figura;
tatxarik arki eziñ leioke,
egoki ain du itxura,
mundu guztiya bañan geiago
neri gustatzen zait ura.

3
Poza sartzen zait nere barrena
aitubaz aren itz otsa,
enkantaturik naukan mediyo
dalako kariño utsa;
kantuban berriz jilgero batek
bañon obia du boza,
dultzetasunak ateratzen dit
nere petxutik biyotza.

4
Besterik ez det iñortxo maite,
bakar-bakarrik det ura,
nere biyotzak arenarekiñ
juntatzia luke gura;
gustagarriyagorikan jaio
ezin diteke mundura,
nigandik aren oroipenikan
sekulan eziñ kendu da.

5
Gustagarriya dalako guziz,
baldin balego kortian,
premiyoren bat alkantzatuko
luke bizi dan artian;
artzaz gañera guardi bat para-
ko lioteke atian,
por si acaso, ez dezan ostu
iñork, ezkondu artian.

6
Duen graziya ez du iñungo
dendan diruz erosiya,
ematen zaion fama sinistu
duela txit mereziya;
baldin aberats zenbait bezela
jarriko balitz jantziya,
berarengana begira luke
Españiaren erdiya.

Orra zazpi bat bertso berriyak
enamoratu bientzat,
amorioa firmia artu
lelengo lana ori beintzat;
kontuak ongi atera eta
jarri biak alkarrentzat,
ezkondu eta joka asita
eztago oberik guretzat.

Bertso auk Parisko Liburutegi Nazionaletik ditugu.

Bertsoen ondoren, eskuz erantsita: *reçu en 1869*.

Kanta-paper onek ez du egillearen izenik azaltzen. Baiña onek eta onen
aurrekoak ondo ezagun dute aita bera dutela.

Auspoa 1, 1961

(1866)

Aldamar jaunari

1
Don Joakin Barroeta-Aldamar
orain ill zaigu kortean,
gu anparatzen bizitu izan
dana ainbeste urtean;
benazko penaz egin zaiogun
negar guztiyok batean,
amoriozko diogun zorra
malkoz pagatu artean.

2
Kondaira bat txit mereziya
du gizon onen bizitzak,
beti argitan arki ditezen
esan oi zituben itzak;
urre guztiyak ainbat baliyo
badu guretzat bakoitzak,
aiek sendatu izan dituzte
Euskal Erriaren gaitzak.

3
Gure fueruen gordetzallea
zan guztiz gizon abilla,
arren igualak obe genuke
baldin baginduzke milla:
Euskal Erriyak kalterik asko
badu seme on au illa,
ala konbeni bada zeruban
erdiyan gerta dedilla.

4
Ez gaitzatela diamantiak
kobriaren truke saldu,
ori egingo duen gizonik
Jaunak sortuko ez al du;
arren digula beti Aldamar
bezelako bat azaldu,
geren kostunbre onak aurrera
ere ez ditzagun galdu.

5
Nola Elkano ala Aldamar
Getariako erriyak
zeizkan bi seme probintziyari
eman estimagarriyak;
len batek daukan bezela orain
biar lituzteke biyak
beren brontzezko erretratuak
oroipengarri jarriyak.

6
Gu ere gure aitak bezela
aundiyak izango gera,
baldin galdutzen ezpaditugu
fueruak eta euskera;
bañan gordetzen ezpadirade
legi au eta izkera,
orduban geren aitaren seme
onak izango ez gera.

Bertso auek Donostiako Jose Manterolaren bildumatik ditugu, eskuz idatzitako orri batetik.

Onako oar au ere bertan irakurtzen da: «Ramon Artola-k jarriyak Donostiyen 1866-garren urtian».

Urte artako Urriaren 5-ean il zan Madrillen Joakin Barroeta Aldamar jauna, Senadoan-eta fueroen alde ainbat saiatu eta itzegiña. Jaun ori Geta-rian jaioa zan, 1796-ko Otsaillaren 28-an.

* * *

Euskal Erria aldizkariak 1913-an argitaratu zituan bertso auek, Gipuzkoa-tar batek firmatuta eta ondoren onela esanez:

«Itz-neurtu aben egillea Ramon Artola euskal-zale bero ta zintzua zan. Eta Barroeta-Aldamar-i ziyon naitasun pizkorra azaldubaz, bere gelan irukitzen zituben paper polit batian ipiñiak, eta bere eskuz egintako antzeza ta apainketa askorekin jira guziya edertubak.

Fueruak ekendu zizkiguten egun doakabean, zintzilik zegon tokitik aterra zuben, zokoratu're bai, ta bizi zan bitartian etzituben iñortxok geiago ikusi.




Eriyotzak bakarrik txukatuko ziozkan egipen miragarri arrek ixuri azi zizkan malko garratzak!».

* * *

Auspoa 1, 1961

(1866)

On Joakin Aldamar jaunaren lurreratzeari



1
Perla bat galdu zaio
Euskalerriyari,
baliyo aundikoa
gure fueroari.
Negar egiñarekin
billa al baledi, *al baledi*,
nork begiak busti ez
Aldamar jaunari?

2
Gure aita maitea
il zaigu kortean,
faltarikan geiena
egiten duenean.
Alako bat billatzen
saiatu gaitean, *ta gaitean*,
iñola al badegu
euskaldun artean.

3
Azkenengo orduban
begiratu oni:
naitasuna erakusten
Euskalerriyari,
amorioz betea
bere anaiari, *anaiari*,
esaten zer modutan
onrak egiñ ari.

4
Lau euskaldun jantzirik
emengo moduan,
lepoz eramateko,
ala agindu zuan;
ez, usatu bezela,
kotxez ta lujuan, *ta lujuan*,
jaio bizi eta ill
euskaldun moduan.

5
Alditikan aldira
Getariko erriyak
eman izandu ditu
txit gizon aundiyak;
Elkano eta Aldamar
zeiñ baño zeñ biyak, *eta biyak*,
gordeko ditu ondo
ango kondariyak.

6
Ez diamanterikan
kobre truke saltu,
Gipuzkoak alako
gizonik ote du?
Gure fuero maiteak
ez ditzagun galdu, *ai ez galdu*,
ai naitasun gozo au
gordeko bagendu!

Sei bertso auk Oxford-eko *Bodleian Librery*-tik ditugu, *Irun, Im. de Pio Garmendia* moldiztegian argitara emandako paper batetik.

Zuzenketa batzuk sartu ditugu. Bertso-paperak nnela dio: 4/6 kotxez eta lujuan; 4/7: jaio, bizi eta lurrera.

Eta 5/8 lerroan oar bat egiten du bertso-paperak: *historia. Kondaira* itzak zer esan nai zuan adierazi, alegia.

Donostiako Jose Manterolaren bilduman ere arkitu ditugu bertso auek, eskuz idatzita. Aldaketak: 3/1: Azkenengo trantzean; 3/7: esaten zer da nola; 4/6: kotzez da lujuan; 4/7: bizi bezelaxen ill; 5/8: gure historiak; 6/4: gizonikan al du?

Oiartzungo Manuel Lekuona apaiz jauna zanaren bilduman, leenengo lau bertsoak, eskuz idatzita, Manterolaenean bezelaxe.

Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman bertso guziak, eskuz idatzita. Aldaketak: 2/5: orrelako bat billatzen; 3/1: Azkeneko trantzean; 3/7: esaten zer da nola; 5/8: ango historiak; 6/6: ez ditezen galdu.

Getariako Resurrezion Zumeta zanak, orduan larogei ta sei urte zituanak, bost bertso eman zizkigun 1954-VII-29-an. Seigarrena falta, Aldaketak: 1/1: Oroi bat zor diogu; 1/2: getariarrari; 1/4: geuren fueroari; 2/3: faltarik aundiena; 2/4: egin dubenian; 3/1: Azkenengo trantzian; 3/5: esaten zer da nola; 3/6: ondtrak egiñ ari; 3/7: naitasuna erakusten; 3/8: bere anaiari; 4/6: kotxe ta lujuan; 4/7: bizi bezelaxen il; 5/7: gordeko dituzte ongi; 5/8: oien historiak.

Bertsoen aurretik eskeiñi degun doiñua ere jaun onen aotik jaso genduan.

Getariako Julian Balentziagak bertso guziak eman zizkigun. Aldaketak: 2/3: faltarik aundiena; 2/4: egin zubenian; 2/5: orlako bat billatzen; 2/7: iñola al baledi; 3/1: Azkeneko trantzian; 3/5: amoriyoz beterik; 3/7: agintzen zer modutan; 5/3: eman izan oi ditu; 5/7: gordeko dituzte ongi; 5/8: oien istoriyak; 6/3: Gipuzkoak orrelako; 6/6: ez ditezen galdu; 6/7: ai naitasun osoaz.

A. Zavala: *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*, 1997.

* * *

Aita Frantzisko Apalategi zanaren kuaderno batean leenengo bertsoa arkitu degu, aurretik onako argibide au ematen dala: «Madrillen il ta onera gorputza ekarri zuten. Gogoratzen zait zenbat jende etorri zan. Kale nagusia, dana elizaraño bete-bete». Ez du esaten testigantza ori nork ematen duan.

* * *

Bertso auen egillea nor dan ez da esaten. Baiña, gure iritzirako, Ramon Artola izango da. Jaun onek beste sei bertso ditu Aldamar jaunari jarriak, auen aurretik eskeiñi ditugunak alegia, eta laugarrenak onela dio: «Ez gaitzate la diamantiak kobriaren truka saldu». Ain zuzen, bertso auetan azkenak orixe esaten du.

* * *

Bertso auek oso ezagunak eta kantatuak izan ziran garai batean. Doiña, leen esan bezela, Getariko Resurrezion Zumetaren aotik jaso genduan, eta emen eskeintzen degu.

Bi aldaketa egiten zituzten getariarrak bertso auek kantatzean, Bata, seigarren lerroan luzagarri bat sartu. Olakorik bertso-paperean ez badago ere, guk erantsi egin diegu bertsoei, kurtsibaz idatzita, bestela ez litzake doiñua ondo ulertuko eta.




Bigarrena, bertso bakoitzaren bukaeran kantarte edo *estribillo* au kantatu bear dala:

Erri txiki batentzat
zer izen aundia,
orain baño lenago
du-ta merezia!

Sarritan, tabernetan-eta, batek bertsoa kantatzen omen zuan, eta ondoren guziak, bi abotsetara, kantartearekin jarraitu.

(1869)

Oxaba pillotan



1
Plazan entero itsusi
degu Oxaba ikusi;
zartuta blekan
mutill guztien
kontra jokutzen da asi,
eta eztu irabazi.

2
Zartu da ta edadia,
joan zaio lengo aidia;
berak ez du nai
aitu zaionik
galdu abilidadia;
au da debilidadia!

3
Aisa asko diyo garbitu,
begirik ez du argitu;
ogei ta laura
amaika tanto
bakarrak atera ditu;
lotsagarri da arkitu.

4
Bote motxa bazan artzen,
gizarajua zan lertzen;
luzia egin
ezkeroz, berriz,
kolkora zitzaion sartzen,
ongi etzalako jartzen.

5
Nekaturikan guziya,
zutik ezin zeguen iya;
partidu orrek
laburtu diyo
amar urteko biziya;
damutu zaio asiya.

6
Lorikan ezin egin du,
ezur guztietan min du;
eztula eta
katarro zarra
ditu beregana bildu,
gorputz zar gaixoa il du.

Bertso auek, eta bai beren doiñua ere, Jose Manterolaren bildumatik ditugu. Eskuz idatzita daude, oar batean onela esanez: «Ramon Artola-k ipiñiak Donostiyan 1869-garren urtean».

Tolosako Fakundo Adurriagaren bilduman ere antxe daude bertso auek, ontan ere eskuz idatzita.

Leendabiziko argitalpena: *Euskal Erria* aldizkarian egin zan, 1883-an.

Bertsoen ondoren argibide jakingarri au ematen da: «Ramon Artolak ipiñiak Donostiyan 1869-garren urtean». *Euskal Erria* aldizkariaren zuzendaria Jose Manterola zan, eta bertso auek bere bildumatik artuko zitu.

1890-ean berriro agertu ziran bertso auek, aldi ontan ere *Euskal Erria* aldizkarian.

Izenburua: *Tolosan, Beotibarko plaza berriyan Juan Jose Zarra pillo-tan (Nere adiskide Ramos Azkarate-ri)*.

Biak tolosarrak izanik, alkarren ezagunak eta adiskideak izango ziran, naiz eta batek besteari amasei urteko aldea eraman, Ramon Artola 1831-n jaioa baitzan, eta Ramos Azkarate 1847-an; naiz aurrena Donostian bizi eta bigarrena Tolosan; eta naiz Artola liberala izan eta Azkarate karlista purrukatua.

Leenengo bertsoa beste onela du 1890-ko agitalpen onek:

Plazan biziro itsusi
degu Pipirri ikusi;
edade ortan
zion nai mutill
gazte bati irabazi;
zori gaiztoan da asi.

Gaiñontzeko aldaketak: 3/1: Gaztiak dio garbitu; 3/4: amabost tanto;
3/6: parragarri da gelditu; 6/1: Geroz lo ezin egin du; 6/3: dalako plazan;
6/4: gazte papera; 6/5: egin naiean ibildu.

* * *

Auspoa-ren leenengo zenbakian ere argitara eman genduan bertso-sail
au, 1961-an.

(1869)

Joseren subak Donostiyan

1
Guardasolgille Josek
milloi bat ensaio
egin arren, su onik
irtentzen etzaio;
Gizon orri polbora
kentzen ezpazaio,
denbora gutxi barru
erotuko zaio.

2
Lengo gaubian orren
subak erre dira,
ruedak politak ziran
ibilli balira;
eragin gabe ezin
eman zuten jira,
farrez egondu giñan
aieri begira.

3
Bi buelta eman eta
ziraden gelditzen,
istantian indarra
zitzaioten iltzen;
gero eskubarekin
zituben ibiltzen,
ler gaizto egin zuben
aiek erabiltzen.

4
Plazerdiyan orlako
subak erakusten
nola ez diyon nago
iñork erakusten;
jendia egoten da
gauz onak ikusten;
orrek eztu kulparik,
diyotenak uzten.

5
Andriak erriyetan
maiz diyo ekiten,
ikusirik alferrik
gastubak egiten;
itxurazko gauzik bein
ezin zaio irten,
zenbait far jendiari
diyo eragiten.

6
Guardasolak konpontzen
bear zaio aztu,
subak moldatzen berriz
ikasiko eztu;
egiten ditu zenbait
saio eta gastu,
Josek laster bear du
oso aberastu.

Bertso auek ere Jose Manterolaren bildumatik ditugu, eskuz idatzitako orri batetik.

Bertsoen azpian, eskuz idatzita, onako itz auek irakurtzen dira: «Ramon Artola-k jarriak, Donostiyan, 1869-garren urtean».

* * *

Euskal Erria aldizkariak ere agertu zituan bertso auek, 1915 urtean.

Aitatzerik merezi zuan aldaketarik ez du; baiña bertso berri bat eskeintzen du, zazpigarrena, era ontan:

Ezin sosegatu zan
bonbiorik gabe,
larri zan beri ori
erakutsi arte:
plazako jende danak
keja eman dute:
ilko dutela berriz
uzten badiyote.

* * *

Auspoa 1, 1961.

(1870)

Ilitzeko zezenak

Donostiya zarreko plaza berriyan zalduniote eta astelen iñaute 1870-
garren urtian.



1
Igande astelenen
artsalde bietan
plazan arkitu gera
festa aundietan;
obiagorik asko
gure begietan
eztala jarri nago
iñauterietan.

2
Aukeran ekarriyak
zituzten zezenak
Nafarruatik, biña
urte zituztenak,
len plazarik ikusi
izan etzutenak;
txarrik bat etzan irten,
fiñak ziran denak.

3
Lantzaz zulatu arren
izutzen etziran,
aberien triparen
azpiyan maiz ziran;
adarretan bolakin
izan ezpaziran,
plazan zaldiyak illtzen
ikusiko ziran.

4
Zinta zabal kolore
guztiyetakoak,
biatz delikadubak
apaindutakoak,
zezenen lepoetan
denak alakoak,
ziran erregaliyak
Donostiyakoak.

5
Nola toliatzalle
ala lantzadunak,
duan ziran plazara
prestatubak danak;
festagille egoki,
alkarren lagunak,
guziyak errikuak,
gure ezagunak.

6
Muestrak eman zituzten
zirala abillak,
nola lantzakin ala
sartzen banderillak;
golpian zezen asko
izan ziran illak,
ezeren aitzakirik
etzuten kuadrillak.

7
Oiez gañera ziran
zaldunen konpartsak,
iri jokari eder,
subak eta dantzak,
musikak, danboliñak,
gaztien jolasak;
zeru berri bat zala
zirudiyen plazak.

8
Azken iñote gabaz
entierro bat zan,
sardin zarrari egin
ziyotena plazan;
bazan zenbait diabru
kantatzen da dantzan,
festaren bukaera
arrekin eman zan.

Bertso auek ere Jose Manterolaren bildumatik ditugu, eskuz idatzitako orri batetik. Bertsoen aurretik, eta eskuz idatzita, doiñua, guk bertsoen aurretik eskeiñi deguna. Bertsoen ondoren, berriz, argibide jakingarri au: «Ramon Artola-k jarriak. Donostiyan 1870-garren urteko Martxoan».

* * *

Auspoa 1, 1961.

(1871)

Artzai-kanta

1
Zeru-lurren Jabea
Belenen da aurtu,
portalpe bat du bere
jaio-leku autu;
artzaiak berri on au
degunian artu,
berarengana joanda
degu adoratu.

2
Kontentuz izan gera
arkume ta guzi,
geren Jabea bean
degula ikusi;
ganaduben tartean
pobrezan da bizi,
lekurikan onena
lukena merezi.

3
Bertan utzi ditugu
eraman guziyak:
gaztak, esnia eta
arkume biziya,
intxaur, gaztain da sagar
ondutzen asiya;
Mariya Amak eman
dizkigu graziya.

4
Aingeru Gabrielelek
emandako itza:
«Jaio da Jaungoikoa,
Jesus baiteritza».
Au da falta senti zan
zerubaren giltza,
gu an sartzeko baldin
ongi bagabiltza.

Bertso auek ere Jose Manterolaren bildumatik ditugu, eskuz idatzitako orri batetik.

Bertsoen ondotik, eskuz erantsita, onela irakurtzen da: «Ramon Artolak jarriak, Donostiyan, 1871-garren urtean».

Auspoa 1, 1961.

(1871)

Tximutxak eta ni

1
Tximutxaren kontubak
asten naiz kantatzen,
nerekin oiekiko
bertsuak kantatzen;
eguna pasatuta
lanian kantsatzen,
arratsian ez ditet
uzten deskantsatzen.

2
Gure etxia ezta
entero berriya,
aspaldikua da ta
erori da iya;
tximutxak okupatzen
diyote erdiya,
an diranakin bete
liteke gurdiya.

3
Oiera nuanian
lenbiziko lana:
argiyarekin ondo
miratzen det dana;
bat eztet arkitzen da
sartzian barrena,
dozenaka juntatzen
dira neregana.

4
Nere martiriyua
asten da segidan,
milla sentitzen ditut
gorputzaren jiran;
argiya piztu eta
denak erretiran,
eztakit zein zokotan
gordetzen zaizkidan.

5
Berriz ere itzaldu
orduko argiya,
asten zaizkit egiten
beren pikardiya;
alderdi denetatik
simien larriyan, (*sic*)
odol guziyak eran
dizkidate iya.

6
Sosegurikan ez det
oyian arkitzen,
gau guziyan bar-bar-bar
ez dira gelditzen;
nautelako erotu
naian erabiltzen,
arrapatzen detana
gustora det iltzen.

7
Nere begiyen bistan
zaizkidanak jartzen,
arrapatuta ditut
ankarekin lertzen;
argiyarekin ere
asko det erretzen,
alkobako paretak
ez ditut edertzen.

8
Batzubek illak ez dit
askorik serbitzen,
bizi diranak naute
sobra pertsegitzen;
gau guzian jeiki ta
etzan naiz ibiltzen,
nai bezin laster etzait
eguna argitzen.

9
Noizbait ongi sortu zan
tximutxen aziya,
gañez betia daukat
paraje guziya;
gustoz kendubakgatik
zenbaiti biziya,
gure etxia beti
tximutxez josiya.

10
Negubak ere galtzen
ez duben arraza,
non dan billatzen ez da
askotan erreza;
oi ta guzi etxia
erre al baneza,
pozik galduko nuke
daukadan pobreza.

11
Nere pazientziya
oiekin det galtzen,
ero bat egiñikan
naute iñoiz jartzen;
belarriko zulotik
igual zaizkit sartzen,
badira gabak loak
ez naubenak artzen.

12
Neguba etortzeko
nago deseotan,
utziko al nautela
soseguban lotan;
askorik egin gabe
zenbait denbor'ontan,
jartzen naizen lekuban
artzen nau frankotan.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Manterolaren bilduman.

Paperaren buruan onela idatzi zuan jaun onek: «*13 Agosto, 500*». Ziur aski, berak paper ori eskuratu zuan eguna; eta zenbat ale inprentatu ziran.

Bean, berriz, onela: «Ramon Artola-k ipiñiak, Donostiyan, 1871-garren urtian».

Kantatzen itza bi aldiz du bertso-paperak punturako 1/2 eta 1/4 lerroetan. Poto, beraz, Oietako batean, leenengoan gure iritzirako, *kontatzen* idatziko zuan Artolak; eta gero moldiztegia oartu gabe aldatu.

Ondoren, 1/6 lerroan ere *kansatzen* du paperak. Baiña gaiñetik zuzendute, Jose Manterolak berak dudarik gabe, *nekatzen* idatziz.

Auspoa 1, 1961.

(1873)

Gerrako erituen

onekindorako edo benefiziorako jarriak, kantatu ziranak Donostian, Iru Erregearen egunaren bezpera arratsean, 1873-garren urtean.

1
Oroipendurik geren
anai min dutenaz,
gatoz poz baten billa,
zeñak dauden penaz;
maite ditugulako
animatik benaz,
arras kupitzen gera
sufritzen dutenaz.

2
Portatzen diranakin
garboso ta prestu,
eskergabekeriya
eztana da justu;
bere anaien penaz
nai dubenak aztu,
arrizkua da edo
biyotzikan eztu.

3
Guk degunak biyotza
mugitzen zaiguna,
nola ezta izango
gai ontan biguna?
Pozez pasa ditzaten
gauba ta eguna,
lagunduko diyegu
al dezakeguna.

Iru bertso auek ere Jose Manterolaren bildumatik ditugu, eskuz idatzitako orri batetik

Izenburuak bear ainbat argibide ematen ditu, bertso auek noiz eta nola moldatu ziran.

Bertsoen ondoren, berriz, onela dio: «Ramon Artola-k jarriak Donostian, 1873-garren urtean».

Auspoa 1, 1961.

(1874)

Inesentzat
itz neurtu berriyak
amezketar batek Donostiyan jarriyak

1
Nere maite izarra diruriyenak
sufriarazten dizkit noizik bein penak;
 bañan fortunaz,
ala gabian nola egunaz;
 arren itxura
begiyetatik zuzen petxura
 igarotzean,
poza sentitzen det biotzean.

2
Arren itxuraz ezin nindeke aztu,
obiagorik bestek neretzat eztu;
 bere begiyak
dira izarrak bezin argiyak;
 arpegi fiña,
eta gorputza ongi egiña;
 Ines ikustez
ez nintzake ni aseko ustez.

3
Amoriyuak nauka luzaro eri,
kandelaren gisa naiz urtutzen ari;
 neri begira
jartzen diranak izutzen dira;
 aspaldiyontan
ez naiz askorik gozatzen lotan;
 maitia gabe
bizitzekoz, det iltzia obe.

4

Urruti bizitzen da Ines nigandik,
onuntz pasarizorik ez dago andik;
 orla dala're,
aren berri bat badet alare:
 dagola miñez,
ezin jan ta ezin lo egiñez
 neregatikan,
ni naguen gisan arrenгатikan.

5

Gerrak banatu gaitu alde bitara:
ura Debara ta ni Donostiyara;
 maite geranak;
ezin bat-durik, ai abek lanak!,
 gaude aparte,
Jaun Zerukuak nai duben arte;
 onla sufritzen,
eztakit nola ez geran iltzen.

6

Lenguan izandu det karta beria,
asten zana esanaz: «Maite neria».
 Ura letutzen,
sentitzen nuben poza urtutzen
 begi biyetan:
negar egin nuben egiyetan
 bizi gozo,
biotzak jira emanik oso.

7

Laster egingo balitz pake eder bat,
alkarrentzat izango giñake anbat
 beti-betiko.
Zer gustora giñaken biziko
 zeru berriyan,
baserritxoan edo erriyan,
 danak inbiri
ligutekela maitetxo biri!

8

Uda berriko lore zuri-gorriya,
benaz maitatzen dedan zoragarriya;
lengo gabian
lotan iruki nuben aldian.
O zer ametsak!
Galdetu ziran ia arrentzat
nai nuben izan;
baietz esan ta esnatu nintzan.

9

Nere amets gozoa zan urrezkoa,
esnatuta ondoren gezurrezkoa;
ustez zeruban
nebillen eta nenguen munduban,
maitia gabe,
eginda gero beraren jabe;
umien gisan
engañatuba gertatu nintzan.

10

Biotz-biotz nereko maite gozoa,
alkar ikusi gabe urte osoa
zaigu igaro,
eta onela bearko gero.
Dauzkagun penak
gerrak ekarri dizkigu denak;
luze badabil,
amoriuak bear gaitu il.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, baiña bertsoen ondoren eguna esaten duana: «Abuztu-illaren bederatzigarrenean, 1874-garren urtean». Mante-rolak itz auek erantsi zizkion eskuz: «Ramon Artola-k ipiñiak Donostiyen».

Bertso-papera, *Imp. de Osés*.

Baita ere Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bilduman.

Bertso auetan aitatzten dan gerratea karlisten azkena dala: 1872-1876.

Kantatu, berriz, Iztuetaren *Maite bat maitatzen det maitagarria* bertsoen doiñuarekin egiten dira. Doiñu ori urrengo orrialdeetan du irakurleak, J. A. Santesteban zanaren *Aires Vascongados* kanta-bildumatik artuta.

Auspoa 1, 1961.

CONTZECI.

Andante.

PIANO.

The piano introduction is in 6/8 time with a key signature of one sharp (F#). It begins with a piano (*p*) dynamic. The right hand features a melodic line with eighth and sixteenth notes, while the left hand provides a simple bass accompaniment.

CANTO.

p

Mai - - te bat mai - tat zen det mai - ta - ga - rri -

The vocal line starts with a piano (*p*) dynamic. The lyrics are: "Mai - - te bat mai - tat zen det mai - ta - ga - rri -". The piano accompaniment consists of chords in the right hand and a bass line in the left hand.

p

-a Be - - gui e de - rra du ta guz - tiz ar - gui -

The vocal line continues with a piano (*p*) dynamic. The lyrics are: "-a Be - - gui e de - rra du ta guz - tiz ar - gui -". The piano accompaniment continues with chords and a bass line.

_a daucat urru - ti Ba - ñan e cinquen du det bu - ru -

_tic a - rren i - chu - ra sal - du al - ba - li - te - que pi - su -

_ra urre - a - rentru - que norc e - ro - si falta - co ez - lu -

- que norc e - ro - si falta - co ez - lu - que.

(1875)

Pakea bear degu

1
Aundiyak dira penak
senti ditugunak
zori gaiztozko gerrak
sortu zizkigunak;
batu gaitean denok,
bada gure Jaunak
nai du anaitutzea
bere seme danak.

2
Aserre bizi gera
maizter-nagusiyak,
adiskidetasunak
dauzkagu autsiyak;
armakin eziñ kenduz
alkarri biziya,
geren buruben kontra
gabiltza guziyak.

3
Baserritar armakin
irtenak mendira,
erlijioagatik
joanak omen dira.
Bañan au galtzen ari
diranak zein dira?
A Praisku, Praisku, lotan
Praiskuk egon dira!

4
Baserritar jendeak
bizi bitez ernai,
zenbait itzontziri ez
siñistatu zernai;
askok nai etzutenak
pakean bizi nai,
beren faltaz egiten
dute gaur oi ta ai.

5
Baserriyak erre ta
urratu erriyak,
soildurik daude soro,
baso ta mendiyak;
ikusten gauden gaitzak
dirade aundiyak,
laster galduko dira
emengo Indiyak.

6
Batek mesede badu
kalte dute millak,
gerran dabilzan asko
ez dira abillak;
ondasunak ondatu,
gañera mutillak,
alferrikan badira
makiña bat illak.

7

Ez gaitezen tontoak
izan euskaldunak,
utzi ditzagun seta
artu ditugunak;
ez bagera anaitzen
lengoko lagunak,
gu gera geren faltaz
lur joko degunak.

8

Eskarmentuz beterik
beste baterako,
pakea billa zangun
orain ta geroko;
sesiotik ez degu
ezer aterako,
emengo gerrak dira
gure kalterako.

9

Egiya da luzaro
nazioa miñez
dabillela auldurik,
sendatu eziñez;
mediku askok zaitu,
batek on egiñ ez,
iya etorri dela
aztutzera oñez.

10

Bañan noizbait bear da
Jaunaren graziya
bere biotzean da
sustraitzen asiya;
sendagille gazte bat,
guziz ikasiya,
argitu da, emango
diyona biziya.

11

Galai au da Alfonso
amabigarrena,
Españako koroa
bidez dakarrena;
nola ama baizan len
bera zekarrena,
semearen burura
jira da arrena.

12

Bitarte ontan pasa
dira zenbait urte,
koroa Alfonsoren
burura dan arte;
ala bear ta askok
arturikan parte,
ekarrarazo dute
zegoena aparte.

13

Aita Santuba eta
Don Ramon Cabrera
dira nai ez dutenak
Karlosen jarrera;
biyak eroririkan
arrazoi batera,
Alfonsoren fabore
dirade atera.

14

Oen gisan nazio
zeudenak begira,
erakutsi diote
beren ontzakida;
Españako kontubak
emanikan jira,
jaun onen laguntzalle
deklaratu dira.

Biba bada Alfonso
 errege berriya,
 españolen ongarri
 Jaunak ekarriya;
 bide zuzenez zaude
 jar-goian jarriya,
 goiko mallan jartzeko
 gure sort-erriya.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Manterolaren bilduman.

Jaun onek itz auek erantsi zizkion paperari: «Ramon Artola-k ipiñiak, Donostian, Marzoaren ogei ta amaikan 1875-garren urtean».

Auspoa-ren leen zenbakian ere argitaratu genituan bertso auek, 1961-an eta bai *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak* liburuan ere (1997).

Arsenio Martínez Campos jeneralak Alfonso XII gaztea errege oiukatu zuan Sagunto-n, 1874-XII-31-n, monarkia berriro Espaiñira ekarriz. Ala, bertso auek gertaera orren oiartzuna dira.

Cabrera jeneral zaarra, berriz, leenengo gerratean karlistekin ainbat burruka egiña, auen kontra agiriren bat firmatu berria zan. Kopla au atera zuten orduan karlistak:

*A combatirnos Cabrera
 va a venir con Espartero;
 vaya un lindo par de momias
 para adornar un Museo.*



Ramon Artola liberaletako *Voluntarios de la libertad* taldeetako izan zan karlisten bigarren gerratean (1872-1876), bere lagun Bilintx izan zan bezela. Ona emen talde oien jantziarekin.

(1875)

Amorioa eta penak



1

Galaiak:

Biyotz neriak maite zaituben
aingeru zoragarriya,
beste maitatzen dezulako zuk
penaz despeitu naiz iya;
laister artuko du nere amak
ill naizelako berriya,
baldin maitatzen ezpanazu ni,
maitetxo maitagarriya.

2

Galaiak:

Maita nazazu arren da arren,
biyotz nereko kuttuna,
ori egin nai ez dezulako
sufri arazten nazuna;
pena geiegiz nai badezu ill
sobra naitasun dizuna,
sari egun bat argituko da
kontsegituko dezuna.

3

Damak:

Ez nazazula orlakorikan,
galaia, neri erantzun,
beste maitatzen baldin badet nik
neroni dirazu entzun;
bada, jakiñik, zertako nazu
artzen ainbeste naitasun?
Merezi dedan bañan geiago
eztakit zertan nai nazun.

4

Galaiak:

Zertako naiko dizut ainbeste,
egunsentiko izarra?
Ezin sendatuz nabillelako
sufritzen dedan min txarra;
biyotz neria erretzen duben
amoriyozko su-garra
benaz itzaldu lezakenikan
zu zera bakar-bakarra.

5

Damak:

Nonbait zerubak oker ipiñi
zuben fortuna guria,
zu ezin izan besterena ta
ezin ni ere zuria;
egun eta gau beti goguan
daukat maitetxo neria,
mundu guziyan bañan naiago
nuke banindu beria.

6

Galaiak:

Zure abotik nik au aitzia
zer pena eta zer lotsa!
Aspaldiyontan zauritzen nazun
lantza guttiz da zorrotza;
ez dezu aitzen nere barrenak
daukan auziyaren otsa,
nitaz kupitzen ezpazera zu
dezu arrizko biyotza.

Damak:

Zu neregatik bazaude miñez
ni nago bestegatikan,
diña maitatzen ez naubelako
iya sartuban etikan;
maite dedana urrikaldutzen
ezpada neregatikan,
ni sendatzeko denboraz ezta
ezer izango botikan.

Galaiak:

Aundiyak dira nere barrenak
dauzkan pena ta tristura.

Damak:

Aspaldiyontan nere biyotza
iñola ezin piztu da.

Galaiak:

Amoriotik allegatu naiz
illtzeko trantze estura.

Damak:

Onela bizi bañan naiago
nuke joan beste mundura.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Manterolaren bilduman.

Or goien ezarri degun doiñua ere bertso-paper ortatik artua da.

Jose Manterolak itz auek erantsi zizkion paperari: «Ramon Artolak ipi-
ñiak Donostiyan aboztu illaren amargarrenian 1875-garren urtean».

Auspoa-ren leen zenbakian ere argitaratu genituan bertso auek; doiñu-
rik ez, ordea.

(1876)

Arbolari

(*Gernikako arbola-ren doñuban*)

1
Gure arbol santuba
arkitzen da eri,
zain sendo ugariyak
galtzen zaizka ari;
laguntzen ezpazaio
denboraz berari,
tronko maitagarriya
liteke erori.
Laguntzen ezpazaio...

2
Ez dediyen erori
arbol sendo fiña,
lagunduko diyogu
geren alegiña;
aundiya izan arren
senti duben miña,
ez luke galdu bear,
ez, gu nor bagiña.
Aundiya izan arren...

3
Arbola galtzen ezta
laja bear errez,
ez dubelako bere
igualik ederrez;
onen frutubak lurra
betetzen du urrez,
au galtzen bada gera
biziko negarrez.
Onen frutubak lurra...

4
Arbolaren azpiyan
gerarenak bizi,
ez degu bear galtzen
arbolik ikusi;
gure guraso zarrak
zigutena utzi
guk galtzia izango
litzake itxusi.
Gure guraso zarrak...

5
Arbola galtzen balitz
egiyazko penak
pasatuko giñuzke
guardatzen gaudenak;
aita zar maitagarri
lurpean daudenak
gure kontra lirake
altxatuko denak.
Aita zar maitagarri...

Jose Manterolaren bildumatik, es-
kuz idatzitako orri batetik.

Baita ere *Auspoa*-1, 1961..

Manterolak itz auek idatzi zituan
bertsoen ondotik: «Ramon Artola-k
ipiñiak Donostiyan Maiatzaren biyan
1876-garren urtean».

(1876)

«Kaja polit onetan...»

1
Kaja polit onetan
gorderik gaurenak,
obe gaitu erosi
fumatzen dubenak;
ez batzubek bakarrik
ezpada dianak,
gera guziz ederki
piztuko geranak.

2
Nai ditubenak piztu
gas ta krixalluba,
zigarro paperezko,
pipa naiz puruba,
arraixkatzia basta
du gure buruba,
eta izango ditu
argiya ta suba.

Jose Manterolaren bilduman, eskuz idatzitako orri batean.

Bigarren bertsoa *Euskal Erria* aldizkarian ere agertu zan, 1891-n, pika bat aldatuta:

arraixpatzia dauka
poxpolo buruba,
non izango dituben
argiya ta suba.

Bertsoen ondoren itz auek, Jose Manerolak idatziak: «Ramon Artola-k jarriak Donostiyan 1876-garren urtean». Baita ondorengo bertso auek ere, ziur aski Ramon Artolaren lumatik jaiোক:

«Ni beti ibiltzen naiz tximutxaren alde,
sangratzen nautelako ongi ta debalde.

Otzak iya ill nau ta subak inpreuban!
Aruntz joan bearko det aurtengo neguban!

–Petra, non dezu iru kuartoko monera?
–Erori egin zait lurrera.

Txanpona alde ortara joan da ta kuartoa berriz onera!

Auspoa 1, 1961.

(1876)

Oroitz bat Bilintxi

Lurperatu da Bilintx
doaitsu umilla,
atsekabe samiñak
igarota milla;
denok pena degula
izandu da illa,
mundu ontatik joan da
kontsuelua billa,
zerubaren erdiyan
gertatu dedilla.

Bertso au *Diario de San Sebastian* egunkarian agertu zan, 1876-VII-25-ean. Egillearen izenik ez du; bañan Jose Manterolaren bilduman ere antxe dago bertso au, eskuz idatzita eta ondoren itz auek dituala:

«Ramon Artola-k ipiñia Donostiyan Uzta-illaren ogei ta laugarrenean 1876-garren urtean».

Bilintx 1876-ko Uztaren 22-an il zan. Lurra biaramonean eman zioten, 23-an. Bertso auek Ramon Artolak 24-an jarri, eta 25-ean egunkarian agertu.

Auspoa 1, 1961.

(1876)

Jonas eta Ana

1
Itxas eskiña bitan
Jonas eta Ana
izan zan denbora bat
bizitzen zirana;
arratsetan arturik
txalupatxo bana,
itxasoan juntatzen
ziran alkargana.

2
Gau illunetan alkar
billatzeko giyak
zituzten txalupetan
nork beren argiyak;
zeru alaia bazan,
berriz, illargiyak
zituben alkargana
giyatutzen biyak.

3
Alkarren amoriyoz
itxutubak oso,
egunak pasatuzten
zituzten penoso;
arratsak, berriz, biyotz
zeuzkatenak preso
librean ipiñirik,
maitaro ta gozo.

4
Modu ontan zirala
urte bat osoan,
eriotzak atzitu
zituan lazoan;
bein egon ondorean
izketa gozoan,
eskutatubak izan
ziran itxasoan.

5
Denborak emanikan
uste gabe mura,
txalupetara sartu
zitzaioten ura;
irten bañan len biyak
leku segurura,
alkarrekin itota
joan ziran zerura.

Jose Manterolaren bilduman, eskuz idatzitako orri batean, ondoren onela diola: «Ramon Artola-k ipiñiak Donostiyen Urri-illaren bederatziyan 1876-garren urtean».

Auspoa 1, 1961.

(1877)

Erdaldun baten zaldiyari

1
Kontatu al banitzake penak
zaldi zar batek dauzkanak,
negar egingo luteke biyotz
biguñak dituzten danak;
gaixua iya ill du gosiak
eta kiskurak maiz janak,
preso sartzia merezi luke
ura etxian daukanak.

2
Bestek jan ezin dituben gauzak
arrentzat dira gozuak,
pentsuz jabiak ematen dizka
zuraren zinta lazuak;
ainbeste kiskur goizetik arrats
tragatzen ditu gaixuak,
kakaren partez iñoiz egiten
ditu piñu-ol osuak.

3
Zaldi argalak bizi-moduba
gutziz penosua dauka,
plakiyak beti ibilli bear
bere lanetan jiraka;
egun guztiyak pasatzen ditu
karro zar bati tiraka,
arratsak berriz ezin egiñik
kiskurak jandako kaka.

2
Ematen zaion janak egiten
eztiyolako onikan,
indar guztiyak joan zaizka eta
ezin egin du lanikan;
eztet munduban uste zaldi bat
argalagorik danikan,
zezenak plazan garbitzen dute
itxura obekorikan.

5
Zaldi zarraren jabia nor dan
askok bear dit galdetu,
eztiyotet nik erakutsiko
jota ez nazan baldatu;
obe luke ark Donostiyatik
beste norabait aldatu,
sarri jendiak ezagututa
ez dezan begitan artu.

6
Momentutikan erreguz jartzen
naitzaio ni jabiari:
ez dediyela animaliya
orrela tratatzen ari;
pentsu obiak ezpadizka nai
eman zaldi beriari,
kastiga dezan parte emango
zaiola alkatiari.

Jose Manterolaren bilduman, eskuz idatzita. Ondoren: «Ramon Artola-k
ipiñiak Donostiyan Otsagillaren amaikan 1877-garren urtean».

Bilintx ere baditu *Zaldi zuriari* jarritako bertsoak. Zaldi bera ote zan?
Auspoa 1, 1961.

(1879)

Argi-bideak

Zer egin bear du gizonak: ezkondu edo gelditu ezkongai?

1
Ezkontzea da gauza
txarra eta ona,
bizi-bide sekreto
aundiyan dagona;
gaizki jarri liteke
ala ez dagona,
bai eta ere ongi
len gaizki egona.

2
Nere kontsejuz iñor
bear baldin bada,
aurregi ezkontzea
erokeri bat da;
jolas denbora libre
pasatu al bada,
penatzeko denbora
gero ere bada.

3
Lenengo biyotz biz bat
egitnik elizan,
ezkon berriyak gaizki
ez litezke izan;
bañan ditxak jirarik
aizearen gisan,
gero dira kontubak
munduko bizitzan.

4
Abiyatzen danean
aur txikiyen festa,
etxean infernuba
billatzen errez da;
gabaz lo gaizki egin,
egunaz orkesta,
lengo bizimodurik
arkitutzen ezta.

5
Aur bat tronpeta jotzen,
negarrez bestea,
zarragoa saltoka,
txiliyoz gaztea;
onela joaten dira
jaia ta astea,
jolasteko senarra
eta emaztea.

6
Oiek mantentzen eta
gañera jantzitzen,
gurasoak eztute
gutxi padezitzen;
jaio eta dituzten
artean azitzen,
pena ta nekepean
dirade bizitzen.

7

Ala ere ez dira
palta gurasoak,
alkar maitatzen duten
amoriosoak;
ez izan arren ditxa
guziyak osoak,
pasatzen dituztenak
era-aldi gozoak.

8

Eman zaiogun orain
begiyari jira,
ezkongai daudenari
jartzeko begira;
sasoia pasatubak
ezpaldin badira,
lasai bizi dirala
ikusiko dira.

9

Ezkongaia librean
arkitzen da oso,
ez dauka ezkontubak
ainbat estrepozo;
famiyaren kargik
eztu bear jaso,
bakarra da ta bizi
liteke eroso.

10

Bañan gaztetan bizi
nai dubenak lasa,
zartzean dauka beste
moduzko jolasa;
bakar gelditurikan,
ez danean gauza,
bizimodu triste ta
txar bat oi du pasa.

11

Indarrak eskastuta
danian debiltzen,
gauza sobratu baten
gisan da ibiltzen;
tristurak bear baña
lenago du illtzen,
eta nork negar egin
etzaio gelditzen.

12

Mundu au negarrezko
zelai bat izanik,
ezta bizimodurik
penarik eztanik;
alaz guziaz jira
begiai emanik,
ezkontubak obeki
arkitzen ditut nik.

13

Orra geren aurrean
naiko ikuskera,
argi-biderik gabe
arkitzen ezkerak;
orain iñork badauka
ezkontzeko era,
zer egin berak bere
kontubak atera.

Euskal Erria, 1882.

Bertsoen ondoren onela dio: *Ramon Artola*. - *Junio* 79. Bertso auek urte ontan, 1879-an alegia, jarriak dirala esan naiko du.

Auspoa, 1, 1961.

Altabizkarko kantua

Nor bere etxean izan bedi nagusi

(1879) Neurtizlarien gudua. Elizondoko bestetan garhait saria eraman duen kantua Ramon Artola Donostiakoak egiña.

1

Oiuska bat entzun da euskaldunen mendiyetan.
Etxekojauna zut-zutik zeguen bere atietan;
aditu du ta esan du: «Zer da gure lur onetan?».
Eta altxarik txakurra, lotan zeguen oñetan,
nastu du Altabizkarko inguru dena zaunketan.

2

Ibañetako mendiskan arbast-ots bat da sentitzen;
arkaitzak ezker-eskui joaz datoz ugaritzen;
armada batek dakarren burrundara da urbiltzen.
Gureak mendi-gañetan orain ari dira biltzen,
eta etxekojauna ez da dardak zorroztez gelditzen.

3

–Emen dira! Emen dira! O zer lantzazko sasiya!
Banderaz ezarriya da lur urrutiko guziya.
Aien armaren diztirak milla tximisten argiya
botatzen dute, ta bista begira galdu zait iya.
Ikusi bitza, ikusi! Ikusi bitza, nausiya!

4

–Zenbat dira, aurra? Kontaitzik ongi.
–Dira bat, bi, iru, lau, bost,
sei, zazpi, zortzi, bederatzi,
amar, amaika, amabi,
amairu, amalau, amabost, amasei,
amazazpi, emezortzi,
emeretzi, ogei.

5

Ogei ta millak ta millak dira bidean onera;
denbora galduko degu kontaktzen jartzen bagera.
Batu ditzagun indarrak, arkaitz aundiyak atera,
eta sartzen diranean gure mendiyen oñera,
amil zaizkagun lertzeko beren buruben gañera.

6

Iparreko gizon oiek zertan ziran gerran asi?
Zertan zuten Españaia pakean zeguela nasi?
Arkaitzak amildu dira; ezurak zaizkate autsi;
aragiak daude dardar puskatuak, zabalduak;
orrelako sarraskirik ez du ikusi munduak.

7

Korri, korri, oñezko ta Karlomanoren zaldunak,
euk ere bai dantzatubaz kapa gorriya ta lumak.
Iloba Roldan illa dek, orra zangar aren famak.
Orain, euskaldunak, ea!, laja-ta arkaitzen lanak,
dardaz akaba ditzagun igesi dijoazenak.

8

Badijoaz, badijoaz illak utzi ta biziyak.
Orra aien edertasuna eta beren pantesiyak.
Non dira lengo banderak eta lantzazko sasiyak?
Armetan ez da tximistik, odolez dira bustiyak.
Badijoaz, badijoaz, iya joan dira guztiyak.

9

–Zenbat dira, aurra? Kontaitzik ongi.

–Dira ogei, emeretzi,
emezortzi, amazazpi,
amasei, amabost,
amalau, amairu,
amabi, amaika,
amar, bederatzi,
zortzi, zazpi, sei, bost,
lau, iru, bi, bat.

10

Bat ere ez da ageri, bakarrik gelditu gera.
Etxekojauna joan leike txakurrarekin etxera,
emaztea eta aurrak zorionez laztantzera,
dardak garbitu-ta adar-zorroetan altxatzera,
eta beren gañean lo egiñaz deskantsatzera.

Obizdea

11

Gabaz arrano-sallak dirade bilduko,
eta gorputza jaten dira ibilduko;
mami-puskak bistatik dirade galduko,
bañan ezurrak beti dira azalduko.

Bertso-papera. *Bayonne, imprimerie Lamaignere, rue Chegaray.*

Revista Euskara, 1879.

Euskal Erria, 1887.

Auspoa, 1, 1961.

(1880)

Zerura begira

Nere zalantzak gozakaituta
penak kentzeko nigandik,
zerubari txit maiz nik egin oi
nizkan begiratu aundik.
Ai, nere ama, aruntz goititu
ziñan ezkeroz emendik,
egun eta gau uste det neri
begira zaudela andik!

Euskal Erria, 1880.

(1880)

Txomin irutxulotarra bere erriyan

1
Urrutiyetan nere denbora
pasarik jira ta bira,
momentu ontan arkitutzen naiz
Donostiyari begira;
urte askoren buruban nator
itsasoz nere errira,
orain sartzen naiz Irutxuloeta
zarrera eta berrira.

2
Zartuta nator Donostiyara
irten nintzana gazterik,
ontaz oroitu gabe pasatu
etzait jairik ez asterik;
orain beraren barrenen nago
pozez ta penaz beterik,
zeñen ez detan ikusten gauza
diferentiak besterik.

3
Ez dakit nondik nora nabillen,
non jartzen detan pausoa,
antzikan ezin ezeri eman,
au da lan kurioa.
Non dira nere jaiotetxea,
kalea eta auzoa?
Ezin billatu ditut non diran
jirarik erri osoa.

4
Iru orduban nabil zoratzen
aruntz joan onuntza jira,
lengo emengo etxeak eta
gauzak non diran begira;
kupelatei ta tabernariyak
ere lengoak ez dira,
zarrikan ez det ezer billatzen,
guztiyak berriyak dira.

5
Noizbait bear da azaldu zaizkit
etxe lengoak diranak,
Gaztelubaren oñean daude
ogei ez dira dianak;
eliza bi ta bi konbentubak
erre izan etziranak,
oiek bakarrik ikusten ditut
lenago emen ziranak.

6
Ez dira lengo muralla aundi
beltz aiek ere ageri,
kontu artutzen beti egoten
ziranak Donostiyari;
beren tokiyan jolas-leku ta
arbolak daude ugari,
ikusten nagueen egi guztiyak
gezurra dala diruri!

7

Aundiyak eta ederrak dira
emen egin diran lanak,
eta ez ere eskasagoak
egiten ari diranak;
lengo denboran ondar-pilla ta
belar-tokiyak ziranak,
gaur erri berri batekin iya
estali dira dianak.

8

Arboldegizko pauso-lekubak,
loretoki ta zelaiak,
graziyaz daude beteak eta
etxeak dira galaiak;
arku jirakin plaza ederrak,
kaleak zabal alaiak,
au guztiya du koroitzen iñon
igoalik ez duben plaiak.

9

Begira jarri erriyari ta
orobat itsasoari,
eta guziyan edertasuna
besterik ezta ageri.
Nola ez jaio bati burura
ote zan goitik erori?
Bada zerutik amildutako
arren puxka bat diruri.

10

Begiyak ase eziñik dauzkat
ikustez nere erriya,
amets gozo bat ez dala ere
ezin sinistu det iya;
ain dago beste ez beziñ perla
eder, begiragarriya,
au ez da lengo Irutxuloeta,
da zero txiki berriya.

Bertso-papera, *Pamplona*. - *Imp. de J- Lorda*.

Orriaren izenburu osoa: 1880 / *Neurtizlarien gudua: / Berako bestetan / lehenbiziko aipamen ona eraman duten antolamendu biak / Ramon Artola, Donostiarrak egiñak*. Gero, alde batean: *Ipuia edo fabula, bildotxa eta otsoa*. Eta bestean: *Txomin Irutxuloetarra bere erriyan*.

Euskal Erria, 1880.

Revista Euskara, 1880.

Euskal Erria, 1905.

Auspoa, 1. 1961.

Urte asko atzerrian igaro dituan donostiar baten aotan jartzen ditu bertso auek Ramon Artolak. Dalako donostiar ori inglesak Donostia erre aurretik joana zan, 5-garren bertsoak adierazten duanez; 1813 baiño leenago beraz. Eta arresiak edo *murallak* bota ondoren dator, 6-garrenak dionez. Arresi oiek karlisten gerra aurretik (1872-1876) bota ziran, 1863 aldera.

(1880)

Egun-sentia

1
Onen etorrera da
biotz pozgarriya,
daguena denboran zeru
azpia garbiya;
izarrak joaten dira
galdubaz argiya,
gelditzen dalarik bat,
ura illargiya,
itsasora jetxiyaz
lo artuban iya.

2
Beren izkeran agur
egiñaz Jaunari,
txori txikiyak asten
dirade kantari;
gaixuak ontan diran
bitartean ari,
indarrak laburtuta
arrats illunari,
jαιοera ikusten
zaio egunari.

3
Sortegiko aldean
azaltzen da ontan
zillarrezko zinta bat
zerubaren mugan;
gero ugariturik
argitasuna an,
balegoke bezela
urrutiya sutan,
iruzkia sortzen da
mendiyaren puntan.

José Manterola: *Cancionero basco, tercera serie*, 1880.

Euskal Erria, IV, 1881.

Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo I, Imp. Macazaga, Rentería.

Bertsolariya, 1931.XII-27

Auspoa, 1, 1961.

* * *

«Esta composición y la que aparece en la página inmediata –**Illunabarra** izenekoa, alegia– vieron la luz por vez primera en la serie III del Cancionero Basco. Las dos bellísimas traducciones en romance que a título de ensayo ha hecho el Sr. Trueba han sido publicadas en la hoja literaria del Noticiero Bilbaino correspondiente al lunes 17 del corriente mes».

(Jose Manterolaren oarra, *Egun-sentia* eta *Illunabarra* sailak *Euskal Erria* aldizkarian argitaratzerakoan).

* * *

Jose Manterolak, bere *Cancionero Basco* ortan, sail auen erdal itzulpena ere eskeintzen du. Ona emen:

La aurora

«¡Cómo alegre el corazón su llegada, cuando el horizonte se muestra claro y despejado! Las estrellas van perdiendo poco a poco su luz, y queda en el firmamento un solo astro, la luna, que baja al mar casi, casi, dormida.

Los pajarillos comienzan a saludar al Creador en su especial lenguaje, y mientras ellos cantan, agótanse sus fuerzas a la oscura noche, y muéstrase el nacimiento del nuevo día.

Asoma en esto por Oriente, y en los límites del espacio, ancha franja de plata, aumenta gradualmente su luz cual si el lejano horizonte se hallara inflamado, y tras la cima de la montaña hace su aparición el astro del día».

* * *

Esan degunez, Antonio de Truebak ere sail onen erdal itzulpena egin zuan, bertsoan ordea. *Euskal Erria* aldizkarian agertu ziran, 1881-an, Ramon Artolaren bertsoen ondoan. Ona emen:

El amanecer

*La llegada de la aurora
¡cómo el alma regocija
cuando la atmósfera encuentra
azul, despejada, limpia!*

*Las estrellas poco a poco
a su aparición se eclipsan
y ya solamente un astro
en el firmamento brilla:
la luna, que al mar descende
lánguida y como dormida!
Los pajarillos comienzan
en su dulce algarabía
a saludar al que rige
tanta y tanta maravilla,
y mientras cantan, la noche
desfallece y agoniza,
y alegrando cielo y tierra
aparece el nuevo día!
En tanto, allá hacia el oriente,
donde el espacio termina,
hermosa franja de plata
resplandeciente se inicia
y el astro del día asoma
del monte en la alta cima!*

(1880)

Illunabarra

1
Iruzkiya asten da
jetxitzen, jetxitzen,
dizdizera ederra
zaiola gutxitzen;
diamantezko printzak
zaizkanean galtzen,
urrezko bola baten
itxuran da jartzen,
eta geldi-geldi da
itxaspera sartzen.

2
Jiratzen dan denboran
itxaspe aundira,
paletako kolore
guztiak an dira;
ain pintura pollitak
goien jartzen dira,
ustetzen da zeruba
auspez dala jira,
ezin asper liteke
berari begira.

3
Sarri beltzez jantzirik
zabalde guziya,
txori txikiyen kantik
ez da aitzen iya;
izarrez apaintzen da
zerupe garbiya,
eta bazter denari
emanaz argiya,
azaltzen da goi-farol
eder illargiya.

José Manterola: *Cancionero basco, tercera serie*, 1880.

Euskal Erria, IV, 1881.

El Pueblo Vasco, 1904-XII-17.

Euskal Erria, 1908.

Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo I, Imp. Macazaga, Rentería.

Bertsolariya, Rentería, 1932.

Euskal Kantak, Donostia, 1959.

Auspoa, I, 1961.

* * *

Bertso auen erdal itzulpena ere badu Jose Manterolak bere kantutegian:

El anochecer

«El Sol comienza a declinar, perdiendo poco a poco su hermoso brillo; ájanse y se debilitan sus diamantinos rayos, pónese semejante a una bola de oro, y lentamente, lentamente, se va ocultando allá en el fondo del mar.

En el momento en que penetra bajo las ondas del dilatado Océano, muéstranse allá todos los colores de la paleta, y el horizonte ofrece un cuadro tan bello, que no parece sino que el Cielo se ha invertido, de tal suerte que es imposible cansarse de contemplar tan admirable espectáculo.

Muy luego, vístese de negro el dilatado espacio, los pajaritos enmudecen, dejando apenas escuchar su canto, adórnase de estrellas el limpio firmamento, y asoma, derramando su luz por todas partes, la luna, la nocturna antorcha».

* * *

Antonio Truebak ere badu sail onen erdal itzulpena, bertsoan egiña, *Euskal Erria* aldizkarian, 1881-ean, Ramon Artolaren sailarekin batera argitaratua:

El anochecer

*Perdiendo su hermoso brillo
poco a poco el sol declina;
sus diamantinos colores
se ajan y se debilitan;
la forma de un globo de oro
toma su forma indecisa;
lentamente, lentamente
de la altura se desliza
y en el fondo de los mares
por ocultarse termina;
al ocultarse en las ondas
del océano bravías,
todos, todos los colores
de la paleta allí brillan,
y en el horizonte, cuadro*

*tal y tan bello se admira,
que haberse invertido el cielo
quien le contempla imagina.
Pronto el dilatado espacio
invaden oscuras tintas;
los pájaros enmudecen
tras melancólica ritma;
en el limpio firmamento
estrellas se multiplican
y apareciendo la luna
en cuanta extensión domina
como antorcha de la noche
derrama su luz tranquila.*

* * *

Raimundo Sarriegi musikalariai doña jarri zien bertso auei, lau abo-
tsetara. Kanta au makiña bat aldiz kantatu dute geroztik Euskal Erriko
kantari-taldeak. Urrengo orrialdeetan eskeintzen degu.

f l - lu - na - ba rra. E - guz - ki - ya as - ten da je - tzi - tzen, je - tzi -
f l - lu - na - ba rra. E - guz - ki - va as - ten da je - tzi - tzen, je - tzi -
f l - lu - na - ba rra. E - guz - ki - ya as - ten da je - tzi - tzen, je - tzi -
f l - lu - na - ba rra. E - guz - ki - ya as - ten da je - tzi - tzen, je - tzi -

1^o vez
 tzen diz - di - ze - ra - e - de - rra za - yo - la - gu - tsi - tzen
 tzen diz - di - ze - ra - e - de - rra za - yo - la - gu - tsi - tzen
 tzen diz - di - ze - ra - e - de - rra za - yo - la - gu - tsi - tzen
 tzen je - tzi - tzen diz - di - ze - ra - e - de - rra za - yo - la - gu - tsi - tzen gu - tsi - tzen

2^a vez
 za - yo - la - gu - tsi - tzen. Di - a - man - tez - ko prin - tzak za - iz - ka - ne - an - gal -
 za - yo - la - gu - tsi - tzen. Di - a - man - tez - ko prin - tzak za - iz - ka - ne - an - gal -
 za - yo - la - gu - tsi - tzen. Di - a - man - tez - ko prin - tzak za - iz - ka - ne - an - gal -
 za - yo - la - gu - tsi - tzen. Di - a - man - tez - ko prin - tzak prin - tzak za - iz - ka - ne - an - gal -

tzen. U - rrez - ko bo - la - ba - ten i - tzu - ran da jar - tzen e -
 tzen. U - rrez - ko bo - la - ba - ten i - tzu - ran da jar - tzen e -
 tzen. U - rrez - ko bo - la - ba - ten i - tzu - ran da jar - tzen e -
 tzen, gal - tzen, gal - tzen. U - rrez - ko bo - la - ba - ten i - tzu - ran da jar - tzen e -

1^a vez 2^a vez

ta gel-di, gel-di - kan i - txas-pe-ra sar - tzen. tzen

ta gel-di, gel-di - kan i - txas-pe-ra sar - tzen. tzen. E - ta gel-

ta gel-di, gel-di - kan i - txas-pe-ra sar - tzen. tzen.

ta gel-di, gel-di - kan i - txas-pe-ra sar - tzen. tzen.

gel-di gel-di gel-di e - ta i - txas-pe-

di, e - ta gel - di, e - ta gel - di gel-di e - ta i - txas-pe-

e - ta gel - di e - ta gel - di gel-di e - ta i - txas-pe-

gel - di gel - di gel - di e - ta i - txas-pe -

ra sar-tzen, sar - tzen. gel-di gel-di gel-di

ra sar-tzen, sar - tzen. E - ta gel - di, e - ta gel - di e - ta gel - di gel-di e-

ra sar-tzen, sar - tzen. e - ta gel - di e - ta gel - di gel-di e-

ra sar-tzen, sar - tzen. gel-di gel-di gel-di

e - ta i - txas-pe - ra sar - tzen, sar - tzen i - txas-pe - ra sar-tzen, sar - tzen.

ta i - txas-pe - ra sar - tzen, sar - tzen i - txas-pe - ra sar-tzen, sar - tzen.

ta i - txas-pe - ra sar - tzen, sar - tzen i - txas-pe - ra sar-tzen, sar - tzen.

e - ta i - txas-pe - ra sar - tzen, sar - tzen i - txas-pe - ra sar-tzen, sar - tzen.

(1881)

**D. Pedro Calderón de la Barca-ren
onorean kantatxoa**

1
Zure sorterri Ama Españak
gaur dizu egiten deya,
eskeñi nairik ostoz moldatu
zaitzun koroï bat berriya;
kopeta noble ori sointzeko
orduba da, eta iya
daukazun loa laja ta jaiki
zaitez, Don Pedro aundiya.

2
Nekez oroitu baikerade bi
giza-aldiren buruban,
zeren au egin bear zitzaizun
lotara ziñan orduban;
bañan barkatu, gu nola sasoi
artan ez giñan munduban,
orduko partez orain ezarri
nai degu zure buruban.

3
Guk untz-ostoz ta erramuz degun
gisan moldatu zuretzat,
zuk diamantez zenuben egin
España osoarentzat;
bada geroztik dauka altxea
onoregarri beretzat,
dizdiratubaz desitsatsitzen¹
zaizkala perlak guretzat.

4
Ziñan abade doaiz soindu bat,
dramalle berdin gabea,
zeñakin piztu zenuben gure
Jaunaganako pedea;
oraindik ere zera gauza txit
baliosoen jabea,
zartuakgatik ez dute jotzen
zure lan aundiya bea.

5
Zu zera utzi zizkiguzuna
irazekiyak argiyak,
azal zitezen urrutitako
bollargi jirak² garbiyak;
ase eziñik gozoro egon
oi dira gure begiyak,
ikusten beren aurrean zutik
para ziñuzen egiyak.

6
Non dira zure memoriya ta
pluma doaizko zurea,
argitaratu zutenak zala
amets bat bizi gurea?
Zer andigaia izan zan para
zenuben argibidea!
Lan oroigarri ura entzutez
ezta aspertzen jendea.

7

Zer esango da ere biltoki³
aundi mundukoagatik,
zeñetan egin ziñuzen milla
pintura eder gugatik?
Ikusten gera aberats, pobre,
zar, gazte, eder, itsusik,
zer moduz jaiio, bizi eta joan
oi geran mundutik guzik.

8

Eta zer dira sakramentuba
gaindutzen duten autoak?
O zein barrendik artubak dauden,
zer pentsamentu jasoak!
Beretan dira argitaratzen
gauza misteriosoak,
gizontasuna⁴ indarturikan
daukaten prutu gozoak.

9

Zure biurtsak⁵ azaltzen dute
nola dan Eukaristiya,
zer modutan dan ogi egiten
Kristoren gorputz eztiya;
au da abade baten itzakin
Jaun biurtutzen ostiya,
bere graziyan indartu dezan
artutzen duben guztiya.

10

Aiñ andigaiak badira oek,
gañerakoak zer dira?
O antz baleko txit mirariyak
kutuntzat gordetzen dira;
denak urrezko egakin ziyen
eman mundubari jira,
arriturikan utzirik jende
dena berari begira.

11

Zeiñ biltokiko jazkerarekin
zein eleizako jantziyan,
zure plumatik atera ziran
izkribu denak graziyan;
ala European non Amerikan,
Aprikan eta Asiyan,
zure izena errespetatzen
dute gaur mundu guziyan.

12

Mundu osoan irukirikan
gloriya irabaziya,
zu ill ziñala esaten ari
da beti jende guziya;
bada ikasi bezate denak
ez dala ori egiya,
Don Pedrorikan etzan ill, dago
lotan oraindik biziya.

13

Au bere lanak esaten dute
erabatkari justubak,
onore jaikitakoz egille
berena aberastubak;
ain berarekin egongo dira
biotz denetan piztubak,
non ez diran bein mundubak
diraun
arte izango aztubak.

14

Ama España maite-maitea,
zenubelako merezi,
oroikagarri⁶ berri eder bat
egiten zitzaizun asi;
gaur da bukatu, eta nor ziñan
dezaten denak ikasi,
bere gañean nai zaitu para,
zaitezen beti an bizi.

15

Zu goitizera dira beraren
beste semeak etorri,
eta gu ere bai, euskaldunak,
bidean korri ta korri;
bidez ditugu usai gozozko
lore gerenak ekarri,
nai ditugula onorezteko
zure oñetan ezarri.

16

Lor-ontzi motx au ez dator emen
daudenak bezin betea,
alaz guziyaz Euskal Erriko
lorenz onora zaitea;
ez ditekena da gutxi izan
eta asko ematea,
eskeñiya da txikiya, bañan
aundiya borondatea.

17

Zure oroitzik mundurik mundu
iñoiz ez dediyen borra,
mallarik goien-goienengora
altxatu zaitugu, orra;
au egin arte zekarren gure
biotzak karga gogorra,
gaur dizu zere Ama Españak
pagatu zenizun zorra.

18

Begira jarri bitez onuntza
ingurutako erriyak,
eta segiran asi altxatzen
onelako lan berriyak;
bear bezela ez diralako
sarizten⁷ gizon aundiyak,
lotan gelditzen dira esnatu
bear luteken erdiyak.

19

Jira gaitean gu, euskaldunak,
orain geren lur maitera,
non arkituko degun lan-modu
oek antzetzeko⁸ era:
guk ere geren aita onaren
seme leialak bagera,
bear ditugu illunpetatik
argira berak atera.

20

Ara non dagon, ara Don Pedro
ustez ill zana biziya,
oroikagarri berri batean
soin onorezkoz jantziya.
Biba lan on au egin dutenak!
Biba España guziya!
Jaunak banatu dezala denen
gañean bere graziya.

Euskal Erria, 1881.

Beste sail batzuk ere badira aldizkari ortan erdal idazle orren
omenez. Izan ere, berreun urte betetzen ziran ura illik.

¹*Desprender*. ²*Los horizontes*. ³*Teatro*. ⁴*La humanidad*. ⁵*Poemas*. ⁶*Monumento*. ⁷*Premiar*. ⁸*Imitar*. (Egillearen oarrak).

(1881)

Uda-berria

1
Otzak eskasten dira,
denborak arintzen,
aize txarrak ez dute
len ainbat agintzen;
sarritan zerupea
dalako garbitzen,
eguzkiyak du urdin
purutik argitzen,
eta alai da guztiz
kanpoa arkitzen.

2
Berdeturikan mendi,
zelai ta mastiyak,
pozez kantari jartzen
dira egaztiyak;
egunaz eguzkiyak,
gabaz intz eztiyak,
lurrak pararik gozo
legor ta bustiyak,
loratzen dira fruta-
-arbola guztiyak.

Euskal Erria, 1881.

Bertso auen erdal itzulpena Jose Manterolak egin zuan, eta *Euskal Erria* aldizkarian argitaratu.

La Voz de Guipúzcoa, 1892-III-25. Aldaketak: 1/1: Otzak malguntzen dira; 1/8: fiñetik argitzen; 1/9: eta kanpoa guztiz; 1/10: gozo da arkitzen; 2/1: Berdeturik mendiyak; 2/2: zelai, sagastiyak; 2/7: pararik gozo lurrak; 3/5: liriyo, azuzenak.

Baserritarra, 1907-IV-13.

3
Oez gañera dira
azaltzen txit fiñak,
usaidun lore zuri,
gorri ta urdiñak:
liriyo, azuzena,
aleli, jazmiñak,
nola arrosak eta
ala krabeliñak,
guztiyak guretzako
zerubak egiñak.

Auspoa, 1, 1961.

* * *

Erdal itzaulpena ere egin zuan Jose Manterolak aldi ontan ere, bertso-
tan gaiñera, eta *Euskal Erria*-n eskeiñi. Ona emen:

*Los fríos disminuyen,
los tiempos se aligeran,
los iracundos vientos
perdiendo van su fuerza,
y, como el horizonte
se limpia con frecuencia,
el sol brillante luce
en la azulada esfera,
y alegres y risueños
los campos se presentan.*

*Al ver reverdecidos
los llanos y las crestas,
las tiernas avecillas
su canto al cielo elevan;
el fecundante sol
con el rocío alterna
dando color y jugo
a las dormidas tierras,
y del sabroso fruto
la flor amarillea.*

*A más, matizan pronto
los campos de belleza
las olorosas flores,
su más rica preseña,
el alhelí, el jazmín,
el liro, la azucena,
la rosa y el clavel,
que Dios plantó en la tierra
para que el hombre goce
su aroma y su presencia.*

(1881)

Uda

1
Goiz bildurik zerubak
gabazko mantuba,
goiz sentitzen da txori
txikiyen kantuba;
eguzki urrezkoak
jirarik munduba,
ematen dubenean
argi doratuba,
frututan ikusten da
kanpo loratuba.

2
Gar bizitan dalako
eguzkiya sortzen,
ikaragarri ditu
kanpoak berotzen;
ainbeste su da goitik
gañera erortzen,
txandetan dira lurrak
geiegi legortzen,
eta ibai txiki ta

errekak agortzen.

3
Noiztik nora dituzte
denbora sargoiak
ekartzen aize-kolpe
eta kargazoiak;
astena dira tximistak,
turrunbaz turmoiak,
eta ondoren zuloz
beterik odoiak,
lur jotzen dute urez
betetako goiak.

Euskal Erria, 1881.

Auspoa, I, 1961

La Voz de España, 1968-XI..

* * *

Ona emen bertso auen erdal itzulpena, aldi ontan ere Jose Manterolak egiña eta bertsoan gaiñera:

*Temprano el cielo recoge
de la noche el negro manto,
y a la primera hora se escucha
de los pájaros el cántico,
y cuando ya el ígneo sol
su vuelta al cielo va dando,
y extiende su luz dorada
con sus encendidos rayos,
lleno de frutos se muestra
el antes florido campo.*

*Con brillante llama el sol
asoma en un cielo claro,
y enciende las secas tierras
con un calor desusado,
y es su fuerza tan intensa
y el fuego que arroja tanto.
que a veces por tal exceso
se agostan al fin los campos,
secándose los riachuelos.
los arroyos y pantanos.*

*El horizonte se carga
oscureciéndose a ratos,
sobreviene la galerna
la atmósfera despejando
de su peso, y a los lejos
brilla el flamífero rayo,
el ronco trueno resuena,
y rasgándose en pedazos
las nubes, copiosa lluvia
prestan al sediento campo.*

(1881)

Jose Maria Zubia,

Mari zeritzon gizon onoretsuaren oroitzan kantatxoa

(Composición señalada con mención honorífica en los Juegos Florales de San Sebastián.)

1
Aspaldi ontan egun eta gau
zitzaidan biotza ari,
kanta nezala nola bizita
eta ill izan zan Mari;
egiyaz gizontasunak asko
zor diyolako berari,
lan au bearra dala sinistu
eta asten naiz kantari.

2
Itsaso zabal urdiñ ederra,
goia dezula musutzen,
umill ikusten zaitugu iñoiz
bañan gaituzu izutzen.
Zergatik zera berdeturikan
denakin burruka jartzen?
Ez dakigu guk zerengatikan
zeran orrela zakartzen.

3
Nork esan eder zauden denboran,
jarririk zuri begira,
golpez artuko dezula gero
ikusten zaizun mugira?
Arraiketari txalupak ezin
jira dirala errira,
zuk jo ta milla puska egiten
frankotan ikusten dira.

4
Puskak jostallu gisan botaka
dabiltzanean aidean,
gizon tristeak azaltzen dira
puskeriyaren gañean.
Bañan, o!, gero zer pasatzen da?
Zer gertatutzen zaie an?
Aundiyagoko golpeak jo ta
gordetzen ditu urpean.

5
Begira zagun oraiñ portura
ia zer dan an gertatzen
amak, emazte eta semeak
denak an dira juntatzen;
eta galdutzen dabiltzanaren
berririk bada etortzen,
biotzak penaz erdiraturik
negarrez dirade jartzen.

6
O Mari leial, on biotz utsa,
aien malkoak txukatzen
zenbait alditan saiatzen ziñan
gustoz ziñala nekatzen;
aitu ordukoz txalupak nola
zebiltzan kanpoan galtzen,
ill edo bizi joanda zinduzen
ango gizonak ekartzen.

7

Zure biotza maiz azaltzen zan
iruki arren gordean,
zeñak bulkarik gorputza jarri
eraitu zizun lanean;
non zan estura-aldi gogor bat
eta beti zu ziñan an,
anaia maite asko salbatu
oi zinduben ur gañean.

8

Zenbait onlako eginbide on
gertatu oi zan zugandik,
beragatikan zure oroitzik
ez da galdutzen gugandik;
zu ito arren zuk salbatubak
bizi dirade oraindik,
zere bizitza eman zenduben
aurkezten mesede aundik.

9

Gisa onetan bizi ziñala
allegatu zan eguna,
o zein tristea, geroztik ongi
denok gogoan deguna;
au zan txalupak galdu zirana,
aizetsu oso illuna,
ango gizonak salbatzen zere
biziya galdu zenduna.

10

Aiek azkentzen zeuden denboran
ezin ibilliz igari,
azaldu ziran beren laguntzan
beste txalupa aundi bi.
Zein zan aurretik ur mendi tontor
aien gañetan giari?
Andik minutu gutxira beren
azpiyan ito zan Mari.

11

Nora zijoan goi-biak joaz
ur mendi aiek barrena?
Zer zan zeraman ibilbidea?
Zer pentsamentu arrena?
Besterikan ez: penatuetaz
kupiturikan barrena,
esturan ziran lekura bera
irixtekoa aurrena.

12

Itxaso golpe izugarri bat
jaikirik beren gañera,
aurretik zana urez bete ta
joana izan zan gainbera;
eta ondotik zanak lagunak
zitubelarik atera,
non zan geiago ikusi gabe
ittoa izan zan bera.

13

Bere anaiak salbatu naian
galtzen dubenak biziya,
ordu beretik gaude daukala
zeruba irabaziya;
onen erdian azalduko da
omen ederrez jantziya,
gozatutzeko egin izandu
zituben lanen sariya.

14

Lur ontan ere oroitza bada,
ez da ontaz zer esanik,
bere itxura altxa zitzaion
otallutxo bat egiñik;
ontaz gain koroï berri bat orain
kantuz uztaitzen diyot nik,
zeren koroitu gabe ez deiken
utzi alako gizonik.

Euskarazko itz-jostaldiak, Donostian, Oroimengarria, 1881.

Euskal Erria, 1882.

Jose Maria Zubia, *Mari* izengoitiaz ezagutzen zana, Zumaian jaio zan 1809-an, eta Donostian il, 1866-an. Ainbat alditan egin zuan bezela, itxasoan larri zebiltzan mariñel batzuei laguntza ematera zijoala, urak irentsi egin zuan. Beraren omenez oroitarri bat antxe dago Donostiako kaian.

(1881)

Eguzkiyaren jaikiera

1
Egun berriya asten
danekoz argitzen,
txori txikiyak dira
jaikiyak arkitzen;
ikusirikan zeru
azpiya garbitzen,
eta eguzkiyaren
arrastoak fintzen,
gaixoak dira pozez
kantari asitzen.

2
Presaz emanik aiek
mundubari jira,
goiz jartzen da gu gauden
aldera begira;
mugiera ikusten
zaiola argira,
urrezko gurdi baten
gañean mendira
igota, azaltzen da
zabaldi aundira.

3
Sortzen da dizdierak
emanaz ugari,
begirik para ezin
zaiola berari;
koroiz soindurik ain da
azaldutzen garbi,
zeru azpi ederra
pararik ostargi,
alderdi denetara
egiten du argi.

4
Arpegi urrezdatu
zeruban egiñak
musuz doratzen ditu
goi zabal urdiñak;
modu berean bere
dizdiera fiñak
laztantzearekin bat
beak eta gaiñak,
gauza guztiyak dira
azaltzen apaiñak.

5
Jaiki-arazorikan
kanpora argiyak,
ikusten dira gauza
begiragarriyak;
uso txuriyak dute
ematen erriyak,
zelai bustiyak lauki¹
pintatu berriyak,
eta perla ederrez
jantziyak mendiyak.

6
Brumak dubela txuriz
tul baten itxura,
jatxirik egoten da
ibaian burura;
sarri azal dediyen
azpi eder ura,
tul fiña banaturik
odoien modura,
azaltzen da ibaiko
kristalezko ura.

7

Bertan inguru dena
ikusitzen dala,
ispillu biurtzen da
ibaiko kristala;
iruriztubaz balitz
bezelaxen ala,
bere palastaretan
egan daramala,
intz eztitan gozoro
daguén gain zabala.

8

Iturri-txulo garbi
estaliyak lorez,
berriro asten dira
apaintzen kolorez;
berén txor-txor soñu ta
aurkera ederrez,
ezin betez daudela
magalak zillarrez,
zer grazi duten ez da
kontatutzen errez.

9

Argiz dijoan gisan
kanpoa galaitzen,
txori erresiñolak
dirade alaitzen;
berén kontu-modubak
asteko kontatzen,
arbol-gain ederretan
dirala juntatzen,
oso kanta politikak
dituzte kantatzen.

10

Ontan loreak ere
dirade ikusten,
nola kolko ederrak
zabaltzen dituzten;
kolore fiñ berriyak
artzen dira asten,
eta karmin purpuraz
diranean jazten,
dituzte berén grazi
denak erakusten.

11

Baletozke bezela
uztargiyan bera,²
mitxeletak³ jaikitzen
zaizkate gañera;
arkitzen dutelako
gozotan aukera,
nola kolko aietan
jolasteko era,
egan ibiltzen dira
loretik lorera.

12

Su-argi zerukoak,
danekoz agertzen,
kanpo guztiyak ditu
piztu ta edertzen;
gain bat perlaz du jazten,
bestea doratzen,
gauza denak dituzte
koloreak artzen,
zeñen dan gaitz guztiyak
ikustez asetzen.

Koloreak jaikitzen
 zaiozka goiari,
 koloreak ur, zelai,
 baso, mendiyari;
 oekin lore perlak
 nola txoriyari,
 eta ikusten zaizka
 kanpo osoari.
 perlak, txoriyak eta
 loreak ugari.

(Poesía señalada con mención honorífica en los Juegos Florales de San Sebastián).

Euskarazko itz-jostaldiak, Donostian, Oroimengarria, 1881.

Euskal Erria, 1882.

Auspoa, I, 1961.

¹Cuadro. ²Arco iris. ³Mariposa. (Egillearen oarrak.).

(1882)

Nere ametsak

1

Bein egin nuben amets
bat oso pisuba:
etxean artu bear
nubela izuba;
etzan gezurra irten
amets egitsuba,
sarri kanpanak eman
zuten abisuba
gure etxean zala
tximinitik suba.

2

Beste bat egin nuben
andik bereala:
idiyak arrapatu
bear nindubela;
bada nere ametsa
atera zan ala,
iñautegiya zan da
begira nenguala,
arrapatu ninduben
nik ez dakit nola.

3

Andik geroagora
nuben berriz egin,
bestek eman da artu
bear nubela min;
denboraz gertatu zan
au ere nerekin,
pelotan nebillela
nere lagunakin,
begiyen jo ninduten
pelota batekin.

4

Beste arrats batean
zitzaidan burura
urtan etorri bear
nuela apurura;
nere zori txarrean
sarri amets ura
gertatu zan egiya:
eran nuben ura,
nintzalako erori
kaiean putzura.

5

Urrena egin nuben
—ez baitzait aztuko—
zerbaitek erorita
nindubela joko:
egin nuben ametsa
egi gertatzeko,
tella bat erori zan
eta arrek ni jo,
zeñak bota ninduben
korde bage seko.

Euskal Erria, 1882

La Baskonia, 1908-IV-20

6

Segiran egin nuben
penak bukatzeko:
zitzaidala loteri
on bat aterako;
bada txartel bat artu
nuben artarako,
eta zer erori zan
txartel arrentzako?
Utsa, eta ezer ez
berriz neretzako.

(1882)

Arranoa eta belea

Donekidatuba Indalezio Bizkarrondo (Bilintx) biursariari bizi zan denboran eta argitaratu gabea.

Zure bertso ederraz
oroitzen naiz maiz-maiz,
irakurtzez beñere
aspertu ezin naiz:
zuk dakizu egiten
bertso onak errez,
parerik ez dutenak
graziya ederrez;
zu erregatzen zaitu
doaiezko intzak,
zerutik jaisten dira
zuregana itzak;
guretzat etzan sortu
onelako ditxik,
dauzkagu graziyaren
ate denak itxik.
Zenbaitek esango du:
«Zer da bada ura?
Zer gauza polit zaizka
jaiotzen burura?
Itz batzuben apaintzen
ikasiya dala,
zer milagroa itzak
apaintzea ala!...
Lan au egin lezake
noiznai edozeñek,
ez naiz bertsolariya
eta nik neronek».

Orduban erozeñek
balezake egin,
itz neurtubetan biet
nik ere itzegin.
Bañan onetarako,
nerien modelen,
zuriak artzen ditut,
Bilintx, esan det len.
Aurkez nazkitzu zure
lira ta graziya,
galaz kanta dezadan
nere poesiya,
zeñetan azaldu nai
ditudan belea,
arranoa, ariya
eta arkumea;
bada itz-bide ontan
zuzen nadin sartu,
lenengo arranoa
biet aotaratu.
Arrano arrapari
ega luzedun bat.
laño-petik zeletan
zeguena anbat,
illunabar batean,
aiziaren gixan,
goi-goitik mendiyaren
gañera jatxi zan,

eta arkume batez
egiñikan jabe,
zarpazo biyan laja
zuben korde gabe.
Beleak ikusirik
zer lan egin zuben,
pentsamentuban egon
gabe esan zuben:
«Zer! Nik ere beste bat
ill nezake ala,
ez da gaitza egiten
lan arren iguala».
Au esan da jatxi zan
ari batengana,
bañan nola zekarren
oparua lana,
gelditu zan bi zarpak
trabaturik oso,
txoriya bizkan nola
gisa artan preso.
Ariyaren jabea
ontaz oroiturik,
eta beste lau artzai
gazteri deiturik,
bostak joan ziran bele
itsatsiyagana,
eta lendabiziko
kolpaturik dana,
ego biyak moztuta
oso parragarri,
laja zuten bestien
eskarmentagarri.

Burla, mespreziyoak
ditu mereziyak
txiki aunditzat pasa
nai duben guziyak;
arranoa izanik
indartsu azkarra,
au idurizkatzen zan
asi bele zarra;
eta zer zan atera
zubena beretzat?
Burla, eta leziyo
eder bat gureztat.
Bertso egille motxak
obea genduke
ejenplo au gordeko
baldin bagenduke,
esanaz, desengañuz
beterik nola nik:
«Bilintx, ez du egiten
bestek zure lanik;
ala zaude poesi
galaiaren jabe,
zu zera arranoa
disputarik gabe;
zureztat izan bitez
lorerik onenak,
erramuz egindako
koroï eder denak,
eta ni, aizkenengo
bertso egillea,
ez nadiyela izan
kontuko belea.

Euskal Erria, 1882

(1882)

O Euskal Erri maitea!

(Poesía señalada con mención honorífica en los Juegos Florales de la Euskal Erria de Bilbao.)

1
Zuri begira nago,
bañan nola!, nola!,
lengo antzikan ezin
emanik iñola;
atzo ziñan zorion
guzien krisola;
eta gaur? Gaur bestien
gisan española.

2
Non dira zure famak,
zure kondariyak,
aiñ eder apaindutzen
zinduzten gloriyak?
Lenengo biotza ta
urrena begiyak,
oroitzean, negarrez
jartzen zaizkit biyak.

3
Non dira erromatar
gudari abillak?
Godoak, kartagoak
eta moro pillak?
Zu eziñ uztarpetuz
millak eta millak
euskaldunak gandikan
izan ziran illak.

4
Non dira ondorengo
inbiriosoak,
zabaltzen zituztenak
urrezko lazoak?
Ill ziran, alperrikan
emanik pausoak,
engañuz lotu gabe
lengo gurasoak.

5
Zu zera, o!, zu zera,
Euskal Erri Ama,
iñoiz iñoren mende
egon etziñana;
eta gero zedorren
naiezaz ziñana
bat-du Españaiko
koroiarengana.

6
Geroz ere libreak
zeuzkatzun erriyak,
eta pozez jantziyak
zelai ta mendiyak;
zinduzen zorionak
aiñ ziran aundiyak,
zu ziñan Amerikak!
Zu ziñan Indiyak!

7

Egun aiek joan ziran,
bai!, ezin ukatu,
zer pasa zan kontatzen
ez det nai nekatu;
egin bazan, ez bazan,
uts edo pekatu,
zuretzat ziran lengo
kontubak trukatu.

8

Denborarekin gauzak
emanikan jira,
beste kristal batetik
gaude gaur begira;
bazar guziyak triste
ikusten baitira,
zure lengo graziyak
ezkutatuk dira.

9

Egun batean gaizki
jarri ziñan oso,
ezin zere bururik
zendubela jaso;
min txarra biotzean
gelditurik preso,
geroztik bizi zera
biziro penoso.

10

Aspaldiyan etzaizu
gaitzikan arindu,
ezpada lendandikan
ere zaizu gaindu;
zure biotz eriyak
illtzeko ain min du,
adios, Ama ona,
zureak egin du.

11

Len zenduben arbol bat
min sendagarriya,
antziñako asaba
zarrak ezarriya;
bañan gaur nola bera
igartu dan iya,
galdu da zuretzako
aren alderdiya.

12

Arbolak zeukan arte
bere ontasuna,
zureak ziran poza
eta osasuna;
orain azaldurikan
aren ondasuna,
ezkutatu da zure
zoriontasuna.

13

Aritz arbol santuba
ikusi da galtzen,
bere grazi ederrak
lur azpian sartzen;
berririkan ez bada
oin-orde irartzen,
Ama maitea, zera
biziko penatzen.

14

Zure lengo dizdizaz
zeuden kondariyak
ostikotu ta dira
gainduko berriyak.
Zer esango da gero
ikustean biyak?
Nano jira zirala
jigante aundi yak.

15

Aundiyak dira zure
biotzeko penak,
bañan berriyak eta
senda litezkenak;
Aitorren seme onak
izatera denak,
biur zitzaizkitzuke
poz zorion lenak.

16

Poz au biurtzen bada
zure erraietan,
ongilleak nor diran
jakingo da bertan;
izenak ezarriko
dirade letretan
urrez liburutan da
brontzez paretetan.

Euskal Erria, 1882.

Echeverria y Guimon: *Ecos de Vasconia*, kanta-bilduman, 31 zenbakian, R, Sarriegiren doiñuarekin. Doiñu au urrengo orrialdeetan arkituko du irakurleak.

La Baskonia, 1906-III-20.

Euskera, 1983.

¡Oh Euskal erri maitea!

Nº 31.

Zortzico.

Música de R. Sarriegui.

Poesía de R. Artola.

Larghetto.

1. Oh eus-kal e - rri maí - te maí - te maí - te - a Zu - ri be - gi - ra

na - go ba - ñan ¡no - lai ¡no - la! len - go an - tzi - kan e - zía

cresc.

1. e - ma - nik i - ño - la la 2. Á - tzo zi - ñan zo - ri on

gu - zi - en kri - so - lu — ¿e - ta ga - ur? ¿e - ta ga - ur? gaur bes - ti - en

cresc.

A. Diaz y C^{ia} editores San Sebastian.

1. 2.

gi-san Es-pa-ño - la la

f Non di - ra zu - re fa - mak, zu - re his - to - ri - yak, *p* ain e der a - pain.

f lu - tzen zin - dux - ten glo - ri - yak? *f* Le - nen - go bi - yo - tzu - ta

u - rre - na be - gi - yak o - roi - tze - an ne - ga - rrez

p 1. 2. *rall.*

jar - tzen zalz - kit bi - yak yak jar - tzen bi - yak

pp

jar-tzen bi - yak ne - ga - rrez ne - ga - rrez.

2.

¡Non dira ondorengo
Inbriosoa,
Zabaltzen zituztenak
Urrezko lazoak?
Il ziran, alperrikan
Emanik pausoak,
Engañuz bete gabe
Gure gurasoak.

¡Non dira Erromatar
Gudari abillak,
Godoak, kartagoak
Eta moro pillak?
Zu ezin ustaz petuz
Millak eta millak,
Euskaldunak gandikan
Izan ziran ilhak.

3.

Zu zera; ¡O! zu zera
Euskal-erri ama,
Inoiz inoren mende
Egon etziñana;
Eta gero zedorren
Naieraz ziñana,
Bat-da Españiako
Koroiarengana.

Geroz ere libreak
Zeuzkatzun erriyak,
Eta pozez janziyak
Zelai ta mendiyak;
Zinduzen zorioyak
Ain ziran aundi yak
¡Zu ziñan amerikak!
¡Zu ziñan indiyak!

4.

Egun ayek joan ziran
¡Bai! ezin ukatu,
Zer pasa zan kontatzen
Ez det nai nekatu;
Egin bazan ezpazan
Utz edo pekatu,
Zuretatz ziran lengo
Kontubak trukatu.

Denborarekin ganzak
Emanikan jira,
Beste kristal batetik
Gaude gaur begira;
Baxtar guziyak triste
Ikusten baitira,
Zure lengo graziyak
Eskutatuk dira.

5.

Egun batiñ gaizki
Jarri ziñan oso,
Ezin zere bururik
Zendubela jaso;
Min charra biotzean
Gelditurik preso,
Geroztik bizi zera
Triste ta penoso.

Aspaldiyan etzaizu
Gaitzikan arindu,
Espada, lendandikan
Ere zaizu gaindu;
Zure biotz eriyak
Itzeko ain mindu;
Adios ama ona
Zureak egindu.

6.

Aundi yak dira zure
Biotzeko penak,
Bañan berriyak eta
Senda litezkenak;
Aitor-en seme onak,
Izatera denak,
Biar zitzaizkizuke
Foz, zori on lenak.

Foz au biurtzen bada
Zure erraletan,
Ongilleak nor diran
Jakingo da bertan;
Izenak ezarriko
Dirare letretan,
Urrez liburutan da
Bronzez paretetan.

6.

Len zenduben arbol bat
Min sendagarriya,
Autziñako asaba
Zarrak ezarriya;
Bañan gaur nola bera
Igartu dan iya,
Galdu da zuretako
Bere alderdiya.

Arbolak zeukan arte
Bere ontasuna,
Zureak ziran posa
Eta osasuna;
Orain azaldurikan
Aren ondasuna,
Eskutatu da zure
Zoriontasuna.

7.

Aritz arbol santuba
Ikusi da galtzen,
Bere grazi ederrak
Lur azpira sartzen;
Berrikan espada
Oin orde esartzen,
Ama maitea zera
Biziko penatzen.

Zuri lengo disdiraz
Zeuden kondaryak
Ostiko tu ta dira
Gain duko berriyak;
¡Zer esango da gero
Ikustean biyak?
Nano jira zirala
Jigante aundi yak.

(1882)

**Indalezio Bizkarrondo «Bilintx»
zeritzaion itz-neurlariari oroimen bat**

(Composición premiada en los Juegos Florales de esta ciudad con accesit.)

1
Argi apur bat sutu zadazu,
Apolo, pentsamentuban,
lira xar baten soñuban doaiz
abiya nadin kantuban;
atozte, musak, ere nigana
eguzkiyaren moduban,
denen laguntzaz bana ditzadan
Bilintx-en famak munduban.

2
Kendu baneio gañetik bera
gordetzen duben arriya,
esna eraingo nuke lotatik
gizon beneragarriya;
kantuz altxatu nai niyoke gaur
oroikarri¹ bat berriya,
bere gañean ikusi dedin
onratzen Euskal Erriya.

3
Bañan nik nola kanta nitzake
bere baliyo aundiya?
Zertan bear det asi argitan
jartzen beraren graziyak,
nere moduban ezagututzen
badute beste guziyak,
bada illdako lotan naiz egon
oroitzak dauzka biziya?

4
Penak maiz lotzen zutelarikan
berez izanik alaia,
iñoiz paltatzen ez baitzitzaion
jolas berrirako gaia,
zuben txoriyak bezela errez
kantatutzeko doaia,
eta zan izdun berdingabe ta
izkribalari galaia.

5
Non dira bere izkribu ezti
eta kantatxo gozoak?
Non beragandik jaikitzen ziran
euskal itz baliosoak?
Ez dira iñoiz oiñpetu izan,
guziyak daude osoak,
denok dauzkagu ongi ikasi
eta gogoan jasoak.

6
Nork etzitzaken artu gogoan
aren grazizko esanak,
berak aitzeko zaleturikan
egoten bagiñan danak?
Kantatzen asten zanean igual,
inguruetan ziranak
bere jolasak aitzeagatik
utzitzen zituzten lanak.

7

Eta noizik bein asten zanean
izkribu berriyak jartzen,
zer kantu eder etziran bere
doaitik argitaratzen?
Nork ez giñuzen sortu orduko
ikasi eta kantatzen?
Zeñek ez iñoiz ez aztutzeko
moduban gogoan artzen?

8

Nork ez dakizki Euskal Erriyan
Txomin zanaren kontuba,
Abere baten bizitza eta
kantuzko *Juramentuba*?
Eta zeñek ez ere igualik
ez duben pentsamentuba:
iñoiz aztuko ez dan *Kontxexi*
aingerubaren kantuba?

9

Nor zan gelditu Euskal Erriyan,
bañan nor, ikasi gabe
Ja-jai polit bat berarena ta
Juana Bixenta Olabe?
Berakin kantu *Gaizki bizi naiz*
eta illko banitz obe,
eta... zeñ etzan egiñ *Izazu*
nitzaz kupira-ren jabe?

10

Oekin beste lan berarenak
gustagarriyak aiñ dira,
eziñ aspertu liteke berak
entzutez edo begira;
beste edozeiñ erresumetan²
egiñak izan balira,
oraingoz eman ziyen guziyak
mundu osoari jira.

11

Euskal tokiya txikiya da ta,
nonbait au dala mediyo,
etzan *Bilintx*-en famikan gizon
aundiye mallara iyo;
baña pentsatze nerearekiñ
arkitutzen naiz txit fiyo:
ez dala jakiñ oraindik ongi
ark zenbat zuben baliyo.

12

Bañan ni zertan ari naiz eziñ
egiñik bere pintura?
Nola nezake merezi duben
ainbat famatu nik ura?
Egunaz maiz ta gabaz askotan
jaio izan zait burura
orren neurriko itz-neurlaririk
ez dala jaio mundura.

13

Nik ere iyo naia banuben
bere allegatokira,
bañan indarrak paltaturikan
eman izana naiz jira;
arranoaren³ eta txoriyen
egoak igualak ez dira,
gaur arkitzen naiz miresturikan
arren lanari begira.

14

Eguzkiyaren gisan emanaz
dizdiarizko argiyak,
moldetzat utzi izan zituben
gauza begiragarriyak;
euskera miñez zegoan denboran
egiñak dira guziyak,
ala euskerak eta guk beti
zorko dizkagu graziyak.

15

Nola etziran gauza aundiyak
jaikiko bere burutik,
intza bezela doaia jaisten
bazan argana zerutik?
Guk nai bañan len, utzirik bere
grazi zerukoak zutik
erreñu eder baten moduban,
ezkutatu zan mundutik.

16

Aundiyak ziran bere graziyak
bañan baita ere penak,
ezin kontatu litezke iya
pasa izan zitubenak;
oek gureztat nola osatzen
dituben goien daguenak,
iñoiz ez ditu banatzen baten
gañean zorion denak.

17

Mundu berriya billatu zuben
Colón egon zan katean,
Esculano bat beti arkitu
oi zan atsekabepean;
Cervantes preso, beso bakarra,
beti penaren artean,
eta Camoens aundiyak berriz
ill zan eritei⁴ batean.

18

Bati zerutik doai ta grazi
aundiyak jaisten bazaizka,
beren ordaintzan atsekabeak
ere azalduko zaizka;
Jaunak berari zorion utsak
noski emango ez dizka,
txarrakin onak gure artean
partitzen ditu erdizka.

19

O Bilintx aundi, miragarriya!
o, ill ziñana martiri!
Zuk ere doai truke zenduben
malkoa pranko ixuri!
Gauza eder ta aundiyak utzi
zizkigutzulako guri,
maitetasun bat denen partetik
agertzen dizut gaur zuri.

20

Merezierak zauzkatelako
leku altuban jarriya,
zure burura ez naiz iristen
artzeko bere neurriya;
bada uztaitu bear nizuken
tokian koroi berriya,
zere oiñ-alki ipintzen dizut
kanta *oroimengarriya*,

1882, Euskal-Festak Donostian, Oroimengarria.

Euskal Erria, 1882.

¹Monumento. ²Reino. ³Águila. ⁴Hospital. (Egillearen oarrak)

(1883)

Erriko xeme irutxulotarra

Amalauduna

Oso dibertituba
erriyan izanik,
ez du erriko xeme
beste izenik;
bada ez da gaurikan,
ez ere egunik,
zerbait jolasbidetan
ikusten ez danik;
onlakorik zanik
ez nuben uste nik;
ez deizkiyo danik
beretzako lanik,
baldin dibertitzeko
badu lagunik.

Jolaserako griña
beste gaitzik eztu,
alderdi guzietan
portatzen da prestu.

Ala ditu, erdaldun
nola euskaldunak,
denak nai diotenak,
guztiyak lagunak.

Buruz argiya da ta
ongi itzegiña,
alderdi guzietan
oso atsegiña.

Guziz egoki daki
gezurrak kontatzen,
egokiyago berriz
dantzan ta kantatzen.

Eta egiten beste
norbaiten papera,
iruri arazten du
beste dala bera.

Ura daguen tokiyan
tristurikan ez da,
denbora pasatuzen
biziro errez da.

Allegatzen danean
iñautegi pesta,
etxean asko aldiz
ikusiko ez da.

Austerre pasa arte
zaldun iñauteitik,
ez du izaten geldi
egoteko betik.

Erdi lotan entzuten
badu danboliña,
seguru du berekin
lo ezin egiña.

Idiya bañan len da
irteten kalera,
noiz egingo duben ark
beiteitik karrera.

Gero bere arrek
kalerikan kale,
ibillirik zapatak
urratzen debalde.

Eramaten danean
ura beitekira,
joango da lagunakin
emanikan jira

zumorikan onena
daguen parrokira,
(klarogo esateko;
sagardotegira).

Sarri azaltzen zaio
berriz beste pesta,
zer jolas izango dan
asmatzen errez da.

Lenago ditu meza
bezperak galduko,
idiyetara duben
bañan paltatuko.

Berekin izango du
bere kapa zarra,
zenbait aldiz idiyak
sartuba adarra;

eta tarratarikan
ezpada bestetan,
siñale dala ongi
atera pestetan;

bada bere sastrea
izanik idiya,
arrek artutzen diyo
maiz galtzen neurriya.

Ez dakit nola miñik
artzen ez duben nik;
egundañon ikusi
ez det artzen miñik.

Ala non idiyakin
nola zezenetan,
inpernuko Patxiren
antza du denetan.

Beste jolasik ere
bear bada egin,
lendabizi kontatu
oi da berarekin.

Denetan egiten du
norbaiten papera,
jantzi mudatu asko
oi ditu atera.

Ain laster ikusten da
oso pormal plazan,
nola tximukeritan
saltoka ta dantzan.

Ez dirudi dubenik
ezurrik berekiñ;
izatekoz, artuko
lukela nago miñ.

Eguna igarota,
zer esanik ez da,
illuntzean asten du
berriroko pesta.

Plakiyaren beldurrak
kendurik lenengo,
jolasean asiko
ez da aizkenengo.

Komedyarik bada
irtengo da bera,
graziyaz egitera
norbaiten papera.

Andik gero joanikan
dantzako tokira,
emango ditu dantzan
makiña bat jira;

bada ura bañan len
ni nekaturikan,
lotarako etxera
joaten naiz andikan.

Euskal Erria, 1883.

Auspoa 1, 1961.

Eta geroz nola ark
segitzen duben an,
aurrerako berririk
ez nezake eman.

(1883)

Jose-Maritarr

Amalauduna

Onen jolas-bideak ikusi ditzagun,
jar gaitezen begira zer molde dan bera;
adarrrik bear bada plazara atera,
berak egingo diyo idiyari lagun.
Erriko xeme ona da beti ezagun;
molde jostallugorik bestetan ote da?
Nolanai egiten du nornairen papera,
nekatzen ez dana da ez gau ta ez egun.
Bere pentsamentuba ez dago bestetan,
ezpada nondik duben jolas bat sortuko,
nondik parako duben Donostiya pestan;
bada izanik lagun onak gasturako,
nola umore onik bertan palta ez dan,
nekez da Donostiyan pestik paltatuko.

Euskal Erria, 1883.

La Baskonia, 1904, 394 zenb.

(1883)

Erriko-xeme donostiarra

Amalauduna

Zertan argitaratu bear det nik
nor dan erriko-xeme Donostiyan,
ez dan denboran bat erri guztiyan
ongi ezagututzen ez dubenik?
Iñoiz etzaio palta beste lanik,
jolas denetan da beti erdiyan
aspertu eziñik erokeriyan,
bein beren artzen ez dubela miñik.
Askotan arrapatzen du idiyak,
eta utzitzen oso parragarri,
ageri ditubela alderdiyak;
bañan pestan dezan erriya jarri,
naiz oso puskatu galtza berriyak,
ez diyo ajolik batere arri.

Euskal Erria, 1883.

(1884)

Donostiako baratzagilleak

Zortzikoa

Euskaritxoa

*Famak gure erriyak
erroturik¹ dauzka
dala jolastoki bat,
festaren seaska.*

1
Lore-toki polit bat
plazaren erdiyan
egin naia senti zan
joan dan aspaldiyan;
osaturik kutizi
zegoana erriyan,
gaur arkitutzen gera
baratza berriyan.

2
Gogor diogulako
eraso lanari,
gure baratzan gauza
sortu da ugari;
etzaiola iya lur
bererik ageri,
zestotxo lorez bete
bat dala diruri.

3
Gure baratzan daude
lore oso fiñak,
zuri, gorri, oriyak,
more ta urdiñak;
liriyo, azuzena,
aleli, jazmiñak,
bioletak, arrosak
eta klabeliñak.

4
Guk dauzkagu muxikak,
guk melokotoiak,
gingak diruritenak
perlazko botoiak;
aran klaudi ederrak,
laranjak, limoiak,
udare, alkatxofa,
mizpira, meloiak.

5

Dauzkagu gereziak,
dauzkagu marrubik,
illar, baba, babarrun,
esparrago aundik;
ez da letxugik palta,
ez ere azarik,
ez da gure baratzan
ez daguen gauzarik.

6

Gure bearrak artzen
badirade ontzat,
poz bat geldituko da
betiko guretzat;
ez gerade gu ari
lanean gerentzat,
au dena egin degu
Donostiarentzat.

Euskal Erria, 1884.

Aurretik erderazko beste bertso-sail bat, izenburu onekin: *Comparsa de jardineros en San Sebastián el día 26 de Febrero*.

Ondoren, berriz, argibide auek ematen dira: «*Los autores de estas poesías son los Sres. D. Adolfo Camba y D. Ramón Artola, y el de la música el Sr. D. Raimundo Sarriegui.*»

Nuestra cordial enhorabuena a estos Sres., al digno presidente de la Comisión de festejos Sr. Caballero, a las sociedades La Fraternal y Unión Artesana, y a cuantos en mayor o menor escala han contribuido a proporcionarnos tan agradables horas, honrando mucho a nuestra querida Donostia.»

Raimundo Sarriegiren doiñu ori ez da gure eskuetara iritxi.

Auspoa, 1, 1961.

¹*Arraigadas*. (Egillearen oarra).

«Ama Euskerak galdu du seme...»

Ama Euskerak galdu du seme
bat guztiz asko jakiña,
bera apainki argitaratzen
bearra pranko egiña:
ainbesterañon banatu zaio
onekin pena samiña,
gaur arkitzen da negarrez zeñen
sendatzen gaitza dan miña.

Jose Manterola il zanean, 1884-II-29-an alegia, liburu bat atera zan, erdal eta euskal idazle askok aren omenez eskeiñitako idazlanekin: *Donostian, Manterola-ri, 1884, Establecimiento litográfico de Vicente Ordozgoiti - San Sebastián.*

Antxe arkitu degu Ramon Artolaren bertso au.
Egan, 1984.

(1884)

Itziarko Ama Birjiñari

bere bidagorako moldaeratzxo bat

(1884-an *Itziar*-en lenbiziko euskara-sariaren aldeera izandu duen neur-titzaldia.)

1
Nere indar aundiko
deseoak diña
balirake, egingo
nuke alegiña
kantuz alabatutzen
Maria Birjiña,
aingeruak zeruan
duten erregiña.

2
Bañan nola ez naizen
biziro aituba,
eta ez ere doaiz
sobra ornituba,
dontzella, apaintzeko
mundura deituba,
nola izan liteke
nigandik goituba?

3
Bada goitze tokiyan
jetxiko det beera,
aldetik ikusteko
izan dedin era:
bista gal leiguteken
dizdirak atera,
eta erreñupean
parako det bera.

4
Maiz juaten ziralako
erreguk zerura,
aldetik lagun zeigun
jetxi zan mundura;
eta arrimaturik
itsas ingurura,
Itziarren billatu
zan bere itxura.

5
Geroz gure artean
arkitzen da Ama,
Deba politak bere
perlatzat daukana;
Itxaso Kantaurien
gordetari dana,
penatuen poz billa
nekatzen eztana.

6
Nola litezke ontaz
penatubak aztu,
gertoietan arkitzen
diranean estu?
Jakiñikan ematen
dakiela esku,
nola ez deitu: «Arren,
libra gaitzatzu gu!».

7

Barku ta barkutxoak
itsasoan galtzen
dabiltzanean askok
baitiote deitzen,
eta eskaritxoa
dielako aitzen,
ditu estura triste
artatik libratzen.

8

Bat bakarrik ote da
orduban izango
graziyak ez dizkanik
Amari emango?
Nor ezta beragana
ondorean joango,
eta esker berriyak
emanaz egongo?

9

Gugatik dubelako
berak erregutzen,
denbora txarrak ditu
askotan ondutzen,
aizeari indarrak
diozka kendutzen,
eta dira itsaso
zakarrak legutzen.

10

Nola itxas-gizonak
ala gerrariyak,
bekin dauzkatena
ezbear aundiyak,
Mariagana para
bitzate begiyak,
eta ark sendatuko
dizkate zauriyak.

11

Nekazaleak baldin
zerbait atsekabe
badu euri geiegiz
edo euri gabe,
biotzez eskatzea
du Amari obe,
egin dedin Aboztu
bete baten jabe.

12

Gazte eriya bada
edo zar elbarra,
daukana biotzean
pozaren bearra,
pentsamentuz allega
bedi Itziarra,
eta Mariak dio
aituko negarra.

13

Bada berak gugantzen
baldin badu poza,
dalako pama duben
gisan milagrosa,
nork eztiyo egingo
berari promesa
bere eleizatxoan
entzuteko meza?

14

Guk ere billa zagun
geren Ama ona,
beti urrikarriyen
zalantzan egona;
gugatik bere Seme
Jaungoikoagana
egunaz eta gabaz
erreguz dagoana.

15

Ia mugi gaitezen,
mugi, euskaldunak,
Itziarra abiya
gaitezen, lagunak;
orain dira bertara
joateko egunak,
goazen fede bizi bat
beti diogunak.

16

Gure joanera asko
du estimatuko,
orain ta gero ezta
onetaz aztuko;
penak erakutsiyaz
bertan belauniko
jartzean da berriro
gutaz kupituko.

17

Esker diogun gugan
daukan ontasuna,
aurrera eman deigun
zoriontasuna;
eskatubaz pakea
eta osasuna,
zeña dan mundu ontan
daguena ondasuna.

18

Nola gure kontuba
berak baitakarren,
bere eskutik utzi
ez gaitzala arren;
erregu igiogun
geran arte emen,
gero denok zeruan
sartu gaitzan, *amen*.

Euskal Erria, 1884

Itziarko Ama Birjiñarengana erromeri ospetsuak egin ziran 1884 Irai-llaren leenengo egunetik asi eta 8-garrenera arte. Erromeri oien berri Antonio Arzak jauna ematen du *Euskal Erria* aldizkarian.

Literatur-sariketa bat ere antolatu zuten aurretik. Sariketa ori zer-nola izan zan onela adierazten du Arzak jaunak bere idazlan ortan:

«*Para el premio número 1º del Programa publicado, se han presentado once composiciones en verso euskaro, con los siguientes títulos:*

1º «Itsas-gizonen kanta, Ama Birjiña Itziar-koari», *con el lema* «Ave maris stella», «Agur itsasoko izarra».

2º Itziar-ko Ama Birjiñari, bere bide-gorako moldaeratxo bat», *sin lema*.

3º «Agur Mariya», *sin lema*.

4º «Ondarruatik Itziarrera», *sin lema*.

5º «Itziar-ko Ama Birjiñari».

6º «Azpeitiya Itziarren».

7º «Azkoitia-ren azken agurra».

8° «Itziar-ko peregrinaziyora dijoazenak, bidean kantatzeko bertso berriak».

9° «Peregrinaziyua egin ta bueltarako».

10° «Ama Birjiña agorreko egunerako».

11° «Jar lekua arturik».

El jurado competente ha adjudicado el primer premio del número 1, a la composición titulada «Itsas-gizonen kanta, Ama Birjiña Itziarkoari», cuyo autor resulta ser D. Carmelo Echegaray, de Zumaya. El accésit correspondiente ha obtenido la poesía titulada «Itziar-ko Birjiñari bere bide-gorako moldaeratxo bat», remitida por su autor, D. Ramón Artola, de San Sebastián. Otro accésit, por empate, han merecido los hermosos cánticos euskaros para la peregrinación, compuestos por D. Pedro Miguel de Urruzuno, Presbítero de Mendaro».

(1884)

Easoar argidotarrak

Composición señalada con el Accesit en los Juegos Florales celebrados en esta Ciudad en 1884.

Azalkaia: «Gizon aundien oroitza»

1
Kantauriako perla Easok
daukazki onrak jasoak,
zeren etxera izan zizkaten
seme on baliosoak;
ez baititu nik gaur darabiltan
lirak din soñu gozoak,
kantatuzeko beren egintzak,
beren bertute osoak.

2
Non zauzte bada, musak, non
zauzte
ergai onetan gorderik,
ez gaur jarteko nere lirari
urrez dutako lokarrik?
Laguntzalletzat ezpazait sortzen
zuen moduko izarrik,
eztet egingo pitxiztutako
kantik neronek bakarrik.

3
Lagun nazute, bada, lagundu,
ibildu gabe tentatzen,
iruri eder argi dizdirak
kantu polit bat moldatzen,
easoarrak nor izan diran
bear bezela kontatzen,
beren egintza baliosoak
otsezi gozoz kantatzen.

4
Easoarrak izandu ziran
izkribulari argiyak,
easoarrak apezpiku¹ ta
eleiza-gizon zoliyak;
easoarrak erregeakin
beren goarpelariyak,³
easoarrak ontzi-gidari
eta gudari aundiyak.

5
Uri ontako semeak ziran
izan Idiakeztar onak,
beren denboran erregeakin
goarpelari egonak;
zuten balio aundiz biziro
maitatzen ziran pertsonak,
mundu guzian sonaturikan
egondu ziran gizonak.

6
Oetakoa zan komentu bi
eragin baitzitubena,
zeintzutan dan bat uri ontako
San Telmo izen dubena:
mirestgarriya izan zalako
bizitza gizon obena,
oroimengarri gaur kale batek
darama beren izena.

7

Eta al da bat eztakienik
Okendotarrak nor ziran?
Oek itsasoz etsaien kontra
nola leiatu oi ziran?
Beretako bi itsas-kidari
aundiyak izan baziran,
irugarrena aitatuko det
atzertxogoko segiran.

8

Juan de Etxaide izan zan beste
itsastar mirestgarriya,
arraiketara joanik zubena
billatu legor berriya;
oni deritzo gaur Terranoba,
zeñetan baitan erriya
daukana izen Etxaide Portu,
billatzalleak jarriya.

9

Aitagarriya izan zan ere
aita Domingo Meager,
teologo ta itz-biurskiña,
bizitu zana ez alper;
bere urrezko lumak maiz zuben
billatzen lan zer edo zer,
utzi zizkigun kanta jostalluk
ematen dute gaur eder.

10

Bada denbora aietan sortu
baziran gizon aundiyak,
gurean ere eztira danak
argitaratu txikiyak;
izan ditugu kidari onak
arrastolari argiyak,
soñu berrien jartzalle on ta
itz-neurrilari ernaiyak.

11

Oetan On Juan Manuel Besnes
bat

konta leikena argitzat,
zeñen beraren luma-arrasto
lanak dauden gaur aunditzat;
siñaletako Uri-etxean
bada beraren lanki³ bat,
duen mereziz kontatzen dana
gauza begiragarritzat.

12

Eta zer malla bere oin-alki
bear diot nik berexi,
euskerak diraun arte aztuko
eztan kantari Bilintxi?
Bere itz neurtu baliosoak
arkitzen dira gaur gutxi,
bañan gutxiyak bear dutenak
bizi luzea iritxi.

13

Ta nork eztaki gaur On Juan Jose
Santestebanen izena?
Nork ezagutu etzuben soñu
berri jartzalle aiñ ona?
Euskariari galdu zitzaion
ordaintzen gaitz dan gizona,
asko balio zobelako txit
nekez aztuko zaiona.

14

Beste bat ere bada oraindik
eztana aztugarriya,
izen eder bat goititurikan
obira jatxi berriya;
au da txit maite zan Manterola
euskal izkribulariya,
bere lumak lan ederrez apain
utziya Euskal Erriya.

15

Beragatikan oroitza eder
bat gorde bear du berak,
negar egiñaz eta malkozko
tintaz bustiyaz paperak;
au egin beio eta poz bat du
artuko Ama Euskerak,
zeñakgatikan biotzetikan
dizkan emango eskerrak.

16

Seme on oek oraindik loak
artu berriyak baitira,
eta kantakin esnatu gabe
joango naiz beste tokira;
bitarte ontan antziña lotan
jarri bat biet argira,
da esatea jarri Okendo
Antoniori begira.

17

Onen berriyak nola gaur Euskal
Erri guziyak dituben,
eztet esango itsasoz zer lan
egin izandu zituben;
eztet esango mundu osoa
nola mirestu oi zuben,
ezpada bere sorterri Ama-
gandik merezi zer duben.

18

Bere sorterri Ama askotan
dalarik ontaz oroitu,
eztiyo lenaz irabazirik
daukan alkira bein deitu;
bada gaur egin bear lukena
da gizon aundi au goitu,
merezi duben sariyarekin
easoarra koroitu.

19

Inazio bat santu Loiolan
zillarrezturik baitago,
Getariako erriyan brontzez
egiña berriz Elkanu;
Motrikon jargoi berri batean
Txurruka sarri an dago,
eta easoar itsas-gizon
aundi Okendo non dago?

20

Easok nola Ama Españak
biar leieke berexi,
arrizko dorre aundi eder bat
ongi baitu-ta merezi;
bere oroitza doatsukiyak
arkitu dezan non bizi,
mundubak diraun arte beraren
gañean dedin ikusi.

21

Ezpadirade gizon aundiyak
jaiki eraiten argira,
beren egintza ederrak ere
ezkutatuko baitira;
ondoren sortzen diran aundiyak
ontaz jarririk begira,
aundiagoak izan ditezen
zer suz berotuko dira?

22

Altxa deiogun bada bertatik
oroigarri bat berriya,
bere gañean ikusi dedin
itsastar mirestgarriya;
onratu ditzan Ama España
ta gure Euskal Erriya,
nola bere sort-erri Easo
eta Donosti berriya.

Sariztu bedi umant aundi au
oroitza eder onekin,
sariztu bedi edo sarizat
beikio gaur lan au egin;
sariztu bedi dezan Okendok
pozgira gozoz bein jakin
sariztu izan dutela dorre
oroigarritzko batekin.

*1884, Euskal-Festak Donostian, Oroimengarria,
Euskal Erria, 1885.*

¹ *Obispos.* ² *Secretarios.* ³ *Trabajo.* (Egillearen oarrak).

(1885)

Donostiako Iñoiteriaren oroitza

Composición premiada con accesit en los Juegos Florales celebrados en esta Ciudad en 1884

Azalkaia: Bizi bedi Donostiya

1
Donostia da erri polit bat,
ez ditekena ukatu;
da esatia: len zan polita,
gaur da ortatik trukatu;
politasunak pasarik oso
beste itxurik du artu,
ederra deitzen zaio ta eztu
izen au iñon lapurtu.

2
Donostia da lenago Iru-
txulo izena zubena,
orduban ere orain bezela
zana erri txit txukuna;
etsai erbestetarraren mende
zenbait alditan egona,
erre izandu zutena eta
berriro zutik dagona.

3
Onen galera-konturik ezte
nai eman emen argira,
luma obeak nerea bañon
len ontan jardun baitira;
nai nukena da jarri iñotei
jolas joanari begira,
gure begien aurrera berak
nai bainituzke gaur jira.

4
Ekaizte gogor ura pasa ta
palta zirala erdiyak,
oraindik nortzuk bait izan ziran
sortzeko jolas berriyak.
Non zan orduko aien gogota?
Zer gazte zeuzkan erriyak?
Egin zituzten pestak etziran
izan oroitezgarriyak.

5
Irutxulotar artzaiak ziran
azaldu plaza berriyan,
orduban sartzen baldin baziran
bezela beren erriyan;
len emendik joan eta ardizai
egon zirala Greziyan,
irurizte au moldatu zuten
berdin gabeko graziyan.

6
Garai artatik artu baitzuten
iñotei-pestak segira,
geroztik zenbait gauza ederri
egon baikera begira.
Zeñek kontatu zer izan diran?
Nork eman denak argira?
Ezin liteken gauza diruri,
ainbeste izan baitira.

7

Artzai-jolasa egin da sarri
 berriro izan zan era,
 iñotei pestan ikustekoa
 lengo gazteri berbera;
 zeñetan baitzan eralde¹ berri
 oso polit bat atera,
 non plazan zuten egin baratza
 egillearen papera.

8

Oek orrela igaro eta
 beste gerozko urtean,
 zapatagille maisubak ziran
 irten eralde batean;
 zeñetan zuten jardun kantari
 bakoitzak bere lanean,
 laguntzalletzat arturik andre
 maiteak aldamenean.

9

Geroz ikusi izandu ziran
 Arkadiako artzayak,
 euskal kantuban sartzen plazara
 oso txukunki jantziyak;
 non erakutsi izan zituzten
 bakoitzak beren graziyak,
 txit arrituak utzirik plazan
 arkitu ziran guziyak.

10

Beste eralde batean ziran
 izandu beargilleak:
 bizar ebaille, zapatariyak,
 nola barrika-gilleak,
 poto-egille, txorrotxalleak,
 arotz ta pazingilleak;
 oek izandu ziran iñotei
 artako pestagilleak.

11

Ondoren ere aldi askotan
 ziran egiten ikusi
 eralde oso banaitatubak²
 eta ez gero itsusi.
 Nondik zan sortzen doainki ura?
 Non zan lan artan ikasi?
 Toki denetan ezta billatzen
 ainbeste gusto ta grazi.

12

Egiten ziran ijito pestak,
 egiten bidarienak,³
 Españiako gertakaien ta
 auresku dantzarienak;
 atzera utzi gabe bolakin
 jokutzen ziran zezenak,
 gazteakgandik toliatubak
 ikus zitezken onenak.

13

Geroztik ere egin izandu
 ziran eralde berri bi:
 bat donkituba Españari ta
 bestea berriz Mariri;
 berakgatikan laudantzak baizik
 etzaia aitzen iñori,
 ederrak izan ziran ta biyak
 gustatu ziran ugari.

14

Pestak onela zutela emen
 segira aldi luzean,
 piztu izan zan gerra joan dana
 pestagillien kaltean;
 bata bestien kontra jarririk
 bizi ziranak pakean,
 etzan izandu jolas-konturik
 gero alditxo batean.

15

Pena aundiyak zitubelarik
utzi igaro zan gerrak,
egin zan modu alik lenena
gordekaitzera okerrak;
asmatu ziran jolas berriyak,
bai egin ere ederrak,
Donostiako gazteak ontan
eztira izan alperrak.

16

San Sebastianen egun goizetik
dira soñubak asitzen,
martxa berea joaz dituzte
loak galera-azitzen;
egunsentitik zortziak arte
ezta bullikan gutxitzen,
iya eztute kale ta plazik
jiratu gabe utzitzen.

17

Kandelaria egun goizean
gertatutzen da au bera:
egunsentikotz irteten dira
soñulariak kalera;
eta oiekin beste geiago
ere bildurik batera,
ibiltzen dira egiñaz aurzai
iñudearen papera.

18

Zalduniote egunarekin,
algarakada aundiyan,
allegatzen da iñotei Momo
eta sartzen da erriyan;
zeñen bertatik arturik bere
zai len zeudenak erdiyan,
ibiltzen duten jiraka erri
zarrean eta berriyan.

19

Ikusten dira bei eta idi
ezur-uts plazan jokutzen,
nola zaldunak beren ollar ta
atso zarrakin jostatzen;
pazingilleak kantari pazi
zulo gabeak konpontzen,
eta baratza-gilleak lore
eder tartean dantzatzen.

20

Bada agertu ditugun pestak
ezpadirade zatarrak,
ez pentsa jolas egin guziyak
dirala oiek bakarrak;
ikusten dira plazan zurezko
bolakin zezen naparrak,
zeñak dituzten toliatutzen
bertako gazte azkarrak.

21

Pestagilleak azkenerako
diralarikan nekatzen,
ezta oraindik arratserako
beste zerbaitxo paltatzen.
Iñotei illtzen danari zai
obiratza⁴ bat kantatzen,
eta onekin dira iñotei
illaren pestak bukatzen.

1884, *Euskal-Festak Donostian,*
Oroimengarria,

Euskal Erria, 1885.

Aldaketa bat egin degu. Iturri oie-
tan 16/4 lerroan *azotzen* irakurtzen da.
Ramon Artolak *azitzen* idatziko zuan,
gure iritzirako beintzat, bertsoaren
beste rimekin ondo ezkon zedin.

¹Comparsa. ²Variados. ³Peregrinos.
⁴Entierro. (Egillearen oarrak).

(1885)

Erriotxo bere bidean

Azalkaia: Gizadiaren bizitza.

Composición señalada con Premio Extraordinario en los Juegos Florales celebrados en San Sebastián en 1885

Askaturik arkaitz txintxur
batean erriotxo,
dijoa bidean txur-txur,
txirrist egiñaz gaixoa.

Seaska jaiotokia
izandu zuben mendian,
eta bear du obiaya¹
izan itxaso aundiyen.

Bere joanera luzean
zenbait suerte trukatu
igarorik, bear du an
bizi tristea bukatu.

Jotzen du mendiskaz bea,
kemenak zaizka eskasten,
joan bidea du ohea,
bañan geldiko da azten.

An eten, emen jo koska,
salta, joan, asi, gelditu,
bideak biurrak dauzka
nai arren zuzen segitu.

Atariko idi ta beiak
jatxirik bere lurrera,
ankaz mugiturik loiak
zikin uzten dute bera.

Eta dijoa igesi
kristal len zana argiya,
berriz nairik erakutsi
bere kopeta garbiya.

Bat-batez emanik jira
mendi baten egalari,
kentzen da andik erdira
itzul egiñaz berari.

Zeñetan pozturik oso
abiatzen dan lasaitzen,
bañan uste gabe preso
du bere buruba jartzen.

Allegatzen da esturan
errota zartxo batera,
gero zilipurturik an
dediyen gaizki atera.

Triskillatuba guztiya
kentzen da indarrak illik,
ari batetik biziya
daramakila zintzillik.

Malko lodiyak emanaz
dijoa irtena gaizki,
biotza darama penaz,
nora dijoan eztaki.

Ala, du erraz txirristen
alderdi labañetara,
non segiruban dan jaisten
leku pintatubetara.

Ala asten da trebesten
arboldei ostoz jantziyak,
nola estropozka jotzen
suge-leku ta sasiyak.

Non segiruban gordetzen
dan mendi biren tartean,
ikusi dedin erortzen
gero arkaizte batean.

An betaz, betaz azaltzen
zaiola toki alaia,
ostoz ta lorez estaltzen
dan leku oso galai.

Segitzen dubela pauso
neke gabeko eztiyan,
preskuran usai gozozko
estaliyaren azpiyan.

Bañan bezturik odoiak,
turmoi turrunbak aitutzen
badira, etenik goiak
urak bea dute jotzen.

Eta orduban loditzen
asirik erriotxo, a,
denboraz ezta kabitzen
bere tokiyan gaixoa.

Eta alde denak joaz
ezin jarraituz ur lodik,
pasatutzen da itoaz
ibarretako artadik.

Segitzen dubela ala
bere bidean joan ta joan,
urruti ikusten dala
lasterka nola dijoan.

Bañan lasterka nola joan
ala ibiltze geldiyen,
obiratzen da gero an
itsaso zabal aundiyan.

Erriotxo ur argiya
ekaiztez dalako loitzen,
nork daki diña garbiya
dan gero itsasoratzen?

Gizadia da au bera,
alkarren baidute antza,
erriotxoak gu gera,
ura da gure ekantza.²

Ai zer lezio aundiyan
onetaz jaso gintzaken!
Ai zeñek urak garbiyak
itsasoratu litzaken!

1885, Euskal-Festak Donostian,
Oroimengarria.
Euskal Erria, 1886.

¹ *Sepultura*. ² *Imagen*. (Egillearen oarrak).

(1886)

Uda-azkena

1
Zerupe urdiña da
gorde naian asten,
maiz ditu kapa zuri,
beltz, arreak jazten;
oiek ez diyelako
azaldutzen uzten,
eguzkiya ez da len
bezin maiz ikusten,
eta bero aundiak
dirade eskasten.

2
Otz bero aundi gabe
denborak txit onak
arkitzen ditu sasoi
onetan gizonak;
sariztatu nairikan
Jaunak onen lanak,
eltzen diyoza frutu
kanpoan dauzkanak,
eta etxera ditu
karreatzen danak.

3
Frutu sasoiratubak
diranean biltzen,
abiyatzen da kanpo
berdea oritzen;
ostorik gabe dira
arbolak gelditzen,
lore zoragarriak
igartuta iltzen,
eta txoriyen kantu
pollitak ixiltzen.

Euskal Erria, 1886.

Auspoa, 1, 1961.

La Voz de España, 1968-XI.

(1886)

Abbadie jaunari

euskariarrak zor diogun eskerra

Composición señalada con accesit en las Fiestas Euskaras celebradas en Durango, en Julio de 1886.

Bizi bedi euskera maite duana.

Kantatxo

- | | |
|--|---|
| 1 | 4 |
| Euskariarrak gaingiro gaude,
gaur euskaldunak poz gera,
zeren ikusten degun indartzen
nola ari dan euskera;
biotz osotik maite dezagun
aurreko zanen izkera,
bestela geren aitaren seme
onak izango ez gera. | Aurrera lasai pausotu dezan
bideak zaizka zabaltzen,
ikusten gaude lengo moduban
ez dijoala au galtzen;
ezpada atzo sartutzen etzan
lekutan dala gaur sartzen,
sustrai berriyak boteaz ari
dala indarra artutzen |
| 2 | 5 |
| Jaiki zaitzte euskara billa,
arabatar ta naparrak,
jaiki, bizkaitar prestubak eta
frantzes euskaldun azkarrak;
jaikiko gera gu ere zuen
anaia gipuzkoatarrak,
Ama onari lagundutzero
beretzen lengo indarrak. | Lengo denboran izan zituben
seme on maite zutenak,
eta oraindik ere baditu
ez baitziran-ta ill denak;
gaur nai lirake argitaratu
mereziera batenak,
nor dan jakin ta maita dezaten
euskera maite dutenak. |
| 3 | 6 |
| Ekaizte txarrak igaro ditu,
etsai asko du izandu,
miñez luzaro da oso triste
Ama Euskera egondu;
bañan azkenak eman ez ditzan
nola baitzaion lagundu,
gaitzak emanik jira, eriyak
oso onera eman du. | Aizeari gaur diot ematen
nere kantatxo berriya,
alde denetan banatu dezan
nor dan Abbadie aundiya;
kantu onekin onraz apaindu
nai nuke onragarriya,
berak bertutez dakielako
onratzen Euskal Erriya. |

7

Ama Euskerak pena geiegiz
etzitzan eman azkenak,
jaun au zitzaion asi billatzen
sendagairikan onenak,
animan gorde zitzaken kantu
bozgariotzen zutenak,
beren balsamuz gozo-zeizkaten
zeuzkan naigabe ta penak.

8

Urte denetan zizkan Amari
seme-trobarik aurkezten,
eta kontsola zezaten bere
oñetan jartzen kantatzen;
ala euskara, liraz omenak
zaizkatenean kontatzen,
biotz estuba lasaiturikan
indar berritan zan jartzen.

9

Frantziyan zuben lenen aldatu
belar on oien aziya,
eta ondoren Españian du
lurgaintzen beren graziya;
bertute ontaz luze arazirik
Ama onari biziya,
goitutzen digu kantuzko lore
ederrez apain jantziya.

10

Laguntzalle on asko zaiozka
ari jaun oni azaltzen,
ez lutekenak nai euskararik
ikusi gaizki ta galtzen;
eta guzien laguntzaz nola
zaizkan egoak zabaltzen,
askok illtzea uste zutena
ikusiko da salbatzen.

11

Abbadie jaunak euskera naia
dakarrelarik barrenen,
lengo usantz ta oitura onak
ere nai ditu nola len;
eta berakgan maitetasun au
nola berekin dakarren,
gordetzen ditu Frantzian eta
gordetzen ari da emen.

12

Euskariarrak izanik lenaz
gauza onaren jabeak,
oetakoak asko dirade
gertatzen jorik lur beak;
eta jakiñik gaurko oiturak
ez diradela obeak,
Abbadie jaunak nai ditu lengo
zarrak gaizkintza gabeak.

13

Lur maite onek izanik lenaz
kondari mirestgarriya,
ez deiogun au ankapetuta
para geroko berriya;
asaba zarrakgandik baitauka
onra txit goiengarriya,
zeren bekaitzagarriya¹ beti
izan dan Euskal Erriya.

14

Nola izkuntza ala usari
eta oitura zar lenak,
Euskariaren mingarri dira
betazbetubak egonak;
bañan Abbadie jaunak gozoro
bulardezturik ain onak,
berriro gaintzen datoz ta jaun au
maitatzen degu dianak.

15

Eska leialez askotan diyo
euskaldunari lagundu,
euskariarren onean zenbait
neke ta kastu egin du;
lur maite au txit maite dubela
progarik aski eman du,
ala beraren seme leialen
eskerra beregana du.

16

Ongi jarraitu izan dalako
askorekin ta nerekin,
nik ere onen truk esker onak
nai dizkat eman trobakin;
biotzetikan musu bat diot
biraltzen kantu onekin,
maitetasun au bizi dan arte
zaitiraun² dezan berekin.

Euskal Erria, 1886.

² *Envidiable*.

³ *Conservar*. (Egillearen oarrak).

(1886)

Neguba

1

Igarorik denbora
gozoen sasoia,
lenaz gaiñ illunduta
tristetzen da goia;
elementen abisu
jorikan turmoia,
aize min zakarrakiñ
asten da euriya,
eta ez du jakiten
noiz gelditu iya.

2

Gabak argitasuna
dutenean artzen,
oso goiz-giro fiñak
dituzte ekartzen;
intzaren tokiyan da
izotza ezartzen,
bazter guziyak dira
zuri-zuri jartzen,
eta otza da leku
denetara sartzen.

3

Bere gozotasuna
sartzeko lurrari,
noizik bein erasotzen
diyo elurrari;
egan iges egiñik
onek zerubari,
geldi-geldi jaisten dan
denboran ugari,
samintasunak iltzen
zaizka negubari.

Euskal Erria, 1886.

La Voz de Guipúzcoa, 1893-I-4.

Auspoa, 1, 1961.

(1886)

Ama Birjiña Begoñakoari

Composición señalada con un accesit en los Juegos Florales celebrados en San Sebastián en 1886.

1
Eliza eder gloriatsua
goititutzen da Begoñan,
zeñen Zeruko Erregiñak nai
zuben gelditu izan an;
eta milagro asko egiña
Euskal Erriyan nola dan,
lur onek beti fede bizi bat
gordekaitzen du beragan.

2
Arkitutzen da urrez ta perla
baliosozkoz jantziya,
diztiratutzen dutela bere
eliza eder guziya;
daukazkiela besoan Jesus
eta beraren graziya,
irurizten du Jaungoikoaren
Amak dagoala biziya.

3
Izar eder au jatxi izan zan
Euskal Errira zerutik,
bertan goitargi¹ gelditurikan
ikus genezan aldetik;
eta argi au nola baitagoan
beti piztuba gugatik,
on iritzirik agurtzen degu
alderdi guzietatik.

4
Gaba dijoan gisan tolesten
zabaltzen duben mantuba,
egunsentiyak ala laztantzen
baitu eleiza santuba;
eta onetaz gorderik txori
txikiyak beren kontuba,
o Ama, zuri asten dizute
lendabiziko kantuba.

5
Ingurutako soro, zelai ta
gañetan bizi diranak,
egunarekin bat dira zuri
begira jartzen dianak;
eta illunabarra salatzen
duben denboran kanpanak,
zuri erregu egiñaz uzten
dituzte beren lur lanak.

6
Arrantzalea dijoanean
arraiketara urean,
bere begiyak ezartzen ditu
goitargi eder zurean;
ontzi-gizonak beren joanera
luzetan modu berean,
irriskatu ta indartzen dira
zugana duten fedean.

7

Bañan, o!, asten dira tximistak,
aitzen turrunbaz turmoiak,
estalki beltzez bat-baten jazten
dirala beak non goiak;
eta, orduban aserraturik,
itxaso nasi aundiyak
goititzen ditu urez zeruba
jo nai luteken mendiyak.

8

Ekaitz arretan daramazkila
urpean ertzak ontziyak,
zein penazkoak izango diran
ango gizonen antsiyak,
zuri erreguz belaunikatzen
dirala bertan guziyak,
malko lodiyak emanaz arren
salba deiztezun biziyak!

9

Ontan, o Ama, zuk entzunikan
beren erregu samiñak,
zere eskuba luzaturikan
kentzen deiztezu gaitz miñak;
zeru goiari asten zaiozka
azaltzen zati urdiñak,
eta itxaso legoi zanari
kamusten zaizka agiñak.

10

Ez da nabaitzen tximistik iya,
turmoiak dira ixildu,
iñor azpiyan paratu gabe
baitira urak amildu;
putzu legoiak ez du iruri
danik aserre ibildu,
zuk Semeagan erregutzeak
ditu guziyak umildu.

11

Gero jiratzen diran denboran
dituzun aiek libratzen,
lenaz gaiñ fede biziago bat
dute zureztat ekartzen;
eta ala, poz aundiz ontzitik
duten denboran saltatzen,
lenengo zure oñetan dira
guziyak belaunikatzen.

12

Eztira biltzen itsas-gizonak
bakarrik zure aurrera,
ezpada Euskal Erriyan askok
egiten dute au bera;
oniritzirik len on egiñaz
berriro erregutzero,
asko millakak igotzen dira
eleiza santu zurera.

13

Zuk sendatutzen dituzu penak,
zuk sendatutzen eriyak,
zuk zorionez estaltzen gure
zelaiak nola mendiyak;
zuk gugandikan dituzulako
gordetzen ekaitz aundiyak,
beti dauzkagu zalantzan zuri
begira geren begiyak.

14

Biotzetikan debozioa
jartzen duanak zugana,
eskaera du goititzen zure
Seme Jaungoikoagana;
berarentzako bitartekorik
onena zera, bai, Ama,
zure erreguz samurtzen zai
aserre gudan daukana.

Zure Semeagandik iristen
dituzulako graziyak,
eztira gutxi izan zugatik
zeruba irabaziyak;
illak salbatzen dakizu eta
kontsolatutzen biziyak,
zu adoratzen nai degu bizi
maite gaituzun guziyak.

Geren estura alditan beti
argi egiten diguzu,
eta aurrera ere, al bada,
grazi au bera iguzu;
malkozko zelai triste onetan
lagun zaitugun gisan zu,
gero iltzean ere zeruban
sartutzen lagun zaiguzu.

Oroimengarria, Euskal Festak Donostian, 1886.

Euskal Erria, 1887.

Euskal Erria, 1900. Aldaketa batzuk baditu onek, baiña aitatzerik merezi duanik ez.

Aldaketak: 1/1: Eliza guztiz gloriatsua; 3/6: piztuba beti gugatik; 4/2: zabal-dutako mantuba; 4/3: egunsentiyak laztandutzen du; 4/4: gozoz eleiza santuba; 5/4: agurka jartzen dianak; 5/5: eta illunabarra dorrean; 5/6: salatutzean ezkillak; 6/5: ongi gizonak ere joanera; 7/3: estalki beltzez bat-batez jazten; 7/5: eta, gai ontan aserreturik; 7/7: altxatzen ditu urmalla lodik; 7/8: diruritenak mendiyak; 8/1: Ekaizte artan daramazkila; 8/4: an diranaren antsiyak; 9/2: aien erregu samiañak; 9/3: zure eskuba luzaturikan; 9/4: gutxitzen deiztezu miñak. 11/5: ala, poz aundiz duten denboran; 11/6: beren ontzitik saltatzen; 11/7: lenengo dira zure onetan; 12/3: beste geiagok Euskal Erriyan; 12/5: on iritzirik lenazko onez; 12/8: zure eliza maitera; 13/1: Zugatik dira metutzen penak; 13/2: eta sendatzen eriyak; 13/3: zuregaitan onkaiz betetzen; 13/5: guregandikan dituzulako; 13/6: atzetzen ekaitz aundiyak; 13/7: zuri begira beti zalantzan; 13/8: dauzkagu geren begiyak; 16/3: eta al bada aurrera ere; 16/4: arren, grazi au iguzu.

Gure iritzirako, aldaketa auek ez dira Ramon Artolak sartuak, beste esku-
ren batek baizik.

* * *

Bai *Oroimengarria* dalako ortan, eta bai *Euskal Erria* aldizkariaren 1887-ko argitalpenean, bertsoen aurretik prosazko zati bat eskeintzen da. Nork idatzia dan ez da esaten. Ramon Artolak berak? Ez degu uste. Komeni da, ala ere, onera aldatzea:

«Bear bezelako argierarekin ezin señala liteke noizdikakoa dan Ama Birjiña Begoña-koaren eleiza gloriatsua, naiz esan baderike ere dala oso antziñetako. Bere izen misteriotsua geldituko zaigu agerkeratuba familitik familira iraungiturik datorren biurkera errespetagarri batez. Esaera da ezen gaur eleiza arkitzen dan mendiskatxoan, antziñako denboran izandu zala arte-arboldegi

aundi bat, eta oetako batean ozta-adarraren artean azaldu zala Zeruetako Erregiaren ekantza edo imajiña. Eztu esaten irauingiturri edo tradizioak agertu izan zitzaionaren eta berri on au eman izan zuanaren izenik; bañan bai Bilbo-ko jendea, pozkidaz beterik eta lasterka, nola igo izan zan arboldegi arretara Zeruetako Erregiña ikusi eta adoratzera, zeña ardietsi zioten Jaunak izan zedin beren atsekabetarako kontsueloa. Ontaz zeruaganontz oniritz-eskerrez beterik, artu zuten asmoa leku berean eta bereala eleiza goititzen astekoa, Birjiña Santa miragarria izan zedin adoratuba, bañan eginkera onen tokian etziran guziak etorri akordu batera, ala, batzuek ziralarik bertan egitea ohea izango zalako irudikoak, besteak eta geienak ziran berriz beste leku egokiagoko batean goititza nai zutenak; eta zenbait itz-trukatze egin ondorean, ontzakidatu zuten azkenengoen irudindea.

Gauzak bear bezela eraratu eta ekai edo materialak bildu bitartean, Ama Birjiña izandu zan guztiz benerazio aundian Bilbora jexia, eta beretzat bida-kaitutako elixtoka (*sic*) batera jaso. Segiduan abiatu rik biltzen materialak eleiza goititu bear zuten parajera, bakan-giroetan gertatu oi diran mirari bat etorri zan ikusteraztera Jaunaren naiera etzala ura.

Urrengo egunean oso arriturik ikusi izan zan material aiek beren gisan biurtu zirala lengo arte-arbolaren jirara, eta, Ama Birjiñak utzirik zeukan tokiya, joan zala leku lengokora bertara. Onekin gelditu zan bear ain agertuba Birjiña Santaren borondatea.

Ontaz oso arriturik guziak, Bilbotik jende ugariak joan ziran arte-arboldegi arretara, zeñean ikusi izan zuten Birjiña Ama dizdizarizko argi eder bat egiten zuala.

Oraindik miragarritasun geiagok bear zuan koroiu beraren toki arretarako biurkera. Jende ura guzia erlijiozko fede irazekiz beterik eta auspezturik bere aurrean zegoala, iriki zituan bere ezpafiñ zeruzkoak, eta denak agitz aditzen zutela bertako izkuntzan esan zituan itz abek: «Bego-oña», zeñak biurturik erderara esan nai duan: «*estése el pie quieto*».

Gertaera onen ikusteaz abiatu rik bereala lur arretan lanian, goititua izan zan geroz beti glori aundiz beterik arkitzen dan eleiza, zeña eta bere inguruak izan ziran bataiatuak *Begoña*-ren izenarekin».

¹ *Faro*. (Egillearen oarra).

(1886)

Donostiya

Composición señalada con mención honorífica en los Juegos Florales celebrados en esta Ciudad en 1886.

Azalkaia: Itsas-gañeko usoa.

Aitzerak banituben
len erri onenak,
zala toki gustatu
oi zirana denak;
erakarde¹ aundiyak
izanikan berak,
zitubela inguru
berek ederrak;
eta batez ere an
itsas-plai zubena,
zala bere berdiñik
iñon etzubena;
gisa artan nintzala
eroririk miñez,
eta ibildurikan
sendatu eziñez,
gero ere indardun
jarriko banintzan,
donkai² bat egitera
erabaki nintzan,
bada nuben sendagiñ
edo medikubak
agindurik artzeko
ur gaziz mañubak,
eta egonik nora
ez nekiela jo
artu nuben bidea
Donostiyarako.

Nola kontatuko det
bertako sarrera,
zer igaro zitzaidan
ikusteaz bera?
Toki ain politari
jartzeaz begira,
atsegiñez biotzak
eman ziran jira,
bada sinistpendurik
ametsen bat zala,
uste nuben zeruban
sartutzen nintzala:
eta ondorenean
ere ametsetan
bezelatsu bizitu
izan nintzan bertan;
gero noizbait ubilla³
neukana zankoan,
mañubak on egiñik
zitzaidanean joan,
sendatuta etxera
nola joango nintzan,
ontara gabe bertan
gelditu bainintzan.
Gaur erri onengatik
nai nuke itzegin,
euskal izkuntzan bere
agerkai bat egin;

luma apain goititu
moldazki zorroztuk,
euskal izkuntzan asi
arte lan on justuk,

argitarako ditut
nere iritziyak,
euskal omenak izan
ditzan Donostiyak.

* * *

Gipuzkoako lugorki edo kapitala,
etxonpetzen da mendi Urgullen oñean,
uso txuri bat bezela, jaikitzen dala
egak zabalik itsasoaren gañean.
Len oso txikiya omen zan au ikusten,
estutxo zekarrelako bere kabiya,
murrutzar beltzak etziotelako uzten
nai aiñ azitzen, egin danari aundiya.
Bañan lur jo erañik murru beltz aieri,
uso ederra jar zedin libertadean,
geroz egak zabaltzen baita beti ari,
norabait joan nai balu bezela aidean;
ala gertatzen da emana bi zatitan,
uso Uriya-ren⁴ izena daramana,
bada jar ditzagun biyak oso argitan
emango zaie biari agerkai bana.
Alderdi lenagokoan goititzen dira
eleizak bi, eta komentubak ere bi;
plazakin plazatxoak beste lau badira,
kaleak ogei ta bat edo ogei ta bi.
Berak oso txukunki moldatu berdiñak,
zuzen dirala asko batzuk besteakin;
etxeak altutasun batean egiñak,
aurre oso polit begiragarriakin.
Ikuste batez irurizkatzen dutela
pintura pantasiz egintako erriya,
zarraren izena baizik eztubela,
gertatzen dala iya guziya berriya.
Eta zer esango degu besteagatik,
nolakoa dala onen beste egala?

Esan genezagukena da beragatik
toki begiragarrienetan bat dala
Billatzen zaiozka pauso leku ederrak,
ur-salto nola jolas gauza politakin;
begiruna jar erazten dutela berak,
ez gutxien gabaz argi pantasiakin.
Billatzen dira ere lur mami zelaiak,
arbol txit ikuskera ederrekoakin,
nola mendiskatxo eta loretokiak,
beren iturtxulo soñu gozozkoakin.
Kaleak ditu arriz txit ongi ezarrik,
berdin, zuzenak, zabalak eta alaiak.
Etxeak asko balio dutenak, aundik,
beren aurre ederrakin oso galaiak.
Kaleak eztira ogeitara allegatzen,
bañan ainbesteratu baitirade iya,
bada erriya nola dijoan zabaltzen,
denboraz bear du izan onek aundiya.
Plazikan bat du orain arterañokoan,
bera arku jirakin oso moduzkoa,
oroigarri⁵ eder bat billatzen dala an:
jauregi etxe⁶ aundi Probintziakoa.
Aitapentzea merezi duana ere da
biltoki⁷ berri iya bukaeran dana;
oroigarri balio aundikoa ain da,
guziak miresten dute beraren lana.
Bañan alde bat utzirik oen graziyak
eta igorik Mota-ko sutunpadira,
obeki ikus ditzagun alde guziyak,
andik gozoro jarriko gera begira.
Lenengo begietara jaikitzen dana
da Ozeano itsaso zabal aundiya,
Letarta edo Probidentziyaren lana,
miresgarri, oso biotz mugigarriya.
Dira berriz ikusten beste alderdira
erri jirako erri, zelai, mendiyak;
ezin aspertu litezkeala, begira

egun osoan egonik ere, begiyak.
Bañan ikusten dira beste gauzak ere,
ez baita urrea azalkaitzen dan dena:
kaiean gauzak erdi lo artuk baitaude,
zeñak ikusteak ematen duben pena.
Nola beste bizi bideak ere dauzkan
erriyak, ez biziro pantesigarriyak,
zeñen abe oso segurubak ez dauzkan
beraren zutik egongarrizat jarriyak.
Alaz ere seme leial on berarenak
nola beti langille ikusten baitiran,
billaturik belar sendakairik onenak,
zorion lezateke egunen batean.

* * *

Erriya aldetikan
baitegu ikusi,
zein galaia dan bere
inguru ta guzi;
oraiñ ikustetxo bat
dubena merezi,
da ere bere plaia,
baitu zenbait grazi.

Egite borobilla
du, ta da zabala,
dago erriyagana
arrimatzen dala;
bada ikuste batez
ematen du ala:
irurizten du plater
urrezko bat dala.

Au da mañu tokiya
Kontxa deritzona,
paraje seguruba
eta oso ona;
alderdi guzietan
dakarrena sona,
bere modukoetan
onentzat dagona.

Ozeanok mañatzen
dizkala eskiñak,
bagak bertara dira
bildutzen berdiñak;
eta zati ditzaten
eriyaren miñak,
graziz zanbultzen dute
ur malla urdiñak.

Ixuri gutxirekin
lurra du berdiña,
zeñetan billatzen dan
ondar oso fiña;
mañu etxol polliki
pintatubak gaña,
egiten diotela
gauza txit apaña.

Baitu beste txabola
bat ere aundiya,
au da mañu etxea
olez ezarriya;
zeña arkitutzen dan
gaingiro jarriya,
pizkor dedin bertara
di Joan eriya.

Itsas gañeko aize
min sendagarriyak,
osasungarri ditu
asnasten erriyak;
bide berez negubak,
non udarak, biyak,
ez dizkatela gaintzen
otz-bero aundiyak.

Jolas-tokiya berriz
leku au berez da,
jolas-biderik iya
iñoiz palta ezta;
egunaz edo gabaz
beti bada pesta,
ala bertan denbora
pasatzen errez da.

Frantziyara arkitzen
zaiozka lau pauso,
joan ta jira egiten
dala merke oso;
mañu etxeak berriz
denak ditu auzo,
ala gauza guziyak
daukazki eroso.

Osatzen zaizkalako
orrenbeste grazi,
lenaz gain jende asko
da bertara asi;
ala eraz gozoro
nai dubenak bizi,
Donostira bear du
bidea ikasi.

Iruri du sortitzak⁸
milagroez egiña,
lorien jaio toki
bat edo sarjiña;
itz batez, ain da leku
polit atsegiña,
euskeraz eztu itzik
famatzeko diña.

Ezpalituzke orain
beltx diranak esan,
berriro batiatu
liteke elizan;
lenago *Donostiya*
deitzen zaion gisan,
gaur izena *Zeruba*
bear luke izan.

Ororimengarria, Euskal-Festak Donostian, 1886.

Euskal Erria, 1887.

Bertso auek 1886-koak dira, eta Donostia usotzat artzen dute. Andik sei urtera, 1894-an, moldatuko zuan Pedro Maria Otañok *Donostiya Uxua* izeneko bertso-sailla.

¹ *Atractivo.*

² *Sacrificio.*

³ *Reuma.*

⁴ *Ciudad.*

⁵ *Monumento.*

⁶ *Palacio.*

⁷ *Casino.*

⁸ *Naturaleza.* (Egillearen oarrak).

(1887)

Okendo

1
Gizon aundi au ill zala otsa
abo guzitan baitabill,
ainbeste giza-alditan kontu
bera besterik eztabill;
baña zergatik ordea ori
ala ez izan ta dabill,
Donostiako Antoniorik
ezpaldin bada iñoiz ill?

2
Aundi txikiyak denak denboraz
gordetzen dira lurpean,
zeñen azkenak gelditzen diran
antxen betiko lo bean;
bañan aundiyak lenaz izanak
altxarik losak aidean,
berriro dira ikusten zutik
beren losaren gañean.

3
Okendok ala altxarik bera
estaldutzeko jarriya,
azpiyan artu nai du lenago
gañean zeukan arriya;
eta onetaz on-iritzirik
lur maite jaioterriya,
argitan bizi dedin billatu
diyo jarleku berriya.

Euskal Erria, 1887.

Okendoren oroitarriaren leen arria jarritakoan moldatutako bertsoak.

¹ *Monumento*. (Egilearen oarra).

4
Bada antziñan ustez il zana
oraindik nola dan bizi,
seaskatikan jaiki dediyen
laguntzen obe da asi;
luzaro lotan egondu dana
esna bear da ikusi,
oroigarri¹ bat egin ta antxen
ez du emango itsusi.

5
Onetatikan ikusiko du
bere etxea mendiyen,
nola itsaso Ozeanoa
zabaltasun txit aundiyan;
eta guk bera ikus dezagun
aurrera onraz erriyan,
apaindurikan parako degu
sarjiñtxoaren erdiyan.

6
Torre polit bat altxako zaio
esan dan leku onean,
bere izena urrezko letraz
izkribaturik oñean;
eta brontzezko jantzi eder bat
daukala berak soñean,
Okendo zutik ikusiko da
torretxoaren gañean.

(1888)

Eskutitz bat

Eleizaren Buruari

Gure Jaun aundi Leon
amairugarrena,
Pedroren silla eser-
leku dakarrena,
auspezturik berorren
oñetan aurrena,
zeñen bait-naizen ardi
bat ni berorrena,
nator erakustera
pozezko barrena,
agurtubaz egun on
aundi datorrena,
Jaunak gloriagarri
lenaz zekarrena,
urte-urre berrogei
ta amargarrena,
apeiztu zana adin-
etan ederrena,
urre-eztaiak egin
bear ditubena.
Bada onetarako
nuke nik onena,
erregali bat, zerbait
balio dubena,
biraltzea; bañan, ai!,
eziña det pena;
ez naiz ezeren jabe,
orra, esan dena.

Ontaz nagola penaz
malkotuban iya,
gero zait bururatu,
lorien tokiya
banubela len nik txit
polita nerekin,
apain maiz ikusi oi
zana loreakin;
eta udan loreak
nola nonai diran,
nik ere zenbait arki
bainitzakela an;
eta ala jirarik
beren sor-tokira,
nere zentzuba aruntz
jarri det begira;
eta billa nola dan
lorien ibildu,
biotz nerean dizkit
ezillkorrak bildu;
eta nik sortatxo bat
egiñik berakin,
loturik urre-arri
lirarenarekin,
jaso det kutunkiro,
jauna, berorrentzat,
gorde gabe aletxo
bat ere neretzat;

bada erregali nik
egin nai diot au,
baldin eskeñi pobre
au artu nai banau;
ezpada ere gauza
aundi bat balioz,
sinista bizait, jauna,
dala amorioz
eskintzen diodana,
eta bera ala
erregututzen diot,
onetsi dezala;
eta denbora berez,
Santu Aita ona,
errespetoa mundu
osoak diona,
eskatzen diot ere
txarrak, nola onak,
denok patu oneko
egin gaitzan Jaunak,
graziz orni gaitzen,
badeitzaio ala,
bere eskuz guziok
bedeinka gaitzala.

Bere serbitzari leial nai guzirakoa:

Ramon Artola.

Donostian, Garillean 1887-ko urtean

Euskal Erria, 1888.

(1888)

Irutxulo zarreko eleizatxo berriya

1
Gaur zori onez oso gozoro
arkitutzen da erriya,
zeren ikusten duben goititzen¹
Jaunaren etxe berriya;
Españiako erregearen
amak lenengo arriya
ipintzen dio, lan au gertatu
dedin oroimengarriya.

2
Sarri asiko dirare ere
bere ondoan lanean,
erregientzat moldatzen kanpo
eder bat leku onean;
eta jauregi etxe galaia
bertan bukatzen danean,
Jaun-erregeak izango dira
auzo alkarren aldean.

3
Españiak gaur Easogana
dauzka jarriyak begiyak,
iya sinistu eziñik onen
gauzak diranik egiyak;
ain txoragarrik daude erriya,
itsasoa ta mendiyak,
bizi-lekutzat au autzen ari
dirare aundimendiyak.

4
Aizea bera bere tronpetaz
banatzen ari da sona:
leku au dala gozoro bizi
litekeana pertsona;
eta egiyaz fama ematen
diyo, bada ain da ona,
esan liteke zerutik lur au
dala aldena dagona.

Euskal Erria, 1888.

Bertso auetan aitutzen dan eleiza berri ori Donostiako Antiguakoa da.

¹ *Inaugurar*. (Egillearen oarra).

(1888)

Agorrillaren ogei ta bederatzia
Eleiza berri Donostiakoarentzat

1
Bart ametsetan nuben aingeru
bat nik ikusi etortzen,
eta zerutik ango arri bat
onuntz berekin ekartzen;
gaur ikusten det erregearen
ama arri au ezartzen,
onen gañean Jaungoikoaren
etxea altxa dezaten.

2
Denborarekin gure kontubak
dira geienak nastutzen,
denborarekin gizonaren lan
on lustratubak laztutzen;
denborarekin oroikagarrik¹
onra berenez bertatzen,²
denborarekin noizdikakoak
diraren iya aztutzen.

3
Denborarekin aztu ez dedin,
urteak pasa naiz milla,
denborarekin borra ez dedin
edo gelditu txit illa,
gaurko eguna, egun aundi au,
eleizan dedin or billa,
bere pillare sendo batean
brontzez izkribu dedilla.

Euskal Erria, 1888.

Leen esan bezela, eliza berri ori Antiguakoa da.

¹ *Monumentos*. (Egillearen oarra).

² Lerro ontako azken itzak, *bertatzen*, ez dakigu zer esan naiko duan. Bearbada, gaizki idatzita egongo da. Denborak zer lan txarrak egiten dituan esaten ari danez, eta gaiñontzeko puntuak diran bezelakoak izanda, bearbada *beztutzen* bearko luke.

(1889)

Urrutiko intxaurrak

Baserritar baten Amerikatik bere lur maiterako etorrera

1
Pozez Amerikara
joan nintzan gazterik,
etzalako iñon lur
oberik besterik;
bañan an desengañuz
ta penaz beterik,
eztakart etxerako
urteak besterik.

2
Zorion billa joanik
ainbeste bidean,
urteak etxeratzen
ditut azkenean;
joan bañon pobreago
bainator urean,
iru dukat eztira
nere poderean.

3
Ontzi zarrean nator
len berriyan joana,
eta emen txit pozik
detanean lana;
soldatik eztet bañan
badaukat zer jana,
Amerikan prankotan
paltatu zaidana.

4
Pobre, an beste asko
oi diranen gisan,
ez naiz portunoso
Amerikan izan;
nere zori gaiztoan
aruntz joan bainintzan,
ojala lur neretik
irten ezpanintzan.

5
Kontentuz joanak nere
moduban aruntza,
zenbait pozik jirako
lirake onuntza;
bañan nola baitiran
bear iru ontza,
nere gisan arkitzen
zaie poltsa utsa.

6
Irabazbide gutxi
eta maiz bear jan,
zenbait miseri triste
igaro det nik an;
pozez banintzan ere
Amerikara joan,
zartzerako orra zer
poz andik dakartan.

7

Ezta iya saiatu
ez naizen lanikan,
eta ezet sobratu
ezer lanetikan;
bada ez egiñ amets
danik Amerikan
eguzkitan ari ta
jaten ogirikan.

8

Bañan ez dira gaizki,
ez, an ere denak,
baitira, ta ez gutxi,
ongi dirarenak;
neri gaizki joan bazait
neretzako penak,
oñazerikan ez du
miñik ez dubenak.

9

Noizbait naigabeturik
neraman bizitzan,
lur ura utzitzera
erabaki nintzan;
eta ezet damurik:
irten ezpanintzan,
denbora gutxi barru
an ilko bainintzan.

10

Nairikan eragotzi
arako pausoak,
zenbait lan egiñ zuten
nere gurasoak;
bañan nik entzun gabez
beren itz gozoak,
nere penaz ziran ill
izandu gaixoak.

11

Bueltan nator urean,
diruz ez txit sendo,
eta ez ere nere
osasunez ondo;
molde onekoa naiz
ontzitik irtengo,
ai zer kolpea detan
etxean emango!

12

Ara non dan Frantziya,
ara Españiya,
ara non dan Jaizkibel
deritzon mendiya;
ara Ernio, ara
Aiako Arriya,
ara non dan ni jαιο
nintzan baserriya.

13

Ez nabill ametsetan,
ez, dira egiyak,
o zein ederrak dauden
gure alderdiyak!
Gaur ikustez pozturik,
malkotan begiyak,
jartzen zaizkit errio
bi egiñik biyak.

14

Beti bizitu naiz lur
nerearen miñez,
onera nai ta onuntz
jiratu eziñez;
urik egon ezpalitz,
esaten det ziñez
lenaztandik nintzala
etorriko oñez.

15

Miratu ditut milla
fama duten lurrak,
bañan an ere daude
alderdi laburrak;
sinisturik dirala
erdiyak gezurrak,
emen nai ditut utzi
nik nere ezurrak.

Euskal Erria, 1889.

La Vasconia, 1897.

Auspoa, 1961, 1.

Anton Abbadiaren koplarien guduak (Patri Urkizuren edizioa, 1997 liburuan ikus ditekenez, Ramon Artolak sail bat bialdu zuan gudu edo sari-keta oietara, “*Gipuzkoarra*” izenordearekin. Sail au bera da, baiña oso aldatua. Orregatik, ona emen osorik:

1

Pozez Amerikara
joan nintzan gazterik,
etzalako iñon lur
oberik besterik;
bañan an portuna truk
pobrezaz beterik,
eztakart etxerako
urteak besterik.

2

Portuna billa joanak
ainbeste bidean,
urteak etxerutzen
ditu azkenean;
joan baiñan pobreago
bainator urean,
pezeta bi eztira
polsillu nerean.

16

Aruntz joan nintzalarik
toki obe billa,
eztet batxo arkitu
miraturik milla;
ala nator etxera
penaz erdi illa,
nitaz eskarmentu bat
gertatu dedilla.

3

Ontziya pagatzeko
izan ez ta sosik,
jarri naiz bertan lana
egitera pozik;
bañan nola dauzkatan
zarpa denak ausik,
ni ikustean parrez
jartzen dira guzik.

4

Ontziyan jiratzen naiz
kemearran joana,
eta pozikan bertan
detanean lana;
soldatik ezte baiñan
badaukat zer jana,
Amerikan prankotan
paltatu zaidana.

5

Nere moduban joanak
poz aundiz aruntza,
pranko gaur etorriko
lirake onuntza;
bañan nola baitiran
bear iru ontza,
bere paltan gaitz baita
billatzen laguntza.

6

Beti irabazten ez
ta beti bear jan,
zenbait pobreza triste
pasatu det nik an;
pozez banintzan ere
Amerikara joan,
zartzerako ona zer
portuna dakartan.

7

Nubelarik eskola
oso polita nik,
maiz ez nuben izaten
plumarekin lanik;
ala aldi orretan
goseak egonik,
etziran bizimodu
ark egiten onik.

8

Gero arotziyan ta
urrena argintzan,
opizio bietan
jardun izan nintzan;
bañan nola portuna
biderikan etzan
utzi ta obe billa
mendira joan nintzan.

9

Zenbait denbora nuben
an segitu artzai,
etxera jiratzeko
zerbait sobratu zai;
bañan indio xarrak
gertaturik etsai,
nitubenak galdu ta
jira nintzan itzai.

10

Onetan nebillela
gerra zan azaldu,
zeiñen berriro berak
baininduben auldu;
jan bear ta nituben
ganadubak saldu,
eta zitzaidan neukan
biziera galdu.

11

Ala ernegaturik
nekarren bizitzan,
lur ura utzitzera
erabaki nintzan;
eta obe det, bada
irten ezpanintzan,
denbora gutxi barru
antxen ilko nintzan.

12

Nairikan eragotzi
arako pausoak,
zenbait lan egin zuben
pamili gaisoak;
bañan nik aitu gabez
beren itz gozoak,
nere penaz ziran il
nere gurasoak.

13

Poltsaz ezpanaiz eta
arkitutzen sendo,
ez nator osasunaz
ere guziz ondo;
molde ederrekoa
naiz etxera joango,
ai, zer kolpea detan
sartzean emango!

14

Ara non dagon Frantziya,
Ara Españaia,
ara non dagon Jaizkibel
deritzon mendiya;
Ara Ernio, ara
Aiako Arriya,
ara non dan ni jaio
nintzan basarriya!

(1889)

Eguzkiyaren sarrera¹

1

Eguzkiyak makurka
mendiyen atzean
gordetzen du argiya
illunabartzean;
gero urre-dizdirak
itxasperatzean,
eta goiak tinta fin
politik artzean,
tristura bat sentitzen
baita biotzean.

2

Egunari indarrak
zaizkanean iltzen,
tristuraz dira gauza
guziyak umiltzen;
loreak joaten dira
makurka muixkiltzen,
mitxeletak urrezko
egotxoak biltzen,
eta txori txikiyen
kantubak ixiltzen.

3

Negarti ikusten da
mugitzen ibaia,
triste errekatxoa,
tristeturik goia;
mur-mur itur-txuloko
ur kristal garbiya,
paltatzen zaiolako
zeruko argiya,
eta illun da triste
itsaso aundiya.

4

Zabalde igaroak
ainbeste naspilla,
galtzen du egunazko
murmurra ta bulla;
saguzarrak irteten
dira jankai billa,
aitzen da ermitako
Ai-Mari ezkillia,
eta itxuraz dena
gelditzen da illa.

Ontan izar zeruban
 barrenen zeudenak,
 diz-diz azpiyan dira
 azaldutzen denak;
 eta sarri guk aruntz
 begira gaudenak,
 nairik gerenganatu
 indar galdu lenak,
 lotan jartzen ditugu
 nekeakin penak.

Euskal Erria, 1889.

La Voz de Guipúzcoa, 1892-V-1.

Aldaketak: 1/7: eta zerubak tinta; 1/9: tristura bat nabaitzen; 2/8: ego-
 txotan biltzen; 3/3: errekatxoa triste; 3/5: mur-mur iturritxoko; 3/7: eskas-
 ten zaiolako; 5/2: gordean zeudenak; 5/5: eta andikan sarri.

Euskal Erria, 1900.

¹ *Premiada con mención honorífica en las Fiestas Euskaras de Santesteban.*

(1899)

Aotik aora

Idazlan bat agertu zan Donostiako *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian, 1889-III-10-ean, *El banquete de anoche* izenburuarekin. Osorik ezin onera aldatu, baiña ona puska bat:

«...se celebró anoche en honor de los autores de la aplaudida ópera vascongada Iparragirre.

La sala del Teatro Circo ofrecía un aspecto brillante. Más de cien comenzales se sentaban alrededor de las mesas colocadas en forma de U, y desde los primeros momentos animó la fiesta el buen humor de los concurrentes.

Ocupaban la presidencia los Sres. Guimón, Altuna y López, autores de Iparragirre. El orden más perfecto reinó durante la comida en medio de las frases chispeantes y alegres que se cruzaban sin cesar. El menú nada dejó que desear y la Mallorquina, que sirvió la comida, merece elogios.

Y llegó la hora de los brindis. El Dr. Cuadrado los inició con un breve discurso de felicitación para los autores. Siguió un humorístico discurso de un comensal, cuyo nombre sentimos no recordar. El Sr. Luzuriaga pronunció sentidas frases en honor de los autores de la ópera. El Sr. Artola improvisó la siguiente poesía, que fue muy aplaudida:

Gazia oien borondatia
nola arkitu eta non?
Etzait, bada, ez, iduritutzen
izango degunik iñon,
Iparragirre azaldu dute
egiñ diguna guztiz on.
Aurrera segi beti orrela,
López, Altuna ta Guimón.

Siguió otro discurso del Sr. Múgica, que tuvo frases ingeniosas...».

(1890)

Koroitxo bat Iparragirre urretxuarrari

(On Jose Olano Donostiako Euskal-itz jostaldien dianagusiari)

1
Aspaldi ontan nere barrena
zitzaidan mar-mar-mar ari,
zerbait kantatzen ez niolako
kantari euskaldunari;
eta denbora joanean beren
erasorikan lanari,
gaur uztaitutzen diot koroitxo
bat gure Aitor onari.

2
Nere lan onek eztu izango
galazko gauza ederrik,
eztu izango zillarrik eta
eztu izango urrerik;
ez eta ere diztiazteko
diamantezko perlarik,
oen truk ditu izango beste
gauza denborak ekarrik.

3
Koroia rentzat billatu ditut
osto igartu gabeak,
aritz zarraren eskarapelak
eta euskara loreak;
berak bekoztu ditzan kantari
euskaldun ezin obeak,
arbol santuba kantuz goititu
zuben kantaren jabeak.

4
Kanta dezagun kantu aundi au
guk ere doñu eztiyan,
kanta dezagun denok baturik
aritz zarraren erdiyan;
gaur makurtuba egonagatik
lurra jotzeko zoriyan,
gure dei santuz jar bailiteke
lenaztik zuben gloriyan.

5
Oraindik eztu oso berik jo
arbol maitatu makurrak,
oraindik fin ta sendo daukaizki
lurpeko zañak egurrak;
oraindik osto berrituzteko
din indar badu, bai, lurrak,
oraindik eman litzake aritz
zarrak urrezko ezkurak.

6
O, Joxe Mari, bañan non degu
guk zuk zenduben graziya?
Zure moduban banatzekoa
euskal fedeko aziya?
Non zuk bezela arbol zarrari
nairik luzatu biziya,
adoratubaz jiratzekoa
kantari mundu guziya?

7

Eta arbola dala alde bat
non degu gure euskera?
Nork du maitatu izan zuk bezin
su beroz gure izkera?
Zuk kantuz esan zeniguzunaz
ongi oroitzen baikera,
euskera galtzen bada lur ontan
ongi izango ezkera.

8

Ala esan au ontzat arturik
sinisturikan osoro,
denok maitatu bear degu, bai,
geren izkera gozoro;
au ta onekin arbola, biyak
ezkutatzera ezkeru,
lur maite onek ondore onik
ez bailezake espero.

9

Beragatikan biyak maiteko
ditugu zure moduban,
bai maitatu ta adoratuko
ditugu beti munduban;
etsaiak iñoiz galdu ez ditzan
bedeinkatubaz kantuban,
biziko gera beti bi gauza
on aundi oen kontuban.

10

Non dira berriz oez gañera
soñu polit zuk jarriyak,
euskal kantentzat sortzen ziñuzen
doñu biotz-pozgarriyak?
Geroztik franko argitaratzen
diralarikan berriyak,
gutxi gelditzen dira zureak
beziñ aztuezgarriyak.

11

Zuk zenekizun kantatzen penak,
zuk itz jostalluk kantatzen,
zuk zere kantuz Euskal Erriya
parrez jartzen ta jostatzen;
ainbesterañon ziran lur ontan
jolas zureak gustatzen,
errez ikasten ziralarikan
eztira iñoiz aztutzen.

12

Zuk ere oso maite zenduben
gitar zartxoia besoan
arturik, nola erriyan ala
mendiyen ero basoan,
ziñan denboran jartzen kantari
euskal izkera gozoan,
entzunlariyak uzten zinduzen
gutziz kontentu osoan.

13

Zure kantukin alegeratzen
ziran biltoki ta errik,
alegeratzen erriotxoak,
alegeratzen iturrik;
zuk kantatzean pozez ardiyak
etzuten jaten belarrik,
zure kantari mendiyak ere
jartzen zizkaten belarrik.

14

Zure kantubak estimatubak
dira txit Euskal Erriyan,
kantatzen dira Españian ta
kantatzen dira Frantziyan;
Ameriketako kutuntzat daude,
badakizkitez Asiyan,
zure doñu ta kantak banatuk
dirare mundu guziyan.

15

Uda berriyan lorietara
jaisten dan gisan intz ura,
jatxitzen ziran zerutik doai
grazyak zure zentzura;
eta zuk berak banaturikan
intzentsubaren modura,
ziran goititu ziñan intzentsu
gisan musaren zerura.

16

An ziñanean gitartxoakin
igo Parnaso mendira,
Apolok deitu zizun iruri
eder angoen erdira;
eta berari esan zioten:
«Ara euskaldunen lira,
Iparragirre, kantari mundu
danari emana jira».

17

Eta izen au entzun zanean
musaren bizi-tokiyan,
segiran ango ditzizten zuten
izkribalarik erdiyan;
arturik buru desestalikin
errespeto txit aundiyan,
para zinduzten euskaldunentzat
zegen urrezko alkiyan.

18

Negar egiten dizute geroz
joan ziñalako emendik,
negar gizonak, negar arbolak,
negar iturri ta mendik;
bañan zertako ordean negar
egin joan arren mundutik,
berriz lorien gisan goititzen
baldin bazatoz lurpetik?

19

Aurrera bizi zaitezen jaio
izandu ziñan erriyan,
zure itxura zere semeak
pixtu dizute arriyan;
eta gaur onra aundiz altxarik
plazatxo baten erdiyan,
betiko zutik ez-ilkor zera
gelditzen Euskal Erriyan.

20

Kopeta noble euskaldunena,
urteetan ez txit zarra,
elurra beziñ zuriyak bere
illea eta bizarra;
bizkarretikan lira zintzillik,
maitetzen zuben gitarra,
au da Aitor on Iparragirre,
Urretxuarren izarra.

21

O Joxe Mari aundiya, zure
seme au gaur naiz lanean
jardun, koroi bat egin ta zuri
buruban para naiean;
bañan iristen ez naiz orruntz ta,
mun egiñikan oñean,
utzitzen dizut zere oinpeko
oiñ-arriyaren gañean.

Euskal Erria, 1890

(1890)

Donostiari

1
Uren erdiyan erri pollit bat
dago txit ikusgarriya,
eta gañera itxasuari
kendurik puska aundiya;
Paris bejela konparatzeko
jarriya daukate iya,
mundu guztiyak famatzen ditu
Donosti zar ta berriya.

2
Etxiak zuzen linean eta
gero berriz pasiguak,
arbol ederraz danak betiak
iñon paregabekuak;
gañera ere pobre ta aberats
isiritzeko bankuak,
mundu guztiyak estimatzeko
dira orlako lekuak.

3
Gañera Kontxa izena duen
bañatutzeko lekuak,
itxasu orrek dauka graziya
miñ danak sendatzekuak;
udara azkar etorritzeko
gabiltza desiatuak,
paraji ortan ikusitzeko
gauza ederretakuak.

4
Kanpuak ere oso berdiak,
gañera orko loriak,
pinturak ere eztitu kentzen
oinbesteko koloriak;
txori txikiak errepiketan
arbol guztiyak betiak,
oiek utzita pena ematen du
Donostiyatik juatiak.

Ramón Agote (a) Artola

La Galerna, 1890-V-25

Ramon Agote (a) Artola bertso-jartzaillerik ez degu ezagutzen. Bearbada, Ramon Artola esan bearke luke emen; baiña moldiztegian gauzak errez naasten dira. Dana dala, bertso auker emen ezartzen ditugu, Ramon Artolarenak diran ala ez du-da pixka bat egiñez.

(1890)

Aita Larramendiri
oroimentxo bat

1

Ama Euskera zuten denboran
lotura txarrez pisutu,
zure izenak zituben bere
etsai guziyak izutu;
zuk zendulako lumaz bentzutez-
garri libruba bentzutu,
euskal bularra eran guziyak
bear zaitugu musutu.

2

Zuk sendaturik euskera bizi
da uriyan non mendiyen,
zure oroitza josirik dauka
biotz bakoitzak erdiyan;
gaur kutun gisan jasoan izan
zaitezen zere erriyan,
zure izena izkribu bedi
brontzez lustredun arriyan.

Euskal Erria, 1890

(1890)

Bibliako pasarteak iru kantetan.

Gure Jaungoikoaren agindea Lenengo kantua

1
Zer mirariya izan zan gure
Jaungoikoaren graziya!
Sei egunetan bukatu zuben
mundu egiten asiya;
zazpigarrenak zuben denboran
eman goizeko argiya,
lurra jaiki zan belar berdetan
lore ederrez jantziya.

2
Ongi musutu zitubanean
beak zeruko argiyak,
alderdi denak azaldu ziran
dizdiratubaz garbiyak;
kristalezkoak iruri zuten
errekak nola ibaiak,
eta tul urdin fiñez jantziyak,
berriz, itxaso ta goiak.

3
Goiz jeiki ziran abere maltso,
saltakari ta piztiyak,
eta oraindik goizago txori
txiki kantari guztiyak;
ongi legortu bañan lenago
arbol-gain intzez bustiyak,
gorgoriozka asi zituzten
beren kantatxo eztiyak.

4
Eguzkiya zan ain eder baztar
denak dizdizten ageri,
baziruriyen urrezko tinta
zala gañean erori;
itz batez lauki egin berriya
gertatutzen zan mirari,
bañan oraindik pinzelatxo bat
palta zitzaion berari.

5
Ikusirikan bada etzala
bear bezela len dena,
pinzelatxoaz enkargatu zan
Jaun bera egin zubena;
ala arturik eskuba bere
lur bertan eran zegona,
jira birekin emanik aize
eraztu zuben gizona.

6
Izena Adan ipiñirikan,
nai izan zion bertatik
eman emazte laguntzalle bat
sortuba bere sustraitik;
eta kendurik lotan zegoala
kostilla saiets batetik,
eraztu zuben emakumea
ezur uztaitu artatik.

7

Jaiki zanean lotatik Adan
agerkaitubaz berari,
esan zion au: «Egin det Eba
eta emaztetzat tori;
era guzira bizi zaitezte,
bada jankaia ugari;
bakar-bakarrik etzazutela
ikutu arbol bat, ori».

8

Onetaz oso bukaturlkan
Jaunak bere lan asiyak,
namera denak utzi zituben
bear bezela jantziyak;
Adan ta Eba jardun zitzaizkan
pozez ematen graziyak,
eta zeruban alabatutzen
berriz aingeru guziyak.

9

Oetako bat Luzbel zeritzon,
galai guzizko ederra,
lenagotikan gallendurikan
asiya moldatzen gerra;
bañan zeruban ikusitzeaz
Jaunak alako okerra,
kastiguz bota izandu zuben
beko infernu zokora.

10

Etsai gaiztoak galdu nairikan
Jaunak egiña zan lana,
arrimatu zan sube-itxuran
arbola bakar argana;
eta Adan ta Ebari deia
eginiik berarengana,
engañatu ta jan erain zien
fruta jan bear etzana.

11

Zer nolakoa etzan izango
Jaungoikoaren kolera,
ikusitzeaz pekatu ala
egiten Adan ta Eba!
Biyak segiran zituben zelai
eder artatik atera,
eta bialdu beste paraje
tristiagoko batera.

12

Para zituben beren izerdiz
irabazitzen ogiya,
señalatubaz ondorengoan
eriotz izugarriya;
egikaratu etzutelako
artapen Jaunak utziya,
galdu zitzaian betiko zuten
zoriontasun guziya.

13

Bañan segiran kupiturikan
berataz beren Jabea,
ezin naidartu izandu zuben
ain triste aiek uztea;
eta gogorra zalako izan
kastigu-bide berea,
kulpa dutenak pozgizatzeke
jaiki zan itz bat obea.

14

Itz artaz zien adierazo
zerbait gerora andikan
jaioko zala Salbatzalle bat
Birjiña batengandikan;
eta etsaiak zeuzkan aginte
guziak zeaturikan,
gizona libre jarriko zala
zeukan pekatupetikan.

15

Ona non degun aginte Jaunak
egin izandu zubena,
seguruztuba Salbatzalle bat
sortuko zala gugana;
bada izanik itz au sagra
du uka etzezakeana,
ikusiko da nola osatu
zuben bere itz emana.

Lenengo kantuaren azkena

* * *

**Emandako itzaren ontzakida
edo konfirmazioa
Bigarren kantua**

16

Adan ta Eba deserritu ta
geroagora andikan
Kain ta Abel jaio izandu
ziran bi aiengandikan;
eta ondoren gertatu izan
zan inbiriagatikan,
Kainek Abel il izan zuben
ezur batekin jorikan.

17

Lengo pekatuz aundiya izan
bazan Jaunaren kolera,
bigarrenagoak berriro zuben
pazientzitik atera;
bañan onetan libre gertatu
baitziran Adan ta Eba,
maldizioa jaiki izan zan
il zuanaren gañera.

18

Oso eskastu etzedin Adan
eta Ebaren aziya,
berriro Jaunak nai izan zuben
banatu bere graziya;
ala zioten eman seme bat:
Set, txit bertutez jantziya,
zeren ona zan zabaltzen asi
onen segira guziya.

19

Kainek eta bere oñeko
gero sortutzen ziranak,
geroago ta gero txarrago
zuten segitu oi denak:
Onen truk Setengandikakoak
gertatzen ziran txit onak,
egun eta gau gaiztoakgatik
erregutuzten zutenak.

20

Gisa aretan bizitzen ziran
bakoitzak beren modura,
oarkera bat berriya jaiki
zitzaien arte burura;
bada onetan etorri ziran
jende ariyek kontura
alkartu bear zutela adar
bitan sortubak mundura.

21

Ala segitu zuten aurrera
alderdi biyak batubaz,
bañan gaiztorik ontzen etzala
ezpada onak txartubaz;
ainbesterañon gaiztokeriya
joan zan indarra artubaz,
azkenerakoz Jaunak penatu
zuben kastigu ordubaz.

22

Oraindik bazan gizon bat ona
Noe zubena izena,
zeñari eman zion aitzera
gauza pentsatu zubena:
au zan ugol bat ezartzekoa,
ongi zubela, bai, pena,
bañan berataz kastigatzeko
jende ain txarra zegoena.

23

Agindu zion egin zezala
kutxa bat oso aundiya,
zeñetan gorde zitezken bera
eta famili guziya;
gañera gero izan zezaten
pizti guziyak biziya,
beren orretan gorde zitezen
bakoitzetik bi aldiya.

24

Oso bukatu zitubenean
kutxarekiko lan danak,
segiran ziran bertara biltzen
asi aitatu diranak;
eta barrenen bear bezela
jarritakoan dianak,
eurite bat zan sortu galtzeko
gaiztoak izan ziranak.

25

Berrogei egun iraun zituben
gelditu gabe euriyak,
zeñetatikan gertatu izan
ziran uralde aundiyak;
eta berakin estalirikan
erriyak nola mendiyak,
itoak ziran izan Jaunaren
kastiguz pekatariyak.

26

Ekaizte aren segiran urak
ziran denboran joan beera,
familiya ta pizti guziyak
ziran kutxatik atera;
eta guziyak pasaturikan
toki egoki batera,
lana egiñaz an izan zuten
bizi berriko jaikera.

27

Geroz jendea ugaritu zan
eta zitzaien burura
toki berean altxatzekoa
dorre aundi bat goi-gora,
al baldin bazan beraren punta
goititzen zana zerura,
berriz ugolik gertatzen bazan
etzezan goitu goi ura.

28

Pentsatutako moduan zuten
asi lan torre arena,
bañan etzuten modurik izan
bukatutzeko lan dena;
lan ari laga bear izandu
zien zutela txit pena,
naskidaturik zitzaielako
aztu izkera berena.

29

Ordurakoz zan erlijioa
aski asiya aulduzen,
da esatea Jaunaren fede
egiazkoa galdutzen;
itxumenduta abiaturik
bide okerrak artutzen,
askok zituzten fedez jaungoiko
faltsoak adoratutzen.

30

Denen Jabeak ikusirikan
gisa artako naskera,
ziran onak nai izan zituben
txarren tartetik atera;
eta Abraan zeritzonari
emanik bere aitza,
lur artatikan mugi arazo
zituben beste batera.

31

Adierazo baitzion ere
bere segira munduban,
ugarituko zala izarrak
ziran moduban zeruban,
zeñetatikan Salbatzalle bat
jaiorik bear orduban,
zeñak bera ta beretakoak
bedeinkatuko zituban.

32

Geroz izan zan Isakek eta
Jakobek aitza emana:
Aur bat jaioko zala gizona
salbatu bear zubana:
beste profetak, berriz, nor zuben
izango Aur on ark Ama,
eta besteak erriya zein ta
lur jaioko bear zubana.

33

Gisa berean Zakariasen-
gandikan jakin izan zan
Jaungoikoaren Semeak jaioko
bear zubela pobrezan;
eta etsaiak gudan len ainbat
indar iruki etzezan,
nola gizonakgandik zauritu
eta martiri ilko zan.

34

Ona non diran ontzakidatzen
Jaunaren argibideak,
orni zitezen Adan ta Ebak
egiñikako kalteak:
jaioko zala Salbatzalle bat
puskatutzeko kateak,
zeñak iriki bear zituben
zerubetako ateak.

Bigarren kantuaaren azkena

Pagua
Irugaren kantua

35

Lauren bat milla urte munduak
zitubenean gañean,
emakume bat gertatutzen zan
Jaunaren grazi onean;
au zan Maria zeritzaiona,
garbiro birjindadean
bizitzen zana bere senar on
Joseren aldamenean.

36

Maiz egon oi zan biotzetikan
erreguz Jaunarengana
bial zezala Salbatzalle bat,
agindurikan zeukana;
eta bein batez eskeaz ala
zegoala Justu argana,
aingeru eder bat zerutikan
jatxi zan berarengana.

37

Aingeru arrek ekarri zion
Jaunaren argibidea;
beragandikan zala jaioko
mundura bere Jabea,
bertan esanaz: «Agur, Maria,
zera graziaz bete;
Jauna zurekin arkitzen da ta
beraz jabetu zaitea».

38

Bederatzi bat illabetera
geroz, Belengo erriyan,
jaio izan zan Mariagandik,
ganadubaren erdiyan,
bere etzauntza lastoa zala,
estalpe baten azpiyan,
umildadea erakutsiyaz
pobreza oso aundiyan.

39

Geroagoan korputzez zerbait
ongi ornitu zanean,
abiatu zan Aita Joseren
aldamenean lanean;
eta ogei ta amar bat urte
zeuzkan denboran gañean,
bere dotriña egiazkoa
azaltzen leku danean.

40

Asko zituben bereganatzen
fedo santuko itzakin,
nola milagro begiragarri
egin oi zitubenakin;
eta ondoren geldi zitezen
bere dotriña onakin,
argiratzeko amabi lagun
artu zituben berekin.

41

Alderatu zan denbora triste
justu arentzat zegoana,
zeñak ikusten zuben eriotz
pasatu bear zuana;
alaz ta ere osatu zedin
Aitak esanik zeukana,
bere amabi ikasleakin
errira izan zan joana.

42

Ots aundikoa izan zan aren
Jerusalengo sarrera,
jakin zalako Jaungoikoaren
Semea nola zan bera;
ala palma ta erramuakin
irtenik bere bidera,
egin izandu zioten ongi-
-etorri oso ederra.

43

An jauntxo edo agintariyak,
pizti gaiztoen modura,
segiran asi zitzaizkan artu
naian an beren kontura;
zeñen supitaz irazekirik
jaio zitzaien burura:
zernai aitzaki billaturikan
iltzea gizon on ura.

44

Sarri apostol Judasengandik
ala egiñik tratuba,
ogei ta amar zillar diruren
truk izandu zan salduba;
segiran laztan bat an emanik
etsaiak sokaz lotuba,
eta gaitz-gille baten moduban
presondegiyan sartuba.

45

Milla bat nasikeri zutela
nairikan galdu gizona,
lotu zioten pillare bati
kulpik etzuben ain ona;
eta azotez zuten denboran
odoldu korputz arena,
letu zioten sententzi triste
supritu bear zubena.

46

Presondegitik atera izan
zuten denboran argira,
urrikalmendu gabe zitzaizkan
jarri geienak begira;
zeñen gurutze pisu batekin
segiran tira ta tira,
Jerusalendik eraman zuten
Galbarioko mendira.

47

Iru erori egiñik igo
zuben denboran mendiya,
kendu zioten gañetik bere
gurutze pisu aundiya;
segiran oso odoldutako
soñeko bere jantziya,
eta ondoren izan zan iltzez
gurutze artan josiya.

48

Gurutze artan iltzez josirik
zanean izan igoa,
azaldu zuben gizonagana
zekarren amorioa;
etsai gaiztoak ziotelarik
ematen martirioa,
bere Aitari eskatu zion
etsaien barkazioa.

49

Eskatu zion ere eskeintzen
ziola bere biziya,
borra zedilla Adan ta Eba-
gandik jaiki zan pozoya;
bere odolez garbi zedilla
mantxa aurreko guziya,
gizonak izan zezan zeruba
gozatutzeko graziya.

Euskal Erria, 1890.

50

Supriturikan pasa litezken
tormenturikan txarrenak,
itxirik artan bere begiyak
eman zituben azkenak;
orduban ziran osatu izan
Jaunak lenaztik esanak,
pagaturikan zorrak berorren
Seme Jaungoiko-gizonak.

(1890)

On Klaudio Otaegi zanari oroimena

Klaudio, nora zera joan, nora, euskaldun maitagarriya,
Laguntzallien paltik aundina daukan denboran euskerak?
Ainbesterañon galtzen baitu zu urrunditzeaz izkerak,
Uzten dezun lur onek sentitzen du penaz min ilgarriya;
Denok dakigu zerala izan maisu estimagarriya,
Itz jostaldiyak indartzen eta moldatzen kantu ederrak,
Oinpean pasa bañan len gure izkuntz ederra erderak,
Otsezti gozoz oso goititzen zendula Euskal Erriya;
Tatxik gabeko euskaldun ona, argitan gerta zaitezen,
Altxa nai dizut letraz dorre bat, gaintu oi diranen gisan,
Egon zaitezen bere gañean, zutaz maiz oroi gaitezen;
Gizon izkribalari aundiya baiziñalako zu izan,
Umanten gisan gaur Euskaria osoak zaitu koroitzen,
Illa ondoren bizi zaitezen euskal letraren eleizan.

Euskal Erria, 1890.

Bertso au *acróstico* bat da: letro bakoitzeko leenengo letra artu eta goitik beera irakurriz, izen edo esaldiren bat irakurtzen dana, alegia. Aldiontan, *Klaudio Otaegui*.

(1890)

Euskera biotz osoz maitatu izan zuan
On Pedro Nobia Salzedo-koari oroimen bat

1

On Pedrorentzat bildurik dakart
sorta bat lore eskuban,
bere tonbaren gañean apain-
garri paratu deiodan.

2

Maitagarriya izan zalako
On Pedro Euskal Erriyan,
zeruban arki dedilla eta
zeruban ere erdiyan.

Euskal Erria, 1890

(1891)

Bertsoak eta pintura

Amalauduna

Nere adiskide On Frantzisko Lopez eta Alen jaunari

Frantzisko, zure liraren soñu eztiya
Ramonen biotzean gelditzen da preso;
Apolok musutzen zaitun seme argiya,
Nabaitzen zaitu graziz apainduba oso;
Zuk irudi ederrak maiz esna arazo
Izan dituzu, baña dezaten graziya,
Sinist bezate, nola nik, denak, zuk gozo
Kantatutzen dezula bertso egokiya.
Orain esku diozu eman pinturari,
Lumari lengo joan biderik itxi gabe,
Onra protxubakin ken zaiozun lanari;
Pauso modu oek ematia da obe,
Egin zaitezen zere dezun doaiz sarri
Zenbait sari berri estimaturen jabe.

Euskal Erria, 1891.

Bertso au ere *acróstico* bat da: aldi ontan, lerro bakoitzeko letra bana artu eta goitik beera joanda, *Frantzisko Lopez* irakurriko degu.

Frantzisko Lopez-Alen au (1866-1910) Donostian jaio zan, eta bertan il. Bertako Udal-artxiboko zuzendaria izan zan, erriko kronikalaria, eta idazle saiatua, bai erderaz eta bai euskeraz.

(1891)

**Martin, berak paratako
estroparako kankak saltzen**

Martin: Andre Asensi, kankak erosi
bizaizkit gaur naiz ta saldutzen asi.

Asensi: Etzatoz tratu txarra aututa
dendara, kanka zarrak artuta.

Martin: Ez dira zarrak,
eragin eraztikoak farrak;
jotzea libre, badira txarrak.

Martin: Ia ar bitza, irakur bitza,
emateiot onak dirala itza;
ez bedi gelditu paper gabe,
lenbailen egin obe du jabe.

Asensi: Ez daukat betik,
ken zaitez nere aldamenetik,
ken zaitez, kendu, zuaz emendik.

Martin: Letzen balitu, ta entenditu,
emango leieke milla meritu;
onlako kantikan aspaldiyan,
edo oraingo giza-aldiyan,
ezta argira;
paper bat artu eta begira;
jar bedi, jarri, ederrak dira.

Martin: Nola dan kia, ain da merkia,
lan ontan nik egin detan nekia;
artu bizaizkit txakur biyan bi,
bestela amarrekin amabi:

Asensi: Ez, ez, ez, ez, ez,
ez gaude zure kanten bearrez;
aituba zaude ezetz ta ezetz.

Martin: Bañan, Asensi, obek ez utzi;
artu bear nazki ditzan ikasi.

Asensi: Artuko detana da nik kana,
puntan burni lodiya daukana,
aguro gero,
zuri kostillak jartzeko bero,
jira nai baldin banazu ero.

Martin: Eztet galduko, ditut salduko,
erostunak dira, bai, azalduko;
adios, etxekoandre miña,
piper geiegirekin egiña,
beste bat arte;
bedorreatatik nai det aparte
bizi, munduba bukatu arte.

Euskal Erria, 1891.

Bertso auek Bilintxen Juana Bixenta Olaberen doiñuarekin kanta ditezke. Ona doiñu ori, Etxeberria eta Gimón-en *Ecos de Vasconia* kanta-bildumatik artuta:

Nº 9.

Juana Vishenta Olave.

Canto vascongado.

Poesia de Vilinch.

Música de R. Sarriegui.

Andante. M. M. $\text{♩} = 100.$

Jua-na, Jua-na Vi-shen-ta Vi-shen-ta Jua-na Vi-shen-ta O-la-ve.
 Na-gu-si Jua-nu, au-shen-da la-na, a-mak bi-gul-ten nau be-ro-rren ga-na.
 ¡Ay! ¡Ay! ¡gai-du-ko ba-zin-du-ke maiz, zu i-ku-si ta kon-so-la-ten naiz, chi-nis-tu zu-zu o-so-zo-ra-tu-ri-kun nau-ka-zu! O-rren po-li-tu no-la ze-ra zu. la ze-ra zu. O-so-zo-ra-tu-ri-kun nau-ku-zu O-rren po-li-ta no-la ze-ra zu. la ze-ra zu Juana-cho po-li-ta ze-ra zu, ze-ra zu.

A. Diaz y Cia editores San Sebastián

Meltxor bertso-saltzalea
Andre Bittori eta Poloniren dendan ate aurrian
(Urta Papitoren doñuban)

Mel: Etxeko andre, bertso berriyak
dama-galaiari orain jarriyak;
gaur asi naiz saltzen txanpon bana,
nere lau illabeteko lana,
abek ez utzi.

Bit.: Nai badezu soseguban bizi,
obe dezu joan ortik lenbizi.

Mel.: Seguru nago, onlako kantik
aditu gabiak dira oraindik;
bada añ daude jarriyak iaio,
letu ala gustatuko zaio.

Bit.: Zuaz ortikan:
emango nizkizuke pozikan
bi txakur txiki joatitikan.

Mel: Beon esana orla dala're,
ez naiz emendikan joango alare;
ez dezaiola iritzi mira,
guziyak oso politak dira;
ara aurrena...

Bit: Sartzen bazera atez barrena,
gogoratuko zera urrena.

Pol: Orentxen tema añ da aundiya,
non aspertu nauben gaur iya-iya.
Ortik azkar joaten ez bazera,
gero damutan egongo zera.

Mel: Auxen da lana!
Artzen badirate biyak bana,
egiña dago nerekiñ dana.

Badakit zierto gaur oraindikan
artuko nautela bat berenikan;
bada etorri naizen kasuan,
eta egondu ordu osuan...

Pol: Au zoramena!
Egin genezaguken onena
utzi kunplitzen beraren tema.

Zer deizkiyozu, andre Bittori?

Bit: Txit ondo dezula pentsatu ori.
Asko da teman gogor dagola
eta bigaldu ezin degula,
asi derilla;
baña ez bada kantuz abilla
dantzatuko det sarri makilla.

Asi zaitia bada segiran
jakin ditzazkigun oiek zer diran.

Mel: Eman nautelako lizentziya,
kantatuko det ondo guziya.
Ara bertsua;
ez pentsa dala nolanaikua,
onla asten da lenbizikua.

«Penak kantatzen nai nuke asi,
al badu biyotzak ariyarazi;
ni maite nuben dama alaiak
bostgarren bizitzako galaiak
artzen zuben;
eta nik nola uste ez nuben,
txinuen gisa saltzen ninduben.

Au ontan pasa zan ezkeroztik,
kostilla bat eziñ jan det geroztik;
onla amolatzekotan obe
nuke sartuba egon lurraz be.
 Ai abek penak!
Senti arazitzen dizkit denak
gibeleraño maite nubenak.

Lantzetazuak biyotz guztira
eta gerriraño banatu dira;
nere fiñtasun benetakua,
faltsiyan sartu ziran takua...».

Bit: Bertso berriyak!
Oso dirade penagarriyak,
negar malkotan daude arriyak.

Esan dezuna asko dalarik,
ez degu aitu nai beste penarik.
Etzazula aurrera segitu,
txardiñak ere dute sentitu;
 daude egoki,
eziñ jarri litezke obeki,
artuko nuke letzen baneki.

Mel: Erosi gabe uzten banaute,
guztizko itsusi emango dute.
Pol: Ekatzu bada bat edo beste
zergatik alaxen det nik uste
 azkenerako
berak serbituko dutelako
nik dakitan gauza baterako.

Papito

Bertso auk Donostiako *Baserritarra* aldizkarian agertu ziran, 1908-II-1-ean, firma bezela *Papito* dutela. Baiña aurretik eskeiñi ditugun beste oien antzekoak dira. Auk ere Ramon Artolarenak, beraz? Ditekena da eta orregatik sartu ditugu liburu ontan.

Urra Papito doiñu ortan moldatu zituan Bilintxek *Juana Bixenta Olabe*-ren bertsoak. Ona emen *Urra Papito*-ren doiñu ori, J. A. Santesteban-en *Cantos y bailes tradicionales vascongados arreglados para piano* bildumatik artuta.

Andantino.

♩ 2.

URRA PAPIITO

f

1^a 2^a

cresc.

ff

1^a 2^a

(1891)

Moro kontuba¹

1
Uri, gaur kontu kontari
nai nazulako para zuk,
esango dizut zeroni
bart neri esana Bensus-k,
pasia moro Assan-i.

2
Gabaz aituba det ori
Abbas-ko kanpamentuban;
aitu, bada, izar Uri,
gorde dezazun kontuban
kontu kontatuba neri.

3
Assan biursari² bat zan,
Afrikan emana jira;
kantari oberik etzan
adoratzeko Zelmira,
zeña printzesa bat baizan.

4
Beti berari begira
gabaz orobat egunaz,
kantari pararik lira;
zizpirutxoak emanaz,
dardak³ oi ziozkan tira.

5
Etzan infanta erortzen
Assan-en kanta kontura;
etzekiyen adoratzen
zubenik nai aundiz ura,
kantuz ari da kontatzen.

6
Assan azaltzea lotsa,
eta Zelmirak jakiñ ez;
kantuz nai zion biotza
esan zekarrela miñez,
iritx zezan bere poza.

7
Bañan zana zan gertatu:
printzipe Alikar-gana
baitzala enamoratu,
nola ura beragana,
eta zirala ezkondu.

8
Nola Assan-i burura,
bera zeguela begira,
Alikar-ekin zerura
igoko zala Zelmira,
aztutzat lajarik ura?

9
Pena geiago ar zezan,
printzesak kantariyari
kantatzeko zion esan:
segi zezala kantari,
aren senarrak ai zezan.

10
Itz ark beterik korajez
penatubaren biotza,
esan zion: «Nik kantik ez;
nai det nere eriotza,
egingo detana nerez».

11

Itzik ukatu etzuben:
negarrez joanik mendira,
gumiya bat an baitzuben,
eta puskaturik lira,
bere buruba il zuben.

12

Au da kontuba Bensusu-ri
Abbas-en aitu niona;
ark esan bezela zuri
dizut kontatu diana,
biotz-biotzeko Uri.

Euskal Erria, 1891.

¹ On Pedro Antonio Alarcón jaunaren moldaera euskeratuba. (Egillearen oarra).

² *Trovador*. (*Id.*)

³ *Flecha*. (*Id.*)

(1891)

Konsuegra-ko negarra

1
Kantatzen asi baño
len pena gaurkoak,
biotzetikan zaizkit
irteten malkoak,
Zer ez dira izango,
o!, Konsuegrakoak?
Arren, txuka ditzala
gure Jaungoikoak!

2
Goi beltz illunak erakutsirik
bere zekarren tristura,
abiyatu zan artzen aserre
zegoen gisako itxura;
eta geroko nairikan nunbait
lasaitu zeukan estura,
asi zan aize baten laguntzaz
ematen ura ta ura.

3
Gaba gañera jaikita goia
aserre jarri zan oso,
ezagun zuben ezin zubela
zekarren kargik an jaso;
alako gisan zion segiran
euriteari eraso,
ura goititzen joanik jendea
arkitu zan txit penoso.

4
Tximistak dizdiz bista kendu nai,
durrunbaz berriz turmoiak,
oñazkarraren tunpatekoak
dardartzen lurra ta goiak;
eta alako batez lerturik
milla pusketan odoiak,
bea jo zuten zintzillik ezin
zeuden urezko ibaiak.

5
Gaba illuna, izartxo bat ez,
alkar ikusten ez iya,
itsaso zabal baten erdiyan
argirik gabe erriya;
urak goititzen gora ta gora
eta sullaka euriya,
o zer tristura, zer gau beltz latza,
zer gau ikaragarriya!

6
Penatuentzat salbabiderik
etzan iñondik argitzen,
ain arriskuban ziran geletan
non tellatutan arkitzen;
urak goi-beak mugiturikan
etxeak ziran amiltzen,
eta famili osoak bertan
ziran itotzen ta iltzen.

7
Bigaramonak zuben denboran
eman goizeko argiya,
an arkitu zan begiz aurrean
ikuste oso berriya;
bertan ziranen arrastorik ez,
goi-bera joa erriya,
ura zan lauki¹ negargarri bat,
lauki biotz ilgariya.

8
Atsekabez daudenak
oso joak beak,
altxatzea bañan lan
bat zer da obea?
Malkoak txukatubaz,
zeruko bidea
zabaldutzen dubena
da Karidadea.

Euskal Erria, 1891.

6/5-garren lerroan *oin beak* esaten du; eta 7/6-garrenean, *goiz bea*. Guk uste, *goi-beak* eta *goi-bea* bear dute, eta ola idatzi degu.

¹ *Cuadro*. (Egillearen oarra).

(1891)

Abe zarrari malko ale bi

1
O abe santu maitagarriya,
arbola bedeinkatuba,
ikusten nago nola bukatu
eziñez zauden munduba;
bada azkendu eta Jaunari
eman bañan len kontuba,
zure oñean nai det kantatu
nere penaren kantuba.

2
Biotz tristetik nai arren ezin
kanturik ongi nik egin,
nere gogoak al bait ez luke
nai iñorekin utsegin;
atozte, bada, musak, nigana
eman dezadan atsegin,
erakustera nola kantatu,
nola bietan itze gin.

3
Agurtzen zaitut, arbol maitatu,
Jaunak guretzat jarriya,
gure begien gordetzallea,
gure erliki aundiya;
zu izanikan lur maite onen
glorien ager garriya,
zure galeraz lutuz jantzitzen
ari da Euskal Erriya.

4
Zain sendo fiñak eri dauzkatzu,
indarrrik gabe besoak,
amilka datoz lege santubak
beso oiekin jasoak;
penaz anima negarti para
diratelako auzoak,
zure oñean nai ditut eman
malko ale bi gozoak.

5
Len miñez jartzen baziñan iñoiz
sendagai onak baziran,
zeukazun gaitza zugandik
kentzen
gogoz saiutzen baitziran;
ala zure zaiñ sendo fiñ aiek
indar gabetzen etziran,
bañan orduko gauzak joan ziran,
lengo gizonak il ziran!

6
Etzan izandu erromatarrik,
godo, Kartago, mororik,
zure lurtean nai eran oñik
para izandu zubenik;
zaintzalle onak zituzulako
zu beti sendo egonik,
etzuben iñork bereganatu
frutu zurekin zegonik.

7

Etzan arbol bat gai obekorik
ez Europan, ez Asiyan,
ez Afrikan ta ez Amerikan,
itz batez mundu guziyan;
fortunosoak izan oi ziran
jαιοak zure azpiyan,
zeñak bizitzen ziran libreak
Jaungoikoaren graziyan.

8

Asaba zarrak egiñikako
dizdizten zuten legeak,
zuk iruki oi zituzun kutun
bat bezelaxen gordeak;
zure azpiyan burustalirik
printzipe ta erregeak,
ontzat ematen baitzizkitzuten
zeuzkatzun libertadeak.

9

Atzo ikusten ziran kontubak
oso emanik gaur jira,
kristal beltzetik arkitzen gera,
arbola, zuri begira.
Non dira lengo gauza on aiek?
Zer egin dute? Non dira?
Gure begien aurretik gorde
ziran; ageri ez dira.

10

Non dira gure asaba zarrak
pozez jatxiyak lurpera?
Ote dakite zizkigutenik
poz zori onak atera?
Baldin jaikiko bailirake gaur,
arbola, zure oñera,
maldizion bat bota bearrak
lirake gure gañera.

11

Gauzak gai ontan ikusirikan,
non dira gure begiyak,
biotza penaz urturikan ez
kentzeko malko lodiyak?
Amil zaitzte, arkaitz tontorrak,
eror zaitzte, mendiyak,
zeuren azpiyan obiratzeko¹
dauden naigabe aundiyak!

12

Ezin eman det kantu geiago,
negarrez busti zait lira,
arbolagatik senti ditudan
penak txit aundiyak dira;
biotzetikan kantatu ditut
Jaungoikoari begira,
arren, entzunik jira deizkigun
poz onak Euskal Errira.

Euskal Erria, 1891

¹ *Sepultar*. (Egillearen oarra).

(1891)

Onentzaro gaba

1

Poz-gariozko oroitza gozoz
igarorikan eguna,
alkaturikan gatoz kantari
doaindutzera¹ Gau Ona;
alai zaitezte, etxeko denak;
esnatu, lotan dagona,
adora zagun Jaungoikoaren
Seme mundura zaiguna.

2

Lenendikako zarretatikan
dago oitura jarriya,
soñuz ta kantuz adoratzea
Jesus, Aur jaio berriya;
gozoztu bitez biotz guziyak,
jolastu bedi erriya,
zeruban nola lurrean gaurko
gaua da zoragarriya.

Euskal Erria, 1891.

¹ *Celebrar*. (Egillearen oarra).

(1892)

Martin Itzontzi eta Inazio Egi-jariyo

(Itz-neurlari bikain biotz gozoko On Antonio Arzak jaunari)

Martinek:

1
Igual jaio ta igual
geralarik iltzen,
desberdin gera mundu
onetan bizitzen;
batzuek zori onez,
besteak supritzen,
suerteak zergatik
ez gaitu berdintzen?

2
Bat jaio ordurako
igari urretan,
bestea igual zanko
utsik elurretan;
ura estimatuba
alderdi danetan,
au gaizki ikusiya
bizirik neketan.

3
Zertako du pobreak
bizi bear pobre,
aberatsak onkaiak
izanik ainbeste?
Batek zer jan geiegi,
bestea jan gabe,
ez al litzake biyak
berdintzea obe?

4
Txandako gauza baldin
balitz ere utsa:
izatea bein pobre
ta bein aberatsa;
bañan ez da onela
emengo jolasa,
bizi osoa pobre
askok oi du pasa.

5
Gero esaten dute
pobre bizi dana
dala leku denetan
kejatutzen dana;
nola ez, bada, onek
egiñikan lana,
diruba juaten bada
aberatsagana?

6
Pobreak, ikusirik
beren auldadea,
eskatzen duten gauza
da igualdadea;
aberatsak ez die
nai eman fedea,
esaten dute dala
desberdin ohea.

7

Batzuentzat ganbarak,
bestientzat salak,
aientzat zarpa zarrak,
oentzako galak;
jan-eranetan ere
biyak desigualak,
zergatik izan bear
ez degu igualak?

Inaziok:

8

Martin, jakin dezagun
denok desberdiñak
gerala, ala bear
dalako egiñak;
latzagoak izango
ziran gure miñak,
sortu izan bagiña
guziok berdiñak.

9

Iñork etzuben naiko
lanean ikasi,
guztiok ibilliko
giñan lan igasi.
Zeñek txarrenak egin?
Nor jarri nagusi?
Denok naiko genduben
agintari bizi.

10

Nor jarriko zan pioi?
Ikatzegille nor?
Jarriko al zan kale-
-garbitzalle iñor?
Nai ezikan kontubak
izango ziran or,
maiz ikusiko giñan
borrokatzen gogor.

Martinek:

11

«Bai, ala da» esango
dute askok ori,
ez gera gauza ortan
kontura erori;
bañan nik diot: zertan
miseriyak guri
bear digu segitu
guri, beti guri?

Inaziok:

12

Beraz, gorde ditzagun
geren sinispenak,
Jaunak igual maitatzen
gaitubela denak;
gure buruban ezin
kabituz daudenak,
dirare misterio
Jaungoikoarenak.

13
Aberatsen artean
igual dira penak,
oek ere pasatzen
dituzte berenak;
guztiyak dira zerbait
palta zaiotenak,
uste arren ez dira
ongi bizi denak.

14
Ez pentsatu bakarrik
aberastasuna
dala gizonak bear
duben ondasuna;
naiz pobre izan, baldin
badu osasuna,
au da mundu ontako
zoriontasuna.

15
Batzubek keja dira
egiteaz lana,
besteak inbiriya
langilleagana.
Nor da mundu onetan
ongi bizi dana?
Dakarren suerteaz
erakaitzen¹ dana.

16
Eta mundu onekin
azkentzen al gera?
Emendikan bestera
juango ez al gera?
Emen pobrea izan
dan pobrea bera,
an ere gaizki ura
izango ote da?

17
Aztu gabe iruki
dezagun kontuban
txarrak ona dubela
bere inguruban;
geiena supritutzen
dubena munduban,
ura dala lenena
sartuko zeruban.

18
Guk dauzkagu geroko
kontubak aztubak,
begiyak itxuak ta
zentzubak nastubak;
bada penakin, gusto,
neke, pekatubak,
erabakiko ditu
Jaungoiko justubak.

Euskal Erria, 1892.

¹ *Conformar*. (Egillearen oarra).

(1892)

Uda

1
Udan gabaz eranik
lurrak intz eztiya,
zein biotz-pozgarriya
dan egunsentiya!
Zeru-erari gozoz
zabalde guztiya
diztiraz dan denboran
arkitzen busti ya,
jaikitzen da, oera
etzan eguzkiya.

2
Ontan kantari asten
dira egaztiyak,
ontan pozez lotatik
jaikitzen piztiyak;
indar-berritzen ditu
ere eguzkiyak
lore eder kolkoak
intz eztiz bustiyak,
eta beste belar ta
landare guztiyak.

3
Ain bearra da udan
bere bero ona,
gozo berak jartzen du
lur ospel dagona;
frutuz jazten da arbol
loretan zegona,
urre-buruz ornitzen
gari aul egona,
eta pizkortzen lenaz
eri zan gizona.

4
Bañan zenbait txandetan
dana da gertatzen,
bear bañan geiago
dubela berotzen;
ainbeste su da goitik
gañera erortzen,
kiskali nairik dira
baztarrak legortzen,
eta errekatxo ta
ibaiak agortzen.

5
Oen bidez alditan
denbora sargoiak
biltzen dituzte aize-
-kolpe kargazoiak;
asten dira tximistak,
turrunbaz trumoiak,
eta ondoren zuloz
beterik odoiak,
lur jotzen dute urez
betetako goiak.

Euskal Erria, 1892.

La Voz de Guipúzcoa, 1892-VI-26.

Uda izenekoa badu Ramon Artolak
beste sail bat, onen aurretik eskeiñi
deguna; ango irugarren bertsoa eta
emengo bostgarrena berdintsuak dira.

Auspoa, I, 1961.

(1892)

Abuztua Donostiyan

1
Udak bere biotza
ill au baitu, bai,
Donostiyarentzat zer
garai ederra, ai!
Ontan ikusten dira
bazter denak alai,
nola erriya ala
kanpoak txit galai,
ala guziyak dute
Donostiyara nai.

2
Nork naiko eztu eman
onuntz bere jira?
Nork gogoz egon naiko
ez oni begira?
Easoren grazizyak
alakoak dira,
nik baldin banuke gaur
Eratoren lira,
famak apain emango
nituzke argira.

3
Alakoa arkitzen
da gaur Donostiya,
din famatzeko euskal
itzik ezta iya;
zarra txit da polita,
galaia berriya,
erdiyan Bulebarra
dubela gerriya,
diruri zeru-puxkaz
egin dan erriya.

4
Erregeakgandikan
dago onratuba,
Kantauriako Perla
graziz bordatuba;
au da Paradisoko
sarjin loratuba,
eguzkiyak urrezko
musuz doratuba,
mundu guziya dauka
amoriotuba.

5
Emen beti festa da
non egun nola gau,
jendea jolasteak
penatutzen ez nau;
onen lur gloritsubak
bereganatzen nau,
munduban onelako
lekuk ez dira lau,
zerutik aldiena
daguén lurra da au.

Euskal Erria, 1892.

La Voz de Guipúzcoa, 1892-VIII-
22. Aldaketak: 4/2: perla Kantauria-
ko; 4/10: enamoratuba; 5/3: jendien
jolasketak; 5/10: daguen lurralde au.

(1892)

Ai zer pintatzallea!

1
Erretratu ederra
pintatu nazu, Juan,
ezertan eztiuzu
nere antzik eman;
denak galdetzen ditek
bera norena dan,
nere familiako
nor baitena al dan,
ni naizela izkribi
zaiozu sorbaldan.

2
Sudur zanpatuba ta
okerrak begiyak
ditu, eta alkarren
parean ez biyak;
kopetaren ertzetan
dauzka belarriyak,
nik txikiyak izanik
ark oso larriyak,
eltzearen kirtenak
bezela jarriyak.

3
Kokotza galanta du,
ezpañak aundiyak,
begiondoetatik
darizka mamiyak;
izurrik gabe dauzka
matrallak guriyak,
piperra bezin gorri
pintatubak biyak,
tomate bat diruri
aren arpegiyak.

4
Bizarraren erdiya
pintatzea aztu,
eta beste erdiya
besterik ark eztu;
orain igual jartzeko
alde biyak justu,
pinturaz bear zaio
len jarriya moztu,
edo ikatzez beste
alderdiya beztu.

5
Jantziya ere urdin
illuna neraman,
eta beste kolore
bat agertzen da an;
ala nola ezertan
antzik ez daraman,
eta oso meritu
aundiko lana dan,
parako det armiarmak
kenduta ganbaran.

La Voz de Guipúzcoa, 1892-VI-12.

Euskal Erria, 1892.

(1893)

Neguba

1
Tristuraz zerupea
maiz dala beztutzen,
ezta bere garaiaz
neguba aztutzen;
gabak luzatzen ditu,
egunak moztutzen,
egualdiyak txartzen da
denborak oztutzen,
onek eztu pobrien
biotzik poztutzen.

2
Loretzo bat ez dala
apaingarri azten,
pobrezaz da lur berde
eder ura jazten;
berengandik ostoak
dituztela uzten,
arbolak dira larru
gorriyan ikusten,
edertasunik eztu
ezerk erakusten.

3
Mitxeletak urrezko
egotxotan biltzen
dira, ta lorez lore
ez dira ibiltzen;
kirkir-txirrik ezta
zelaietan aitzen,
txori txikiyen kantalak
dirade isiltzen,
eta aundiyak tiro-
pean dira iltzen.

4
Berandu atera ta
goiz nola dan sartzen,
eguzkiyak gutxi du
kanpoa gozatzen;
lurak izozten dira,
putzubak jeltzen,
alditan oparo du
elurra ekartzen,
eta ala lurak ill-
-itxura du artzen.

5
Gizona illik baldin
bada bein erortzen,
ezta geiago aren
odolik berotzen;
bañan uda berriyak
lurra du pizkortzen,
eudi-tanto bakoitzak
lore bat du sortzen,
eta berriz eder da
kanpoa etortzen.

La Voz de Guipúzcoa, 1893-I-23.

Euskalzale, 1897.

Euskal Erria, 1904.

Aldaketak: 1/5: egunak baitirade;
1/6: osoro moztutzen; 1/7: egualdia
txartzen da; 3/9: eta aundiak dira;
3/10: tiropean iltzen; 4/1: Berandu
agertu ta; 4/2: goiz dala gordetzen;
4/8: elurra ezartzen.

Baserritarra, 1907-I-19. Onek
aurrekoak bezelaxe bertso guziak.

La Vasconia, 1902-II-28.

(1893)

On Kaietano Sanchez euskera zaleari

1
Maiz ditut zure zenbait
gauza irakurtzen,
diralako irakur-
gariyak agertzen;
ez dezu pazientzi
gutxi-gutxi artzen
orren kontu pollitak
burura ekartzen,
eta maiz paperean
guri azaldutzen

2
Biotz osoz euskeraz
mintzatzen baitzera,
izen-gain¹ erdaldunez
euskalduna zera;
maita zazu, bai, maita
Ama on Euskera,
au galtzez gu obeki
izango ez gera,
esan beldurrik gabe:
«Euskaldunak gera».

3
Ez damutu euskeraz
kantatzen ariya,
Jaunak deizula ontan
grazi ugariya;
Ama Euskera zarra
il danean iya,
zera zu munduratzten
seme kantariya,
kantuz pixkor zaiguzu
Amatxo eriya.

Euskal Erriya, 1893

¹ *Apellido*. (Egillearen oarra).

(1893)

Tolosan festak

1
Aurten festa ederrak
egin naian asi
dira, onrak erriyak
ditzan irabazi;
onen gañean Jaunak
eskuk bete grazi
bana bitza, deriyen
zori onez bizi;
Tolosa bizi bedi,
bai, festa ta guzi.

2
Erri antziñako au
dalarik umilla,
kondairan daukaizki
oroimenak milla;
zerbait supritua da,
gaur ez dago illa,
ala, bijua koroï
gai berrien billa,
zar ona beti gazte
gordekai derilla.

3
Karta bat izandu det
lengo egunean,
esanaz, beste zenbait
gauzaren gañean,
zezenak baitirala
sasoi txit onean,
San Juan egunean da
biyaramonean,
eta nuala aruntz
goizeko trenean.

4
Oso onak dirala
aurten jokatzeko;
amabi, guziz onak,
denak lantzatzeke;
laupilla dala ona
toriatutzeko,
espadak bi berriyak
zezenak iltzeko,
eta ez aruntza juan
gabe gelditzeko.

5
Ganaru onak zertan
plazan erakutsi?
Onak badira txartzat
zergatik ez utzi?
Zezenak bitza baztar
denak joka autsi,
onak jokatzan dute
ematen itsusi,
nik nai ditut gaiztoak
zezenak ikusi.

La Voz de Guipúzcoa, 1893-VI-9

(1893)

Aritz santua!

1
Orain ere arbola
norbaitek tentatzen
du, eta jar gaitean
beragan pentsatzen;
zerbait diotelako
biotzetik sartzen,
ari da eri zana
eriago jartzen,
oso itxura txarra
baitijua artzen.

2
Non ditu lengo famak,
non lengo gloriyak,
zizkatenak gañean
kantatzen txoriyak?
Beso tzar mardul aiek
beruntz eroriyak
dauzka, emanaz osto
igar ta oriyak...
Zer pekatu egin du
arbola loriyak?

3
Bai! Beso zut aundiyak
dauzka gaur makurrak,
ez irukirik indar
paltik bere lurrak;
len ematen zituben
urrezko ezkurak,
gaur ezin du fruturik
azaldu egurrak,
eta gaude noiz bea
joko dun beldurrak.

4
Oni begira gera
arkitzen beldurrez,
ikusirik erori
litekela errez.
Zer pena lenaz zana
igualik ederrez
etzubena, ta iya
dala gaur ezer ez
oroitzeaz biotza
jartzen zait negarrez.

5
Belaun bat lurrean ta,
naizela nekatzen,
ariko naiz zerura
Jaunari eskatzen,
Euskal Erriya bizi
ez dedin penatzen,
ikusi ditzagula
arbola sendatzen,
eta gure lege on
zar lengoak jartzen.

Euskal Erria, 1893.

La Voz de Guipúzcoa, 1893-VI-
20. Aldaketak: 3/3: irukirik len ain-
bat; 3/4: indar bere lurrak.

Erregearen Donostiarako etorrera

1
Donostiarentzat gaur
da egun alai,
pozgiroz arkitzen da
Easo galaia;
iritxi zaio berak
nai zuben garaia,
ala gozotutzeko
baitu naiko gaia,
gaurko egunak izan
bear zuben gaia.

2
Ari dira erremu
preskoak ezartzen,
balkoietan burtiñak
apaingarri jartzen.
Bañan zer da, ordean,
zer da gaur pasatzen?
Erriya zergatik da
onela lasatzen?
Bertan gaur erregeak
diralako sartzen.

3
Ongi betoz, errege
txiki nagusiya,
infantak eta ama
ongi ikusiya;
Donostiyarentzako
ez da itsusiya
bertan arkitutzea
pamili guziya,
Jaunak bana dezala
beretan graziya.

4
Artu ditzagun jende
berri onak legun,
merezi duten gaian
maitatu ditzagun;
ontan erri au beti
izan da ezagun,
ola atsekaberik
izan eztezagun,
buruzaiakin ongi
iruki dezagun.

5
Besoak zabalikan
dauzkate erriyan
toki oso galaiak
jauregi berriyan.
Ederragorik al da
euskal lur guztiyan?
Zeruba jiratzen da
leku ain eztiyan,
luzaro ongi bizi
bitez Donostiyan.

La Unión Vascongada, 1893-VII-19

(1894)

Kanpoko bizitza

(Nere adiskide maite, *Maritxo*-ren egilleari).¹

1
Zenbaiten iritziyan
da gauza soso
kanpoko biziera,
ain pakeosoa;
bada neretzat ez da
triste, penosoa,
ezpada alai, eder,
atsegiñ, gozoa,
antxen pasa nai nuke
bizitza osoa.

2
Ez da pake gozoa
emengo biziya,
aundinai geiegiya
gauza itsusiya;
urra dala buru
denen nagusiya,
gertatzen da alkarren
eziñ ikusiya;
emen dena da bulla,
gerra da guziya.

3
O, kanpoko bizitza
eder, atsegiña,
urietakoakin
gozoz ez berdiña!
Neri beti jaikitzen
zait arako griña,
o lur, Jaunak guretzat
ongarri egiña,
kantuz goititu eziñ
bainezake diña.

4
Argi urreztuz dira
azaltzen alaiak
errekaxo, iturri-
-txulo ta ibaiak;
gizonaren izerdiz
moldaturik laiak,
laborez ornitubak
malkar ta zelaiak,
eta lorez jantziyak
lur-sarjin galaiak.

¹ *Maritxo* poemaren egillea Antonio Arzak (1855-1904) jauna izan zan. Idazle onek era ortako bost poema idatzi zituan. *Auspoa*-k berriro argitaratu dituanak, bere 233 zenbakian, 1995 urtean.

5
Goiz asten dira txori
txikiyak kantatzen,
beren kontu pollitak
alkarri kontatzen;
gaxoak errepikaz
diranean jartzen,
asnasik ere iya
ez dutela artzen,
kantuz baitute lotan
daguena esnatzen.

6
Aize fiñ, dana guri
lorietan nasten,
o zein atsegiñez dan
kanpoan asnasten!
Ontaz barrenak ez du
gutxi irabazten,
nabaitzen baita nola
dan lasaitzen asten,
kanpoak du pertsona
osasanaz jazten.

Euskal Erria, 1894.

7
O zer ederra gauza
oeri begira
egotea, jaikirik
lenengo argira,
igotzea goizeko
preskuran mendira,
ematea lur lorez
apainduban jira;
onen kontu gozoak
erriyan non dira?

8
Gizonak, gorde dedin
bullaren igasi,
zerupe artan dauzka
orrenbeste grazi;
kanpoak du kantuzko
koroï bat merezi,
iñon ez da arkitzen
an ainbat poesi,
bera edanaz nik an
nai bainuke bizi.

(1894)

Nere alaba Rosariori eguzkiaren jaikieran

1
Kurtiña zabal baten orritan
trebesatu nairik aurrera,
aundiro eta ez pauso larritan
driz-driz erreñuk lurrera
emanaz, nakar tinta oritan
sortzen da eguzki bera,
ezin ikusi zaiola iya
bere urrezko arpegiya.

2
Aurrena argi erreñu fiñez
poz aundiz jaikirik txoriyak
eta kantu gozoz agur egiñez
egun berriyari kantariyak,
jartzen dituzte atsegiñez
zelai, baso eta mendiyak,
arkitzen dirala bustiyak
itz eztiz alderdi guziyak.

3
Gabaz loreak itz eztiz diran
gisan gozoro maistriltzen,
ikusten dira ere goizaren jiran
beren txortentxoetan zutitzen;
eta zabaldurik segiran
kolko apañak, erakutsitzen
beretan, kutsuturik oso,
sortzen dala aizea gozo.

4
Uso tortolloaren antzera
bruma, geldiro dana arkitzen,
joaten da galdubaz antz bera,
dijuan bezela argitzen,
non eguzki ederrak gain bera
baztarrak dituben garbitzen,
azaltzen dirala baserriyak,
zelai, errekatxo eta mendiyak.

5
Dira ere oso edertutzen
errio aundientsu geldiyak,
eguzki musuz espillututzen
zaitzela ur kristal garbiyak,
beretan dirala erretratutzen
ur eskiñ berde eta mendiyak;
naiko argia baita, iya
jaiki da egun berriya.

Euskal Erria, 1894.

(1894)

Itzbidariari¹

1

Gizonak zori on bat
du zugan arkitu,
bai, egiya da, dezu
lenaz gain argitu;
bañan ez da geiegi
zutaz zer arritu,
gauza len ere oi zan
urruti aditu.

2

Ama ez dakiyela
aurtxoak nun duan,
eta au dakarrela
aitak inguruan,
musu gozo bat eman
oi dion orduan,
bere amak musu au
aitzen du zeruan.

Euskal Erria, 1894.

El thun-thun, San Sebastián 26 de Agosto de 1894.

¹ *Teléfono*. (Egillearen oarra).

(1894)

Itz neurtuak

1
Paper ontan da nere
itxura azaltzen,
bakoitza dute amar
zentimoan saltzen;
laster asiko dira
gustatuta artzen
dutenak marko urrez
doratutan sartzen,
eta txintxillik gela
apañetan jartzen.

2
Bizarra daukalarik
zuritzen asiya,
esango dute: «Ez da
gizon itsusiya;
au da fabrika aundin
bateko nausiya,
edo diputadun bat
talentuz jantziya,
gogoratzen naiz nonbait
nik au ikusiya.

3
Ezagun da, bai, dala
kaballero fiña,
ongi tintatzen egin
dute alegiña;
erretratu ona da
bañan lan ariña,
gizon modu onentzat
ez da bera diña,
bear zuben lauki¹ bat
oleoz egiña».

4
Nork esan nintzanikan
iñoiz argirako,
nindutenik txikiya
goi mallan parako?
Katuba pasatzen da
erbiya dalako,
ni ere iya ala
uts bat naizelako,
non ez detan balio
pipa bat tabako.

5
Nola ederragoak
ez diran beste lau,
argatik nonbait emen
norbaitek para nau;
bada ontaz grazirik
egiten ez bainau,
lotsatzen naiz, egunak
jiratu bitez gau,
gorde dedin zokoan
itxura nere au.

*El thun-thun, semanario koxkero,
San Sebastián 17 de Junio de 1894.*

Astekari onek oitura zuan idazle
baten marrazkia, Biktoriano Iraolak
egiña, aldioro argitaratzea, marraz-
kian agertzen zanaren bertso batzue-
kin batera. Zenbaki ontan Ramon Ar-
tolaren txanda izan zan, alboan es-
keintzen degun marrazkiarekin.

¹ *Cuadro*. (Egillearen oarra).

Poetas Vascoingados



Ramon Artola



Esagun da bai dala
 kaballero fina,
 ongi tintatzen egin
 dute alegiña;
 erretratu ona da
 bañan lan ariña,
 gizon modu onentsat
 ezda bera difia,
 bear zuben lauki (1) bat
 oleoz ogiña.

(1) Cnadro

ITZ NGURTUAK

Paper outan da nere
 ichura azaltzen,
 bakoitza dute amar
 zentimoan saltzen;
 laster asiko dira
 gustatu artzen
 dutenak, marko urres
 doratutan sartzen,
 eta chinchillik gela
 apafietan jartzen.

Bizarra dankalarik
 auritzen asiya,
 osango dute, ezda
 gizon itsusiya;
 au da fabrika aundin
 bateko nausiya,
 edo dipatadun bat
 talentuz janziya,
 gogoratzen naiz nonbait
 nik au ikusiya.

Nork esan nintzanikan
 ifioiz argirako,
 nindutenik chikiya
 goi mallan parako,
 katuba pasatzen da
 erbiya dafako,
 ni ers iya ala
 uta bat naizelako,
 non ezdetan balio
 pipa bat tabako

Nola ederragoak
 ezdiran beste jar,
 argatik nonbait eman
 norbaitek pira nau;
 bada outaz grazirik
 egit eu ezbanan,
 lotsatzen naiz, egunak
 jiratu bites gar,
 gorde dedin zokoa
 ichura nere au.

Emanon Artola



(1894)

Sagardoari

1
Urreztuba ikusten
zaio koloria,
baltsamu bat da berriz
bere saboria;
txinpartak darizkala
edari guria,
penak iltzeko txanpain
bañan da obia.

2
Kentzen du egarriya,
alaitzen du oso,
jartzen daki kantari,
dantzan ta garboso;
urrezko edariya
edaten da gozo,
bañan ukalondorik
ez geiegi jaso.

3
Bere gaian neurriya
dionari artzen,
umore ona baizik
ez dio ekartzen;
baña geiegi tripan
preso badu sartzen,
tripazaia balantzak
egiñaz du jartzen.

4
O edari maitea,
o edari ona,
kulpikan gabe preso
kupelan egona;
orain libratzen zera,
gure zoriona,
atoz, pozturik deika
daukazu gizona.

5
Txotxetik irten zera
kristal fiñ garbira,
saltatu dezu illun-
betikan argira;
atoz, ederra, atoz,
gauzkatzu begira,
eragiteko baso
zaudenari jira.

6
Zu zera lorientzat
intza dan modura,
gizonaren pozgarri
sortuba mundura;
edaten zaitubena,
zu, zeruko ura,
igotzen dezu mundu
ontako zerura.

*El thun-thun, semanario koxkero, 20 de Mayo de 1894.
Euskal Erria, 1894.*

(1894)

Gloria Okendori bere talluntza goititzeko egunean

1
Gaur Donostia gozoro dago,
pozgarri, oso gozo, bai,
alde denetan alegerantza
dauka ta denok degu jai.
Bañan zergatik ordean orla?
Zer gertatzen da? Zer da jai?
Zer izango da? Okendo baita
bere jargoian para nai.

2
Goienengoko mallan ikusi
dedin Okendo jarriya,
altxatu zaio dorre galai bat
oso begiragarriya;
au da lan orain artean egin
diranetatik berriya,
zeñak onratzen dituben bere
egilleakin erriya.

3
«Zer da Okendo?» esango dute
askok. «Okendo au nor zan?
Orla argira ateratzeko
gizon-moduren bat al zan?».
Bai; gaur ematen zaion gloria
beretutzeko din bazan,
etzan dorrean puntan parako
aundiya izan ezpazan.

4
Españiyaren onragatikan
maiz baitzan urrutietan
leiatzen etsai gogorren kontra,
bañan leiatzen benetan.
Al da izandu beste bat bere
ausardikorik uretan?
Ez; au zan garailari irten oi
beti alderdi denetan.

5
Ni ez naiz emen ariko bere
egintza denak kontatzen,
Eratok duben itzaren soñu
gozo dontsuban kantatzen;
ez det jardungo grazi geiegiz
aundiya zana edertzen,
ez naiz ariko, ez naiz jardungo
kondari dana agertzen.

6
Bakarrik nai det onratu kantuz
Okendo bere erriyan,
ara non degun bera gaur bere
oroikagarri berriyan,
daguena lekutik ikusten dula
jaiotetxea mendiyana,
itsas gañeko lur zelai zabal
loreztubaren erdiyan.

7

Zere semeak para zaituzte
dorre gañean betiko,
ez da zu ortik kentzen etsaien
eskurik iñoiz asiko;
or zera ipar aize gozoak
eranaz beti biziko,
zutik gelditzen zera mundubak
diraun denbora guziko.

8

Pasako dira giza-alduyak,
urteak millak, bai, juango;
«il ziran lenak» dute gugatik
ondorengoak esango;
denborarekin ez da arrasto
giñanik ere izango,
bañan zureak bai, zu or zera
beti bizirik egongo.

9

Donostiak gaur onratzen zaitu
merezi dezun moduan,
nai zaitu eder ta apain utzi
gerokoentzat munduan;
nola gloria lenaz zedorrek
onera bildu zenduan,
biba Okendo, gloriáz bizi
zaitez emen ta zeruan.

La Voz de Guipúzcoa, 1894-IX-12.

Okendoren irudia egun ortantxe bedeinkatu zan Donostian: 1894-ko
iraillaren 12-an, alegia.

Euskal Erria, 1894.

(1895)

Familia errealararen Donostiarako etorrera

1
Oso goiz da jendea
asiya mugitzen,
pozez gozozturikan
alkargana biltzen;
diruri gaur dirala
pena denak iltzen,
eguzkiak duela
geiago argitzen,
alegerantza baizik
ez baita arkitzen.

2
Gaur erriyak du beste
itxura bat artzen,
ari dira erramu
preskoak ezartzen,
ziririkuk sutzeko
bizkarka ekartzen,
eta kurtiñak balkoi
guzietan jartzen,
erriyan erregeak
diralako sartzen.

3
Laster allegatuko
diran esperantzan,
soñulariak ere
or daude zalantzan;
sutunparik¹ dunbaka
etxeak balantzan
jartzeko, nola brontze
mingaidunak dantzan,
guziak buruzari
oen alabantzan.

4
Ongi betor famili
gure ongariya,
berak onraz apaintzen
diguna erriya;
gure zer eskeñiya
izan naiz urriya,
erakutsi nairikan
naitasun berriya,
prest gaude egiteko
ongi etorriya.

5
Betor beso zabalak
dauzkaten errira,
betor Okendo jaio
izan zan urira;
betor Easo eder
lur txoragarrira,
betor Euskal Erriko
zerutxo berrira,
betor eta ez bedi
luzaroan jira.

Euskal Erria, 1895.

¹ *Artilleros*. (Egillearen oarra).

(1896)

Gernikan, arbola zarraren oñean

1
Zeru azpi beztuba
zerk du garbitutzen?
Zer dizdirak begiyak
dizkit argitutzen?
Zer det nere aurrean
gaur nik arkitutzen?
Zerk nau ni modu ontan
emen arritutzen?

2
Arbola ikusteak,
o aritz zar onak,
zutik milla urtean
lur ontan daguanak:
ni gaur bezela gure
aitonen aitonak
miresturik berari
begira egonak.

3
Agur, arbola santu,
agur, zerukoa,
Jaunak lur maite ontan
landatutakoa;
zenbait frutu on gozo
emanikakoa,
beti neukan naitasun
zu ikustekoa.

4
Lur onetan lenengo
gaur allegatzen naiz,
zuri muñ ematera
etorria bainaiz;
ematez ta laztantzez
aspertu ezin naiz,
Jaunak lan onetara
bildu nazala maiz.

5
Gertatzen naizelako
gaur zugandik alde,
ez nuke nai bidaje
au egin debalde;
ala, ez nairik jira
zerbait kutsu gabe,
egiten naiz adartxo
igar baten jabe.

6
Zure puska, fueroen
oroimengarriya,
irukiko det kajan
kristalbe jarriya;
eta nola muñdutzen
degun erlikiya,
ala muñduko det nik
zure alderdiya.

7

Zaudelarik zaurien
zauriz joa bea,
etorriko da beste
denbora ohea;
gertatu bañan len zu
mundutik gordea,
goitituko da zure
seme oiñ-ordea.

8

Agur, abe zarra,
agur betiko!
Zu azkentzen zaudela
ni sarri naiz ilko;
bañan nola dan aritz
gaztea biziko,
bera da lore preskoz
jazten ikusiko.

Euskal Erria, 1896.

La Voz de Guipúzcoa, 1896-IX-13.

(1897)

Udaberria

Berdez apaintzen dira
goiak eta beak,
pizkortzen kanpo igar
indarrrik gabeak;
ontan nork bañan zeñek
azaldu obeak
beren pitxitasun ta
beren koloreak,
kolkoak irikitzen
dituzte loreak.

Indarrak galtzen joanik
izotz ta elurrak,
zotz denak azaldutzen
dituzte muturrak;
arbol ziruritenak
ildako egurrak,
joaten dira piztubaz,
pizturikan lurrak,
nola txori zeudenak
otzaren beldurrak.

Aldi eder onetan
geranean sartzen,
zeruko graziya da
lurrean banatzen;
belar len lurra joak
zutik dira jartzen,
arbolak eta sasi
guziyak loratzen,
kanpoak sarjin baten
itxura du artzen.

Ikusten dira onez
jartzen egualdiyak,
elurra urtutzen ta
garbitzen mendiyak;
eta indardun jankai
preskoz belardiyak
jantzirik, pizkortubak
aul zeuden ardiyak,
ondotik dituztela
arkume txikiyak.

Lo-tokiyak uzteko
izanikan larri,
txoriyak pozez dira
jolastutzen sarri;
arbolaren puntetan
oi dirade jarri,
eta kontu pollitak
kontatzen alkarri,
kantatzen dute zenbait
kantu txoragarri.

Au da alaitasuna,
au da poesiya,
au barrenen sentitzen
dan gauza eztiya;
kantuz alabatzen det
Jaunaren graziya,
onela galaiturik
zabalde guziya,
ematen digulako
zerekin biziya.

Donostian, Marzoan 1897 urtean.

La Unión Vascongada, 1897-III-21

Euskal Erria, 1897

Euskalzale, 1897.

Auspoa, I, 1961.

(1897)

***Euskalzale*-ren zuzendari abade leial
On Resurrezion Maria Azkue-koari**

1

Bear bezela eskerrak nola
eman ez dakit bedorri,
zeren bialdu zizkiran duan
iru liburu on berri;
bada zer egin neioke orain
nik iru lan ain ederri?
Beren ordaintzan iru itz neurtza
ezarri oroimengarri.

2

Lanetan bat zan bedorren aitak
izkribatua antziña,
non agertzen dan zala euskal itz-
neurlari asko jakiña;
bigarrena da euskal izkuntza
ikasitzeko egiña,
eta da berriz irugarrena
Fleury-ren kristau dotriña.

3

Agertu ditan begiramena
detala beti goguan,
bere truk diot deseatutzen
nere naitasun beruan
zoriontasun ugariz orni
dezala Jaunak munduan,
eta alkitxo bat eser-leku
gorde deiola zeruan.

Euskal Erria, 1897.

(1897)

Donostiyako bonberuak

1

Bertso batzubek berriyak,
gutziz ondo mereziyak,
Donostiyako bonberuentzat
oroimengarri jarriyak;
itz gutxirekiñ esango ditut
bear bezela egiyak,
kontu artzeko jende ederra
daukala gure erriyak.

2

Danak dira langilliak,
denari on eginlliak,
beren buruak arraixkuetan
askotan ibiltzalliak.
Surikan iñon nabaitzen bada
indartasunez betiak,
ez ditu oiek ikaratuko
itzaldutzera joatiak.

3

Gabaz gu lo gaudenian,
kontu artzen gau denian,
amar bonbero egoten dira
nor bere *almazenian*;
beste guziyak elkartzen dira
suaren deia danian,
eta aguro dirade denak
abiyatutzen lanian.

4

Ez da surik, ez da urik,
ez itxaso, ez aizerik,
Donostiyako bonberorikan
ikaratuko dubenik;
aspaldi ontan ortxen dabilta
emanaz prueba ederrik,
ez diotela suari uzten
beñere artzen indarrik.

5

Agintari da *Mugertza*,
gizon fiña ta zorrotza,
urrengo Joxe Migel Uranga,
badute elkarren antza;
zerbait danian beti aurretik
sartzeko ez dira lotsa,
askotan erakutsi oi dute
ez dutela odol otza.

6

Iru *kapataz*, sei *kabo*,
berrogei ta amar *bonbero*,
amar *suplente*, iru *korneta*
eta beste bi geiago;
anaitasuna obegorikan
iñon eztagola nago,
aserrerikan sekulan ere
oien artean eztago.

7

Lengo gau illun batian,
oiek izan ez baziran,
negargarrizko gauza gogorrak
agiyan pasako ziran;
jendia larri-larri zebillen
ikusirik sua jiran,
eskerrak oiek asi zirala
bere lanetan segiran.

8

Aiuntamientu guziyak
eman dizkate graziyak,
ederki aritu ziralako
mutil eta nagusiyak;
oiek orrela pizkortu ditu
gauza asko ikusiyak,
sufritzen ere gogorrak dira
otz, bero, legor, bustiyak.

Bertso-papera, R. A. - *Donostian 1897*. «R. A.» izki oiek izan dira bertso auek Ramon Artolaren liburu ontan sartzeko bidea edo aitzekia, berarenak izango diralakoan.

(1899)

Ur zale bat

1
Lenguan paxano bat
trabenan sartuta,
ur gutxi zuenetik
ondotxo artuta,
arkitu zan ibilli
eziñik aurtuta.

2
Gero irten zanean
etxerako andik,
egiten zitubela
ese-kara aundik,
ala zion: «Jaunak, gaur
gizon onek lan dik!».

3
Eta zeladoriak
ikusirik ala,
iñork ez laguntzera
eroriko zala,
eta lepoa autsi
bearra baitzala,

4
eldu zion gerritik
lurra jo etzezan,
eta txakur-tokiyan
preso para zezan,
bañan erderaz zion
paxanoak esan:

5
«*Oyes tú, caballero.*
yo soy Juan Martín,
eta ez nazakala
makillaz eman min.
yo no aquí mi casa,
San Martín, San Martín».

6
Eta ala zirala
jorik biyak lurra,
autsi zituzten batek
eskuko egurra,
eta besteak iru
ortz eta sudurra.

7
Artan an gertaturik
emazte Martiña,
eta sendatu zezan
Juan Martiñen miña,
gurdi aundiyan zuten
jaso San Martiña.

Euskal Erria, 1899.

(1900)

Eguzkiaren sarrera

Oraindik urrezten du eguzkiak mendiya,
bere espaldatxoa azaltzen zaio argi;
ikusten da ibai errañututakoa garbi,
irurizten dubela espillu aundiya.

Oraindik lore eder gaindaryak
mendi egala apaintzen baitute,
oek muxkiltzeko usterik ez dute,
dauzkalarik lotara dijoan mendiyak.

Minutu batzuek geroagora
eguzkiak du espaldatxoa uzten
eta ez da lengo ederrik geiago ikusten;
o zer gauzak dizkidan onek ekartzen gogora!

Ai, nere pena animakoa,
jakiñik denbora txit laburrean
diperentzia gorputzeko lurrean
izango detala egunetik gaberakoa.

Euskal Erria, 1900.

El Correo de Guipúzcoa, 1900-III-24.

(1900)

Gurutze Santu Lezokoari

Bere eleizatxoan
gogoz da agurtzen,
Jaun maitetasuna maiz
diguna agertzen,
da karidade iñoiz
ez dana agortzen,
amorioa dauka
gugana ixurtzen,
malko bi biotzean
dizkanari urtzen,
zorionak millaka
diozka biurtzen.

Euskal Erria, 1900.

Balio aundiko soldaduari

Tolosak nairik onraz argira
Dugiols miressgarriya,
altxatutzera dijoakio
jarleku dorre berriya;
lan eder oni gaur jartzen zaio
lendabiziko arriya,
soldadu onek apaindu dezan
beraren jaioterriya.

La Voz de Guipúzcoa, 1901-II-5

(1901)

Dugiols zanarentzako

bere erritar baten itz-lorezko koroia, Gloria Dugiols-i bere talluntza goitutzeko egunean.

1
Egun alai onetan
egin bedi lana,
billatzen non dan gizon
ezkutatu zana;
toki illun bat baita
au lotan dagoana,
altxa bedi arlantza
estalkai daukana,
esna dediñ soldadu
lotara etzana.

2
Oraindik dagoalarik
oso lo aundiyan,
gorde zana ari da
jartzen ageriyen;
azaldu bearra da
berriro erriyan,
beretzat moldatu dan
oiñ-alki berriyan,
eder, brontzez jantziya,
zut-zutik arriyan.

3
Gelditu gabe bere
gaiean atzera,
Tolosa gaur dijoa
zor bat pagatzera:
bere seme Dugiols
onraz apaintzera,
ezkutuban zegoana
argitaratzera,
dorretxo eder baten
gañean jartzera.

4
Esan zaio: «Dugiols,
soldadu maitea,
begiyak zabaldua
altxatu zaitea.
Tolosak ez du nai zu
lotan egotea,
irikiya daukazu
obiko atea,
eta dorre gañean
zutik jar zaitea».

5

Altxatu da ta zutik
jarri da betiko,
daukan arri-oñetik
ez da eroriko;
denborak soñekorik
ez dio autsiko,
gu ilko gera ta da
Dugiols biziko,
ondorengo guziyak
dute ikusiko.

6

Zure anaiak lagun
egñaz alkarri,
zaituzte illunpetik
argira ekarri;
au etzaio egiten
edozein txankarri,
zure Ama Tolosak
leku ortan jarri
zaitu, zure onran ta
beti apaingarri.

7

Zenbait lore bildurik
zure inguruban,
uztai bat ipindu det
al detan moduban;
nik ere zu onratu
nairikan munduban,
koro txatar au jartzen
dizut gaur buruban,
Jaunak para deizula
eder bat zeruban.

Euskal Erria, 1901.

Ondoren, Antonio Arzak-en lerro auk:

«Altxa zaizu talluntza. Ondo da; baña, zu orla ikustian, zure mende eta zu maiterik ill zan soldadu mutill umillenari (ura ere... amaren semia!) nere biyotzak eskeñtzen diyo beste talluntz bat.

Gizonak egin lezaken oroikarririk aundiyena baño aundiyagua da, nere begiyetan, obi aztu batian jaiotzen dan loria!

Eta iduritzen zait, mundu kaxkar onen gaiñ arkitzen zeran lekutik, erantzuten didazula: «Bai!».

La Voz de Guipúzcoa, 1901-IX-15

(1901)

Malkozko oroimena!

Zentzu aundiko itz-neurlari nere adiskide Felipe Arrese eta Beitia jaunari donkitua

Milla ta berreungarren urtetik
gure denbora artean,
fueoak beren kabiya dute
iruki arbol batean;
garai triste au iritxi da ta
negarrez jarri gaitean,
arbola, kabi ta guzi, lurra
joa da gure kaltean.

Euskaldunak

1
Arbola bat zan iñon
berdiñik gabea,
Euskal Erriya baitzan
beraren jabea;
bañan nola jo zuben
zur santubak bea,
eta gaitz dan billatzen
auzoan obea,
adoratutzen degu
lurreko abea.

2
Aritz etzeikeana
urre truke saldu,
aize zufreztu baten
bulkadak du galdu;
au galtzez da bere lur
euskaria auldu,
geroz onen gañean
pozik batek al du?
Ez; garai txar au zori
gaiztoz zan azaldu.

3

Ongi zori gaiztoan
sortu zan eguna,
geroz zenbait naigabe
pasatzen deguna;
len emengo bizitza
zan guziz leguna,
onen truk latza oso
orain daukaguna,
loturak eta kargak
berriz dauzkaguna.

4

Naigabetuba dago
euskaria dena,
galdu zaion ezkeroz
lasaitasun lena.
Nola ez bada izan
euskaldunak pena,
ikusirik lur jotzen
zur maite zutena,
zorion aurrekoak
utzi ziotena?

5

Orain len ainbat argi
ez du eguzkiyak,
triste ikusten dira
alderdi guztiyak;
min baitu ere Ama
Euskera eztiyak,
nola iya bat ziran
arbola ta biyak,
penaz dauzka malkotan
begiyak bustiyak.

6

Bai, oso min aundiya
da aritzarena,
bañan ez baita senda
ezin derikena;
euskaria da bera
txit maite dubena,
seme on balioso
asko ditubena,
eta ez da zer galdu
esperantza dena.

7

Arbol zar iya gorde
zaiguna mundutik,
ez dago ateria
oraindik zañetik;
bere aldamenean
gazte bat da zutik
ikusten, sortu dana
zarraren sustraitik,
Jaunak berak bedeinka
deigula zerutik.

8

Muñ emanaz zur santu
daganari eri,
gazteari laguntzen
bear degu ari;
zarraren oin-ordea
nola baitan ori,
eldu bear diogu
ez dedin erori,
etzaio utzi bear
galtzen aritzari.

9

Etzaigu eroriko,
ez egon beldurrak,
seme zimela digu
utzi zur makurrak;
indarra izan beza
aritzaren lurrak,
besoak goiti bitza
zerura egurrak,
andik eman deizkigun
urrezko ezkurak.

10

Arbol me urre gaia
onik da jarriko,
edadeak sasoia
dio ekarriko;
uda berri alaiak
lozez du jantziko,
eta nola dan gero
frututzen asiko,
bere azpiyan gera
gozoro biziko.

Euskal Erria, 1901.

La Vasconia, 1902-I-30.

La Baskonia, 1907-V-10.

(1901)

**Orain brontzez apaindu dan
itxas-gizon Joxe-Mari zanari**

Oroimena

Itxaso, legoi abo zabala,
apar zuriya ugari
boteaz eta orru aundiyak
ematen zala bein ari,
iñoiz bezela urrikari billa
kaietik irten zan Mari;
bañan, o!, gogoz zioarikan
eraso salba-lanari,
abo zabalak kupirik gabe
erasorikan berari,
tragatu zuben eta beraren
tripontzira zan erori;
orduban zion Jaunak otsegin
urean gorde zanari:
«Ator zerura nere ondora,
il zeran ori martiri»,

El Correo de Guipúzcoa, 1901-X-28.

Euskal Erria, 1901.

(1901)

Endaiako Biltzarkidariai gure izkuntza maitagarriatik

Erdera eta latiña baño
zarrago zaude, euskera,
Ama esaten dizugarik
amonatuba baitzera.
O atso ximur, kuttun, garbiya,
oraindik biziko zera,
illoba onak dauzkatzun arte,
amona, ilko etzera!

El Correo de Guipúzcoa, 1901-IX-20.

Euskal Erria, 1901.

La Baskonia, 1901.

(1902)

Illunabarra

1
Eguna asiya da
illunabartutzen,
alako pinta ori
triste bat artutzen;
eguzki urretuba
dijoa nekatzen,
nabaitzen da indarrak
zaiozkala galtzen,
ez da len ainbat argi
ta bero banatzen.

2
Badijoa joan da joan
mendiyan atzera,
andikan itsasora
antxen gordetzerá;
allegatzen danean
atzeko ertzera,
ikusiko da lengo
antzik gabe bera
ezkuta dedin urtan
sartzen buruz beera.

3
Garai ontan piztiyak
ala egaztiyak,
umilki joaten dira
gordetzen guztiyak;
bai ere beste txori
txiki kantariyak
lotarako billatzen
dituzte kabiyak,
eta ixiltzen dira
kantatxo eztiyak.

4
Illunak zerbait indar
dubenean artzen,
sagu zatar egorik (*sic*)
dirare agertzen;
abemari-ezkillá
ermitan da jotzen,
ureña gorrik dira (*sic*)
zerupean jartzen,
eta ala joaten da
eguna gordetzen.

5
Egunak lotarako
artutzean oia,
iltze txiki urrezkoz
jositzen da goia;
azaltzen da krisallu
bat irazekiya,
zerutikan zintzillik,
emanaz argiya,
gau illunaren apain-
garri illargiya.

La Vasconia, 1902-II-20

(1902)

Fueroaren galera da Euskal Erriyaren betiko negarra

1
Ikusirikan lengo kontubak
eta oraingo berriyak,
nere barrenak sentitzen ditu
pena ikaragarriyak;
biotzak negar egiñik, malkoz
zaizkit betetzen begiyak,
ez daukalako fuerorik gabe
onikan Euskal Erriyak.

2
Non dira gure asaba zarrak?
Non dira gure aitonak?
Non berak egiñ zituzten gauza
eder len zutik egonak?
Luma-arrasto batez oinpera
botarik gaurko gizonak,
fuerorik gabe arkitzen dira
txartubak lengo lan onak.

3
Ekaizte txar bat gertaturik bein
zeru azpiya zan beztu,
eta arbola gurea artaz
arkitu baitzan txit estu;
illun tristean zizkaten bere
adarrak autsi ta moztu,
geroz fuerorik gabe lur onek
zori onikan bein ez du.

4
Egun berriya argitutzeko
egon bear da beldurrez,
ama maiteak ikusten dira
semien penaz negarrez;
ustez berenak zituztenakin
iya gaur agindutzen ez,
fuerorik gabe ez da onikan
izango emen, ez, ez, ez.

5
Len kargaz ongi ornituk eta
berriz berriyak espero,
zer poz-aldi da lur onentzako
izango orain ta gero?
Malkotan urtu ditzagun penak
biurt ez gaitezen ero,
onikan ez du Euskal Erriyak
fueoak kendu ezkeru.

6
Gure aurreko zarrakgandikan
beste modutan baikaude,
au oroitzeaz gure barrenak
beti supritzen baitaude;
ez gera aiek guretzat utzi
zituzten gauzaren jabe,
Euskal Erriyak onikan ez du
izango fuerorik gabe.

7
Non dira gure gauza on aiek?
Non dira bada arkitzen?
Gerenak izan eta ez degu
geren aiekin agintzen?
Berak lenengo billatu gabe
ezin joan kargak arintzen,
fuerorik gabe zerupe beltzik
ez du asiko argitzen.

8
Mundu osoan esan oi zuten
bizi giñala gu ondo,
gure inbiriz ziran orduban
noski guziyak egongo;
bañan gaur beste gauzik baitago
ez da itz ori esango,
fuerorik gabe ez du onikan
Euskal Erriyak izango.

9
Ez da len bezin dizdira beroz
onuntz argirik sartutzen,
ez du lur maite onek lengoko
gozotasunik artutzen;
ala dijua zuben itxura
ederra galtzen ta galtzen,
fuerorik gabe lur onentzako
ez da pozikan azaltzen.

10
Poz zorionak baizik etzan len
kanpoan nola erriyan,
inbirigarri arkitzen baitzan
lur au bestien erdiyan;
gaur dago pozik batere gabe
bizitza triste berriyan,
fuerorik gabe onikan ez da
izango Euskal Erriyan.

Euskal Erria, 1902.
La Vasconia, 1902-IV-20..

(1902)

Oroimena

On Marzelino Soroa zanari

Izkribalari graziz jantzi au
mundu ontatik bestera
juan zaigunean betiko edo
ez jiratzeko ostera,
penaz malkotan jarririk lutuz
jantzi da Ama Euskera;
gu ere aren anaiak eta
onen semeak baikera,
eta bertatik artuko degu
soin beltz Amaren jazkera,
eta zeruban gerta dediyen
euskaldun maitatu bera,
belaunikatu ta Jaunagana
erreguz jarriko gera;
artaz munduban geran artean
beintxo aztuko ez gera.

Euskal Erria, 1902.

(1902)

Napar zezen baten plazako azken jolasak

(Erdal Erriko moldaera baten irurintzan)

Zezenak:

1

Nere mendietatik
onera ekarri,
eta kulpikan gabe
preso naute jarri;
lan onetaz mindurik
gaur ikaragarri,
mengatu naian nago
irteteko larri.

2

Nekez beren ireki
dirate atia,
neretzat o zer poza
kanpora joatia!
Banua, egin biet
al detan kaltia,
ni naiz emen errege
eta alkatia.

3

Uf! Nor da or kapakin
tira eta tori,
siñuka asi zaitan
tripa aundi ori?...
Nerekin jostatzeko
puztutxo ago i,
adar neretan laster
biar dek erori.

Jendiak:

4

Ai, ai, ai! Arrapatu
du! Bai, ara, ara!
Tontoa, zertan joan aiz
i adarretara?
Orain ipurdiyan dik
egin tarratara,
eta aidean bota
au barreretara.

Zezenak:

5

Orain zaldi gañetik
lantza erakutsi
ditan au, ez nezake
sari gabe utzi;
laster bere buruba
lurrean ikusi
bear da, botako det
zaldi zar ta guzi.

6

Pun, brun, joan aiz bueltaka
zaldi zarrarekin,
laster aut or musuka
para lurrarekin;
tunpateko ederrak
badituk erekin,
obe dek ez jostatu
geiago nerekin.

7

Ez niok barkatzeko
gaian gaur iñori,
gogoan izango dek
zilipurdi ori;
eskerrak zaldipera
aizela erori,
bestela bertan ilko
indutan eori.

8

Berriz erakutsiyaz
burni dun egurra,
atorkit naukalako
jirako muturra;
uste al dek detala
nik ire beldurra?
To, *pun, brun*, jan zak orain,
nai badek, or lurra.

9

Ai. ai ai! Zer zan ori:
zultatze orrena?
Ez da au egin ditan
lanik ederrena.
Len beso batetikan
utzirik errena,
orain lantza sartu dit
kostillak barrena.

10

Zanko-me batek ere
nai dit zerbait egin,
zer ote dakar orrek
nigana berekin?
Arrimatzen ari zait
zotz apain birekin,
sast!, oi!, itsatsi dizkit,
or dauzkat nerekin!

11

Elbarri para naute,
ai, au nere miña!
Au nekea ta nere
ibilli eziña!
Izandu banaiz ere
pizkorra ta fiña,
neretzat jolas au da
gertatu samiña.

12

Beste au nor zait berriz
jarritzen aurrean,
trapu gorriyarekiñ
joaz muturrean?
Zein gustora artuko
nuken adarrean,
botatzeko tellatu
gañera aidean!

13

Sast! Oi! Zerbait dit sartu,
zan gauza zorrotza,
bere puntak billatu
du nere biotza;
datozkit aldi txarra
ta izerdi otza,
jo det lurra, orain da
nere eriotza.

14

Plazan pasatu zaion
lana zezenari,
askotan gertatutzen
zaio gizonari;
pizkortasuna eta
indarra ugari
dauzkan pantasi gogor
eldurik lanari,
jaso al bañan karga
aundiagoari,
gerra egiten dio
bere burubari.

El Oria, Tolosako aldizkaria, 1902-VIII-15

Euskal Erria, 1902

(1902)

Ondarrabiako biltzarkidari gure izkuntza maitagarriatik

Amaren magalean lenengo
entzun genduben izkera
indar-berritzen baldin badegu
maitatuk izango gera;
bañan gugatik lurpetzen bada
gure Amona Euskera,
orduban geren aitaren seme
onak izango ez gera.

El Correo de Guipúzcoa, 1902-IX-11.
Euskal Erria, 1902.

(1902)

Egunsentiya

1
Igesbidean jarri
da arrats illuna,
lurra beltzez jantziya
iduki diguna:
pio-pio aitzen da
txorien jarduna,
esnatu ta jaikitzen
asi da eguna,
leiotillan ageri
da argitasuna.

2
Txoriyak nabaiturik
illuna gutxitzen,
pozez asiyak dira
kabiya utzitzen;
ttontotubak zeudenak
dijoaz bizitzen,
kantari oso pizkor
baitute segitzen,
beren txibaliuan
ez dira ixiltzen.

3
Zeruban ixuri da
gabaz intz eztiya,
eta lur gañera da
etorri guztiya;
au dago dizdizduba,
gozoro bustiya,
eranaz Jaunak egin
zuben erariya,
altxatutzen dubena
lore eroriya.

4
Lurra gozoro dago,
alai oso goia,
egun berriyak dakar
txit onaren gaia;
urdiñez apaindu da
zerupe garbiya,
izarrak ezkutatu
dira denak iya,
eta ondo ikusten
ez da illargiya.

5
Urruti zerupear
jo ez jo mendiya,
argitasun txiki bat
egin da aundiya;
gero jartzen dubela
alai goi guziya,
agertu da alako
su-gar bat biziya,
eguzki eder urre-
-erreñuz jantziya.

La Vasconia, 1902-I-20.

El Correo de Guipúzcoa, 1902-
II-21.

(1903)

Gurutzearen garaitondoa¹

1
Gizadeak² eraso
beio kantuari,
gloriaz Salbatzalle
gurutzetuari;
egoak moztu etsai
engañukoari,
eta ematen zori
ona munduari,
pasa zitualako
nekeak ugari.

2
Adanek egin izan
zuan pekatuba,
gerta zedin Jaun Aita-
gandik barkatuba,
Semea iltzez izan
baitzan pagatuba;
onen bidez utzirik
etsaia lotuba,
garailari irten zan
gurutze santuba.

3
Gloria gurutzeko
Jesu-Kristo jauna,
gure maitetasuna
dijoa zugana;
gurutze txit pisuba
zera eramana,
an ardo beazunez
nastuba erana,
eta bertan biziya
gugatik emana.

4
Abean iltzetuba
zinduzten iruki,
lantzaz zizuten zere
saietsa iriki;
artan begiak goruntz
Aitagana jaiki,
eta esan zenion:
«Aita, ero gaizki
egiten nautenentzat
izazu erruki».

¹ *El triunfo de la Cruz.* (Egillearen oarra).

² *Humanidad.* (Id.).

5
Ark gurutzetik egin
bazuben erregu,
guk belaunikaturik
egin bear degu;
milla bider berekin
utsegin baitegu,
alaz ere besoak
zabalik daukagu,
bere aien artean
artu nai gaitu gu.

6
O, Jaun pekatariaz
erruki zerana,
guganako egarriz
ozpiña erana,
biziya gurutzean
gugatik emana,
miresten ta glorizten
degu zure lana,
adoratzen zaitugu,
gurutzeko Jauna.

Euskal Erria, 1903.

(1903)

Aita Leon amairugarrenari

Ezkutatzero dijuakigu
eliz-buruzai umilla,
penaz malkotan utzirik bere
maite zuben ardi-pilla,
ai!, onen artzai maitagarriyak
ez dira jaio oi milla.
Salto aundi bat beruntz eginta
galdurik bere goi mailla,
utsik utzi du eserlekutzat
zeukan San Pedroren silla;
denen naieran au betetzea
nola izango dan zaila,
Jaunak deigula beste artzai bat
Leon zan bezin abilla.
Onek munduban gorputz santuba
lotan utzirik gaur illa,
bere anima egan joan zaio
beste mundubaren billa,
eta sariztu dediñ zeruban
erdiyan gerta dedilla.

Euskak-Erria, 1903.

(1904)

Erriko xeme donostiarra

Ez det esango nor dan,
asmatzera saia,
iñork baldin badauka
asmatu naia:
zein dan erriko xeme,
nor dan tripazaia,
zein ajolakabea
ta zein dan lasaia:
au da ezkongai,
gorputzez garaia,
jostallu alaia,
maite duna jaia;
diruri etxekalte
baten anaia.

La Baskonia, 1904-IX-10

(1904)

Aita Andres Urdanetari bere talluntza goititzeko egunean

1
Zer pasatzen da gaur Billafran-
kan?
Jendia dago kantari;
diruri norbait esnatu naian
ojuka dirala ari.
Bai, bai, soñuba eta kantuba
bada gaur emen ugari,
lotan ez diye utzi nai Andres
laster jekiko danari.

2
Ikusten danez, Aita Andresi
maitetasuna bazaio,
bere gloriyagarri erriyan
festa bat egin nai zaio;
onetarako plazan arrizko
dorre bat altxa baitzaio,
ta onraz apain dediyen nai da
dorre gañera gaur io.

3
Lengo denboran Filipinetan
Legazpirekin izana,
ango jendia gurutzepetzen
bizitu eta il zana;
Españaren da sorterriyaren
onran egiñaz an lana,
da gaur lurpetik jaikieraiño da
zutikan jarri nai dana.

4
Nork esan zutik jarriko zala
gizon mugitzen etzana,
zeguana iltzat urte askoan
ar-losapean etzana?
Bañan ezpazan il Urdanetik,
au da lotan an zeguana,
ta galerazo zaiona bere
lo gozo eder zeukana.

5
Il bazan edo ezpazan Andres
gaur sorterriyen da bizi,
ara non zaigun azaltzen bera,
ez du ematen itsusi;
brontzezko soin bat jantzi diote
buru-estalkai ta guzi,
ta zutik dute dorrean para
dezaten denak ikusi.

6
Urteak joanik ere etzaio
arropik orri autsiko,
bere itxurik borratzen ez da
denbora txarrik asiko;
gu ilko gera bañan Andres ez,
ori da beti biziko,
jargoi berriyan zutik utzitzen
degu sekula guziko.

7

Atzo Legazpi, gaur Urdaneta,
 gizon aztu-ezgarriyak,
 izandu dira jargoi arrizko
 banetan biyok jarriyak;
 brontzez jantzita zutik dituzte
 para nor beren erriyak,
 gizon balio dutenak daki
 onratzen euskal erriyak.

8

Nik untz-ostoa ta euskal loreak,
 zintaz lotuta elkarri,
 dizkitzut, Andres, zure buruba
 apaindutzeko ekarri;
 bañan iristen ez naizelako,
 goitxo zaituzte-ta jarri,
 zere oñetan utzitzen dizut
 koroï au oroimengarri.

La Voz de Guipúzcoa, 1904-IX-19.

Euskal Erria, 1904.

(1904)

Oroimena

On Antonio Arzak ezkutatu da!

Aingeruak bakarrik jotzen
dakiten lira gozoakin,
eta diamantezko pluma ta
bertso eder urrezkoakin,
nork lezaken bere antzeza
eztitsu agertzen jakin!

Oroimentxo bat gorde deiogun
mundutikan joan danari,
anai maite bat faltatu zaigu
Aitorren seme danari;
egun eta gau oi zan maisu au
euskera pizkortzen ari.
O zer falta gaur utzitzen dion
bere Euskera Amari!
Maitetasuna zeñek etzion
On Antonio zanari?
Negarrik egin bear bazaio
iñoiz munduban iñori,
au da bat egin bear zaiona
bañan benaz ta ugari;
belaunikatu eta erregu
egin zaiogun Jaunari,
gorde deiola zeruban toki
bat maisu euskaldun ari,
eta lurrean ager deigula
igual bat euskaldunari.

Euskal Erria, 1904.

El Correo de Guipuzcoa, 1903-IV-6: bigarren zatia bakarrik.

(1904)

Juan Zala-ren gertaerak

1
Juan Zala Beratarra,
Lesakan aziya,
da mutil bikaña ta
gorputzez aziya;
billatu naian liño
fiñaren aziya,
jirarikan Afrika
dena ta Asiya,
billatu du ta or da
ereiten asiya.

2
Aitak esan zion bein:
«Mutiko, saia ari!»,
ta kontu egiñikan
aitaren itz ari,
gaur liñotik ortxen du
makiña bat ari,
oso aberastutzen
da mutilla ari,
erosi ditu milla
ardi ta eun ari.

3
Bi Pasaietan bat da
deritzona San Juan,
ta eginkizun batez
bein bertan zan juan;
bañan zori onean
Pasaira etzan juan,
kanalian pasatzen
lagun zubela Juan,
txalopatikan biyak
putzura ziran juan.

4
Bizi-leku dauka gaur
jaioterri Bera,
toki osasuntsuba
baztar oso bera;
bañan alaz ta ere
osasunaz bera
ez dabil ongi, dauka
gorputz argal bera,
erori dan ezkeru
txalupatik bera.

5
Galaiak dauzka orain
gelak eta sala,
etzeuzkan orlakoak
len basarrin zala;
bañan amets bat det an
sinistu ez zala
gertatu orlakorik,
ez ere Juan Zala
Pasaiko kanalian
urera juan zala.

Euskal Erria, 1904.

Itz bera erabiltzen du emen egi-
lleak bertso guzietan punturako, bai-
ña esan-nai ezberdiñarekin, potoari
orrela iges egiñik.

Orri begiratu gabez, utsegite ba-
tzuk sartu zituzten moldiztegian.
Ala, *Euskal Erriak* beste onela ditu
lerro auk: 2/4: aitaren itz ori; 4/10:
txalupatik beera.

(1904)

Ama Birjiña Kontzeziokoari bere egun aundirako itz eztitsuz-ko perlak

1

Nik banu aingeruben
kantuko graziya,
aiek doaiz banatzen
duten poesiya,
agertuko ziñuzket,
Ama, gaur guziya,
urrez, perlaz, lorez ta
izarrez jantziya.

2

Aingeru zillarrezko
lirak dituztenak,
zeruko jardiñean
kantatzen dutenak,
betoz beren lirakin
lagungarri denak,
kanta ditzadan grazi
eder Amarenak.

3

Dezu eguzkiyaren
printzen koloria,
o zein ederra zeran
zu, Ama guria!
Jardintzaz daukazula
Jaunaren gloria,
zu zera zerubaren
erdiko loria.

4

Egunsentiko izar
mantxarik gabia,
zera, Ama, gu ume-
zurtz denen jabia;
ankapian lertuba
daukazu subia,
pozoi gaiztoz ez dezan
txartu zeruz bia.

5

Oiñ-alki daukazula
beti illargiya,
zera mundu beltz onen
gabazko argiya;
Ama Kontzezioko
pontzela garbia,
zeruko Erregiña
adoragarriya.

6

Goien zerezten dezun
Jaunaren graziya,
ixurtzen zaizu gure
gañera guziya;
zera penen baltsamu
gozo ugariya,
aingerubak aidian
zauzkaten Mariya.

7

Aingeru egariyak
millaka dauzkatzu,
ta zenbait ille ori
bial zaizkigutzu,
zu bezela aidian
jaso gaitzaten gu,
ta zeruban erdiyan
ikus zaitzagun zu.

8

Ama, goitaindu zaitut
al dedan moduban,
eta lan au eruki
dezazun kontuban,
itz obek urre-ariz
lotuta kantuban
izkribatubak uzten
dizkitzut mantuban.

El Correo de Guipúzcoa, 1904-XII-8

(1904)

Nere bartko ametsa Jesusen jaiotza

1
Nere baserri zarrean bullak
esnaturik goizaldera,
nabaitu nuben esaten: «Guazen
guztiyok Belen aldera».

2
Ta ikusirik gero leiotik
Anton da Peru pasatzen,
esan nioten: «Aiskideak, or
zerbait al da ba pasatzen?».

3
«Ez al dakizu Belenen dala
Jaungoiko Jesus bart jaio?
—esan ziraten—. Nola etzaizu
zuri burura au jaio?»

4
Beste guziyak jakin ori ta
nola ez dezu jakin zuk,
lenaztandikan esana bazan
gauz au profeta jakintsuk?».

5
«Izan liteke, bai; goiz irten da
gure etxetik Jose Juan;
eta ark ere, zuek bezela,
Belena naiko zuben jua».

6
«Zuk ere obe zenduke ortik
zerbait artuta atera,
eta segitu guri Belengo
portale edo atera.

7
Aingeruak bart eman dutenez
beren kantakin berriya,
an dago gure Salbatzallea:
Jesus Aur jaio berriya».

8
«Banua, artu ditut arkume
guri bi makil batian;
gogoz juango naiz Jesusengana,
Peru, zuekin batian».

9
«Guazen saltoka, guazen lasterka
pozez mendi oek bera;
aliek lenena billa dezagun
Aurtxo jaio berri bera.

10
Iritxi gera, iritxi gera
noizbait portale zarrera;
atozte onuntz, emendik dauka
estalpe onek sarrera.

11
Ukullu ortan nabaitzen da Aur
jaio berriyaren otsa;
o!, gaixuak or sentituko du
gaur izugarrizko otza.

12
Mundura jetxi zaigu zerutik
Jesus, len emen etzana;
ara non dagoen ganbelatxoan
lasto gañean etzana.

8
Ama Mariya ta aita Jose
gogoz begira dauzkala,
ta idiya ta astoa ere
urruti txit ez dauzkala.

14
Oiek asnasez berotzen dute
ta gu're adora dezagun,
eta famili au erregalo
gabe utzi ez dezagun.

15
Ara intxaurrak, gaztak, gaztaiñak
eta arkume aziyak,
geren artalde txit bikañetan
oso guriro aziyak».

16
Ontaz eskura guri ematen
Ama Mariya asi zan,
eta onetan esnatu naiz ta
au gaur igerri: goiza zan.

El Pueblo Vasco, 1904-XII-24.

Punturako itz bera, baiña esan-nai ezberdiñarekin erabiltzen bada pot-
rik ez dala esan oi da. Iritzi ortaz baliatuz, saio luze samarra egiten du
emen ere Ramon Artolak.

(1904)

Donostiako Orfeoiaren garaitondoa edo triunfoa

1
Buru-estalkai gorri jantzita
juan da erritik kuadrilla.
Nora dijoa burni-bidetik?
Nora kantari on pilla?
Nora dijoaz? –galdetzen dute–
gure gazteri abilla?
Bada dijoa Zaragozara
kantuko sari on billa.

2
Beste an bildu biar dutenak
eskasen batzuk al dira?
Ez; jakin denez, orfeoietan
onentxoena baitira;
donostiarrak txit kontrariyo
gogorren kontra joan dira,
eta goi mallan jarriko dira
ongi irteten badira.

3
Alanbretikan izandu dira
berri Zaragozakoak:
nola leiatu diran orfeoi
eder fama aundikoak;
ta bukatzez bat pakeko gerra
kantari gain-gañoak,
sari ederren jabe dirala
egin Donostiakoak.

4
Lenaz gain diye glori berri bat
erantsi Donostiari,
ta bear zaie ongi etorri
bat egin kantariari;
ekarri bitez osto preskoak
eta loreak ugari,
datozeneko beren koroak
prest jartzen gaitezen ari.

5
Bertan dira ta paratu bitez
dantzan brontze mingaindunak,
eta pinpunta gora tiratzen
asi ziri me sudunak;
atera bitez musika denak,
dultzainak eta ttuntunak,
eta juan beren bidera oek
juaz erriko lagunak.

6
Jaso dituzten sari ederrak
ez dira pagatzen urrez,
oetaz dute beren erriya
apaindu onra ederrez;
nola poz aundi au ez liteken
kabitu emen gaur errez,
zabaldu bitez biotz guziyak
atsegiñaren indarrez.

El Correo de Guipúzcoa, 1904-X-21

La Voz de Guipúzcoa, 1904-X-21

(1905)

Donostiyako zubi berriyari

bere goiande edo inaugurazioko egunean

1

Ezin asper liteke
bat oni begira,
ikusten bere beak
eta goiko jira;
lau torre galai ere
ageri baitira,
ain ederrak gaur ongi
apaintzen badira,
pozez gañeko zaldik
egan joanda dira.

2

Ta urrutitan dute
emango berriya:
nola egin dan emen
zubi bat berriya,
ibai Urumearen
gañ pasagarriya;
dala molde berriko
len mizen garbiya, (*sic*)
onratzen da edertzen
dubena erriya.

3

Begiratu zaiogun
orain zubiyari,
beraren egitura
eder aundiari;
zanko sendotan dauka
indarra ugari,
iru arkuk eutsitzen
diote gañari,
ezerk ez dio mellik
egingo berari.

4

Tren billa iristeko
beste alderdiya,
onetaz egiten da
gaur bidez erdiya;
bere luzetasuna
ez baida aundiya,
bañan lasaiz da igar
gabeko zubiya,
zezenen plaza ainbat
zabal bada iya.

5

Daude begiratutzen
merezi dutenak,
nola zubiya ala
torre berarenak;
ikustez atsegin bat
artzen du barrenak,
dira eska litezken
gauzik ederrenak,
ez dirudite berak
lan gizonarenak.

6

Gaur bilduko da bertan
jendea ugari,
kantatzeko denboran
gloria lanari;
ta kanta eder artan
diranean ari,
elizak eskatuko
dio zerubari
gorde deiola zori
on bat zubiyari.

El Pueblo Vasco, 1905-I-20.

(1905)

Maiatzeko Loreen eskeintzea
Ama Maria Santari

1
Allegatu gera il
eder Maiatzera,
eta gelditu gabe
aztuta atzera,
guazen Ama Maria
Santa billatzera,
urteeroko zorra
lozez pagatzera.

2
Jazmin, arrosak, lilak
eta azuzenak,
nola kolko zurizko
lirio zuzenak,
itz eztiya gozoro
eranak daudenak,
Mariarentzat dira
izango gaur denak.

3
Goiz gozoro emanaz
jira kanpoari,
txori txikiyak pozez
daudela kantari,
jardungo gera biltzen
loreak ugari,
eraman dizaizkagun
Ama Mariari.

4
Aztubak ez gaudela
Mariak dezan jakin,
loreak eskeintzera
guazen alkarrekin;
Zeruko Erregiña
il ontan gurekin
daukagu, eta apain
zagun loreakin.

5
Loreak nola diran
soñukin nastuko,
kantuz adoratzea
etzaigu aztuko;
aingeruben izketan
degu kantatuko,
ta gure kantak ditu
Mariak aituko.

6
Zesto txiki batian
dakaizkit nik, Ama,
sortatxoak eginta
loreak zugana;
zesto bera da biotz
nere au daguana,
ta jabetu zaitea,
zurea da dana.

7

Jetxi zeran denboran
goitik guregana,
loreakin gera gu
bildu zuregana;
guk ekarriaz gañera
zurea da, Ama,
lore-sail eder zelai
gurean daguana.

8

Zelai ontan jardun naiz,
Ama zerukoa,
moldatzen zuri apain-
garri burukoa;
nola zeruban utzi
dezun urrezkoa,
aren truk egin dizut
koro lorezkoa.

El Correo de Guipúzcoa, 1905-V-4.

2/5 lerroan *gozotza* du egunkari onek. Ala bear dualakoan, *gozoro* idatzi degu guk.

(1905)

Cervantes

Gizon aztueggarri onen oroimenerako luma-arrastara bi

Iya berataz iñor
oroitzen etzala,
lanean aritzen zan
jaun au, bizi zala,
Quijote izkribatzen,
erotzat zeguala,
presondegia bat bere
lan-toki zeukala,
zer janik ere iñoiz
maian etzeukala.
Bañan gero jakindu
zanean il zala,
edo lotan betiko
gelditu baitzala,
Españian guziyan
jo zan atabala,
aren bullaz lotatik
esnatu nai zala;
paper danak banatu
zuten beriala

gizon oso balio
aundiko bat zala,
lurrian bere igualik
izan ez baitzala;
eta leku denetan
baimendurik ala,
maillik goititunean
jartzeko gai zala,
erabaki zan brontzez
beraren iguala
egiñik, illa berriz
piztu bear zala;
lurrak bere linboan
gorde etzezala,
zutik mundu guziyak
ikusi zezala.
Sinistu zagun denak
gezurra ez dala
santu egiteko il
egin bear dala.

Euskal Erria, 1905.

El Pueblo Vasco, 1905-V-9.

La Baskonia, 1905-V-10.

(1905)

Bertsoak eta loreak

Bilintx zanaren oroimenean itz-neurlari on Joakin Frantziskori

1
Españiako Euskal Erriyan
etziñan jaio, Joakin, zu,
eta au dala bide egongo
etzero noski jakintsu;
neri Bilintx zer itz-neurgille zan
bertsoan galdetu nazu,
ta galdearen erantzuer
bertsoan entzun nazazu.

2
Zuk jakiñik ni euskal lorien
billa naizela ibiltzen,
batzuk eskatu nazkitzu eta
gozoz jarduna naiz biltzen;
ola osatu detan sortari
ez diotala bat kentzen,
sortatxo bera Bilintxen onran
dizut gaur zuri eskeintzen.

3
Soruetara udan goitikan
jaisten dan gisan intz-ura,
Bilintxi ala jaisten zitzaion
doai preskua zentzura;
ta aren bidez nola grazidun
beti arkitzen zan ura,
nik din goitzeko ez dakit itzik
jaikiko zaitan burura.

4
Urrezko pluma tinta-ontziyan
utzi ta kantatzen asten
zanean, aren esanak ziran
belarriyetan itsasten;
nola doaizko itz txoragarrik
lozez baitzituben jazten,
ark argiratzen zituben kanta
guziyak ziran ikasten.

5
Aren graziyaz apaindutako
itz neurtu baliosoak
zernai doñutan kutsutzen ziran,
gertatzen kanta gozoak;
ez dira gutxi dakizkitenak
bere kantaldi osoak,
ark jarri denak Euskal Erriak
dauzka kutuntzat jasoak.

6
Gauza ederrak nekez baitute
zarraren itxura artzen,
eta Bilintxen bertsoak ala
iñoiz ez baitira zartzen,
urteak joanik ere etzaie
makurtasunik igartzen,
aren kantuzko lorerik ez da
euskal baratzan igartzen.

7

Lore tartean bera erori
zanean artu zan pena!
Esan genduben: «Ezkutatu da
izar baliosoena».
Bai, egiya da, galdu zan argan
geneukagun gozomena,
bañan etzana galdu da bere
utzi zuben oroimena.

8

Ark zuben doai-modurik goitik
ez da neregana jatxi,
ta kantu ontan bear det lora-
-tokiko atia itxi;
ni izan banitz printzipea ta
erregetara iritxi,
nere koroa parako nion
bere buruban Bilintxi.

El Pueblo Vasco, 1905-VI-11

Baserritarra, 1905-VII-8

La Baskonia, 1905-XII-10

Seigarren bertsoan *igartzen* bi aldiz punturako. Baiña ez da poto, leenengoan *igertzen* bearko luke eta, sarritan *igartzen* aozkatzen bada ere.

(1905)

**San Juan arratsaldea
Tolosan**

1
Oitura zarrak galdu
ez ditzan erriyak,
kale-buruzagian
kurtinak jarriyak
zeuden, pasa zitezen
jaun agintariyak,
eramanaz aurretik
bordon-dantzariyak.

2
Arratsaldean ziran
jokatu zezenak,
ez giñan igual egon
an plazan geundenak;
euri-estalkai gabe
barreran zeudenak,
erre edo kiskali
bear zuten denak.

3
Gero andik irten da
gu geunden tokiyan,
berez ibilkai bat zan
burrunda aundiyan
zijoana, ta bere
zeraman abiyen,
asto bat pasa zuben
botala azpiyan.

4
Gezur-ikustokiyan
giñan gabaz izan,
ta sartu giñanian
korrida ari zan;
an ikusi genduben,
artsaldeko gisan,
zezena zaldik iltzen
nola ibilli zan.

5
Kantaz burla egiñaz
pikadoreari,
batak txaloak zizkan
jotzen zezenari;
ta nori bururatu
zein zan ala ari?
Itz-kutxa zan berritsu
zeguana kantari.

*El Correo de Guipúzcoa, 1905-
VI-25*

La Baskonia, 1905-VII-30

(1905)

Nere antzeztza edo erretratua

1
Egun batian billatu nuben
gizon bat pobre samarra,
kokotzetikan txilborreraño
luzi zubena bizarra;
arropak zeuzkan berrik izanduk,
sonbrellu aundi bat zarra,
eta oin bitan txandan jazteko
zuben bota bat bakarra.

2
Izkribatua zeukan sonbrellun
pintore aundi bat zala,
erretratutan abillidade
igual gabia zeukala;
eta nik oso sinisturikan
ta faltan pobre neguala,
agindu nion nere antzeztza
pinturaz egin zezala.

3
Bide luzean kuarto pixarrak
zitzaiozkala eskastu,
eta pintatzen asi bañan len
ziran diruba eskatu;
geroz pena det egin bañan len
niola lana pagatu,
pintore txori-izutzalliak
etziran txarra pagatu.

4
Iya bukatu zuben denboran
agindu niyon pintura
ikusit nuben, eta barrenen
sartu zitzaidan tristura;
nik ez dakit ark zer ziruriyen,
ai, ama, ura figura!
Arrek etzeukan nere antzeztza
edo ez nitzan ni ura.

5
Sudurra zuben luze samarra,
ezpañak oso aundiya,
nora begira zegoan ez dakit,
okerrak zeuzkan begiyan;
tomatiaren antza zeukaten
kolorez matrail tzar biyan,
kupira gabe egin zuben an
lana pintura gorriyan.

6
Zeuzkan illeak banatuk eta
kopeta zimurregiya,
alderdi bitan belarri motzak,
buruba berriz aundiya;
kokotzak eta sudur-muturrak
alkar jotzen zuten iya,
pintore txarrak etzuben egin
ongi nere arpegiya.

7

Jauri illuna pintatzerako (*sic*)
koloreak eskastuta,
nolaerebait pintatu zion
kondar guriyak nastuta; (*sic*)
bañan bizarra pintatutzia
zeukan oraindik aztuta,
ta kokotza ta ezpañak zizkan
utzi ikatzez beztuta.

8

Oso bukatu zuben denboran
etxera ziran ekarri,
eta pentsatzen egon nitzan zer
egingo niyon nik arri;
ta lan on ura salan ez nezan
iruki begi-mingarri,
armiarmak kendu ganbaran eta
zintzillik an nuben jarri.

El Pueblo Vasco, 1905-X-11.

(1905)

Egunsentiko izar eder

Kontzeio garbiko Mariari bere egunian nere kantuzko agurra

1
Nork etzaitu goizetik
gozoz agurtuko?
Zeñek ez dizu bere
poza agertuko?
Al da bat danikan gai
onetaz aztuko?
Ez; guziyok zaitugu
gaur adoratuko.

2
Ama, galaz jazteko
kantatxo asiya,
bialduko bazenit
goitik din graziya,
gaur parako ziñuzket
ain dizdizariya,
diamantezko perla
ederrez jantziya.

3
Elizan zutik zera
ageri odoian,
o zein ederra zauden,
Maria, an goian!
Milla argi ta lore
ederren erdiyan,
irudi du zaudela
zeruko gloriyan.

4
Agurtutzen zaitugu,
Ama pozgarriya,
aingerubak besoan
goitik ekarriya.
Agur, goiz-izar eder,
Birjiña Mariya,
agur, Jesusen Ama,
pentzela garbiya!

5
Aingeru-bozak dira
entzuten ugari,
Mariaren alabak
daude-ta kantari;
izkera zerukoan
baitirade ari,
alabantzak kantatzen
Kontzeioari.

6
O, Ama, ez dizute
denak kantatuko,
ixillik dizkitzute
penak agertuko;
ta zuk nola dituzun
erreguk aituko,
penatuben biotzak
dituzu poztuko.

7

Guazenak emanaz
mundubari jira,
iristeko denboran
beste alderdira,
ez gaitzen erori
beeko karobira,
Stella Matutina,
zauzkagu begira.

8

Jatxi zaituzten gisan
aingeruk zu beera,
gu goi artara ezin
iritxi bagera,
bear garaian irten
zaitea bidera,
ta eraman gaitzazu
Jaunaren etxera.

El Correo de Guipúzcoa, 1905-XII-8.

Bertsoak eta loriak

Donostiyako jardinzaiak baratzan

1
Nola biurtu degun
lore-toki plaza,
emen biegu egin
gaur geren jolasa;
atozte denok gure
baratzara lasa,
bertan dezagun aldi
atsegin bat pasa.

2
Zelai ontan daukagu
geren lan asiya,
ugari banatuba
lorien aziya;
ta lurra ager dezan
barrengo graziya,
laster apainduko du
lozez gain guziya.

3
Noizik bein dantzatubaz
laguntzen lurrari,
ikusi gaitzazute
nola geran ari;
gogor diogulako
eraso lanari,
gure baratzan sortu
da gauza ugari.

4
Goizero musutubaz
Flora erregiñak,
eder zabaldu dira
gure lore fiñak;
dauzkagu azuzenak,
aleli, jazmiñak,
mirto, arrosak, lilak
eta klabeliñak.

5
Urdin, berde, oriyak,
gorri ta moriak,
ikustekoak dira
orko koloriak;
dauden lurra ain dute
apaintzen loriak,
diruri paradiso
bat zelai guriak.

6
Erdiyan etxola bat
zelai guriari
egiten orain gera
dantzariyak ari;
ara zer pollita dan
begira berari,
lore tartian iya
ez baita ageri.

7

Legorteaz gertatu
ez ditezen eri,
landarientzat ura
daukagu ugari;
eta nola baikeran
maiz preskatzen ari,
lore igarturikan
ez da bat ageri.

8

Guziz ederra dago
gure lore-pilla,
zeñen eskatzalliak
baditugu milla;
beren usaiak piztu
bailezake illa,
mundu guziya dabil
gure lore billa.

El Pueblo Vasco, 1906-VII-10.

Nere ametsak

**Iz neurtuzko txantxakeri
edo
euskal jolasak**

**Ramon Artolaren
azkenengo lana
bera ill da geroztik argitaratua
Euskal Erria-n,
1907.**

Liburutxo au edo moldaera oek donkitzen dizka egilleak gain gañeko euskal izkribilari On Antonio Arzak jaunari, berak beti agertu izandu dion maitetasunaren on iritziz.

Moldaera berak daude berezituak bi zati edo partetan.

Lenengoan, munduaren alderdi guzietarako ibillerak,

Bigarreanean, erriko, inguruetako eta beste tokietarako gertaerak, guziak ametsetan.

(Ramon Artola il ondoren argitara emandako saila degu onako au. Seme-alabak aren paperetan arkituko zituzten bertso auek, eta *Euskal Erria* aldizkarira bialdu, an ager zitezen).

Itzaurrea

1
Irakurgai moldatu
detan liburuba,
zuzentzen debalde det
nekatu buruba;
Onelako lanetan
dan gizona sartzen,
bizkarra puskatuta
ez da pagatutzen.

2
Bañan alaz da ere
dan apiziyua
ez da kentzen erraza,
da-ta biziya;
biziyaak utziko
bagiñuzke denak,
gutxituko lirake
gizonaren penak.

I

Globoan mundubaren jiran

1
Globoan iyo giñan
lau lagun, ez zarrak,
ikustera mundubak
dituben baztarrak;
ta ain ginduben gora
iyo globo tzarrak,
eguzkiyak erretzen
zizkigun bizarrak,
eta eskukin jotzen
giñuzen izarrak.

2
Gau eder batez goia
zegoala garbiya,
lo joanik gu, globoak
jota illargiya,
atera zion alde
bateko argiya;
ta ark nola baitzuben
estali erdiya,
lurra utzi genduben
argi gabe iya.

3
Izutu ta lasterka
jetxi giñan beera,
nora ta Afrikako ar-
kaiztegi batera;
an zulatatik legoi
aundiyak atera
zitzaizkigun, berekin
gu eramatera,
edo gordiñik danok
an bertan jatera.

4
Berriro iyo giñan
globoan andikan,
legoi abo zabalak
utzirik an bian;
eta juanikan milla
leguak bidian,
iritxi giñan leku
oso apartian,
munduban len billatu
gabeko partian.

5
Nola beruetatik
joan giñan otzera,
an gertatzen ez baitzan
lengo kontu bera;
termometroko urak
erpotik atera
nai zuben, giñanean
juan oso nortera,
zerotikan jetxi zan
egun mallaz beera.

6
Anka batez ura ta
besteaz mendiya
jotzen zala azaldu
zan zubi aundiya,
kolore politakin
pintatu berriya;
ta zalarikan arku
bateko zubiya
izango zan Frantzitik
Parisañon iya.

7

Ginjuazela zubi
gañetikan gora,
noizbait iritxi giñan
Norteko Polora;
otzak zer malla zeuzkan
norbait an gogora,
ainbesterañon zan an
gogorra denbora,
eguzkiya oztuta
juan zan su ondora.

8

Genbiltzala aldendu
eziñik andikan,
mendi batek su artu
zuben barrendikan;
ta zegoala botaz
garra zulotikan,
ta geundela berotzen
begira goitikan,
ametsetan erori
nitzan oietikan.

II

Itxasoz munduaren azken punta billa

1

Pasaiatikan giñan
ontziyan atera,
nik ez dakit norako
egoa aldera;
toki berrien billa
leku apartera,
len iñor izan etzan
paraje batera.

2

Giñanean urruti
oso allegatu,
genduben isla edo
mendi bat billatu;
eta zerbait genezan
biderako artu,
egun birako giñan
ango kaian sartu.

3

Arrantzaleak ziran
isla artakoak,
gizon nano itxura
nolabaitekoak;
ankak zituzten motxak,
meak txit lepoak,
buruz aundik, ez gorputz
aien modukoak.

4

Nanoak ziran arrai
aundiyan zaliak,
arrapatzeko jartzen
zituzten sariak;
etzuten gutxi biar
tripazai jaliak,
saretan arrapatzen
zituzten baliak.

5

Nola beste gauzarik
jaten etzekiten,
bañan maniatzen txit
ongi baitzekiten,
eltzetan irukita
ongi irakiten,
gero eskabetxeak
zituzten egiten.

6

Aurrera bide gutxi
pasa ezkenduben,
berriz beste mendi bat
billatu genduben;
bere gaña zeruba
iya joan zегuen,
mundubak azken punta
nonbait ura zuben.

7

Au zer zan ikusteko
nairik guk miratu,
beriala bertara
giñan arrimatu;
ta giñanean denok
jeisten abiyatu,
jiganteak giñuzen
arrantzan billatu.

8

Ageri ziran sulla
añako pipakin,
eta nork beren zesto
ta kanabelakin;
angulak arrapatzen
zituztela jakin
genduben, amu luze
garrangazkoakin.

9

Ezaguerak eginta,
angulak jatera
ginduzten gonbiratu
biltoki batera;
mayian para zuten
olezko platera,
eta ara zituzten
angulak atera.

10

Pasaian modukoa
zan aien erriya,
bañan ez Pasai zarra
dan bezin berriya;
torre bat zuben luzez
ikaragarriya,
pasaeraz tratatzen
zana illargiya.

11

Etxeak goi-egalak
ain aundik zituzten,
argiyeri etziyen
pasatutzen uzten;
gabaz berriz farolik
nola ez baitzuten,
kalietan argirik
beñere etzuten.

12

Jiratzeko denboran
geren alderdira,
jiganteak lagundu
ziguten ontzira;
ta parrez nengola ni
aieri begira,
nintzan zentzura amets
artatikan jira.

III Egun bi illargiyan

Asto gañean nitzan
etxetik atera,
eizeko eskopetak
feriyan saltzera;
eta irten da laster
asirik euriya,
zabaldu nuben nere
euristal aundiya.
Segiran zuben aize
kolpe bat ekarri,
eta berak ninduben
para oso larri;
ain indar aundiz sartu
zan euristalpera,
iya bota (*sic*)
ninduben beera;
baña nik ankartean
estu-estu artu,
eta espuelak nizkan
tripatikan sartu.
Orduban astoa ta
ni biyok aidian
jaso giñuzen zenbait
legua bidian;
gero ta ariñago
igotzen baikiñan,
ainbesterañon ala
ala igo giñan,
zeruban bertarañon
giñanean iya,
euristalaren puntak
jorik illargiya,
autsi zion kaskara
gogor zekarrena,
eta gu sartu giñan

zulotik barrena,
An lenengo ikusi
nitubenak ziran
soldaduak, milloi bat
izango baitziran,
ejerzizioetan
zebiltzan guziyak:
sudur bina zituzten,
ziran itxusiyak;
polborikan nola an
ikusi etzuten,
armak makillak eta
burruntzik zituzten.
Nik tiro bat tirarik
asto gañetikan.
bota nuben egazti
aundi bat goitikan;
tropako buruzaiak
zuten ura jaso,
eta arma ziraten
ikusi arazo.
Beriala banatu
zuten nere fama,
ni nitzala sumatu
nubela su-arma.
Etorririk errege
bera jakitera,
ongi etorritz irten
zitzaion bidera;
jakiñik ez nitzala
ni illargikoa,
ezpazan jakintsu bat
beste mundukoa,
bere palaziora
ninduben eraman,

nairik jankeiti oso
aundi bat eman an;
janaren bukaeran
pipa txar bat artu,
eta biyak tabakoz
zituben kargatu,
piztutzeko arturik
suzko illatiya,
ta pipa berak piztu
zubenean iya,
nik nola poxpolluak
nerekin nituben,
ark bañan len nik nere
pipa piztu nuben.
Errege arriturik
poxpollo aiekin,
ondoren etzekiyen
zer egin nerekin.
Gero nere oroitzan
naiko festa bazan,
arrizko pillare bat
altxa zuten plazan
jartzeko astoa ta
ni aren gañean;
eta txit onra aundiz
biyaramonean,
pillare punta artan
giñuzten gu jarri,
aragizko talluntzak,
denen miresgarri.
Segiran bildurikan
an soñulariyak,
errege bera eta
ziran kantariyak,
asi ziran soñuba
joaz kantatutzen;
eta ari zirala
gu adoratutzen,

astoak ere nairik
festan parte artu,
lagun zeion aieri
musiko zan sartu;
ain indarrez eraso
zion arrantzari,
dar-dar eragin zion
zegoan arriyari.
Segiran saltarikan
gain artatik beera,
azpiyan artu zuben
erregea bera;
buruba ta koroia
biyak zizkan autsi,
eta zuben balio
etzubela utzi.
Segiran arturikan
makil zituztenak,
gu il naian segika
asi ziran denak,
eta an genbiltzala
korri eta korri,
arrimaturik sartu
giñan alderdira,
.....
.....
estropozoz jorikan
lengo zulo ura,
illargitikan giñan
erori mundura.
Erortze aundi artaz
nunean jo bea,
non aterako ziran
kolpe ark ordea,
lenaz gain kolpe berak
ninduben argitu,
nere buruba nuben
oyian arkitu.

IV

Itxaspe-ontziya balearen tripan

1
Giñan gerrako ontzi
batian atera,
itxasoz mundubari
buelta ematera;
eta ginjuazela
Asia partera,
Afrikatikan oso
leku apartera,
iritxi giñan isla
arboltsu batera.

2
Adiskide egiñik
an bertakoakin,
laster genduben nola
bizi ziran jakin:
ikusgaiak kanabel
oso luzeakin
eginta, itxasoan
arraiak berakin
billatutzen zituzten
katalejuakin.

3
Kanabelak urian
sartutzen zituzten,
eta arraiak beren
aiekin ikusten;
nola tenazak oso
aundik baitzituzten,
isatsetik zioten
arraiari eusten,
eta atera gabe
etzuten bat uzten.

4
Gu ikusten geundela
ari zuten lana,
bale bat billatu zan
itxaspera juana,
ase ta lo zurrungaz
lurrean etzana;
ta batek, jira zedin
mugitzen etzana,
katalejuz jo zuben
zurrungaz zegoana.

5
Esna erazo zunak
tripazai lodiya,
laster pagatu zuben
bere pikerdiya;
ark jota puskaturik
kanabel aundiya,
gutxigatik etzion
autsi arpegiya,
bere puntakin zion
atera begiya.

6
Begiya zijoala
ondora urian,
jetxi zanean ogei
bat braza bidian,
baleak ikusirik
jankaia airian,
eta bera jateko
itxogonik bian,
auga zabaldu zuben
artzeko aubian.

7

Ateratzeko bere
zeukan logalia,
zerbait deskantsatu zan
tripazai jalia;
ontzi submarinua
jana zan balia,
eta zabaltzeaz bat
abo portalia,
andikan joan zitzaion
tripako alia.

8

Baliaren tripatik
libratu zanian,
submarinua itzul
zebillen urian;
eta gora-bidia
artu zubenian,
gertaturikan gure
txalupa parian,
jo ta bota ginduban
guztiyok airian.

9

Berak bota ta berak
jaso baiginduben,
ta berak legorrera
eraman ginduben;
nola mañu ederra
artu baikenduben,
eta berotasunik
senti ezkenduben,
preskatze ark lotatik
esnatu ninduben.

V

Afrikako karabinero jigantia

1

Afrikari gañetik
jira ematera,
globoan iru lagun
baikiñan atera;
eta giñan denboran
erdiko parera,
erori ez erori
jetxi giñan beera.

2

Aparte jetxi giñan
errietatikan,
eta globoa ez an
uzteagatikan,
gurdi batean geren
ura arturikan,
aldeneko errira
juan giñan andikan.

3

Erriyaren sarreran
guardi bat morua,
asi zitzaigun kendu
nayian globua;
kontrabandua zala
esanaz, erua,
artilleruetako
karabinerua.

4

Ez ta bai beian ari
zanean nerekin,
lurrean eserita
zegoen armarekin;
eta altxa zanean
juateko gurekin,
tellatupea zuben
jo burubarekin.

5

Globoari matxetez
zizkan sokak moztu,
ta zer zan ikusteko
aizez zuben puztu;
sonbrellu bat zalako
tontoa zan poztu,
eta buruban jantzi
zuben, zeukan justu.

6

Ari jantzirik globo
guk generamana,
nai ginduzen eraman
jeneralagana;
bañan ibai zabal bat
zubirik etzana
pasa biar zan, juango
bazan beragana.

7

Nola txalupik ere
pasakai etzeguen,
beste aldera zanko
bat luzatu zuben;
eta bi alde nola
artzen baitzituben,
gu eskutan aidian
pasatu ginduben.

8

Zubi orde zegoala
txapel globoakin,
ontzi bat zijoanak
bela zabalakin
pasarizoan jota
paluen puntakin,
zubi ari mugira
baitzion eragin.

9

Zubi jigantea zan
erori putzura,
eta jo zionean
sonbrellubak ura,
presaz eskubak bota
zituban burura,
bañan urak eraman
zion txapel ura.

10

Gauzak artan zirala
bainitzan esnatu,
pozez zer egin ezin
nubela asmatu,
jaiki ta galtzak nola
bear nitun artu.
txaketan besoetan
nitun ankak sartu.

VI Itxasoan zezenen korrida

1

Urez nihoan nora ere bait
ongi ez dakit nik nora,
bañan badakit txartu ziralara
itxasoara ta denbora;
beste aundi bat arrimaturik
orduban gure ondora,
ango jendeak soka botata
ninduben igo ni gora.

2

Ongi salbatu gindubena gu
kabiraz etzan eskasa,
bere barrena Santa Mariya
kabituko zan, ta lasa;
estal gaña zan txit maiz zezenak
jokatzen zituzten plaza,
eta orduban ere denbora
txar ura zanean pasa,
egiten asi ziran korrida
eta zezenen jolasa.

3

Ni antxen neguen pleituba dardar
otzak garbituban iya,
eta zanean azaldu odoi
artetikan eguzkiya,
zintzillik jarri ninduten legor
nedin koittadu guztiya,
eta neretzat zezen-jolasa
etzan irten garestiya,
legortzen negoen lekutik nuben
ikusit festa guztiya.

4

Zezenak zuben pikadorea
artu ta bota urera,
zaldiyak ere biyak aidean
pasa zuten talankera;
segiran beste zaldi zar bati
ziozkan tripak atera,
ta geroago eskotillako
koskan trabaturik bera,
kanpan bueltako baten moduban
juan zan zulotikan beera.

5

Eskotillari tapa jarrita
irten zan beste zezena,
beltzak bakarrik banderillatu
eta il bear zutena;
belaunikatu eta ziriya
sartu zizkaten aurrena,
andik altxata zotz motzagoak
ipurditikan urrena,
gero tripatik edo nonaitik
zotzez bete zuten dena.

6

Beretako bat arrapatuta
traoorik zuben utzi, (*sic*)
zizkan begi bat atera eta
amaika kostilla autsi;
ta medikubak zuben denboran
ain puskatuba ikusi,
agindu zuben gaizki konpontzez
geldi etzedin itxusi,
putzura bota zitekiala
kostilla autsi ta guzi.

7

Andikan laster zezena iltzen
espada asi zanean,
gizarajoa etzan arkitu
askoz portuna obean;
arrapatuta zuben ogei ta
lau bider bota aidean,
bañan ogei ta bostgarrenean
joan zan ainbeste bidean,
legoa batez aparte nuben
ikusi sartzen urean.

8

Ordubantxe ni erori nitzan
soka autsi ta goitikan,
baña ez ontzi arren gaiñetik,
ezpada nere oitikan;
kolpe ark erne para ninduben
nekarren lo artatikan,
bañan buruban ere min nola
artu nuben gogotikan,
eraman eta min zan tokiya
lotu ziraten botikan.

VII

Mundubaren beste alderdiko pelotariyak

1

Jaio nitzan lekutik
urrengo erriyan,
globo bat guk an egin
genduben berriyan;
juateko prest jarririk
plazaren erdiyan,
igoak izan giñan
Martxoaren biyan.

2

Ogei ta zortzi milla
legua bidian,
ginjuazela egun
eta gau aidian,
pelotarik ikusi
giñuzen an bian,
zestoz ari zirala
jokatzen luzian.

3

Ez genekigula non
gebiltzanik iya,
etzegoalako zeru-
pe dena garbiya,
gure globoak jorik
gabazko argiya,
plazara erori zan
goitik illargiya.

4

Esan zuten, begira
jarrita zerura,
andik erori zala
bola aundi ura;
ta bueltaka eraman
itxas ingurura,
eta an bota zuten
bulkara putzura.

5

Orduban itxasoa
kanpora joan baitzan,
bada bere tokiyan
kabitzen ezpaitzan,
ta ura nola andik
jetxitzea nai zan,
bola andik kentzeko
moduba egin zan.

6

Batek sarturik zesto
luzea urpera,
arekin zuben bola
gañera atera;
an arturikan zesto
puntan bola bera,
tira zuben plazako
tellatu batera.

7

Tximiniyaren kontran
an gelditu baitzan,
ta bere gisa nola
erortzen ez baitzan,
eskallera kanabel
loikin egin zan (*sic*)
jetxi zezaten andik
kofre baten gisan.

8

Jatxitzen ezpalira
asi zuten obe,
eskallera autsita
denak jorik goiz be,
ta azpiyan arturik
makiña bat jende,
il ziran sei pertsona
ta bi emakume.

9

Aika ta oika ziran
gelditu biziya,
globotik aitzen ziran
eriyen antsiyak;
nola millakak ziran
ezurak autsiyak,
ni esnatzez bat ziran
sendatu guziyak.

VIII

Norteko Polorako joanera

1
Norteko Polok punta nun zuben
billatzen nairik saiatu,
ontzi belako aundi batian
giñan joaten abiyatu;
eta giñanak arriskuzko joan-
era aretan fiyatu,
bale aundi bat genduben lotan
itxas erdiyan billatu,
eta ontziya bera jotzeaz
gañean zan enkallatu.

2
Elurra ari zuben, geundela
an otzak eta beldurrak;
gure ontziyan etziran egin
onetaz pilla makurrak;
txit gorde ziran soka ta belak,
burniyak eta egurrak,
bakar-bakarrik utzi zituben
estali gabe elurrak,
beren bandera zabaldubakin
ontziko arbol-muturrak.

3
Orduban zan an agertu ontzi
gerrako bat txit aundiya,
ta sinisturik gazteluren bat
zala gu geunden tokiya,
ikusitzeaz banderatuba
mendi zuri aren goya,
bolbora utsez kargaturikan
aurrean zuben kañoya,
bund!, tira zuben agurtzat, gure
aldera zanean iya.

4
Bunbatako ark esnaturikan
alper tzar lotan zeguena,
ikaratu ta lasterka asi
zan uzten leku zubena;
ta zalapartan sartzearekin
bat ura urtan barrena,
guretzat ere kendu zan traba
azpiyan genekarrena,
eta segitu genduben gure
lengo bidean barrena.

5
Lapur jigante aundiyak ziran
alde aietan ugari,
ta batek zion bere zarpakin
eldu gure ontziyari;
ta beragana naian tiraka
zala legorretik ari,
aizkorazo bat emanik beso
berrogei kanakoari,
autsi genion eta segitu
geren lengo bideari.

6
Iritxi giñan denboran polo
punta-puntarañon iya,
ez atzera ta ez aurrera zan
gelditu gure ontziya;
itxaso arrek etziruriyen
ura, ezipazan arriya;
aurrera joan nai ta ezin pasa,
ai!, ango gure larriya,
iñor an pasa etzedin zegoen
jelaz barrera jarriya.

7
Andikan oso urruti baitzan
arkituko eguzkiya,
bere dizdira urrezturikan
etzan nabaitutzen iya;
egun guziyan etzan ikusten
ordu beteko argiya,
iruri zuben alkar ikutzen
zeudela bea ta goya,
ta gaberdiyan eskutan artu
zerikela eguzkiya.

8
Andikan jira giñan Txinako
ondoko erri batera,
eta an ziran nere lagunak
pozez ontzitik atera;
nik ere nere uste osoan
salta nuben legorrera,
bañan non salto arretan anka
botako nuben lurrera,
erori nitzan txilipurdika
nere oiaren aurrera.

IX Mundu Berriyan musikaren billera edo konkurtsoa

1
Mariñel nebillela
izan zan partia:
billatu zala legor
bat txit apartia;
au zala mundubaren
seigarren partia,
ta pentsatu genduben
bertara juatia.

2
Lendabizi billatu
genduben erriya
zan orain milla urte
etzana berriya;
zarra bazuben alde
bat, bere erdiya,
zarragoa zakarren
beste alderdiya.

3
Musikuen bilkida
edo konkurtsoa
zuten erriyan festa
egun artakoa;
potpurri bat jo zuten
ura alakoa,
ark zirurin musika
beste mundukoa.

4
Nola musiko asko
an bildu baitziran,
eta denak bikañak
izango etziran,
erabakilariyak
arturikan jiran,
bat banaka probatzen
gero asi ziran.

5

Flautiñak arrantzako
kanabela zuben,
aizearekin ura
bulkatzen baitzuben;
bañan nola biatzak
aundik baitzituben,
txiruli errepikak
gaizki jo zituben.

6

Urrengoa asi zan
klarinetiakin,
ta ari zala indar
zituben danakin,
izuturik maisuba
kiyo arenarekin,
arpegira tiratu
zion batutakin.

7

Kornetiña asi zan
urren baztarretik,
aitzen zana legua
birez apartetik;
jaiotzez gorra zan bat
belarri batetik,
askoz gorrago zuben
ark utzi bestetik.

8

Baju tzar aundiyaren
aldiya zanian,
eta indarrez aize
eman zionian,
aurren bat irukirik
lotan barrenian,
aize arekin joan zan
aur ura aidian.

9

Altuba izanikan
txit kontrabajuba,
eta ura jo bear
zubena bajuba,
ibiltzeko bear zan
lekuban arkuba,
eskallera bat jarri
zuben txit altuba.

10

Zeuzkaten an sei kana
luzeko tronboia,
eta kanpana iru
zuben elikoia; (*sic*)
eta iruritzeko
alditan trumoia,
dunbalaren tokiyan
brontzezko kañoia.

11

Denak batean asi
ziranean jotzen,
konpas neurritan ongi
etziran etortzen;
maisuba zuten bullaz
zorutzen da gortzen,
ta ikusi zan atril
ta guzi erortzen.

12

Nola musikak gusto
ematen etzuben,
alkatiak segiran
ixil azo zuben;
eta neurri berriyak
artu baitzituben,
musiko denak preso
eraman zituben.

Orduban ni esnatu
 nitzan lotatikan,
 pozez libratu amets
 musikakotikan;
 oraindikan musika
 nere atzetikan,
 nolako presaz salto
 nuben oietikan.

X

Sei egun balearen barrenean

1
 Nere soin itxiya zan
 burni lodizkoa,
 nere kuartela berriz
 ontzi gerrakoa;
 nitzan soldaduetan
 bat itxasokoa,
 aietan lantza duna
 edo zaldizkoa.

2
 Giñan bein Afrikara
 juaten abiyatu,
 eta estropozo bat
 genduben billatu:
 ontzi aren azpiyan
 zerbaitzuk pillatu,
 eta bere aietan
 zan korapillatu.

3
 Traba ura kentzeko
 nere lantza artu
 ta buzo gisan nitzan
 ontzipera sartu;
 bañan an nola zuben
 baleak trabatu,
 pildoran gisan nerau
 ninduben tragatu.

4
 Nola aren begiyak
 bi leio baitziran,
 ni leio aietara
 joan nitzan segiran;
 ta kristal aietatik
 balearen jiran
 arrai klase guziyak
 ikusitzen ziran.

5

Aietara noizik bein
egiñaz balantza,
ongi guritzen zuben
gandul arrek gantza;
nik aren eztarritik
aterarik lantza,
artaz egiten nuben
nai nuben arrantza.

6

Asperturikan jaten
jankai gordin otza,
eta nik izanikan
labana zorrotza,
seigarren egunean
mozturik biotza,
eman nion arrai tzar
ari eriotza.

7

Itxas-gizonak joanik
bere baztarrera,
arpoiz jota eraman
zuten legorrera;
gero eskallerakin
joanik bizkarrera,
asi ziran aizkoraz
puskatutzen bera.

8

Kaskoa nubenean
zulotik atera,
izuz erori ziran
baletikan beera;
eta zijoazela
parte ematera,
lantzaren puntan nuben
paratu bandera.

9

Sinisturik soldadu
zeudenak erriyan,
gerrariyak zirala
aruntz joan ontziyan,
etorri ziran larru
gorriko jantziyan,
beren agintariya
zutela erdiyan.

10

Jeneralak atera
zuben sententziya:
lau tiroekin neri
kentzeko biziya;
bañan nik kontaturik
gertatu guziya,
eskatu nion egin
zairala graziya.

11

Berrirotik *kontzeju-*
-gerra egiñikan,
esan zuben, mesede
bat egin nairikan,
tiro bat barkatutzen
zirala lautikan,
eman zeizkiratela
iru bakarrikan.

12

Izubarekin ezin
arturik asnasa
negoala, esnatuta
jarri nitzan lasa;
ikaratik pozera
kolpez nitzan pasa,
ikustez zala amets
neria jolasa.

XI Globoan Amerikara

1

Zaldi gañean nihoan lasa
ibilli bat ematera,
eta zanean automobil bat
burrundan gure parera,
nere zaldiya izuz asirik
korrika gora ta bera,
asnas estuban allegatu zan
aize-errota batera,
eta biori an zaizkiguten
atzeko otzak atera.

2

Jiran zebiltzan palak artuta
bota giñuzten aidean,
ez dakit zenbat kilometruan
edo legua bidean;
goititze artan allegaturik
kanpanario batean,
ta zaldiyari trabaturikan
erramalak gurutzean,
burni artatik zintzillik giñan
gelditu biyak torrean.

3

Diña luzeko eskallerarik
gu jetxitzeko etzan an,
eta geundela bea jotzeko
beldurrez oso esturan,
uso txuri bat bezela globo
eder bat agertu zan an,
eta portunaz nola gu geunden
tokitik pasatu baitzan,
zintzillik artu azpiyan eta
gindubean andik eraman.

4

Nola globoak Amerikara
andikan bear zuben joan,
eta neketan juateko naiko
bide luzea baitzegoan,
ni gora igo ninduten eta
oso gaizki ez nihoan;
baña zaldiya nola zintzillik
eta goseak zijoan,
zortzi egun ta zortzi gau luze
juan zitzaizkigun globoan.

5

Nere zaldiya allegaturik
an gosez oso debilla,
nik ez nekiyen zer jaten eman
eta ez nora joan billa;
aiskire egiñ nuben an arotz-
degi bateko mutilla,
eta arrek maiz nola ekartzen
baitziran zur kiskur pilla,
nere aiekin mantentzen nuben
zaldi gosez erdi illa.

6

Arentzat ziran gauza gozoak
zuraren zinta lazoak,
jan ala jan ta beti geroko
bazeukaizkiyen jasoak;
nonbait etziyen gaitzik egiten
ol aren kiskur gozoak,
korputzetikan libratu bear
zuben denboran gaixoak
ikusi zuben egiten neke
gabe piñu-ol osoak.

7

Laster jakin zan zer zan zaldiyak
 berez zekarren graziya,
 nola zan oso langille on bat,
 bere gisa ikasiya;
 olak egiten ziran fabrika
 zala lanean asiya,
 ni bainitzala aren jabea
 edo bere nagusiya,
 eta arekin neukala nere
 nai nuben irabaziya.

8

Zori onean ziran neretzat
 ol txiribillak azaldu,
 aiek ainbeste bertute beste
 jankairek izandu al du?
 Alako gisan zan fama nere
 zaldiyarena azaldu,
 erostun asko sortu ziran ta
 tratuban ez nuben galdu:
 zaku bat bete urreren truke
 nuben ol pillea saldu.

9

Dirubak artu nituben baña
 nik kofrerikan izan ez,
 aiek non gorde ezin somatuz
 ibilli nitzan egunez;
 gabeen nuben oipean sartu
 zakuba betia urrez,
 bañan gau artan ez bainiduben
 loak artu ni txit errez,
 nere zakuba lapurrak andik
 ostu zeiraten beldurrez.

10

Esnatzeaz bat pozez oietik
 saltatu nuben lurrera,
 nere kuiradoz pospolloakin
 oipe ura miratzera;
 eta nabaitu nuben denboran
 ango diruben galera,
 burniyak zeuzkan leiuak eta
 ez nitzan andik atera,
 bestela penaz nere buruba
 botako nuben kalera.

XII

Ibillera bat urpe-ontzi submarinoan

Ameriketan ikusi nuben
 egiten urpe-ontziya;
 etzan makala, lego erdi bat
 luze izango zan iya.
 Egun arretan bota bear zan
 urpera ontzi mendiya,
 eta iritxi zitzaionean
 bere botatze aldiya,
 aize erdoituz bete zioten
 zeukan kaldera aundiya;
 au zan makina erabiltzeko
 zuben indar tximiskiya;

eta juan biar zuben tokiya
 nola baitzan urrutiya,
 eta besterik nola ontziya
 baitzan pintatu berriya,
 bere bidean zijoanean
 asten bazuben euriya,
 busti etzedin para ziyoten
 belakizko estaliya.
 Ontziya bota zuten denboran
 barrenen nintzan gertatu,
 tximistan gisan tximinitikan
 bera nintzan-ta ni sartu;

bañan non gorde nola ez neukan,
ain gutxi nork anparatu,
arrapatu ta sokaz loturik
preso ninduben paratu.

An nubenean nere pekatu
egin nubena pagatu,
guziyak nitaz kupitu ziran
eta ninduten libratu.

Orduban niyen nere kondaira
nolakoa zan kontatu,
eta naiko par egiñ ondoren
txorotzat ninduten artu;
ainbesterañon ziran diabru-
keri neriaz gustatu,
juanera artan ontziko denak
nerekin ziran jostatu.

Gaba zetorren gañera eta
biziro illun baitzeguen,
eta urpean naiko farola
pizturikan ezpaitzeguen,
eta ontzitik iñork argirik
iñon ikusten etzuben,
kobre-arizko soka lodiya
gure ontziyak jo zuben,
eta urpeko telegrafoa
oso puskatu baitzuben.

Ni goian dantzan nebillen eta
dardarak bota ninduben,
eta ez dakit lepoa nola
an bertan autsi ez nuben.
Izuz ontziya beste aldera
andik eraman genduben,
bañan an ere leku oberik
billatu ez baigenduben,
eliza baten torrea jota
berak amildu ginduben.

Gure azpiyan arkitutzen zan
ondatutako erriya,

eta ageri zanez zan bera
erri ondatu berriya;
gaberdiya zan ta teatroa
nola etzegon itxiya,
bere barrena ikusten zan ta
lo zegoan jende guziya;
kafe aundi bat ere artean
ageri zan irikiya,
ta sartu edo ez sartu giñan
egon an geren ontziya;
eliza ere zutikan zegoan
ta zutik torre aundiya,
bañan kanpana bueltakoa zan
torretikan eroriya,
eta zalarik brontze utsa ta
barrika bezin lodiya,
beleak zuben tragatu eta
tontoa ito zan iya.
Tragoitzar ura an ikusita
guziyak izuturikan,
itzuli giñan beste aldera
juan bere ingurutikan;
bañan au ere nola genduben
beti geren ondotikan,
ta gorde nai ta ezin gorderik
gebiltzan beragandikan,
presaz itzuli atera giñan
ur azalera betikan;
eta azkenik geren tokiya
billatu gabetanikan,
urpetik joan ta gañetik giñan
jira ostera andikan;
eta iritxi giñan denboran
oso pozez Amerikan,
non legorrera saltako egingo
nuben submarinotikan,
saltatu nuben ametsetan ta
erori nitzan oitikan.

XIII

Munduari gain batetik begira

1
Australiara nitzan
juan ni mañutara,
ango mendietako
ur famatuetera;
asto gañean igo
bear zan puntara,
illabetean nitzan
iritxi bertara,
zerutik amazapi
metro zeuden ara.

2
Ez negon damutuba
juana emendikan,
gustora illabete
pasa nuben nik an.
O zer gauzak ageri
ziran an goitikan!
Katalejuz nituben
ikusi andikan,
gitarraren soñuban
dantzan Amerikan.

3
Gero beste aldera
negoala begira,
baleak arrapatzen
ziran alderdira,
ontzitikan arpoia
bale bati tira
zioten, ta sartzez bat
emanik ark jira,
ontziyari eragin
zion tirabira.

4
Nola txalupak ere
baitziran aldian,
ta bat, an zebillela
atzekoaldian,
isatsarekin jota
botarik aidian,
juan zan gutxinaz ogei
legua bidian;
goitikan erori zan
biyaramonian.

5
Begiratu nunean
Asia partera,
izan nuben an tren bat
ikusteko era;
tunel batetikan zan
tximistan atera,
ta allegatzeaz bat
zubi zar batera,
zubiya puskatu ta
erori zan beera.

6
Erori arren zuben
korritutzen bian,
antzarraren moduban
zijoan urian;
indar aundiz juanik lau
legua bidian,
indarrak oso aitu
zitzaizkionian,
urak berekin zuben
eraman aidian.

7

Afrikan gogor ziran
ari gerreruak,
iruri zuten ango
gizonak eruak;
ain ziran atrebituk,
ain ziran beruak,
tiratzen zubenean
bonba morteruak,
aidian eltzen ziyon
bonbari moruak.

8

Batek aidian eldu
tira zan bonbari,
bere parian goitik
jetxitzen zanari;
ta itzaltzeko metxa
kentzen zala ari,
lertu ta pitza zion
puskatu berari,
eta antiejuak
tanbor maiorrari.

9

Segiran Europari
nion begiratu,
onek zer gauzak zeuzkan
nola argiratu?
Ezin nun onegandik
begirik jiratu,
au nuben katalejuz
ongina miratu,
oni nizkan grazirik
aundinak billatu.

10

Orko burnibidea,
emengo ontziya,
ango kobre-arizko
argi tximiskiya;
non-nai lan-etxea ta
non-nai tximiniya,
tupatuta boteaz
denak ke aundiya,
urrearen kez zegoan
goia estaliya.

11

Mañuk artu ta oso
ongi jarririkan,
astoan asi nintzan
jetxitzen andikan;
eta asto ta guzi
an amildurikan,
non eroriko nitzan
asto gañetikan,
ametsetan erori
nitzan oietikan.

Euskal Erria, 1907-1908

XIV
Nere ametsak
Mundubaren azken puntako berriyak

1
Itsasoz giñan nora ere bait
nunbaititikan atera,
belako ontzi eder batian
urrutineko partera;
ta bi urtean ibillirikan
jo gora ta jo beera,
egoatikan iritxi giñan
munduan punta batera.

2
Polon giñan ta lurreratzeko
utzi genezan an ura,
salta genduban ontzitik, oni
bertan botata aingura;
ark etzirurin mundu au zanik,
beste gauza bat zan ura,
lego erdi bat bide egongo
etzan andikan zerura.

3
Uda berriya zan ta sagarrak
ageri ziran asiyak,
ordukoz zeuzkan urre biurtuk
ango lurraren graziyak;
eztiya bañon gozoagoak,
nola gertatu guziyak,
beren barrenen bazeukaizkiten
diamantezko aziyak!

4
Lurretik goia txit zeguan alde,
tarterik etzan an iya,
ala au bazan puntaz zeruba
ikutzen zuben mendiya;
ta illargiya nola ikusten
baitzan aldetik aundiya,
mendi artatik arrapa zeiken
eskuz gabazko argiya.

5
Lore tartian iturri eder
bat zegoan jardin batian,
txanpain ematen zubela zur-zur
kañu lodiyak betian;
pozik sartuta egondu giñan
txanpain eranaz beti an,
bañan urrezko legoi aundi bat
zegoan guardiyan atian.

6
Andikan alde erri bat zegoan,
bañan ai ura erriya!
Gaur Beneziak ez du balio
ederrez aren erdiya;
zeukan milla lan, onen artian
bat txit begiragarriya:
ur zelai zabal baten erdiyan
teatro egin berriya.

7

Jira guztiyan zeuzkala bere
apaingarritzat jardiñak,
arku gañean egiña zegoan
zeuzkan arrizko lan fiñak;
pillara, talluntz, gizon itxurak,
marmol lustratuz egiñak,
etziran nolanaikoak ura
moldatau zuten argiñak.

8

Ate burnizkoz itxitzen ziran
jirako arkuk dianak,
ziran mugira¹ baten indarrez
kolpez zabaltzen ziranak;
beragatikan subak egin nai
arren aguro an lanak,
estutasunik gabe salbatu
zitezken errez an danak.

9

Dena burniz ta arriz egiña
zan, ark etzeukan zurikan,
etzan billatzen iñon puska bat
subak erreko zunikan;
iñoiz gertatu al baziteken
teloi traputan surikan,
utzi erretzen, itzalitzeko
etzan an bear urikan.

10

Artan esnaturikan
amets artatikan,
zilipurdika nitzan
erori oitikan;
eta nola min nuben
artu gogotikan,
enplasto bat paratu
ziraten botikan.

¹ Mugira: *el motor*. (Egillearen oarra).

**Gipuzkoako Probintziaren
kondaira laster bat
Españiako beste zenbat pasarterekin**

Itz neurtuz moldaera

**Bere zuzendaria
Ramon Artola**

**Donostian
1874**

Oarra

Ramon Artolaren lan luze au *Euskal Erria* aldizkarian agertu zan, 1908 eta 1909 urteetan.

Lanaren azalean, goiko ertzean *trabajo inédito* esaten da; eta beean urtea: 1874.

Ramon Artola, 1831-n jaioa baitzan, berrogei ta iru urte zituan 1874-an; eta eriotza, berriz, 1906-an, irurogei ta amabost urterekin, gertatu zitzaion. Ala, lan au, egillea il eta andik bi urtera asi zan argia ikusten. Beraren seme-alabak aurkituko zuten, aitag utzitako paperetan.

Orijinal ori, ain zuzen, esku-idatzi ori, aren ondorengo batek gordezen du gaur egunean, Koldo Artola adiskideak alegia. Argitalpen au egiteko, gure eskuetan utzi du, eta berari kopiatu diogu, eta ez *Euskal-Erria* aldizkariari.

Onek, izan ere, oker kopiatuak baditu an eta emen, eskuz idatzitakoa ondo ulertzen ez da beti erreza eta.

Bertsoak aurreko zenbakirik ez dute. Orregatik, guk ere orren gabe utzi ditugu.

Bertsoak bina puntukoak dira, lauukoak, alegia, lau lerrotan idazten diranak. Artolak, ordea, zortzi lerrotan eskeintzen ditu. Guk, leku irabaztearren, launa lerrotan eratu ditugu.

Garai artako euskalzaleak asmatutako itz berriak ere erabiltzen ditu emen Ramon Artolak. Baiña oiek etzuten iraun. Berealaxe baztertu ziran. Aien esan-naia Artolak zenbait aldiz argitzen digu. Besteetan ez, ordea. Ala ere, esaldiaren barruan errez ulertzen dira.

Donostiako Baroja moldiztegiak ere argitara eman zuan Ramon Artolaren lan au, liburuska batean, 1909 urtean.

Agerkaitxo

Askok ez duelarik
onela usteko,
beldurrez egondu naiz
lan oni eusteko:
egon naiz ere asi
ta gero uzteko,
ez uzteko bakarrik,
gañera austeko,
ez neronek geiago
bera ikusteko.

Motxa naiz ni lan modu
oetan asteko,
itz larrizko kontuak
neurtukin jartzeko;
ala, asko palta zait
zerbait ikasteko,
bakarrik det balio
baztarrak nasteko,
ez moldatxu alkarri
itzak erasteko.

Ez nuan usterikan
gai ontan sartzeko,
onenbeste itz neurtu
emen ezartzeko.
Nor naiz ni len ez diran
modak ekartzeko:
kondaira bat oso
itz neurtun jartzeko?
Uzteko ohea da
lan au; ez artzeko.

Gipuzkoaren kondaira

Ugol¹ aundiya izan da andik
berregunen bat urtera,
Noe zanaren illoba bat zan
Armenia-tik atera.

Au zan lenengo Españiara
allegatu zan gizona,
beraren ondakidatzallea²,
Tubal baitzuben izena.

Lendabiziko zein alderditan
bizi izandu zan bera,
seguru oso ezin da jakin;
ez da argira atera.

Jaun kondairagille askoren
uste izate moduban,
Euskal Erriyan bear zuben ark
bizitu izan orduban.

Arengandikan dala euskera
uste da gaur guk deguna;
bere oroitza utsak biotza
arras gozozten diguna.

Orduko gauzak, esan dan gisan,
gaitzak baitaude argitzen,
bear bezela izkribatubak
ez diralako arkitzen.

**Kartagotarren eta erromatarren aldia edo epoka.
Berregun urtez Jesukristo bañan lenagoztandik bosgarren egun
urte aldia edo sigloaren aurrenerañon.**

Lur Gipuzkoa zan librea eta
zorionaren jabea,
arkitu bazan ere ondoren
doainde gozo gabea.

Onen kaltean ziran onuntza
erromatarrak etorri,
beste lekubak beren mendera
zituztenean ekarri.

Lur au nai zuten menperatu ta
bestiarekin batera;
bañan usteak etzitzaizkaten
oso nai eran atera.

Españiaren txoko onetan
izan zuten zer pentsatu;
gañerakoa menpetu arren
au ezin zuten mentzutu.

¹ *Diluvio.* (Egillearen oarra). ² *Fundador.* (*Id.*)

Kantabriarrak Astureakin
egiten zien gerra bat,
non arterañoen etzuben izan
gaiztoagorik bat anbat.

Tropa aundiyak ziralarikan
etorri lenengotikan,
etzuten beren naieran iñoiz
zapaltzen emengorikan.

Eta berriyak etorri bear
izandu zuten gerora,
ikusirikan alperrik galtzen
zitzaioleta denbora.

Oiek saltatu izandu zuten,
etorririkan uretan,
Pasai biyetan, Donostian ta
Getariako kaietan.

Mario Agripa zutela buru
denak bildurik batera,
oso ausardi aundiz baitziran
leia bidera atera.

Ernio mendin zeuden besteak
prest aien kontra asteko;
alkar denboraz billatu zuten
batak bestea austeko.

Erromatarrak igotzen asi
ziran denboran mendiyan,
besteak sartu zitzaiozkaten
oso bultzada aundiyan.

An izandu zan izugarrizko
odol ixurtze aundiya;
asko galdurik, erromatarrak
etzuten artu mendiya.

Jipoi gogorra eraman zuten,
oso gogorangarriya;
mendi arretan txit zapalduba
izan zan jende berriya.

Jaun ta jabea Zesar bera zan
azkenik onuntz etorri,
Euskal Erriyan zer pasatzen zan
ezin zubela igarri.

Tropa aundiyak para zituben
bi aldi edo partetan;
eta berriro eraso zuben,
bañan zertako ta zertan?

Jaun bera ere ezin egin ta
berak nai zuben guzirik,
gerra bukatu bañan len joan zan
tropak besteri utzirik.

Kaio Antistiok artu zituben
gerrari arrek utziyak;
lanikan asko izan baitzuben
ezin gorderik guziyak.

Jeneral eta soldadurikan
onenak ziran galdutzen;
zutik ziranen indarrak ere
ikusten ziran aulduzen.

Azkenik ere etzuten egin
berak nai zuten guzirik;
balleratze³ bat denen artean
izan zan, leiak utzirik.

Onela dute argibidatzen
kondairarik zarrenak:
lur ontan jarri etzirrela
lege erromatarrenak

³ *Convenio. (Id.)*

**Norteko zenbait jende arrotzen eraso
eta godoaren aginpe aldia.**

Bostgarren egun urte aldetik zazpiregun da amabi urtetarañon.

Bostgarren egun urte aldiyan
eta beraren lenendik,
zenbait arraza Españiara
etorri ziran nortetik.

Godoak ziran Españiaren
leku askoren jabetu.
erromatarrak naiz ez oraindik
oso guziyaz gabetu.

Suebo, alano ta bandaloak,
guziyak aldi batean,
izandu ziran allegatubak
Españiaren kaltean.

Kantabriarrak nola oekin
balleratubak baitziran,
beste arraza guzien kontra
gogor mintzotu oi ziran.

Gaitzak, gosea eta izurra⁴
ziran dierri⁵ onentzat,
sortu ziranak beren etortzez,
zori gaiztoan denentzat.

Batik-bat ere euskal erritan
asten baziran sartutzen,
kontu gabetzen ziranak jipoi
ederrak artzen zituzten.

Urte batzuben geroagora
godoak ziran etorri,
zeñak giari edo buruzai
Ataulfo zuten ekarri.

Emen godoen mendean iñoiz
jarri nai izan etzuten;
beti gerran da ez-bai nastutan
asko supritu oi zuten.

Jaun au izan zan godoakgandik
erregetzako autuba,
lendabiziko Españiako
beren koroa artuba.

Zazpi errege ziraren egun
urte arretan izandu,
erromatarren agindearen⁶
menpe ziranak egondu.

Ordukoz ziran erromatarrak
arkitzen sopra aulduta,
lengo indar ta aunditasunak
iya guziyak galduta.

Eurikok zuben aginetza au
Españiatik atera;
bi aginpetan zan lekuban len
ark para zuben batera.

⁴ Peste. (Id.) ⁵ Nación. (Id.) ⁶ Imperio. (Id.)

Laguntzik gabe arkitu ziran
orduan Euskal Erriyak;
etzuten beste arrimorikan
ezpada beren mendiyak.

Alaz guziyaz aurpetzerikan
etzuten iñoiz pentsatu;
denari gogor egin zien ta
etziran beintxe mentzutu.

Araberen aginte aldia.

Zazpiregun ta amalau urtetandik milla ta berregunetarañon.

Garai arretan Korango armak
Goadeletetik pasata,
godoak itzul joan ziran beren
leku on denak lajata.

Sarri gertatu zan jo latzean,⁷
irten zan garaipenean,
zeñatatakan bere izena
jakin zan leku denean.

Oen lekuban Españian zan
sartu moroen arraza,
zeren kanpora botatzen etzan
izan gerora erraza.

Leiatze artan egin zituen
asko il eta eritu;
gañera zuben obispo jaun bat
arrapatuba gelditu.

Guziz mudantza aundiak ziran
oen etortzez ikusi;
lenengo gauza erlijioa
zuten tratatu itsusi.

Lei aundi artan etsai, bizia
salbatu izan zutenak,
mendi aundi bat amildu zanak
lertu zituen geienak.

Maomarena zutitu zuten
kristandandea kendurik,
lur ontan izan ezpazan ere
onetarako modurik.

Milagro batez artu zan ala
mendiyak bea jotzea,
eta kristauen kontra zebiltzan
aiek azpiyan lertzea.

Kristauak asko etorri ziran
kanpoetatik onera,
zeñak bat-durik euskaldunakin
ziran gerrara atera.

Au zala bide altxatu zuten
bertan eleiza berriya.
Kobadongako Ama Birjiña
izandu zana jarriya.

Pelaio bat zan Asturiasko
mendi aunditan azaldu,
zeñagandikan baitzan kristauen
indarra bertan zabaldu.

Kalte aundi au zuten denboran
afrikatarrak ikusi,
izuturikan ingurutako
denak joan ziran igasi.

⁷ *Batalla. (Id.)*

Kantauriarrak Pelaiorekin
lagun txit izan oi ziran,
leku denetan moroen kontra,
gainduak beti baitziran.

Estimatuak izaten ziran
oek alderdi denetan,
beti ausardi aundiz leiatzen
zirarelako benetan.

Ala aurrera ibilli ziran
moroak asko auldubaz,
lengo erromatarraren gisan
zuten indarra galdubaz.

Karlomagnoaren deseigoa edo derrota

Lengo garaipen aietatikan
geroz eun bat urtera,
Euskal Erritik berriro ziran
irten bedekart⁸ batera.

Enperadore Karlomagnoari,
Ronzesballeko partean,
jipoi gogor bat eman zioten
mendi aundien tartean.

Jaun au zijoan Españiatik
Frantzira bere tropakin,
Panplonan ziran murallak bota
ta andik zuben aldegin.

Ronzesballesen sartu zanean
an zan ibilde larriya:
bere jendean izandu zuben
kalte ikaragarriya.

Onetatikan Pelaiio baitzan
gero errege izandu,
au zan godoen eratik lenen
zana agintzen egondu.

Onengandikan segitu zuben
erregien oin berriyak,
zeñen gertatzen diran asturi-
arrak jargoian jarriyak.

Aurretik bera zijoalarik
gertatu baitzan bizirik;
bañan ondoren zeramaizkinak
bizirot gaizki utzirik.

Abekari⁹ on zubena ere
au zan geiena gelditu;
asko eraman bazuen ere
gutxik zioten segitu.

Karlomagnoaren urrena Roldan
zana an buruzariya,
onek ere an utzi izandu
baitzuben bere biziya.

Orduko gerra kantuak daude
kondairetan euskeraz;
bai eta ere arkitzen dira
biurtsaturik erderaz.

⁸ *Encuentro. (Id.)* ⁹ *Caballería. (Id.)*

**Milla ta berreun urtetandik
milla ta irureun da berrogei ta amarrerañon.**

Milla ta berreungarren urtia
aldi siñalagarriya,
Gipuzkuak egin izan zubena
segi bide bat berriya.

Urte berean alkarganatu
ziran Kastilla ta biyak,
zeñak geroztik segitzen duten
lege bat bidez anayak.

Lenago zeguen Nafarroakin
Gipuzkoa orla bat-duba,
zeñak asarez urte berean
urratu zuten tratuba.

Gipuzkoa etzan oso naikidan
Nafarroako erregez,
nonbait txit zuzen etzubelako
kunplitzen bear zan legez.

Garai arretan zeguen Alfonso
zortzigarrena errege,
bañan au baitzan Kastillakoa,
emen etzuten batere.

Jaun onen mende jarri nai izan
zuben Gipuzkoa osoak,
ikusirikan onetaz bildu
zitzala frutu gozoak.

Banaindea¹⁰ zan zeuden fueroak
aurrera ere uzteko,
Kastilletako lege igualik
ez emen jartzen asteko.

Bera ordaintzan beartzen bazan,
berari ere Gipuzkoak
laguntzekoa, emanaz indar
legorrezko ta udekoak.

Ogei ta zortzi Urriyarena.
eta esan dan urtean,
egin izandu zan agerkaia¹¹
lege fueroen gañean.

Zeñean ziran ontzakidatu,
begirunde on denakin,
bortxatu gabe gordakaitzeko
berak oitura onakin.

Gañera garbi siñalaturik
nungo probintzi onenak:
Bizkai, Alaba, Nafarroa ta
Frantziarekin daudenak.

Irakaste au firmatu zuten
artzobispo ta obispoak,
eta oekin beste goimallan
zeuden buruzai bertakoak.

Emen Domingo Luzuriaga zan
diputaduba orduban,
jaun onek amar adimaitzekin¹²
juramentatu baitzuban.

Zeñak firmatu zuten Gipuzkoa
legez juateko lenean,
Kastillakgana arrimatuba
erregearen mendean.

¹⁰ Condición.(Id.) ¹¹ Escritura. (Id.) ¹² Comisionados. (Id.)

Artaz aurrera gisa berean
segitu izan baitute,
eta aurrera ere asmorik
alkar uzteko ez dute.

Geroagora joan zan errege
Frantziyan zuben gerrara,
eta laguntzan gipuzkoatarrak
pasatu ziran bertara.

Beren gai denaz lagundu zien
euskaldun aiek berari;
oso bukatu zan arte gerra
etziran andik etorri.

Geroagoan Alkoraz-en da
Ubeda-n ziran izandu;
aietan ere asko zioten
erregeari lagundu.

Andaluziko gerrara gero
joan izan ziran emendik
zuten ontzide aundiarekin,
itxogon gabe, lenendik.

Amairu ontzi bertakorekin
euskaldun jendez beterik,
Sebillarañon pasatu ziran,
Bonifaz buru arturik.

Moroari an autsi zioten
beren ontzide zutena;
ibai Trianan zeguen zubiya
ere izan zan etena.

Zubi onekin baliatutzen
ziran lagun anparoz;
ala, moroak arkitu ziran
preso, bota zan ezkeroz.

Luzaro gogor arkitu izan
bazan da ere Sebillan,
ordutik ango moro jendien
indarra izan zan illa.

Erriberaren aurpetutzea¹³
gertatu baitzan segiran,
ala gipuzkoatar an ziranak
lenaz goititu baitziran.

Ondorengoan milla irureun
eta ogei ta batean,
nafarrak eta frantzesak ziran
etorri beren kaltean.

Berastegi ta Gaztelu, biyak,
kiskalirikan aurrena,
gero Tolosa nai zuten erre
bi erri oien urrena.

Bañan gipuzkoatarrak segiran
beren bidera irtenik,
etzien utzi izan egiten
berak gogoa zutenik.

Gil Lopez Oñaz zutela buru
Beotibarko gañean
itxogon zien, gero lertzeko
mendi beraren oñean.

Bildurik sarri ingurutako
kupel barrika ziranak,
an prest paratu zituzten, gero
amildutzeko dianak.

Karez ta arriz bete zituzten
etsaien kontra asteko;
mendi tartean iristen ziran
denboran denak austeko.

¹³ *Rendición. (Id.)*

Ala, iritxi ziran denboran
tropa aurretik ziranak,
amildurikan kupel barrikak
galdu baitziran geienak.

Aien estura ikusitzeaz,
ziranak ondorendikan
guziyak itxumustuban ziran
itzul abitu andikan.

Bañan orduban bertan sarturik
gipuzkoatarrak gañera,
il da eritu asko egiñik
kendu zioten bandera.

Berekin zuten konboia ere
an utzirik joan baitziran;
balio ura gordekaitzeko
diña izandu etziran.

Errege baten semeak ere
biziya utzi zuben an;
arekin beste zenbait aundizki
ere gelditu zan bertan.

Geroztik beti bordoi-dantza bat,
batalla arren oroitzan,
bertako patroï San Juan egunez
jolasten dute Tolosan.

Andikan laster Nafarroara
tolosarrak joan baitziran,
an ere beren egiteetan
gutxi azaldu etziran.

Gertakaitzen zan asarre baten
bidez baitzuten eraso,
zeñetan artu izan zituzten
sarri Leitza ta Areso.

Milla irureun eta ogei ta
amabostgarren urtean,
gerra berri bat irazeki zan
errege biren artean.

Nafarroa ta Kastilla ziran
beren artean okertu;
onetan ere erregeari
asko zioten lagundu.

Geroz Salado-n ere agerkai
onak txit eman zituzten;
beren jo aundiz etsaiak beti
menperatzen baitzituzten.

Ala, lantza ta beste armetan
azalkai para zitzaten,
eskudo edo ezkutariak
erregek eman zizkaten.

Ondorengoan Aljeziras-ko
bollerzan¹⁴ ziran izandu,
zeñen an ere gipuzkoatarrak
ez baitziran lo egondu.

Juan Beltran Belez buru zutela
egondu ziran an bertan,
iya bi urte pasa zituzten
joanera artan armetan.

Ondo ageri baita Gipuzkoak,
bear denbora zanetan,
leial segitzen zubela bere
arma kontuko lanetan.

¹⁴ Cerco. (*Id.*)

**Milla ta irureun da larogei ta amarretik
milla ta lareun da irurogei ta amalauraño.**

Aldi onetan Euskal Erriak
zeukan ontzi-sall aundiya;
nornairen kontra jarri ziteken
indar mirestugarriya.

Beartu bazan da ere gero
bere onekin uretan:
ingelesaren kontra bi aldiz
ill eteneko leietan.

Lenaztandikan beren gauzetan
ziranak oker utzitu,
denboraz zuten alkarren kontra
jartze bidea arkitu.

Itsas erdiyan eraso zien
gogor da biyak batean,
zeintzuk etziran gelditu izan
alkar urratu artean.

Leiatze artan garaildandea
denboraz baitzan azaldu:
euskaldunentzat irten zan ongi,
ingelasa zan txit galdu.

Leiatze artan galdu baitzien
zuten jenderik onena,
euskaldunentzat gelditzen zala
ontziderikan¹⁵ geiena.

Atsekabe au ingelesentzat
izan zan penagarriya,
emengoentzat gertapendu zan
bezela glori aundiya.

Andik gerogo aiek plantatu
zuten ontzide berriya,
euskaldunari egin ziona
kalte ikaragarriya.

Oenak ogei eta bost ontzi
an galdu izan baitziran;
zan ontzidetik eskapatuak
bost baizik izan etziran.

Bañan aitortzen dute ingeles
kondairatzen dutenak,
balienteak izan zirala
an aldi artu zutenak.

Donostiako gorde-lekutan¹⁶
ere baziran paperak,
gaur ezpadira ere arkitzen
erre baiziran-da berak.

¹⁵ Armada. (Id.) ¹⁶ Archivos. (Id.)

**Milla ta lareun da irurogei ta amalau urtetatik
milla ta bost eun da amaseirañon**

Aldi onetan España zan
txit arkitutzen pobrezan;
diru ondorik etzeukan eta
menandea¹⁷re galdu zan.

Gura gogorak aurretik izan
zitubelako ugari,
arkitutzen zan, esan dan gisan,
oso lur joa, txit eri.

Errege berri Katolikoak
orduban ziran koroiu;
oek baitzuten España lurra
joa zegoana goititu.

Nonbait zerubak siñalatuba
zeukan egun bat artean,
zeñen naigabe guziyak iya
bukatu ziran batean.

Isabel baitzan erregeña ta
bere senarra Fernando,
oen denboran zan España
orondur izan txit ondo.

Menperatutze Granadarena
zan oengandik izana;
egite ontaz ez baitzan gutxi
goititu beren izena.

Onen ondoren gertatu baitzan
Mundu Berriya billatzea,
Kristobal Kolon Españiatik
Amerikara jiratzea.

Erregeñaren laguntzak zuben
gizon au aruntz eraman,
zeñen etzion Españiari
altxatze gutxi ark eman.

Aldi berean Naparroako
erregetza zan bukatu;
onen koroiak Kastilletako
erregeña zan jabetu.

Afrikarañon zan eramana
izan espagnol bandera,
zeñetatikan ez baitziran-da
onra eskasak atera.

Andikan laster baitzan Gipuzkoa
kaltarkaitua gertatu;
bere lurrian zitzaizkan frantzes
tropa aundiyak txit sartu.

Ondarrabiya sinitatuba
izan zan berakgandikan;
protxu onikan ez baitzuten-da
ere atera andikan.

Donostiako inguruz ere
laster baitziran jabetu;
bañan etzuten saiatze aundik
egiñakgatik au artu.

Zurriolako murruba nola
baitzan mien ta aulena,
sutunparekin danbaka bera
bota baitzuten aurrena.

¹⁷ *Crédito. (Id.)*

Zulazkera bat gertaturik an
saiatu ziran sartutzen;
bañan barrendik gogor egiñik
plazik etzuten artutzen.

Bi egunean segitu zuten
ala baztarrak autsitzen,
plazik artuko etzutenikan
etzutelako etsitzen.

Aizkenik ere jendea franko
galduta, beren temari
utzi zioten, erasotzeko
beste petralen lanari.

Txarkeriz beren iges-bidean
sutu baitzuten Oiartzun;
eta segiran Errenteriya,
nola Ernani ta Irun.

Iru milla ta bost egun gizon
armaturikan Gipuzkoan,
atzeman naian beren ondoren
Naparrorañon ziran joan.

Erpozturikan Elizondotik
oso aldean, Belaten,
sutan segiran asirik, jipoi
aundi bat eman zioten.

**Milla ta bosteun da amasei urtetatik
milla ta bosteun da larogei ta emezortzirañon.**

Gipuzkoan ziran gizon aundiyak
aldi onetan azaldu;
berakgatikan lur onek onra
gutxi geroztik ez al du.

Leiatze artan frantzesak asko
ziran il eta eritu;
eta amabi kañoi oenak
emengoentzat gelditu.

Jipoi arretaz izaturikan,
Naparroatik segiran
etorri bañan umilkiago
beren lurrera joan ziran.

Gipuzkoatarrak entregaturik
kañoi atxitu guziyak,
erregiñarengandikan jaso
izan zituzten graziyak.

Zeñen onratzat agindu zuben
itxuragarri artzeko,
gipuzkoatarrak ezkutarian¹⁸
beren armatzat jartzeko.

Ala izandu ziran jarriyak
bertan diranak arkitzen;
egite aundi gertatu zana
baitigutena argitzen.

Bat On Sebastian Elkano baitzan,
maitatutzen zan gizona,
mundu denari buelta lenengo
eman izandu ziona.

¹⁸ *Escudo de armas. (Id.)*

Getariako seme onaren
izena dago altuban;
onen berririk ez dubenik bat
iya ez al da munduban.

Ignazio bat Loiolakoa,
Panplonan zana eritu;
au izandu zan santu egiña,
zuen asko meritu.

Juan de Urbieta, Ernanikoa,
batalla gogor batean
errege preso egin zuena
Italiako partean.

Eta On Migel Lopez Legazpi,
Zumarragako semea,
Filipinaren kenkidaria
edo konkistatzallea.

Oek gaindubak utzirik joango
gera aurrera segitzen,
ontaz gerozko gauzak nondikan
ta nola diran argitzen.

Ondarrabiya, milla ta bosteun
eta ogei ta batean,
frantzesak artu izandu zuten
españolaren kaltean.

Bañan nola zan Ondarrabiya
artu izandu orduban?
Artu izan zan etzegolako
indarrrik diña barruban.

Sutunpadiz¹⁹ txit eskas baitzeu-
den,
tirakaiz²⁰ ere txit urri;
zer jana berriz palta zitzaien,
arkitzen ziran biurri.

Oez gañera murrubak ere
arkitzen ziran autsiyak;
iruri zuben zirala beren
kontra ekaitz txar guziyak.

Au jakiteaz frantzesak plazan
sartzen saiatu baitziran;
bañan iru joan-aldi egiñik
ere jabetu etziran.

Erakutsitzen zuten naiera
aundiya aruntz sartzeko;
bañan, esan dan gisan, etzuten
izan modurik artzeko.

Ontan zirala, Diego de Berak,
jaun zegoanak an orduban,
baldindetze²¹ bat egin baitzuan
berak nai zuan moduban.

Plaza errendi arazo zuen
frantzesen mende jar zedin;
nonbait gerora okerragoko
konturik gerta etzedin.

Bañan au ontzat artu etzuten
Tertzio plazan ziranak;
ez ere ango aiuntamentu
ta beste jende dianak.

¹⁹ *Artillería. (Id.)* ²⁰ *Municiones. (Id.)* ²¹ *Capitular. (Id.)*

Tertzio esan diranak ziran
irten plazatik armakin;
errenditzeko tratua ala
egia zala zan jakin.

Aiuntamentu osoa eta
jauntxo ziranak erriyan,
frantzesak preso eramanikan,
bizitu ziran Frantziyan.

Ala, frantzesen mende egon zan
ondoren gero erriya,
milla ta bosteun eta ogei ta
lau urte, Ondarrabiya.

Nola aundiyak diran gertakai
izanak erri onetan,
luzetxo ezin geldi gintezke
bere pasarte denetan.

Onen kontuak ondoregoan
baitaudelako jarriyak,
berak lajarik, aurrera joango
gera kontatzen berriyak.

Italiara aldi onetan
tropak joan ziran gerrara,
zeñen Gipuzkoak ere jendea
bialdu zuan bertara.

Italiako tropakin ziran
Españikoak batean;
gipuzkoatarrak ere berakin
guziak ziran partean.

Frantzesa zuten kontrarioa,
leiatzea zan onekin;
zeñari eman zien jipoiak
ez baitzion txit on egin.

Errege an zan preso gelditu
Juan de Urbietagandikan,
zeña Madrida geroagoan
zuten eraman andikan.

An preso zenbait denboran egon
eta Frantzira jira zan,
onetarako preso bi seme
utzirik bere fiantzan.

Oek bost urte geroagora
arte libratu etziran;
orduane ere dirua franko
pagatu eta joan ziran.

Garai onetan España zan
gerra askotan gertatzen,
zeñen denetan gipuzkoatarrak
baitzuten parte artutzen.

Nola Granadan moroen kontra,
geroago San Migelen;
Italiyan ta Frantziyan ere
bai, eta ala Flandesen.

Felipe baitzan, bigarrenkoa,
errege aldi arretan,
zeñak paratu zuan bandera
iya alderdi denetan.

Flanden, Afrika ta Amerikan,
Italian ta Asian;
Españiari ongite ona
erausten zien guziyan.

**Milla ta bosteun da larogei ta emezortzi urtetatik
milla ta zortzireun da zortzitarrañon.**

Altxatze iru errege lenak
egin izandu zutena,
gerozko beste irurak zuten
lurrera iya geiena.

Felipe irugarrenak zion
bigarrenari segitu;
zeñak etzuben bereganatu
lengoak ainbat meritu.

Garai onetan abiatu zan
lengo trafika aulduzen,
aunditasun da irabaziyak
eskasten edo galdutzen.

Itxasoz etzan lengo indarrik,
ez eta ere legorrez;
galtzen ikusten ziran lekubak
gaitz irabazi ta errez.

Milla ta seireun eta ogei ta
emezortziko urtean,
frantzesak sartu izandu ziran
Españiako lurrean.

Printzipe Kondek tropa aundi bat
zuben legorrez ekarri;
eta itsasoz zan artzobispo
Burdeoskoa etorri.

Lendabiziko saiatu ziran
Ondarrabiya artutzen;
bañan barrenen zeuden indarrak
etzien utzi sartutzen.

Ingurutako berregun etxe
erre zituzten aurrena;
beste berrogei eta geiago
baserri berriz urrena.

Oek gañera lau burni ola
eta amalau errota;
Ondarrabia sitiatura
izan zan aiek erreta.

Agor illaren lenendik zuten
txit itxi Ondarrabiya,
gero puskatzen segi zezaten
lenaz etzana berriya.

Zazpireun gizon ziran tropatik
orduban plazan ziranak,
eta konpañi bi Tertzioak,
oek baitziran dienak.

Bañan beste bost eunen bat gizon
andikan egun gutxira,
Donostiatik joanik laguntzat,
sartu zitzaizten errira.

Andik aurrera zer pasatzen zan
gerrari aien artean
argitzen ez da errez onlako
kondaira laster batean.

Kanpokoak maiz zien sutunpaz²²
barrengoari ekiten;
bañan bai ere oek zituzten
ateraerak egiten.

²² *Cañonazos. (Id.)*

Gutxien uste zan aldietan
gabaz irtenik erritik,
igual pasatzen zitzaizten frantzes
aieri beren erditik.

Egiñaz zenbait kalte beretan
eta sartuaz izuba,
ala frantzesak zeukaten leku
artan egote pisuba.

Bañan bai ere ari baitziran
kañoiak murruetara
arrimatutzen, erasotzeko
gero bertatik bertara.

Ala, eraso zien bezela,
eta guziak batean,
gelditu gabe, murrak oso
autsi zituzten artean.

Egun batean leku batetik
bakarrik tira ta tira,
zazpireun bala kañoiko sartu
izan zituzten errira.

Nola batzuek ala besteak
seta gogorra baitzuten,
eta nork beren punturik nola-
nai utzi nai ez baitzuten.

Plazan ziranak oso esturan
baitziran beti arkitzen,
eta iñondik laguntzallerik
etzitzaioleten argitzen.

Zizkatenean kañoiz ta minaz
murrak porrokatutzen,
frantzesak asten ziran urratu
aietatikan sartutzen.

Bañan barrenen ziranak ere
aurkezturikan gogorki,
pagatzen zuten sartu naiean
asten ziranak ederki.

Ontan Printzipe Kondek abisu
bat pasa zien, au ala:
errenditzeko plaza, bestela
galdu bearrak zirala.

Zeñen eskintzen zien baldinde²³
bat oso onragarriya:
irtetekoa beren armakin,
uztera libre erriya.

On Diego Butron buruzari ta
alkate zanak orduban,
an ager zeien erriko denak
bildu arazo zituban.

Adi erazo zien bezela
nola frantzesen berriya
izan zan onraz errendi zeilla
gordetzen zuten erriya.

Bañan aitatzen bazuen iñork
errenditzeko gauzikan,
armaz pasia izango zala
beretakoakgandikan.

Bere aldetik ark emezortzi
milla errial zillarrak
an zeuzkala, nai baziran egin
berakin urtu ta balak.

Allegatutzen baziran neurri
modu artako larriyan,
aiek tirata sartu bearko
zutela Ondarrabiyan.

²³ *Capitulación. (Id.)*

Ango jendeak etzuben izan
lenaz berotu bearrik;
denak itz sendo batean zeuden
ez utzitzeko jarririk.

Ala erantzun zien Printzipe
Konderi berak segiran:
asi zedilla nai zubenean
sartzen indarrez erriyan.

Etzeukatela indar paltarik,
tirakaienik²⁴ ere ez;
joan zitezela nai zutenean,
ez gelditzeko bildurrez.

Sarri sentitu ziran dunbada
aundi bi erri guzian,
egiñak mina zulotan lengo
muru zar erdi autsiyan.

Eta segiran zan asalto bat
izandu leku beretik;
bañan etziran ongi atera
frantzesak jolas artatik.

Andikan laster egin zituzten
gogor beste bi sarrera;
bañan etziran aietan ere
frantzesak ongi atera.

Bañan urrengo eguna baitzan
izan oroimengarriya:
galdu zirana frantzes asko ta
libratu zana erriya.

On Juan Alonso buru zubela,
tropa aundi bat bertara
allegaturik, segiran sartu
izan zan frantzesetara.

Eta joaldi gogor batez an,
mentzuturikan frantzes,
botia izan baitzan etzana
izan botatzen erreza.

Juanera estu artan zituzten
utzi gauz onak ugari;
eta gizonak, ez gutxi, urtan,
pasa eziñik igari.

An utzi zuten erantzukida²⁵
ta alajeri diana;
eta oekin kanpamentuba
Printzipe Kondek zubana.

Frantzesetatik izandu ziran
milla ta bosteun bat illak:
eta, oezaz gañera, beste
bi milla preso egiñak.

Ontaz bukatu baitzan ertsitu²⁶
gogor frantzesak jarriya,
onraz apainki gelditurikan
Ondarrabiko erriya.

Gertakai aundi oen oroitzak
agertu zitzaizkien erriyak,
erregek zizkan eman armetan
jartzeko izen berriyak.

Oek erderaz agerkaituko
ditugu diran bezela,
truka ez dedin beren itxurik
izkribatuta bestela.

*La muy Noble,
muy Leal
y muy Valerosa
Ciudad de Fuenterrabía.*

²⁴ *Municiones.* (Id) ²⁵ *Correspondencia.* (Id.) ²⁶ *Sitio.* (Id)

Itz onoretsu oez gañera,
erregek zizkan agindu
eun milla dukat erri autsiya
zedin segiran ongitu.

Milla seireun eta larogei
ta zortzigarren urtean,
desgrazia bat zan Donostian
pasa askoren kaltean.

Tximistak sua arrerazirik
polbora-etxe zan bati,
Gazteluaren erdiya kolpez
zan goitik beera erori.

Eragin zuen dardaraizak
Donostiako erriya,
kristal geienak puskaturikan,
mugitu zuben erdiya.

Gero milla ta zazpireun da
emeretziko urtean,
tropa frantzesak plantatu ziran
Españiako lurrean.

Emen gutxi zan armaduna ta
aiek zetozen ugari,
non etzan errez lendabizirik
gogor egiten berari.

Irunen guziz errez sarturik
an zan jendiagatikan,
laster alderdi guzietara
zabaldu ziran andikan.

Probintziako adimaiz²⁷ denak
juntaturikan Ernanin,
Tertzio sail bat armatutzeko
junta baitzuten an egin.

Presaz asirik mutillak biltzen,
guziz denbora gutxiyan
zazpi millako pilla osatu
zuten Probintzi guziyan.

Ondarrabitik eskatu zien
erregeari laguntza,
ikusirikan galduba zala
joaten baziran aruntza.

Mandatu ura bialdu zuten
nekeztxo edo trantzian,
bada laguntza joan zan orduko
kontrarioak an zian.

Murallak zeuden autsiyak eta
frantzesak ziran ugari;
lanikan asko izandu zuten
gogor egiten aieri.

Ikusirikan etzeikeala
gorde luzaro plazikan,
errendituak izandu ziran
tratu txit on batgatikan.

Barrengo tropak beren armakin
ziran kanpora atera,
errenditzeko itzetan ola
egin zalako papera.

Donostiako plazan arkitzen
zan munizio txit gutxi;
eskatu arren, etzitzaiozkan
bear orduko iritxi.

Au sutunpatzen²⁸ Zurriolatik
ekiñ baitzuten frantzesak,
zeñen andikan zeuden murrak
meak, botatzen errezak.

²⁷ *Comisionados. (Id.)* ²⁸ *Cañonear. (Id.)*

Aiek puskatu ziozkatela
artu zanean berriya,
irureun gizon tropakorekin
entregatu zan erriya.

Bañan beste bi batalloirekin
gaztelua zan aparte;
au errenditu izandu etzan
urrengo egun bat arte.

Orla Gipuzkoa guzian gero
zabaldu ziran frantzesak,
zeñen etziran emendik kentzen
izan biziro errazak.

Geroztik ziran egin pakeak
eta frantzesak atera;
bañan gertatu zan joate ura
andikan zenbait urtera.

Milla zazpireun da larogei ta
amalaugarren urtean,
berriro sartu ziran frantzesak
Españiaren kaltean.

Endaiatikan Ondarrabia
sutunpatutzen asirik,
errendi erain izandu zuten,
bere murrubak autsirik.

**Milla ta zortzireun da zortzi urtetatik
milla ta zortzireun da ogeirañon.**

España ta Frantzia ziran
balleratuak²⁹ arkitzen,
Napoleonon kaskarkeri bat
asi zan arte argitzen.

Ingurutako español tropak
denak zetozen barrena
igesi gisan, ikusirikan
errenditutze arrena.

Donostiaren aldera laster
ziran frantzesak etorri,
zeñak berekin zituzten guziz
kañoi aundiak ekarri.

Barrenen berriz iya ez baitzan
kañoirik eta polborik,
ala beraren kontra asteko
etzuten izan modurik.

Modu onetan zan Donostia
errenditua gelditu,
zeñak etzuben nai zenbait jende
galtzen alperrik segitu.

Gero frantzesen mende egon zan
zerbait denboran erriya,
izan zan arte Basileako
pake soñuen berriya.

Norteko iru nazio aundi
zituanean mentzutu,
Españiaren jabetutzeaz
zuen jaun berak pentsatu.

²⁹ *Aliados. (Id.)*

Txit gizontasun txatarkiakin
lan oni eldu baitzion;
pauso txar onek berari ere
on asko egin etzion.

Karlos laugarren Españikoa
baitzan errege debilla,
eta Frantziko enperadore
Napoleon txit abilla.

Onek gezurrez erregeari
gauza on asko agindu,
eta aur txiki bati bezela
zion buruba arindu.

Frantzira zuben eramano
bere famili ta guzi,
zeñen Baionan beren buruak
zituzten preso ikusi.

Españiara abiatu zan
tropa aundi bat sartutzen;
eta bertako leku guziak
bere mendean artutzen.

Gogorrik egin gabe bete zan
iya Espāñi guziya,
utzi bazuten ere ondoren
makiña batek biziya.

Ola zijoan espāñolari
nai zuen dena egiten,
eta bat etzan beraren kontra
iñondik ere jaikitzen.

Para zituben lege berriyak
berak nai zuan moduan;
bazirurien bera jaungoiko
berri bat zala munduan.

Espāñiako koroa zion
eman anaia Joseri;
au zan Baionan, zeguen erregek
zuen jargoian eseri.

Bañan esana dague bezela
gizonak dula gogartzen³⁰,
eta Jaungoiko goian dagueak
bakarrrik berriz naidartzen³¹.

Espāñiako legoia noizbait
altxaturikan lotatik,
arras suturik eraso zuben
batetik eta bestetik.

Bailen-en zuten lendabiziko
alkar billatu eroso,
non batak ala besteak zien
gogor alkarri eraso.

Frantsesak ogei eta bost milla,
batalla artan ziranak,
an galdu edo preso egiñak
izan baitziran dianak.

Geroz Sagunto eta Numanzia
auntzinetako izenak
berdinkaitzeko, erantzun zuten
Zaragoza ta Jeronak.

Oek txit asko supritu zuten
frantzes troparen furia;
ala kondairak dauka gorderik
beren mireste aundia.

Milla zortzireun da amarrian,
uda berriko garaian,
Artzaia deitzen zitzaion jaun bat
jaiki zan Euskal Errian.

³⁰ *Proponer (Id.)*. ³¹ *Disponer. (Id.)*

Jaun onek letzen gutxi zekien,
ta eskribitzen baterez;
bañan frantzesak kaltarraitutzen
igualik asko etzan, ez.

Beste bat gisa onetakoa
Naparroan zan azaldu;
ark ere bere denboran frantzes
gutxi etzuan zapaldu.

Jaun oni deitzen zitzaion Mina,
sartzen zuena izua;
gerrilletan maiz ibiltzen zana
egñaz sua ta sua.

Milla zortzireun da amabian
asi baitziran larritzen;
galtzen zitzaien jendeaz berak
zirala oso arritzen.

Beti berriak etortzen ziran,
eta geienak galdutzen;
ala, indarra non artuko zan,
ikusten ziran aulduzen.

Emen nai ain lan baitzeukatela,
beste aldetik Rusiyak
eraso zien, non galtzen zizten
iya soldadu guziyak.

Len umilduba izan zalarik
au frantzesarengandikan,
emen txit ongi ikusten ez ta
eraso zion andikan.

An bosteun milla gizon plantatu
zituelarik frantzesak,
geienak bertan gelditu ziran
illik armakin ta otzak.

Esan dan gisan, gaizki zebiltzan
an, eta emen ongi ez;
errege Jose izuturikan
Madrildik irten zan iges.

Bañan emengo tropak orduan,
aterarikan bidera,
eraso zien, eta txit gaizki
zan berakgandik atera.

Portugesakin ingeles eta
español tropak batean,
ziran frantzesen kontra orduan
Bitoriako partean.

Zortzin bat milla frantzes uste da
zirala il da eritu,
gañera beste milla zizkaten
arrapatuak gelditu.

Oekin egun da berrogei ta
amaika kañoi berenak
gelditu ziran, nola konboia
ta kaja diruarenak.

Azkenik kotxe erregerena
eta beraren ezpata,
oek guziyak bertan utzirik
joan ziran denak eskapa.

Au zan milla ta zortzireun da
amairugarren urtean,
non andik joan ta gelditu ziran
Frantziatikan aldean.

Tropa beraren joaneran aruntz
Donostian zan arkitzen,
lau milla frantzes soldadurekin,
Rei jenerala agintzen.

Laster arkitu baitzan itxiya
Donostiako erriya,
denbora gutxi barru ikusi
zuana egun gorriya.

Urumeako alderditikan
kañoi talde bat aundiyak
gogor eraso zuen puskatzen
muralletako arriyak.

Zerbait puskatu zuten denboran
zati muralla arrena,
balleratubak³² asaltoz ziran
sartutzen asi barrena.

Bañan etziran ongi atera,
asko zan il da eritu,
eta ez gutxi frantzesen mende
preso barrenen gelditu.

Au zan milla ta zortzireun da
amairugarren urtean,
Uzta illaren egun ogei ta
bostgarrengo zanean.

Erriya artu etzalarik, zan
sitiatuba gelditu;
Agoztuaren ogei ta lauba
arte etziran mugitu.

Orduban ziran berriro asi
sutunpatutzen erriya,
zeñen iriki zuten murallan
zulo aundi bat berriya.

Egun ogei ta amaikan ziran
asi erriya artutzen,
muralla autsi zuten lekutik
plazan asaltoz sartutzen.

Urtan pasarik lendabizi ta
joanik murallen oñera,
an ziran lanak ezin sarturik,
ezin igorik gañera.

Denbora zerbait igarorikan
urak goititzen asiyak
ziran, da gaizki arkitzen ziran
aruntz juandako guziyak.

Atzera ezin jiratu eta
aurretikan su aundiya,
galdu bearrak ziran guziyak,
ez artutzer a erriya.

Batzuek bezin ziran besteak
lan gogorrean arkitzen;
garaipenikan iñoren alde
etzan artean nabaitzen.

Ala zirala estura artan,
leku granadak zeudenak
su artu zuben, eta airatu
frantzes ingurun ziranak.

Gertakai artaz baliaturik
plazan sartu nai zutenak,
illen gañetik igoaz pasa
zituzten murru etenak.

Illak izandu ziran bosteun bat,
milla ta bosteun erituk;
frantzesetatik gutxi galdubak,
zazpireun preso geldituk.

Erriyan zeuden guziyak pozez
balleratubak³³ sartzeko,
besoak oso zabaldurikan
beren aietan artzeko.

³² eta ³³ *Aliados. (Id.)*

Bañan poz aiek azturik laster
arkitu ziran guziyak,
zeñen berarengandikan askok
galdu zituzten biziyak.

Gertakai artan zer pasatu zan
Donostiaren barrenen
bear bezela agerkaitzea
ez ditekena da emen.

Or lapurketa, emen iltzea,
beste eskiñan bortxatzen,
eta denbora berean zeguen
erri guzia erretzen.

Non zarrak eta ala gazteak,
aberats, pobre, guziyak,
ibilli ziran gorde eziñik
bakoitzak beren biziyak.

O zer tristeza etzan izango,
zer gauza negargarriya
ikusitzeaz pertsonak ala
eta kiskaltzen erriya!

Ez da jakindu sua zan berez
edo txarkeriz emana;
berrogei etxez gañerakoa
errea izan zan dana.

**Milla ta zortzireun da ogei urtetatik
milla ta zortzireun da ogei ta amairurañon.**

Aldi onetan errebeldi bat
trogen artean zan izan;
Konstituzio lenaz egin bat
berriro para naia zan.

Rei jenerala Gazteluban zan
bi millarekin sartuba,
zortzi egunez geroago zan
izan au errendituba.

Donostiako egun berean,
Irundik oso aldean,
frantzesak galdu zuten batalla
San Martzialko gañean.

Andikan pasa izandu ziran
beren lekura frantzesak,
zeñak etziran Españiatik
izan botatzen errazak.

Lur oetatik bota ta berak
gerra bukatu ondoren,
Fernando zazpigarrena zuten
para errege Madriden.

Urte batzuek igaro ziran
alkartasun da pakean,
berriz kontatzen asiko geran
gerra piztu zan artean.

Erregek kendu izan baitzuben
Konstituzio len ori,
Frantziatikan Españiara
zanean bera etorri.

Ortik piztu zan gerra berri bat
españolaren kaltean,
asarraturik oso lagunak
izan ziranak artean.

Batzuek ziran errealistak
ta liberalak besteak,
zeñak alkarren kontra baitziran
altxa zar eta gazteak.

Gipuzkoan ere armatu ziran,
ezpazan ere denetan,
Konstituzio beraren alde
erri aunditxoenetan.

Bañan frantzes a etorririkan
tropa sail aundi batekin,
erregearen alde zioten
liberalari su egin.

Donostia zan sitiaturia
egon frantzesakgandikan,
eta ondoren errenditua,
gertatu gabe gaitzikan.

Erri onetan, Tolosan eta
Bergaran armak artuak,
geroz Koruñan izandu ziran
iges moduan sartuak.

Errealisten laguntzarekin
frantzes etorri ziranak
izan baitziran Españaiko
gerra bukatu zutenak.

Urte batzuek pasatu ziran
erdi pakeko moduan,
oso gustora etziralarik
zenbait gelditu orduan.

Oni ondoren segitu zion
beste gerra bat berriyak,
zeñak ondatu zituan oso
gizonak eta erriyak.

Desnaikida bat ezagutzen zan
iya España guziyan;
ezin lerturik baitzegoen gaitza,
bañan lertzeko zoriyan.

Ala egun bat allegatu zan
itxura beltzez jantziya,
zeñen ontatik abiatu zan
galtzen España guziya.

**Milla ta zortzireun da ogei ta amairu urtetatik,
milla ta zortzireun da irurogeiraño.**

Milla zortzireun eta ogei ta
amairugarren urtean,
Fernando zaspigarrena il zan
Españaiko kortean.

Au il ondoren altxatu ziran
alde bostgarren Karlosen,
au nai zutenak errege para
Españaari agintzen.

Bañan koroa alabarentzat
nola zeukan ark utziya,
beraren alde zalatu baitzan (*sic*)
gobernu len zan guziya.

Lendabiziko On Santos Ladron
zan il Urriyan mugitu;
oni zioten Baldespina ta
Lardizabalek segitu.

Geroz karlistak gaizki zebiltzan
euskal erritan ziranak,
aldi batean iruri zala
gorde zirala dianak.

Bañan gizon bat bazan, artean
etzana ondo azaldu;
zeña geroztik kondairak gutxi
aitatu izan ez al du.

Au zan On Tomas Zumalakarrei,
guziz koronel aituba,
bere denbora guziyan beti
soldaduakin oituba.

Jaun au asi zan soldadu txarrak
ondutzen eta argitzen,
zeñen ondoren allegatu zan
jende askori agintzen.

Soldadu txarrak ondu ondoren,
bere aiekin noranai
abiatu zan, leku denetan
gogor egiten nolana.

Ordu artean karlistak nonai
errez ziranak mentzutzen,
andik aurrera berak zituzten
bartzarrak oso nastutzen.

Bizkaian ere gallandu ziran
il samar egon ziranak;
Latorrerekin zazpireunen bat
izango ziran dianak.

Solar-ko baroi jaun Espinosak
Gernikan zien eraso,
bañan etzuben garaipenezko
onra aundirik an jaso.

Modu oietan akabatu zan
gerra asi zan urtea,
zeñen berriya etzan azaldu
joan zana bañan obea.

Karlistentzako urte beraren
lendabiziko erdiya
etzan izandu bentajazkoa
edo pozgiragarriya.

Nola Argudin, Hueska, Oñate,
Markinan eta Sodupen.
Karlosen armak garaipenikan
jaso izandu etzuten.

Bañan berriro geroagoko
urte beraren partean,
etziran irten Karlosen armak
ain gaizki nola artean.

Rodil zebillen beti Karlosen
ondoren egun eta gau,
bere naiera dena zuela
arrapatzea gizon au.

Bañan etzuben nairikan egin,
alperrikan zan nekatu;
denbora asko galduta zuben
bere ustea trukatu.

Milla zortzireun eta ogei ta
amabigarren urtean,
Gobernu zanak garaipen gabe
segitzen zuben artean.

Mina zan tropa guzien buru
aldi arretan arkitzen,
zeñari gauzak oso eraro
etzitzaiozkan argitzen.

Gobernu zanak esturan zala
zuben denboran juzgatu,
nazio bere ondokoari
zion laguntza eskatu.

Etorri izan ziran bezela
ingeles tropak ugari,
zeñak etzien gutxi lagundu
izan ondoren berari.

Karlistarentzat ona izan zan
Garagar illa osoa,
zeñetan zien Billafrankari
para ertsizko³⁴ lazoa.

Au zan karlisten eskuetara
ezin bestean makurtu;
gero Eibar da Bergara, biyak,
zituzten igual menpetu.

Estella eta Tolosa ere
librean ziran ikusi,
Bilbora eta Donostiara
irtenik tropak igasi.

Modu berean Balle Baztan ta
Elizondo ta Durango
laja zituzten, bertan seguru
etziralako egongo.

Erabakirik Bitoriako
erriya ere uzteko,
baldin karlistak usterik artzen
bazuten aruntz joateko.

Bañan utzirik Zumalakarreik
ez-baian zegon lan ori,
sitiatu ta sutunpatutzen
zion eraso Bilbori.

Balkoi batetik zeguela bera
begi-aurreaz³⁵ begira,
eskuieko anketik balaz
eman zioten erida.

Bere agintez zuten segiran
leku artatik eramane,
zeñetan nola sendatuko zan
il zan txit laster Zegaman.

Onen tokiyan agintzen jarri
zuten jeneral Eraso,
zeñak usteren lendabizitik
zuben sitio au jaso.

Mendigorrin da Arrigorriagan
guziz leiatze aundiyak
izan baitziran urte berean,
aski gogoangarriyak.

Lenengokoan ziralarikan
asko il eta eritu,
Gobernuaren tropak baitziran
garaipenean gelditu.

Bigarrego ta Esparteroren
Bilbora joate bidean,
jaun onen tropak etziran irten
ain ongi nola lenean.

³⁴ *Sitio.* (*Id.*) ³⁵ *Catalejo.* (*Id.*)

Bide onetan zuten jaun bera
balaz ta lantzaz eritu;
oso gutxian egon zan nola
etzuten bertan gelditu.

Donostiaren sutunpatzea
izan zan urte berean,
Abenduaren seigarrenean
edo beraren gabean.

Milla zortzireun irurogei ta
amaseigarren urtean,
gauzak ain gaizki arkitzen ziran
nola ordura artean.

Onen ondoren izandu ziran
Getariara sartutzea,
non Merkadillo ta Balmaseda
era bi oek artutzea.

Lekeitio ta Plentzia ere
izandu ziran artubak,
bala kañoizkoz autsi paretak
eta karlistak sartubak.

Il Maiatzaren egun bostean,
Donostiatik aldean,
izan zan guziz leialdi latz bat
karlistarentzat kaltean.

Au ertsituba arkitzen zala
izanik zenbait denbora,
egun onetan atera ziran
barrengo tropak kanpora.

Evans jeneral ingelesa zan
sartu lerroa³⁶ austera;
bañan txit jende asko galduta
jiratu baitzan ostera.

Asi goizeko lauetan sutan
eta amarrak artean,
jaun onen tropak arkitzen ziran
iya tokitsu batean.

Bitarte ontan eulien gisan
ziran gizonak erortzen;
aurrera juanak, gutxi zirala,
atzera bueltan etortzen.

Leku txarretik abiatu zan
jaun au lerroa puskatzen;
jende geiegi galdu zuela
askok du geroz juzgatzen.

Estura artan bafore bat zan
Donostiara iritxi,
zeñak zituben tropa berriak
ekarri, eta ez gutxi.

Oek saltatu zuten denboran
lagundutzeko lenari,
bafore bera itsasotikan
kañonazoka zan ari.

Bala arrasa bat sarturikan
karlistak zeuden etxera,
bera suturik, ziran estura
aundian andik atera.

Gañera il zan Sagastibelza
jeneral onen zutena;
eta orduban gertatu baitzan
beren lerroa etena.

Naspilla eta estura artan
ertsitu ura zan autsi;
eta karlistak artaz joan bear
izan baitzuten igasi.

³⁶ *Línea. (Id.)*

Evans-i milla paren bat gizon
zitzaizkan il da eritu;
bañan karlistak zuten lurrean
zan jaun au gero gelditu.

Besteetan zan izan askozaz
gutxiagoko galera;
bañan etziran egun orretan
berenarekin atera.

Jeneral au zan ibilli gero
Ondarrabia artzeko;
bañan etzuan modurik izan
plaza onetan sartzeko.

Geroz Ametza-gañean ziran
izan egite txit latzak;
aldi luzean aztutzen gaitzak
izango diran jolasak.

Karlistakgandik izan zan Bilbo
sitiatua ostera;
bañan denboraz jaun Esparterok
zituen andik atera.

Milla zortzireun eta ogei ta
amazazpian lenendik,
probintzi ontan etzan nabaitzen
gerra soñurik iñondik.

Denborak ziran osoro txarrak
aldi arretan izandu;
beragatikan pake moduba
baitzan orduban egondu.

Martzo illaren amarrean zan
jaun Espartero mugitu;
Bilbotik irten Gipuzkoara ta
Elorrion zan gelditu.

Egun berean Oria-mendin
eman zan kolpe berriya;
zeñen karlisten mende gelditu
izandu baitzan mendiya.

Gobernuaren soldaduetan
zenbait izutzen asirik,
igasiari eman zioten,
beren lekuak utzirik.

Karlistak ergai arretan gogor
baionetara sarturik,
bota zituzten an ingurutik,
jende txit asko galdurik.

Jose Arteaga zeritzon batek
ingeles bati bandera
zion, lenengo illikan bera,
eskuetatik atera.

Jaun Esparterok zuen denboran
au nola pasa zan jakin,
len etorri zan lekura berriz
irten zan bere tropakin.

Geroagoan baforean zan
pasatu Donostiara,
zeñen zituen tropa guziak
bildu berekin bertara.

Denboraz artu izan zituen
Ondarrabia ta Irun;
bai eta ere oen inguru
guziak eta Oiartzun.

Aitatu diran lekubak errez
izandu ziran artubak,
zergatik zeuden tropa karlistak
Napar lurrean sartubak.

Au moldatutzen asi baitziran
Madril aldera artzeko,
beren usteak izanik Korte
Españikoan sartzeko.

Maiatz illaren amabostean
amabi milla oñezko
mugitu ziran, lagun arturik
milla ta seireun zaldizko.

Karlos bera zan guzien buru
zenbait jeneral onekin,
On Sebastian bat lenen zubela
ondorengotan berekin.

Gogor billatu izan zituben
Madril aldeko bideak,
zeñari ondo etzitzaiozkan
atera bere ideak.

Jaun Esparterok izandu zuben
Gobernutikan berriya:
bere tropakin Madrilla alik
lenen zedilla abiya.

Agoztuaren amairuan zan
erri artara iritxi,
zeñak etzuben izandu bertan
ongi etorri txit gutxi.

Karlos zalarik an inguruban
iritxi egun batez len,
balorerikan etzuben izan
sartzen asteko barrenen.

Ango jendea nabaiturikan
naitasun gutxi entero,
penaz beterik oztu zan oso
egondu zana len bero.

Gutziz joaldi gogor bat zuben
an emateko ustea,
bañan naitasun txarra ikustez
pentsatu zuben uztea.

Ala, laster zan andikan jira,
ezer egin ez baitzuben;
naiera ura artu ezpala
kalte aundirik etzuben.

Oni laja ta goazen berritzen
Probintziako kontubak;
jaun O'Donnell mende arkitzen
baitziran bere puntubak.

Il Agorraren zortziyan, berak
Ermani alde guziya
Andoainañon garbitu zuben,
askok galdurik biziya.

Bañan gau artan inguru artan
soldadeskaren okerrak
utzi zituzten geroztik beti
oroimen diran negarrak.

Berrogei ta sei etxe sutubak
gau triste aren erdiyan
izandu ziran, eta erreak,
Urnietako erriyan.

Oez gañera irurogei ta
lau Andoaingo erriyan,
zenbait famili gelditurikan
utsik kalien erdiyan.

Leku berean gelditu ziran
liberal tropak gabea;
eta aurrera segitu zuten
an bertan beren kaltean.

Il Agorraren amalaua zan
izan gogoangarriya,
zeñean bertan gertatu baitzan
odol ixurtze berriya.

Uste gabea guztiz karlista
asko sarturik kalera,
baionetaren puntakin tropak
zituzten andik atera.

Izaturikan, etzekitela
non zebiltzan ta non ziran,
igasi ezin egiñik, gizon
gutxi an galdu etziran.

Illak bosteun bat izandu ziran,
ingelesa txit ugari;
leku guziak beterik, lurrik
iya etzala ageri.

Gañera beste eun bat español
ziranak nekez mugitu;
aiek ere an bertan baitziran
presionero gelditu.

Urte ontako kontuetatik
pasako gera berrira;
zeña dan milla zortzireun da
ogei ta emezortzira.

Aitatu diran leku oetan,
urte onetan denean,
etzan gertatu kontu aitatu
litekenik, non lenean,

Aldi onetan Muñagorri zan
probintzi ontan azaldu,
zeñak pakea eta fueroen
bandera zuben zabaldu.

Gobernubak au etzuben noski
txarrera artu izandu;
isil moduan bear zeioken
indarra artzen lagundu.

Bañan etzuben protxu onikan
eman jaun aren ideak:
len bezin zabal segitu zuten
zegoen gerraren bideak.

Urte au onla pasa izan zan
negar miseri tartean,
mesede gutxik zutela edo
iya geienen kaltean.

Berriya ere etzan azaldu
joan zana bañan obea,
milla zortzireun eta ogei ta
emeretziko urtea.

Otsagillaren emezortziya
egun gogorangarriya,
zeñen Estellan gertakaitu zan
odol isurtze berriya.

Egun ontan bost jeneral pasa
izan zituzten armetan:
García, Guergué, Sanz, Carmona
ta Uriz, denak an bertan.

Jaun Marotori zitzaion jaio
egite ura burura;
geroztik etzan begi bitarte
onez ikusi jaun ura.

Ogei eta lau batalloi zeuzkan
bere mendean orduban,
arkitzen zala iya nornairen
kontra jartzeko moduban.

Jaun Esparterok berriz zeukaizkin
ogei ta amar berekin;
bañan lekubak ez ainbat onak
igualatzeko arekin.

Alaz guziyaz sutan asirik
zan irten garaipenean,
zeñen karlistak geroz etziran
gelditu leku lenean.

Fuerte Ramales orduban artu
zuben soldadu ta guzi,
askok denborik etzutelako
izan joateko igasi.

Su aiek ziran Maiatzean da
Aperillean izandu;
orduban zuten jaun Espartero
Duque Victoria lonbratu.

Ainbeste indar irukirikan
Marotok garai arretan,
eta geiago ez egiteaz
ezpa zan leku denetan.

Lau jeneral il lenago eta
batallak galdu urrena;
pentsatuzeko ainbeste bazan
zerbait ote zan arrena.

Aldi berean karlistak ziran
zerbait nastutzen asiyak;
ikusten ziran beren artean
ezin konponduz guziyak.

Noizbait bear da allegatu zan
naikidatzen zan eguna;
bukatzekoa gerra ain gaizto,
orain kontatzen deguna.

Aboztu illak egun ogei ta
amaika zuben denboran,
Espartero ta Marotok ziran
elkartu izan Bergaran.

Zeñen egin zan batutze³⁷ ura
tropak bertara bildurik,
artaz aurrera izan etzedin
iya alkarren beldurrik.

Karlista denak dei arretara
bildu izandu etziran;
nai etzutenak juan nai izandu
Frantzira pasa baitziran.

Jaun Espartero Tolosan sartu
zan Agorraren zortziyan;
eta On Karlos berriz Urdaxtik
amalauian Frantziyan.

Kontatu degun moduban baitzan
emengo gerra bukatu;
bañan etzuten beste lekutan
karlistak oso ukatu.

Aragoian da Katalunian
da Balentzian Cabrera,
Konde España lagun zubela,
gerran zijoan aurrera.

Jaun Espartero deskantsaturik
negu arretan guziyan,
milla zortzireun da berrogeian
jarri zan aruntz abiyen.

Topatu zuben non zan Cabrera,
bai ere gogor eraso,
zeñari zion Uzta illaren
seian aldegin arazo.

³⁷ *Convenio. (Id.)*

Egun artan zan Frantziyan sartu
bere soldadu ta guzi,
zeñen geiago etzan Cabrera
aldi arretan ikusi.

Urte bi orla baitziran pasa
gerra zanetik bukatu,
zeuden lekutik non Gipuzkoara
ziran aduanak trukatu.

Ortatican zan sortu berriro
emen naskera berriya,
gutxigatikan okerreratu
etzana Euskal Erriya.

Gobernuaren egite artaz
kontra atera ziranak
Frantziara joan bear izandu
zuten igasi dianak.

Urte batzuek geroztikan zan
Gipuzkoarekin Oñate
batu izandu, zeñen artean
izan baitziran aparte.

Milla zortzireun da berrogei ta
zortzigarrengo urtean,
jaun Julian Alzaa sartu izan zan
Españiako lurrean.

Frantziatik zan Karlosen alde
onuntz etorri berriro;
bañan izan zan arrapatuba
eta emana lau tiro.

Au il ondoren itzul joan ziran
beraren lagun guziyak;
ala, gerrarik etzala piztu,
Jaungoikoari graziyak.

Modu berean Cabrera ere,
Kataluniyan sartuta,
zenbait denboran gerran ibilli
zan, zerbait indar artuta.

Bañan au ere bialdu zuten
Españiatik igasi,
zeñen geiago ez duben iñork
leku aietan ikusi.

Milla zortzireun berrogei eta
emeretzian, ostera
Españiako tropak joan ziran
gerra berri bat aстера.

Aldi arretan española zan
gerran gertatu Afrikan,
zeñen etzuben garaipen gutxi
ekarri izan andikan.

Iru probintzi Euskal Erriak,
oitura zuten moduban,
bialdu izan zituzten beren
seme leialak orduban.

Jazkera zuten boina gorriya,
txapa erdiyan zubela;
galtzak igualak, pontxo urdiña
eta gerriyan ubela.

Etziran aiek siñalatuak
non ilka nola urteko,
ezpada gerrak alderdi artan
irauten zuen arteko.

Osaturikan iru millako
tropa guzien artean,
Pasaiatikan itsasoz ziran
irten guziak batean.

Beste tropakin batean antxen
gerran ibilli baitziran,
eta graziak Jaungoikoari
asko galdu ez baitziran.

Esan dan gerra ala zegoala,
Karlosen seme bi anai
Españiara etorri ziran,
saltsa zutela para nai.

Jaun oekin zan biurtsatuba
izan jeneral Ortega,
zeña ez baitzan patu onean
pauso txar artaz atera.

Baleares-tik zan jeneral au
bere tropakin etorri,
zeñak San Karlos Rápita-kora
tranpaz zituben ekarri.

Tropak jolas au ona etzala
zuten denboran ikusi,
beraren kontra jaiki zitzaizkan,
eta au juan zan igasi.

Bañan izan zan arrapatu ta
presondegiyan sartuba,
eta kontsellu gerra egin ta
gero lau tiro artuba.

Karlosen seme bi aiek ere,
iya denbora batean,
izandu ziran arrapatubak
Tarragonako partean.

Eta segiran deserrituak
nola izandu baitziran,
geroagoan jakin izan zan
nola biyak an il ziran.

Ramon Artolaren omenez

Oarra

Ramon Artolaren aldeko leenengo aitortpena Buenos Aires-ko *La Vasconia* aldizkarian aurkitu degu, 1897-ko abuztuaren 30-ean, *Luis Jaizquibel*-ek firmatuta. Ondorengo orrialdeetan eskeintzen diogu irakurleari.

Itzaurrean esan degunez, Ramon Artola Donostian il zan, 1906-ko Abuztuaren 20-an, irurogei ta amabost urte betetzeko egun batzuk falta zituala.

Urrengo bere zenbakian, illaren 30-n, *Euskal Erria* aldizkariak, amaika orrialde eskeiñi zituan aren omengarri, alako bertso-jartzaille saiatuak merezi bezelaxe noski.

Orrialde oietan euskal idazle askok adierazi zuten Artolarentzat zuten begirunea eta maitasuna. Ala komeni dalakoan, orrialde oiek oso-osorik aldatzen ditugu onera.

Ondorengo urteetan ere Ramon Artolaren aitamenak noizbeinka egiten dira. Oiek ere onera aldatu ditugu.

Artola

Como la mayor parte de los poetas vascongados, Artola es hijo del pueblo; pertenece a la multitud sencilla, a la gran masa de los humildes. Su musa, nacida del pueblo, al pueblo está dedicada.

Sin ser un filósofo, ni tener extensos conocimientos literarios en otras lenguas que no sea el vascuence, sus composiciones encierran cierta profundidad de pensamiento que llama la atención, doblemente si se tiene en cuenta que el poeta es un modesto obrero, que sólo por entretenimiento y llevado de su culto por el idioma éuskaro, cultiva la poesía, sin otro propósito que satisfacer una necesidad espiritual y contribuir a la propagación de la inmortal lengua de Aitor.

Su género preferido es la fábula, a la manera de Iriarte y de Samaniego, de los cuales también ha traducido Artola varias composiciones, con tanta maestría como lo hiciera Otaegui con las odas de Fray Luis de León y otras obras de los clásicos castellanos.

Las poesías originales de Artola, distínguese, ante todo, por la extraordinaria belleza de su forma, la novedad de las imágenes y la audacia en los símiles. Sus fábulas son todas simbólicas. hilvanadas con sumo arte, y en ellas demuestra el poeta su fina observación y su gran conocimiento del corazón del pueblo, como también de todos los vicios que minan su organismo.

En la poesía Erariyaren Bertuteac, incluída por Manterola en la colección que compone su Cancionero Vasco, anatema-

tiza Artola uno de los más grandes vicios del pueblo, notándose en ella profundidad de concepto, y desde luego, una insuperable belleza en la estructura de los versos.

Según el aludido autor del Cancionero, trata Artola en esta composición el mismo asunto que el P. Meagher en la suya titulada *Al vino*, con la diferencia que éste canta las virtudes del zumo debido a Noé, mientras que nuestro biografiado propónese, principalmente, señalar los peligros que acarrea en el pueblo su uso inmoderado.

Entre las muchas composiciones que ha escrito, recordamos Zozoa, belea eta legoya (*El tordo, el cuervo y el león*); Uso eder bat eta ontza (*Una paloma hermosa y una lechuza*); Erbiyak, conejubak eta beste piztiyak (*Las liebres, los conejos y otros animales*); Guizon charrak eta zakur ona (*Los hombres malos y el perro bueno*); Moro kontuba (*Cuento moro*); Konsuegra-ko negarra (*Los lamentos de Consuegra*); Biblia-ko pasartea, iru kantutan (*Pasaje de la Biblia en tres cantos*); Juan eta Marzial (*Juan y Marcial*); Astoa eta jabeak (*El burro y sus dueños*); Arranoa, subea eta miruba (*El águila, la culebra y el milano*); Joakin Arranzalea (*Joaquín el pescador*); Gloria Okendo-ri bere talluntza goititzeko egunean (*Gloria a Oquendo en el día de la erección de su estatua*); Arbola bat (*Un árbol*); Bersoak eta pintura (*Poesía y pintura*); Kurrilloak eta olloak (*La grulla y los pollos*); Bi neka-zariak eta aizurak (*Dos gañanes y sus azadones*); Artzaya (*El pastor*); Katuba eta sagua (*El gato y el pequeño ratón*); Astoa eta zaldia (*El burro y el caballo*); Bi subi eta armiarma (*Dos culebras y la araña*); Otsoak eta mirotza (*Los osos y el halcón*); Ama Birjiña Begoña-koari (*A la Virgen de Begoña*); Igelak eta Marte jaungoiko palsoa (*Las ranas y Marte, la diosa falsa*¹).

En todas estas fábulas campea la sutilidad de ingenio que distingue al laureado poeta. Del estudio del instinto animal

deduce ingeniosas moralejas aplicadas a los actos humanos, a las pasiones y a los vicios del hombre.

En la narración hay no poco sentimiento y una gran comprensión de la naturaleza, con la cual se halla compenetrada el alma de Artola, prístina en su esencia y libre de alambicamientos educativos, derramándose toda ella en el campo circunstancial, con lo cual llega a sentirla mejor que a comprenderla, y por lo tanto a expresarla tal cual es; porque no hay mayor verdad, sobre todo en arte, que lo sentido, siendo cierto todo lo que ciertamente se siente.

Pero la poesía que más llama mi atención de las creadas por Artola, es la última mencionada, Igelak eta Marte jaun-goiko palsoa (Las ranas y Marte, la diosa falsa). Esta composición pertenece en absoluto a la moderna escuela decadente, de cuya existencia, en el sentido de la filiación literaria, dudo tenga noticia Ramón Artola. Ante este caso que de buena gana sometería, si viviese y comprendiera el vasco, al juicio de Paul Verlaine o de Leconte de Lisle, cabe preguntar: ¿Será la escuela decadente o simbolista un género literario de idiosincracia tan real como el acreditado hasta ahora con el título de realismo? Porque si Artola, ajeno seguramente a las luchas literarias, pintando la naturaleza y discurrendo sobre ella en idioma vasco, ha hecho una poesía altamente simbolista en la forma y en el fondo, es porque la naturaleza misma ha sido percibida por su cerebro y sentida por su espíritu con las formas simbólicas con que la ha revelado. Muy lejos me llevarían estas deducciones, que corren peligro de estar fuera de lugar en esta breve semblanza del inspirado poeta euskalerriano, y por lo tanto no quiero distraer la imaginación de mis lectores con disquisiciones de esta índole.

Arranoa, subea eta miruba (El águila, la culebra y el milano), composición que va en otro lugar de este número es tam-

bién bellísima por su forma narrativa y por la filosofía que encierra. En síntesis, el pensamiento enciérrase en aquel adagio popular que dice: «De fuera vendrá quien de casa te echará». Trátase de una culebra que subió arrastrándose hasta el peñasco donde un águila tenía su nido y en él unas cuantas crías muy tiernas; la culebra se comió la más débil. Cuando el águila-macho volvió al nido y notó la falta de su hijito, temió que los demás corrieran igual suerte, y cargando con todos echóse a volar hacia otro peñascal donde habitaba un milano; pidió la hospitalidad el águila, y más por temor a su poder que por verdadera caridad, concediósele el milano; el águila dejó allí sus crías y volvió a buscar el nido; de regreso en la peña del milano, fue colocándose en el mejor sitio hasta ocupar toda la mejor parte de la peña; el milano puso mala cara (cara de milano al fin) y el águila, al verle de tan mal talante, la puso peor y al mismo tiempo comenzó a sacar las uñas, lo cual visto por el milano, se fue callandito, callandito.

Los que comprenden el vascuence han de encontrar singular deleite en la lectura de esta poesía, pues su verdadero mérito, como antes he dicho, está en el estilo narrativo y en la habilidad del poeta para manejar el idioma vascongado.

Artola es hijo de Amézqueta (Guipúzcoa) y se halla establecido desde hace años en San Sebastián.

Es uno de los poetas más fecundos que existen actualmente en la Euskal-Erria, habiendo sido premiado en diversos certámenes. La poesía simbólica a que antes aludí obtuvo el primer premio en los Juegos Florales de Durango.

Además de sus trabajos poéticos, hace tiempo que Artola está escribiendo un extenso y curioso compendio geográfico-histórico descriptivo de la provincia de Guipúzcoa, trabajo que será indudablemente de sumo interés para dar a conocer aquella privilegiada región de la Vasconia.

Como se ve por el retrato², tiene Artola el aspecto de un marino retirado, y nadie diría que bajo ese cutis áspero se oculta un alma de verdadero poeta, inspirado en el sentir y consumado artista en la dulce expresión vascongada.

Agosto 29 de 1897

Luis Jaizquibel³

¹Ezin da errez ulertu Marte zera dala esatea: diosa, alegia. Are gutxiago euskeraz, *jaungoiko* itza ondotik dijoakionez.

²Idazlan onekin batera, Ramon Artolaren argazki bat eskeintzen zuan *La Vasconia* aldizkari orrek, guk leenago agertu deguna.

³*Luis Jaizquibel* ez da izena, Francisco Grandmontagne-ren (1866-1936) izeordea baizik. Buenos Aires-ko *La Vasconia* aldizkariaren zuzendaria izan zan zenbait urtetan, eta aren orrialdeetan idazlan asko agertu zituan. Ondarribiko Klaudio Otaegi euskal-idazlearen illoba zan, eta berarekin mutikotan bizi izana.

Idazlan ontan gauza askotxo Jose Manterolari artzen dizkio, onen izenik aitatu gabe bada ere. Besteren soiñekoaz jaztea eta jabetzea aspaldiko oitura da, beraz, gure artean.

¡Ha muerto!

Las letras euskaras experimentan con dolor la pérdida de uno de sus más fervientes cultivadores. El decano de los escritores euskaldunas ha pasado a mejor vida y su nombre figurará, desde hoy, al lado de los Larramendi, Iztueta, Manterola, Arzac, Bilinch y todos los que rindieron verdadero amor a la lengua euskara.

Artola ha bajado a la tumba, el Lafontaine euskaro, fabulista de primera fuerza; sus composiciones serán siempre sentencias filosóficas que, presentadas con ese carácter peculiar de la poesía del admirado amigo, le destacan entre todos los escritores que se han expresado en la lengua vieja de Aitor.

Las fábulas de Artola presentan un estilo vivo y una versificación dulce, siempre graciosa.

De gran númen poético, profundo observador y de juicio clarísimo y recto, en todas sus composiciones se transparenta al hombre pensador y de sentimientos nobles, expresados en preceptos y máximas morales llenas de sanas enseñanzas.

Sus fábulas, pues éste era el género de su preferencia y el que cultivaba con mayor fortuna, tienen un sello propio, consiguiendo resultar original y siempre interesante y ameno.

Las intencionadas moralejas que al final de sus fábulas nos lega Ramón Artola pueden clasificarse como magníficas sentencias del clasicismo euskaro.

Su extensa labor literaria será siempre celebrada con entusiasmo por todo el país vasco.

Son conocidísimas, alcanzan verdadera popularidad, en el valle y en el monte, en la ciudad como en la aldea, etc., Egun sentiya, Illunabarra y O Euskal erri maitea!, cantadas por todo un pueblo, con música inspiradísima que el maestro Sarriegui acertó a aplicar a estas dos preciosidades de la poesía vascongada.

Ramón Artola fue toda su vida un modesto y honradísimo artesano, a quien jamás se le ocurrió abandonar su ambiente propio, y llevado de su amor al trabajo y de su afición a la lengua nativa cultivaba con verdadero deleite el idioma de Iztueta.

En las Fiestas Euskaras celebradas en Elizondo (de mucha importancia) el año 1887, alcanzó por unanimidad del jurado, distinguida recompensa por su expresivo e histórico trabajo en el canto de Altabiscar.

Artola ha sido uno de los más distinguidos escritores guipuzcoanos.

Los cultivadores de la lengua bascongada guardaremos imprecadero recuerdo.

Dios le haya acogido en su seno.

F. López-Alén.

Ez! Ez zera aztuko!

Euskara goitazen (sic)
biyotz guztitikan
ez det goguan nik
iñor oberikan;
itz legunak irteten
zituben aotikan
Ramon Artola zanak
barren-barrendikan,

bizi zeikiena
ura oraindikan,
lana onak egiñaz
euskerengatikan,
arentzat ez zan bada
gauza oberikan.

Leial beti izkuntzengatik,
Jaunak, bai, eraman digu
mundu ontatikan.
Erregututzen diyot,
Jauna, emendikan
iduki zala beti
zeruben erdian!

Jose Zapiain

***En la muerte del poeta vasco
Ramón Artola***

*Con el alma entristecida,
llena de amargo pesar,
yo te he visto de la vida
la carrera terminar.
Te he visto grave pasar...
con el alma entristecida.
Tu cuerpo en la tumba fría
en quietud reposa ya,
pero toda tu poesía
en el pueblo vivirá,
mientras triste dormirá
tu cuerpo en la tumba fría.
En la lengua de Cervantes,
anciano vate de Aitor,
autor de estrofas brillantes,
elevo un himno en tu honor.
¡Yo te saludo, cantor,
en la lengua de Cervantes!*

Rafael Munoa

Goien bego, bego!
(On Ramon Artolaren eriotzan)

Atzo negar zenduban
gogotik egiten,
maite zenduban Ama
zalako erortzen...
Saiatzen ziñan ziñez
goi-gora altxatzen,
esanaz: «Goien bego!»
euskera mintzaten.
Eta gaur? A! Betiko loak
arturikan dago...
Eta zu nola atzo,
gaur Amatxo dago...
Samíñez eta malkok
isuri deizkiyo,
esanaz: «Seme ona,
Jauna, goien bego!».

Olaizola-tar Josefa

On Ramon Artola eta Larrañagari il ondoren

Ama Euskarak izandu ditu
beti seme on azkarrak,
izkribalari oso bikaiñ ta
zentzudun argidotarrak.
izkribu asko utzi dizkigu
On Ramon Artola zarrak,
bañan ill da, antsiak eta
samintasun ta negarrak,
sari dezala gure erreguz
zeruetako batzarrak.

Juana Andonegi
Abuztuaren 22-an 1906
Euskal-Erria, 1906

Egiñ negar!! Ill da On Ramon Artola

Jaunak zerura eraman zaitu
emen utzirik negarra,
gizon onradu txit paketsua,
eziñ geiago leiala;
buruz argiya eta umilla.
itz neurtzalle azkarra.
Ama Euskera eskribatzeko
askotatikan bakarra.

Bai! Makiña bat seme dijuaz
Euskal Erritikan orla,
beti-betiko biar ziranak
Jaunak ematen ditula;
gaur euskaldunak negarrez gaudez
zer gerta dan dakigula,
biyotzetikan triste esanaz:
«Ill da On Ramon Artola!».

Kaetano S. Irure

Donostiyan Aboztuaren 21-an 1906-an

Oroitza On Ramon Artola zanari

Ai, Jaungoikua,
zertan diguzu zugan eraman
guk biar gendun gizon prestua?
Zertan ez dezu luza arazi
aren petxuko arnas estua?
Ta ez jarri arren buru argiya
txorabiyuak oso nastua,
izandu izan bazan bezela
esker gabia eta gaiztua.

Nekutzen etzan izkribalari,
doai aundiko argitasuna.
iñor bada bat euskerangatik
au da emana bere osasuna;
biyotz zabala, banaturikan
alde danetan leialtasuna,
nori ez diyo pena emango
On Ramon zana mundutik juana!

Nork etzituen On Ramon zanen
lan txit argiyak irakurritu?
Nork ez du bere ipuiarekin
entzun orduko oso arritu?
Ill da ta gure biyotz guziyak
bat-batian ditu eritu,
mundutik joan dan aren ordaña
iñola ezin degu berritu.

Koroi batekin inguratzen naiz,
negargarriya, zure obira,
ta gaur ixurtzen zaizkitan malko
senduak danak zuretzat dira.
Zer naigabezko mintsutasuna
gaur sortu zaigun Euskal Errira,
non ez duten nai lengo gozamen
alaigarriyak osterera jira!

Ramon Gelbenzu Donostiyan Abuztuaren 21-an 1906-an
La Voz de Guipúzcoa, 1906-VIII-22 *Euskal-Erria*, 1906

**On Ramon Artola zanari
oroitza!**

Biyotzetikan pisutasuna,
begiyetatik malkua,
sentimengizko naigabe miñak
eziñ gorderik kolkua,
zulatzen nauben bezela arantzak
gorputz malastutakua,
luma artuta iskribatzeko
eskuban falta alga!

Jaiotzetikan ill arteraño
indartu naiaz euskera,
lan da lan zere bizi guztiyan
aldiz gelditu etzera;
gazte ziñala, lore-xort antzez
estaltzen Sari-bandera,
zartu ondoren zere eskolaz
gaztiak aurreratzer.

Negarritzaz ni, negarrez nor ez?
Negarrez erri osua,
kupitasungo mantu illuna
edoiak eziñ jasua;
leio tarteko zingiratikan
izarrak dizdira sua,
argitu naiez ill dan oi bertan
gorputza zegon maisua!...

Berez diruri zai zaundezela
euskal festa egiñ artian.
zere lagun zan Bilintx maitien
onraz aurtengo urtian,
orruz dizula berak zerutik:
«Atoz nerekin batian,
orko nekiak sosegatzera
betiko biyok pakian!».

Euskaldun aundi argidotarra,
ipuilaritzan bakarra,
zere egintzak pariatzeko
agertu dana da narra;
berak moldinzkiratzeko eskax
egi paper da zillarra,
baizik urrezko letraz biar da
perlazko libru gallarra.

Jose Ganboa

On Ramon Artola eta Larrañaga ill da!

Amets bat dala iruditzen zait,
eziñ kendu det burutik
ill zeradela, eta malkuak
erortzen zaizkit begitik;
gizon aundi bat eraman zaitu
Jaunak mundu onetatik.
Agur, Artola, gure maisuba!
Agur biyotzen erditik!

.....
Zu zeruan ta gu lurrian,
zein dago leku obian?

Felipe Kasal eta Otegik

Donostiyen Aboztuaren 21-an 1906-an.

Oroimena

Ariyo, On Ramon,
eta ez betiko,
zure izatez sekulan
ez gera aztuko.

Jose M. Arrieta

On Ramon Artola eta Larrañaga zanari

Arranotzarrak txito txikiya
garaitzen duben moduan,
eramaten du txoriyak arto-
-ale oriya mokuan.
Ala eraman zaitu zu ere
eriotza beltzak gaurkuan!...
Artu zaitzala Jaunak goi-goian
betiko bere kolkuan,

ona izandu zeradelako
len ta illtzeko orduan!
Ala gerta dedilla.

Juan Ignazio Uranga
Donostiyan Abuztuaren 21-an 1906

On Ramon Artola eta Larrañaga

Euskaldun danak penatuz utzi dituzu
mundu triste eta penagarri ontan,
zergatik joan zaioten maisu ona
eta alaikirotsua ordu denetan;
orregatik danak desio dizugu
txit barrundik eta benetan
gozamen asko pasatutzia
aingeru tartian zeruetan.

Jose Berra
Donostiyan

Ramon Artola eta Larrañaga

Euskal Erri guzia,
beltzez jantzirikan,
dago egun abetan
penaz beterikan,
ikusirik joan dala
mundu ontatikan,
eta saia bakoitzak
bere aldetikan,
izkribalari Ramon
Artolagaitikan.

Zer dezu, Donostiya?
Zer, Euskal Erriya?
Negar malkoz beterik
daukazu begi ya?
Eta erantzuten du
tristuraz beti ya,
malkoz estalirikan
bere arpegi ya:
«Il da Ramon Artola
izkribalari ya!».

«Il da!» esaten dute
baso ta mendiyak,
«Il da!» kantatzen dute
goizero txoriyak;
eta euskal jendiak,
ori ikusiyak,
negar malkoz dituzte
betetzen begiyak.

Saia, bada, jendia,
salbazio billa,
argitan jarririkan
bere gorputz illa;
euskaldun Artolaren
anima umilla
Jesusen eskuetan
gertatu dedilla,
baldin konbeni bada
ala izan dedilla!

Florentzio Abarrategi
Mondragón
El Pueblo Vasco, 1906-VIII-31

Orra!

Nere adiskide maite
On Ramon Artola
paperetan letu det
illa dagola;
sinisten det zerubak
deituko ziyola,
jakiñik aingeru bat
falta zitzaiola.
Agur, maisu ona,
gure letren onra,
igo zera gora
lagunen ondora;
zutzaz Euskalerrriya
oroituko da.

Pedro Maria Otaño
La Baskonia, 1906-X-10

Garai artan Pedro Maria Otaño Ameriketara zana, eta *La Baskonia* aldizkari
ori Buenos Aires-en agertzen zana. Bera andik lau urtera ilko zana, 1910 urtean.

Ramon Artola
nere adiskide itz neurtzalliarri auxe
(Azkeneko indar-neurtzeetan *Aldaera* irabaziya).

Goititu nairik euskaldun on bat
jasuaz beraren itzak,
beraren euskal ipui xamurrak,
bere kantu ta neurtitzak...
Baña nik nola indar gaberik
jo ta zatitu arkaitzak?
Nola euskaldun maitati oni
nola nik jaso garaitzak,
ez banau opa argi apur bat
lur zeken legor zurkaitzak?

Egunsentiya, Illunabarra,
kantatxo xamurrak guztiz,
añ bikañak ta añ ospatsuak
nola betiak itz eztiz;
bai kantatu're biltokiyetan
plazan, kalia, bost aldiz,
ta zenbat eta geigo txalotu
danak otsaera aundiz,
deia artara oartu gabe
ezkututzen zan modestiz.

Nik baneukake Jaunak zerutik
zabaltzen duen almena,
nik baneukake doai pitin bat
berak bigaltzen duena,
nik kantatuko nuke balleran,
mendi guziyak barrena,
jakin dezaten, euskaldunetan
ez baldin bazan aurrena,
zala biyotzez, zala animaz,
neretzat euskaldunena.

Zer esango det ipui egoki
ospatsuagatikan, zer,
ontasuna ta argi-bidea
ez badu besterik ezer?
Goiz eguzkiyak jotako lora
bezela bikaiñ ta eder,
irakurritzen dira eskolan
ogei eta eun bider,
eta etsaiak oiek ill baño
lenago egingo du ler.

O biyotzeko Euskal Amari
añ amoriyoz, añ legun
kantatzen ziyon gozabeterik
goguan artu zitzagun;
orrenxengatik bere oroitzan
itz bi argira ditzagun,
euskaldun danok onraz beterik
artubaz zeruba lagun,
ondo merezi zituen eta
apur bat altxa dezagun.

Kantatzen ziyon ainbeste maite
zuen aritz zar-zarrari,
añ amoriyoz biyotzetikan
adoratutzen zanari;
kantatzen ziyon antziñetako
lege on santu aieri,
nola Okendo, nola Txurruka
eta Aizkibel jaunari,
irabaziyaz onra ederra
eta gañera bi sari.

Euskal lurreko seme leiala
geldi ez dediyen bakar,
itzaldi onek argiratuaz
bere bideak badakar;
tinke ta sendo oju batera
danok batu gaiten alkar,
nola neguak bere ondoren
era atsegiña dakar,
guk ere ala jaso dezagun
gozabetetzeko azkar.

Ez ikaratu, atozte ariñ
astindurikan izuak,
nola murmurka irristan jaixten
diraden errekatxuak;
atozte laister, naiz zeru goia
nabartu odoi pisuak,
danak presaka igesko dira
ta gero ezkutatuak,
agurkatuko gaitu par antzan
eguzki urrezatuak.

Zu izan zera, Artola jauna,
bertsolariyen besua,
zeñek arrazoiz deitzen zizuten
kantariyaren maisua;
ziñan beraren giyariya ta
ziñan pozezko ojua,
lagun atsegiñ txit modestiya,
guziyen anai dontsua,
gizon maitati etsai gabia,
euskaldun prestu-prestua.

Jasoko zaitu besteren batek
nik baña taju obian,
zeren egite biarreko au
utzi aztu ez derian;
jaso zaitzala al dan goiena
euskalzalien artian,
ez det eskatzen ipintzerikan
gizon dontsuen gañian,
baizik nai nuke altxatutzia
merezi dezun añian.

Biktoriano Iraola
Euskal Erria, 1907, I

**Nere aita maite zanari
oroitza
Jose Artola-k**

Lau urte dira izan
zala eriotza,
arrezkero mindurik
dabilkit biyotza;
egunero egiten det
zerura otoitza,
ez aztutzeagatik
aitaren oroitza.

Beraren inguruan
pozkidaz nitzala,
arren errañua zan
pozezko itzala;
Agoztuen ogeia!,
fedetsu il zala,
Jaunak bere lan onak
Beragan ditzala.

Otoitz ta pentsamentu
sorta bat zerura
eskeintzen det biyotzez
aingeru modura;
bereziya izan dediñ
nere aita ura,
zeru-lurren Egille
dontsuen tronura!

Euskal Erria, 1910, II

Malkoak Artola zanarengatik
Kaietano S. Irurek

Lau urte orain dira
Artola il zala,
edo gure ondotik
zerura joan zala;
iñoiz goian azaltzen
da bere itzala,
diruriyela andik
zerbait ari dala.

Artola il zan bañan
bizi da oroitzza,
mugi azten dubena
askoren biyotza;
ez da emen aztuko
bere eriotza,
eta apenas ere
Tolosan jaiotza.

Ipui kontari Ramon
ari da zeruban,
Ama Euskera beti
daukala aboan;
bada aingerutxoak
arturik onduban,
esanaz milla gauza
pasiak munduban.

Berriz ere guziyok
gaur egin negarra,
esanaz: «Ai, Artola,
buruz txit azkarra!
Euskal Errian dago,
bai, zure biarra,
atoz zerubetatik
o gure izarra!»

Euskal Erria, 1910, II, 165 or.

Nere aita maite biyotzekoari
Rosario Artolak

Agur, aitatxo maite-maitea,
biyotzez zaitut agurtzen,
egi-egiyaz gau eta egun
etzaitut bada aztutzen;
zuk utzitako ustasunikan
ez dit ezertxok betetzen,
nere begiko malko samiñak
ez dira bada legortzen.

Ona ziñan ta gaur zeruetan
egongo zera gozaten,
aingerutxoen kanta politak
dituzula, bai, aditzen;
ez det merezi, bañan Jaunari
diyot bada erregutzen:
zure onduan leku txiki bat
ote diran aukeratzen.

Euskal Erria, 1910, II.

Eziñ azturik beñere
Ramon Artola
Jose Zampirain Iraztorza-k

Ill onetako ogei egunaz
izango dira lau urte,
zeren azpiko lur bikañeko
beste mundu ortan zaude;
beti ta beti gu emendikan
zutzaz oroitzen gerade,
urte askoko lagun maitez
eziñ aztu naiz beñere,
zenbait lan eder egiña zaude
gure euskeraren alde.

Ramon Artola zan aren itza
goitatuba dago beti,
pelotariyen kanta politak
ondo zenituben jarri;
partidutxo bat jokatzen giñan
plaza xarrian zu ta ni,
geroztik kanta polita oiek
entzuten dirade ongi,
biyotzan erdi-erdiyan sartzen
baizaio jende denari.

Euskal Erria, 1910, II

Frantzisko Artola Larrañaga

Frantzisko Artola Larrañaga Ramon Artolaren anaia zan.

Aren bertso-sail bat ere ezagutzen degu. Emen eskeintzen degu, anaiaren bertso-bildumaren barruan.

Fueroak

1

Adierazo nai det
izketa klaroan
euskera ta fueroak
noiztik nola diran;
aspalditik neukan
jarria buruan
Iputzen onerako
egingo ote nuan.

2

Noeren familiko
Tubal zeritzona,
Armeniatik onera
zitzaigun aurrena;
arengatikan degu
izkuntz aiñ ederra,
zarragorikan ez dan
maitatsu euskera.

3

Ejipzio, kaldeo,
hebreo, griegoak,
kartajines, romano,
alano, sueboak,
bandalo, godo, arabe
eta sarrazenoak
Españira zituzten
txit gerra gaiztoak.

4

Emengo mutillaren
koraje firmeak
Españiatik bota
zitun erejeak;
eta maite gaituzte
gure erregeak,
merezi bezelaxe
euskaldun jendeak.

5

Ez da zer duda egin:
gu gera aurrenak,
Portugaldik Frantzira
denetan zarrenak;
Jafeten bostgarren seme
Tubal onarenak,
Españien asiera
eman genduenak.

6

Noizetikakoa dan
gure izatea,
ez da posible orain
nik esplikatzea;
saiatu naiz alegin
ori billatzea,
alferrik izandu da
nere nekatzea.

7

Libre bizitu ziran
republika onetan,
iñoren mende gabe
lenengo urtetan;
milla eta eun da
ogei ta irutan,
nafarrakin aurrena
adiskidetu zan.

8

Ala segitu zuten
alditxo batean,
asarrez apartatu
ziraden artean,
ezin konpondurikan
bear zan pakean,
milla eta berreun-
garrengo urtean.

9

Gerra besterik ez zan
denbora aietan,
eta pentsatu zuten
estadu onetan,
laguntza izateko
estutasunetan,
bear zala unitu
euskaldun jendetan.

10

Alfonso zortzigarren
zori onekoak
beregana ginduzen
gipuzkoanoak,
agintzen zizkigula
ginduzen fueroak,
errege maitagarri
Kastilletakoak.

11

Oek guztiak ziran
tratu itzezkoak,
ala segitu zuten
denbora artakoak,
gordez osotoro
alegin fueroak,
gure gobernatzalle
probintziakoak.

12

Emengo alkateak
bildurik Tolosan,
eskribi zitezela
denak agindu zan;
bai eta egin ere
al zuten prestezan,
probintziak kalterik
izandu ez zezan.

13

Milla irureun ta
ogei ta amabost zan,
alkateak bilduba
gure erri Tolosan;
eta eskribiturik
urte artan bertan,
erregeri eramana
aprobatu zitzan.

14

Enrike bigarrena
zegoan Tronoan,
Abendu-illak ogei
zituen orduan;
konfirmatu zizkigun
bear zan moduan,
merezia dezala
gozatu zeruan.

15

Ez da bada dudarik,
len ere baziran,
bestela konfirmatzen
ariko ez ziran;
askotan ibilli dira
jira eta biran,
gorde dituzteneko
gizonak baziran.

16

Unio on bat bear da
elkarren artean,
erriak aurreratu
oi dute lanean;
eta gerrarik balitz
noizbait ondorean,
españolak gerade
guztien gañean.

17

Ez beldurrikan izan,
euskaldun jendea,
gordea degu ongi
fueroen legea;
erregiña daukagu
eziñik ohea,
maite gaituen Ama
parerik gabea.

18

Obligazioz da eta
joan bear gerrara,
lege maitegarriak
gordeko balira;
Tanjerrren ipiñirik
español bandera,
denbora labur barru
etxerako gera.

19

O soberana eder,
pobrearen Ama,
kontentuz beterikan
gaude gu zugana;
ongi merezi dezu
daukazun fama,
Jaunak eman deizula
zuri osasuna.

20

Biba Euskal Erri ta
biba Erregiña,
elkarri laguntzera
egin alegiña;
noizbait kanpotarretaz
estutzen baziña,
emen daukazu jende
erne eta fiña.

Bertso-sail au, Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jasotako bertso-pa-
per batetik degu

Paper orrek ez du egille-izenik, eta ez moldiztegiarenik ere.

Afrikako leenengo gerra-denborakoa (1859-1860) dala 18-garren bertsoak
esaten digu:

Tanjerrren ipiñirik
español bandera...

Bigarren argitalpena, guk ezagutzen ditugunetan, J. J. Santestebanen *Co-lección de Aires Vascongados* izeneko kanta-bilduman egindakoa izango da. Onek, izenburuaren azpian, onela dio: *Letra de F. A. Tolosa*. Doiñua ere badu, kanturako eta pianorako, eta urrengo orrialdeetan eskeiñiko degu.

Irugarren argitalpena: Etxeberria eta Gimón: *Ecos de Vasconia* kanta-bilduma. Bertsoak norenak diran adierazteko onela dio: *Poesía de F. A. Tolosa*. Doiñua ere badu, kanturako eta pianorako. Baiña kanturakoa, Santestebanek dakarrena; eta pianorako, beste armonizazio bat. Au ere urrengo orrialdeetan aurkituko du irakurleak.

Laugarren argitalpena, *La Vasconia*, 1897-VIII-30. Baiña leenengoa bertsoa eta doiñua bakarrik.

Bostgarren argitalpena, *Auspoa*-ren 129 zenbakian egin genduan. *Afrika'ko gerra (1859-1869)* liburu orren izenburua. Bertan adierazten danez, euskal jendearen gogoia gerra orren alde jarri nairik moldatutako bertsoak dira onako auek.

F.A. Tolosa oni, *Frantzisko Artola* izango dala uste degu, *Larrañaga* bigarren abizena eta *Tolosan* jaioa. Bertso-sail au orregatik eskeintzen degu liburu ontan.

FUEROAC.

Letra de F. A. TOLOSA.

Tempo di Zortzico.

PIANO. *p cresc.*

ss *p* *f*

A - di - e - ra - so nai - det iz - que - ta cla - ro - an

Detailed description: The image shows a musical score for the piece 'FUEROAC.' by F. A. Tolosa. It consists of three systems of music. The first system is a piano introduction marked 'PIANO.' and 'Tempo di Zortzico.', with a dynamic marking of 'p cresc.'. The second system is a piano accompaniment with dynamic markings 'ss', 'p', and 'f'. The third system features a vocal melody with the lyrics 'A - di - e - ra - so nai - det iz - que - ta cla - ro - an' and a piano accompaniment.

ens - que - ra ta fue - ro - ac noiz - dic no - la di -

ran: As - pal - di - tie ne - u - can

ja - rri - ya bu - ru - ban Y - pu - tzen o - ne -

-ra - co r - guin - go ote nu an.

Paris, Imp: V^o DINQUERL, rue S^t Honoré 276.

FUEROAC.

Adierazo nai del izqueta claroan, eusquera ta fueroac noiztic nola diran: aspalditic neucan jarria buruan, lputzen oneraco eguingo otenuan.

Noeren familico Tubal ceritzona, Armeniatic onera citzaigun aurrena: arengatican degu izantz aih ederra, zarragorican ez dan maitasu eusquera.

Egipcio, Caldeo, Hebreo, Griegoac, Cartagines, Romano, Alano, Sueboac; Vandalu, Godu, Arabe, eta Sarracenoac, Españira cituzten chit guerra gaistoac.

Emengo mutillaren corage firmeac, Españiatic bota citun erregeac: eta maite gaituzte gure erregeac, mereci becelashe euscaldun gendeac.

Ezda cer duda eguin gu guera aurocnac, Portugaldic Francira denetan zarrenac: Jafeten hostgarren seme Tubal onarenac, Españien asiera eman guenduenac.

Noizeticacoa dan gure izatea, ez da posible orain nic esplicitzea; sayatu naiz aleguin ori billatzea, alferric izandu da nere necatzea.

Libre vicitu ciran republica onetan, inoren me. de gabe lenengo urtetan: milla eta eun da oguei ta irutan, nafarraquin aurrena adisquidetu zan.

Ala seguitu zuten aldicho batean, asarres apartatu ciraden artean: ecin compondurican bear zan paquean, milla eta berreun garrenge urtean

Guerra besteric ez zan dembora ayetan, eta pensatu zuten estadu onetan: laguntza izalaco estutasunetan, bear zala unit i erdaldun geudetan.

Alfonso zortizigarren zori onecoac, beregana guinduzen Guipuzcoanoac: aguintzen cizquigula guinducen fueroac, erregeue maitagarri Castilletac oac

Oec gustiyac ciran tratu ilzezcoac, ala seguitu zuten dembora artacoac: gordeaz osotora aleguin fueroac, gure gobernatzalle provinciacoa.

Emengo alcateac bilduric Tolosan, escribi citezela denac aguintu zan: bai eta eguin ere alzuten prestezan, provinciac calteric izandu ez cezan.

Milla irureun ta ognei ta anabost zan, alcateac bilduba gure erri Tolosan: eta escribituric urte artan bertan, erregeri eramana aprobatu citan.

Enrique bigarren a cegoen Tronoan, Abendu illac oguei cituen orduan: confirmatu cizquigun bear zan moduan, merencia dezala gozatu ceruan.

Ez da hada dudacic lon ere baciran, bestela confirmatzen arico ez ciran: ascotan ibilli dira, gira eta biran, gorde dituzteneco guizonac baciran.

Unio on bat bear da elcarren artean, erriac aurreratu oidute lanean: eta guerrarie balitz noiz bait ondorean, espagnolac guerade gustien ganean.

Ez beldurric izan, euscaldun gendea; gordea degu ongui fueroen leguea: erregeuina daucagu ezinific ohea, maite gaituen ama pareric gabea.

Obligacioz da eta joan bear guerrara, legue maite garriac gordeco badira: Tangerren ipitiric espagnol bandera, dembora labur barru echeraco guera.

Oli soberana eder pobrearen ama, contentuz beterican gaudu gu zagana: ongui mereci dezu daucazu fama, Jaunac eman deizula zari osasuna,

Viva euscal erria ta viva erregeuina, elcarri laguntzera eguin aleguina: noiz bait campotzarretac estutzen haciña, emen daucazu gende erne eta fina.

Nº24.

Fueroac.

Zortzico.

Música de XXX

Poesia de F. A. Tolosa.

The first system of the musical score consists of a vocal line and a piano accompaniment. The vocal line begins with a whole rest, followed by the lyrics "A - di - e - ra - zo". The piano accompaniment starts with a forte (*ff*) dynamic, then transitions to a piano (*p*) dynamic. The key signature is one sharp (F#) and the time signature is 3/8.

The second system of the musical score continues the vocal line and piano accompaniment. The vocal line contains the lyrics "nai - det iz - que - ta cla - ro - an ens - ke - ra ta fue - ro - ac". The piano accompaniment continues with various chords and melodic lines.

The third system of the musical score continues the vocal line and piano accompaniment. The vocal line contains the lyrics "noiz - tic no - la di - ran. As - pal - di - tic ne - u - can ja - rri - a bu - ru -". The piano accompaniment continues with various chords and melodic lines.

The fourth system of the musical score continues the vocal line and piano accompaniment. The vocal line contains the lyrics "han i - pu - tzen o - ne - ra - co e - guin - go ote - nu - an." The piano accompaniment continues with various chords and melodic lines.

A. Diaz y Cia editores San Sebastian.

<p>2. Noeren famillico Tubal ceritzona, Armeniatio onera citzaigun aurrena: arengatican degu izcuntz aih ederra, zarragorican ez dan maitatsu euskera.</p>	<p>6. Noiceticacoo dan gure izatea, ez da posible orain nic esplicatzea; sayatu naiz aleguñ ori billatzea, alferrie izandu da nere necatzea.</p>	<p>10. Alfonso zortzigarren zori onecoac, beregana guinduzen Guipuzcoanoac: aguintzen cizquigula guinduzen fueroac. Erregue maitagarri Castilletac oac.</p>	<p>14. Enrique bigarrena cegoen Tronoan, Abendu illac oguei cituen orduan: confirmatu cizquigun bear zan moduan, merecia dezala gozatu ceruan.</p>
<p>3. Egipcio, Galdeo, Hebreo, Griegoac, Cartagines, Romano, Alano, Sueboac; Vandalo, Godo, Arabe, eta Sarracenoac, Españira cituzten chit guerra gaistoac.</p>	<p>7. Libre vicitu ciran republica onetan, ihoren mende gabe lenengo urtetan: milla eta eun da oguei ta irutan, nafarraquin aurrena adiskuldetu zan.</p>	<p>11. Oec gustiyac ciran tratu itzezoac, ala seguitu zuten dembora artacoac: gordeaz osotero aleguñ fueroac, gure gobernatzalle provinciacoo.</p>	<p>15. Ez da bada dudario len ere baciran, bestela confirmatzen arico ez ciran: ascotan ibilli dira, gira eta biran, gorde dituzteneco guizonac baciran.</p>
<p>4. Emengo mutillaren corage firmeac, Españiatio bota cituen erregeac: eta maite gaituzte gure erregeac, merci becelashe euskaldun gendeac.</p>	<p>8. Ala seguitu zuten aldicho batean, asarres apartatu ciraden artean: ecin compondurican bear zan paquean, milla eta berreun garrengo urtean.</p>	<p>12. Emengo alcateac bilduric Tolosan, escribi citezela denac aguintu zan: bai eta eguñ ere alzuten prestezan, provinciac calteric izandu ez cezan.</p>	<p>16. Unio on bat bear ta elcarren artean, erriac aurreratu oidute lanean: eta guerrario balitz noiz bait ondorean, españolac guerade gustien ganean.</p>
<p>5. Ezda cer duda eguin gu guerra aurrenac, Portugaldic Francira denetan zarrenac: Jafeten bostgarren seme Tubal onarenac, Españien asiera eman guenduenac.</p>	<p>9. Guerra besteric ez zan dembora ayetan, eta pensatu zuten estadu onetan: laguntza izateco estutasunetan, bear zala unitu euskaldun gendetan.</p>	<p>13. Milla irureun ta oguei ta amabost zan, alcateac bilduba gure erri Tolosan: eta esribituric urte artan bertan, erregueri eramana aprobatu citzan.</p>	<p>17. Ez beldurric izan, euskaldun gendea; gordea degu ongui fueroen leguea: erreguña dacagu eziñic ohea, maite gaituen ama pareric gabea.</p>
<p>18. Obligacioz da eta joan bear guerrara, legue maite garriac gordeco badira: Tangerren ipiñiric español bandera, dembora labur barru echeraco guera.</p>	<p>19. Oh soberana eder jobrearen ama, contentuz beterican gaute gu zugana: ongui mercei dezu daucazun fama, Jaunac eman dezula zuri osasuna.</p>	<p>20. Viva euskal-erria ta viva erreguña, elcarri laguntzera eguin aleguña: noiz bait campotarretaz estutzen baciña, emen daucazu gende erne eta fiña.</p>	

Arkibidea

Ramon Artola Larrañaga (1831-1906)	7
Zenbait argibide	9
Sagardoari	17
Joxeren eta Pantxikaren erromeriya	20
Pillotariyak	22
Pepita	26
Erariyaren bertuteak	27
Maitagarriyari	32
Maitagarriyari	37
Aldamar jaunari	39
On Joakin Aldamar jaunaren lurreratzeari	41
Oxaba pillotan	45
Joxeren subak Donostiyan	48
Illtzeko zezenak	50
Artzai-kanta	52
Tximutxak eta ni	53
Gerrako erituen onekindorako	56
Inesentzat itz neurtu berriyak	57
Pakea bear degu	62
Amorioa eta penak	66
Arbolari	69
Kaja polit onetan	70
Oroitz bat Bilintxi	71
Jonas eta Ana	72
Erdaldun baten zaldiyari	73
Argi-bideak	74

Altabizkarko kantua	76
Zerura begira	79
Txomin irutxulotarra bere erriyan	80
Egun-sentia	82
Illunabarra	85
D. Pedro Calderón de la Barca-ren onorean kantatxoa	90
Uda-berria	93
Uda	95
Jose Maria Zubia, Mari zeritzon gizon onoretsuaren oroitzan kantatxoa	97
Eguzkiyaren jaikiera	100
Nere ametsak	103
Arranoa eta belea	105
O Euskal Erri maitea!	107
Indalezio Bizkarrondo	113
Erriko xeme irutxulotarra	116
Jose-Maritarra	119
Erriko xeme donostiarra	120
Donostiako baratzagilleak	121
«Ama Euskerak galdu du seme...»	123
Itziarko Ama Birjiñari	124
Easoar argidotarrak	128
Donostiako Iñoiteriaren oroitza	132
Erriotxoa bere bidean	135
Uda-azkena	137
Abbadie jaunari euskariarrak zor diogun eskerra	138
Neguba	141
Ama Birjiña Begoñakoari	142
Donostiya	146
Okendo	152
Eskutitz bat Eleizaren Buruari	153

Irutxulo zarreko eleizatxo berriya	155
Eleiza berri Donostiakorentzat	156
Urrutiko intxaurrak	157
Eguzkiyaren sarrera	162
Aotik aora	164
Koroitxo bat Iparragirre urretxuarrari	165
Donostiari	168
Aita Larramendiari oroimentxo bat	169
Bibliako pasartea iru kantetan	170
On Klaudio Otaegi zanari oroimena	178
On Pedro Nobia Salcedo-koari oroimen bat	179
Bertsoak eta pintura	180
Martin, berak paratako estroparako kantak saltzen	181
Meltxor bertso-saltzallea	184
Moro kontuba	188
Konsuegra-ko negarra	190
Abe zarrari malko bi	192
Onentzaro gaba	194
Martin Itzontzi eta Inazio Egi-jariyo	195
Uda	198
Abuztua Donostiyari	199
A zer pintatzallea!	200
Neguba	201
On Kaietano Sanchez euskera zaleari	202
Tolosan festak	203
Aritz santua!	204
Erregearen Donostiarako etorrera	205
Kanpoko bititza	206
Nere alaba Rosariori eguzkiaren jaiekian	208
Itzbidaariari	209
Itz neurtuak	210

Sagardoari	213
Gloria Okendori	214
Familia errealaren Donostiarako etorrera	216
Gernikan, arbola zarraren oñean	217
Udaberria	219
Euskalzale zuzendari abade leial On Resurrezion Maria	
Azkue-koari	221
Donostiyako bonberuak	222
Ur zale bat	224
Eguzkiaren sarrera	225
Gurutze santu Lezokoari	226
Balio aundiko soldaduari	227
Dugiols zanarentzako	228
Malkozko oroimena!	230
Orain brontzez apaindu dan itxas-gizon Joxe-Mari	
zanari	233
Endaiako Biltzarkidariai gure izkuntza maitagarriagatik	234
Illunabarra	235
Fueroaren galera da Euskal Erriyaren betiko negarra	236
Oroimena On Marzelino Soroa zanari	238
Napar zezen batek plazako azken jolasak	239
Ondarrabiako biltzarkidari	242
Egunsentiya	243
Gurutzearen garaitondoa	244
Aita Leon amairugarrenari	246
Erriko xeme donostiarra	247
Aita Andres Urdanetari	248
Oroimena. On Antonio Arzak ezkutatu da!	250
Juan Zala-ren gertaerak	251
Ama Birjiña Kontzeziokoari	252
Nere bartko ametsa / Jesusen jaiotza	254

Donostiako Orfeoiaren garaitondoa edo triunfoa	256
Donostiyako zubi berriyari	257
Maiatzeko Loreen eskeintzea Ama Maria Santari	259
Cervantes	261
Bertsoak eta loreak	262
San Juan arratsaldea Tolosan	264
Nere antzezta edo erretratua	265
Egunsentiko izar eder	267
Bertsoak eta loriak / Donostiyako jardinzaiak baratzan. .	269
Nere ametsak	271
Itzaurrea	
I Globoan mundubaren jiran	275
II Itxasoz munduaren azken punta billa	276
III Egun bi illargiyan	278
IV Itxaspe ontziya balearen tripan	280
V Afrikako karabinero jigantia	281
VI Itxasoan zezenen korrida	283
VII Mundubaren beste alderdiko pelotariyak	284
VIII Norteko Polorako joanera	286
IX Mundu Berriyan musikaren billera edo konkurtsoa .	287
X Sei egun balearen barrenean	289
XI Globoan Amerikara	291
XII Ibillera bat urpe-ontzi submarinoan	292
XIII Mundubari gain batetik begira	294
XIV Nere ametsak / Mundubaren azken puntako berriyak	296
Gipuzkoako Probintziaren kondaira laster bat	
Oarra	301
Agerkaitxoa	302
Gipuzkoaren kondaira	303
Norteko zenbait jende arrotzen eraso eta godoaren . . .	303

aginpe aldia	305
Araberen aginte aldia	306
Karlomagnoaren deseigoa edo derrota	307
Milla ta berreun urtetandik milla ta irureun da berrogei ta amarrerañon	308
Milla ta irureun da larogei ta amarretik milla ta lareun da irurogei ta amalauraño	311
Milla ta lareun da irurogei ta amalau urtetatik milla ta bost eun da amasdeirañon	312
Milla ta bosteun da amasei urtetatik milla ta bosteun da larogei ta emezortzirañon	313
Milla ta bosteun da larogei ta emezortzi urtetatik milla ta zortzireun da zortzitarrañon	316
Milla ta zortzireun da zortzi urtetatik milla ta zortzireun da ogeirañon	320
Milla ta zortzireun da ogei urtetatik milla ta zortzireun da ogei ta amairurañon	324
Milla ta zortzireun da ogei ta amairu urtetatik milla ta zortzireun da irurogeiraño	325

Ramon Artolaren omenez

Oar bat	337
<i>Artola</i>	338
Ramón Artola	343
Ez! Ezta aztuko	344
<i>En la muerte del poeta vasco Ramón Artola</i>	345
Goien bego, bego!	346
On Ramon Artola eta Larrañagari il ondoren	346
Egiñ negar!!	347
Oroitza	347
On Ramon Artola zanari oroitza!	348

On Ramon Artola eta Larrañaga ill da!	349
Oroimena	349
On Ramon Artola eta Larrañaga zanari	349
On Ramon Artola eta Larrañaga	350
Ramon Artola eta Larrañaga	350
Orra!	351
Ramon Artola nere adiskide itz neurtzalliar auxe	352
Nere aita maite zanari oroitza	354
Malkoak Artola zanarengatik	355
Nerre aita maite biyotzekoari	355
Eziñ azturik beñere	356
Frantzisko Artola Larrañaga	
Fueroak	359

Auspoaren azken liburuak:

- 273 Emil Larre
Ene artzain etxolak
- 274 Joxe Mari Aranalde
Xalbadorren barruan
- 275 Joxemari Iriondo
J. Lizaso: nere aldiko kronika
- 276 Jose Insausti
Beti bertsoa buruan
- 277 Manuel Matxain
Uste gabean
- 278 Inozentzio Olea
Ostiraleko kronika I
- 279 Inozentzio Olea
Ostiraleko kronika II
- 280 "Ataño"
Markesgatak. Dirua jainko
- 281 Antonio Zavala
Estropadak bertsoan
- 282 J.M. Iriondo
Segi, Mugartegi
- 283 R. Iraola
Nañarriri begira
- 284 Ramon Artola
Sagardoaren graziya II

Ramon Artola Larrañaga (1831-1906) Tolosan jaio eta Donostian bizi eta il zan bertso-jartzaille ugaria degu. Beraren bertso-sorta edo antologia batek eman zion asiera *Auspoa* Liburutegiari, 1961 urtean eta *Sagardoaren graziya* izenburuarekin.

Gaur, berriz, beraren bertsoen bilduma osoa, edo aal dan osoena, eskeintzen degu. Baiña leenengo liburu artako bertsoak ere emen dijoazen ezkeru, izenburu berdiña ezarri diogu, bigarrena dala adieraziz.

Ramon Artolak ipui asko ere moldatu zituan bertsoan; erderazko *fábulas* alegia. Oiek 1995-an argitaratu zituan *Auspoa*-k, 227 eta 228 zenbakiarekin.

Bertso bikain, dotore, garbi eta errikoiak dira Artolarenak. Bilintxen laguna izanik, onen kutsu eta eskola zeukala dudarik ez da.

Euskal idazle-talde saiatua osatu zan Donostian, XIX mendearen bukaeran: Artolatarrak, Manterola, Iraola, Soroa, Arzak, Lopez-Alen, P. M. Otaño, Ganboa, Berroa, S. Irure, Kasal Otegi, Gelbenzu, Alzaga eta abar. Talde ori eta beraren lanak ez dira ezagutzen. Liburu au izan dedilla aiei diogun zorra kitatzeko aletxo bat.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Diputatu Nagusiaren Kabinetea. Kultura Zuzendaritza Nagusia
Gabinete del Diputado General. Dirección General de Cultura

ISBN 84-7907-292-X



9 788479 072926